

ARARTEKOAREN TXOSTENA  
EUSKO LEGEBILTZARRARI  
1993. URTEA

© ARARTEKO

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Estudios Gráficos ZURE, S.A.

Paper erreziklatua.

I.S.B.N.: 84-87122-54-X Liburu osoa.

L.G.: BI-736-94.



EUSKO LEGEBILTZARRARI  
TXOSTENA  
1993

# **AURKIBIDEA**

<b>I. ATALA. ARARTEKOAREN AURKEZPENA</b> .....	13
<b>II. ATALA. ARARTEKOAREN JARDUERA NAGUSIAK</b> .....	19
2.1. ERAKUNDEAREN EKINTZAK EGUNEZ EGUN.....	22
2.2. 1993-1994 URTEALDIRAKO BI LANKIDETZA BEKA BANATZEKO DEIALDIA.....	28
2.3. "PADRE FRANCISCO DE VITORIA" GIZA ESKUBIDEEN SAILA ETA BESTE ARGITALPEN BATZUK ABIARAZTEA ...	29
2.4. OFIZIOZKO JARDUERAK.....	30
2.5. OMBUDSMANAREN HIRUGARREN HITZALDI EUROPARRA	37
2.6. OMBUDSMANAREN INSTITUTU EUROPARRAREN BA- TZAR NAGUSIA.....	41
2.7. HERRI DEFENDATZAILEEN ARTEKO KOORDINAZIOARI BURUZKO VIII. JARDUNALDIAK .....	41
<b>III. ATALA. KEXEN LABURPENEA SAILEZ SAIL</b> .....	49
3.1. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURIS- MOA .....	51
A) Sarrera.....	51
B) Kexa aukeratuak .....	52
3.2. KULTURA ETA ELEBITASUNA .....	54
A) Sarrera .....	54
B) Kexa aukeratuak .....	56
3.3. HEZKUNTZA .....	59
A) Sarrera .....	59
B) Kexa aukeratuak .....	60
3.4. FUNTZIO PUBLIKOA ETA ADMINISTRAZIOAREN ANTOLA- KUNTZA .....	73
A) Sarrera .....	73
B) Kexa aukeratuak .....	74

3.5. OGASUNA.....	90
A) Sarrera .....	90
B) Kexa aukeratuak .....	91
3.6. HERRIZAINGOA .....	98
A) Sarrera .....	98
B) Kexa aukeratuak .....	99
3.7. JUSTIZIA .....	103
A) Sarrera .....	103
B) Kexa aukeratuak .....	104
3.8. INGURUGIROA.....	105
A) Sarrera .....	105
B) Kexa aukeratuak .....	106
3.9. HERRILANAK ETA ZERBITZUAK.....	113
A) Sarrera .....	113
B) Kexa aukeratuak .....	114
3.10. OSASUNA ETA GIZARTE ONGIZATEA .....	116
A) Sarrera .....	116
B) Kexa aukeratuak .....	118
3.11. LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA .....	126
A) Sarrera .....	126
B) Kexa aukeratuak .....	127
3.12. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA .....	129
A) Sarrera .....	129
B) Kexa aukeratuak .....	130
3.13. BESTE GESTIO BATZUK.....	138
A) Sarrera .....	138
B) Kexa aukeratuak .....	139
<b>IV. ATALA. ESTADISTIKA.....</b>	<b>141</b>
4.1. OHAR OROKORRAK.....	143
4.2. ESTADISTIKA SAILEZ SAIL.....	146
4.3. ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO ESTADISTIKA.....	148
4.4. LURRALDEEN ARABERAKO ESTADISTIKA.....	154
4.5. PROZEDURARI BURUZKO ESTADISTIKA.....	156

4.6. ESTADISTIKA SOZIOLOGIKOA.....	159
4.7. HIRITARRENTZAKO INFORMAZIO ZERBITZUA.....	160
4.8. DIAGRAMAK.....	166
<b>V. ATALA. ADMINISTRAZIOAREN SAIL BATZUEK ARGIBIDEAK EPE BARRUAN EZ EMATEARI EUSTEA .....</b>	<b>199</b>
5.1. ARARTEKOAK ESKATU INFORMAZIOA ESKURATZEKO, ERREKERIMENDU-IDATZIA BIDALI BEHAR IZAN ZAIEN ADMINISTRAZIO SAILAK.....	202
A) Eusko Jaurlaritza .....	202
B) Foru Diputazioak .....	203
C) Udalak.....	204
D) Bazkun-administrazioak.....	206
5.2. ARARTEKOAK ESKATU INFORMAZIOA ESKURATZEKO, ERREKERIMENDU-IDATZIA <i>BI BIDER BAINO GEHIAGOTAN</i> BIDALI BEHAR IZAN ZAIEN ADMINISTRAZIO SAILAK .....	207
A) Eusko Jaurlaritza .....	207
B) Udalak.....	208
5.3. ARARTEKOAREN EBAZPENARI ZER DERITZOTEN JAKITEARREN, ERREKERIMENDU-IDATZIA BIDALI BEHAR IZAN ZAIEN ADMINISTRAZIO SAILAK .....	209
A) Eusko Jaurlaritza .....	209
B) Foru Diputazioak .....	209
C) Udalak.....	209
<b>VI. ATALA. ARARTEKOAK EGINDAKO GOMENDIOAK BETETZEAZ.....</b>	<b>211</b>
A) Eusko Jaurlaritza .....	213
B) Foru Diputazioak .....	217
C) Udalak.....	218
<b>VII. ATALA. GOMENDIO ETA IRADOKIZUN OROKORRAK ..</b>	<b>225</b>
7.1. TRESNERIAREN KOSTUA ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREI BURUZKO ZERGAREN OINARRI EZARGARRIAN SARTZEA.....	227

7.2. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ZERBITZURAKO LANGI- LEAK HAUTATU ETA POSTUAK BETETZERAKOAN NAGUSITU BEHAR DUTEN PROZEDURA-BERMEAK, ETA FUNTZIO PUBLIKOAN ANTOLABIDE JAKIN BATZUK EZ ERABILTZEA .....	231
7.3. ATZERRITARRAK HERRIKO BIZTANLEEN ERROLDAN SARTZEA.....	236
7.4. BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN ERAIKUNTZ-AKATSEN ERANTZUKIZUNA .....	248
<b>VIII. ATALA. AZKEN ONDORIOAK .....</b>	<b>267</b>



I. ATALA

**ARARTEKOAREN AURKEZPENA**

*Iuramentuak ongi, zuzentki eta behar den bidean egina izaiteko, behar ditu hirur gauza, hirur lagun eta sostengu: egia, premia eta zuze-na.*

Axular, Gero (1643), XIX, 254. or.

Esku artean dugun 1993 txosten honek duen berezitasuna Ararteko Erakundearen lehen agintaldiko azken urtekoa izatea da.

Zertzelada hori dela eta, urteko analisiari beste atal bat ere erantsi diogu, jarduera-aldi osoaren ikuspegi orokorra jasotzen duena, hain zuzen ere.

Biotako lehenengoaren bitartez, aurreko urteetan bezalaxe, Erakundearen jardueren berri emango duen urteko txostena aurkeztu behar dela dioen lege-aginduari erantzun diogu.

Bigarrena, berriz, ez da berez ohizko txostena; aitzitik, Ararteko Erakundeak, gure lege eta politikako tradizioan berri den eta, euskal herritarren esku-bideak bermatu asmoz, erakundearen sarean estatutu-erakunde gisa sortu zenak jardunean emandako lehen bost urteei buruzko azterketa da.

1992 urtean buruturiko txostenean genioenez, ez ditugu inola ere ahaztu behar euskal herritarren eguneroko bizimodua eta agintari publikoekiko dituzten arazoak, nahiz hainbeste ospakizuneko urtea izan eta Europari begira itxaropen berriez beterikoa.

Urtebete iraganda, 1993an nabarmen da bost urteotan gertatu diren egoerak behin eta berriz gertatzen direla.

Horrela bada, iaz Funtzio Publiko eta Administrazio Antolakuntzaren arloa izan bazen, estrainekoz, kexa gehien sortarazi zuena, aurten ere halaxe izan da.

Herritarrek inoiz baino indar handiagoz eskatzen dute Funtzio Publikoko sarbide-arauak zehatz eta gardenak izan daitezela eta indarrean dagoen araudiari atxikitzen ez zaizkion jokabide bidegabeak ekidin daitezela.

Halaber, administratuak eskubideen benetako jabe diren aldetik, herri agintaritzari hori aintzat hartzea eskatzen diote harekin dituzten hartu-emantetan.

Horregatik bada, Arartekoak ahaleginak egiten ditu Administrazioak zerbitzu publiko kontzeptua bere egin dezan, hitzaren bete-beteko adieran.

Txostenean jarraibide baten arabera garatu eta arloka sailkatuta azaldu ditugu, alde batetik Arartekoaren eskuhartzea eragin duten kasuak, eta bestetik, egindako itaunei Administrazioak emandako erantzunak.

Ararteko Erakundearen ekintza hauek beti izaten dira legedian oinarritutakoak eta Administrazioak legezketasun-irizpidea betetzen duenentz aztertzea dute helburu. Dena den, gehientsuenetan gizatasunarekin zerikusi handia duten arazoak izaten direnez gero, ezin ahaztuko dugu erakunde honen jardueri hain loturik egon den ezaugarri gizazalea.

Aita Frantzisko Vitoriakoak dioenez:

Legeak betearazlea izan dadin behar du zuzen, bidezko, onartua, guztientzat berdina eta errepublikarentzat baliagarri, *coeteris paribus*, ez batarentzat zorrotz eta besterentzat nasai. (*Ad hoc quod lex obliget, oportet quod sit justa, honesta, tolerabilis, aequa et utilis respublicae, quod non gravet unum magis quam alium, coeteris paribus*).

Gizon jakintsu horren izena darama, hain zuzen ere, 1993 urtealdian argitaratzeari ekin diogun giza eskubideei buruzko ikerketa-bildumak. Bertan, giza eskubideei loturiko zenbait alderdi jorratzen dituzten monografia zein ikerlanak jaso ditugu.

Honaino iritsita, 1993.enean Ararteko Erakundeak aurrera eraman dituen bi ekintza nahi nituzke nabarmendu bereziki.

Lehenik eta behin, Adinekoen Europar Urtea eta Belaunaldien arteko Elkartasunarena izanik, Euskal Autonomi Elkarteko zaharren egoitzak zein egoeratan dauden aztertu berri du Arartekoak.

Ikusitakoaren arabera, Autonomi Elkartek, Arabak izan ezik, egoitza eta ordezko zerbitzuen aldetik duen eskaintza urriak izugarri kezkatu du Arartekoa.

Urritasun berorrek eraginda, ehun zaharretik hiruk baizik ezin dute egoitzetako laguntza izan eta hala, larriki ezinduak dauden zahar asko eta askok egoera tamalgarrian egon behar izaten dute etxean.

Arazo horren erantzukizuna ez da soil-soilik agintari publikoena; gizarteak berak ere badu zereginik konponbidea emateko garaian.

Zaharrak bertan behera uzten dituen gizartea, bazterten dituena, alderdi moraletik begiratuta gaiso dago, zinez gaiso.

1993. urtean Ararteko Erakundeak, erakunde gisa Autonomi Elkartean eta Europako bere kidekoen artean lortu duen sendotasuna da azpimarratu nahi genuen bigarren alderdia.

Eratat poztu gaitu, Arartekoak antolatuta, Gasteizen ospatu den Ombudsmanaren III. Hitzaldi Europarrak, are gehiago gogoan hartzen badugu herrialdeko ombudsmanaren garrantzia zela gai nagusi.

Europa Jauregian, izen ezin aproposagoa honelako ospakizunetarako, elkartu ziren Europa zaharrekko ombudsmanak; bai Eskandinaviako antzinako erakundeetakoek, bai jardunaldiak hasi baino hilabete batzuk lehenago eratuetatik etorritakoek, ordezkariak agerraldiari zegokion gaia eztabaidatu zuten.

Partehartzaileen ahotan entzundako hizkuntza ezberdinak Europaren antzitasunaren lekuko izan ziren, neronek erabili nuen euskara, zenbait italiarren jatorrizko hizkuntza zen alemaniera eta beste hainbeste. Horrek guztiak

Heideggerrek esandakoa dakarkigu gogora: "Gizakiaren izatea hizkuntzan datza".

Azkenik, hautatua izan nintzeneko agintaldia bukatzen den honetan, neure poza agertu nahi nuke euskal herritarren zerbitzurako jaio zen eta euskal herritarren baitan errotuta dagoen erakunde hau sendo eta irmo dagoela ikusten dudalako.

JUAN SAN MARTIN ORTIZ DE ZARATE  
ARARTEKOA

II. ATALA

**ARARTEKOAREN JARDUERA**

**NAGUSIAK**

Txosteneko atal honetan, ez dira aipatzen hiritarrek Arartekoari aurkeztutako kexen biderapen eta ebazpen jarduerari buruzko gorabeherak; aldiz, Erakundeak burutzen dituen beste era bateko harremanak jasotzen dira. Horregatik, lehenik jarduera-eremuak aipatuko ditugu, eta jarraian burututako ekintzarik aipagarrienak jasoko, guztien xehetasunak eman gabe.

Erakundeak joan den urtealdian izan zituen harremanak, elkarren artean oso lotuta dauden bi alor nagusiren arabera banatuko ditugu.

Bi alor horietako lehenengoan, kanpoarekin izandako harremanak jasotzen dira, bereziki zerbitzatu behar duen gizartearekin izandakoak; hiritarrekin ahalik eta harreman zabal eta irekienak lortu asmoz garatutako ekintzak jasoko dira, beraz, atal honetan.

Alor horretan, lehenik azpimarratu behar duguna, ahalik eta komunikabide gehienetan Erakundeari eta bere helburuei buruzko berriak zabaltzeko egin den ahalegin berezia da; izan ere, Arartekoaren lana eraginkorra gerta dadin, oso garrantzitsua da komunikabideen bitartez hiritarrei Erakundearen berri ematea. Horien artean aipatzekoa da irritati kate pribatu batean hilero egiten den saio berezi bat: hiritarrek hilean behin irratira deitu eta Erakundeko ordezkari bati galderak egin diezazkiokete. Bestalde, multzo horretan sartu behar dira irritati eta telebistetako hainbat programatan Erakundeko ordezkariak izan duten eskuhartzea ere, edo Ararteko Erakundeari bereziki dagozkion gaiei buruz (adibidez, giza eskubideak) idatzitako gogoeta-artikuluen argitalpena. Bestetik, Arartekoa gizartearengana hurbiltzeko ahalegin horretan, gizarte alor ezberdinetatik (unibertsitate, sindikatu, eta beste gizatalde batzuk) norbana-koek, taldeek edo erakundeek eskatuta egin diren elkarrizketak nahiz bilerak eta izan diren harremanak ere aipatu behar dira, Arartekoak, erakunde bizia izanik, hiritarren arazoetan murgildu behar duelako.

Arartekoak modu egokian jardun dezan, kexak ebazteko Administrazio publikoko erakunde ofizialekin ezezik, beste hainbat erakunderekin ere izan behar ditu harremanak.

Horrela, gainontzeko komunitate autonomoetako bere kideekin eta Estatu Herri Defendatzailearekin izandako harreman ez-formalez gain, Madrilen egin ziren Herri Defendatzaileen arteko Koordinaziorako VIII. Jardunaldiak azpimarratu behar dira.

Baina beste herri batzuetako ombudsmanekin izandako kanpo-harremannen barruan, oraindik laburra den Ararteko Erakundearen bizitzan pauso garrantzitsu bat eman da, Vitoria-Gasteiz hirian Ombudsmanaren Institutu Europarrak eta Ararteko Erakundeak berak antolatutako Ombudsmanaren III.

Hitzaldi Europarra egin da. Hiru egunetan zehar, gai nagusiarekin, hots, herrialdeko Ombudsmanarekin zerikusirik zuten hainbat gai aztertu ziren hitzaldi horretan.

Horrelako hitzaldietan iritzi eta esperientziak elkarri aditzera ematen dizkiote, eta bide hori oso aberasgarria da ombudsman erakundearen agizko jardunerako.

Bereziki aukeraturiko ekintza horietaz gain, Ararteko Erakundeak oso garrantzitsutzat jotzen dituen beste zenbait ekintza ere burutu ditu giza eskubideen alorreko gai batzuekiko errespetua eta garapena lortzeko bidean. Horrela, giza eskubideei buruzko beka-deialdia egin da. Gainera, bide horri jarraiki, "Padre Francisco de Vitoria" izenburupean bekadunek giza eskubideez egindako lan monografikoak argitaratzeko saila zabaltu da.

Sailaren lehen liburua, *El derecho al ambiente como derecho de participación* izenburuduna eta jadanik kalean dagoena, erakunde honek eman lehen bezak egindako ikerlana da.

## 2.1. ERAKUNDEAREN EKINTZAK EGUNEZ EGUN

Atal honetan, Ararteko Erakundeak 1993. urtean burututako ekintzak egunez egun zerrendatzen dira.

– **Urtarrilak 5.** Vitoria-Gasteiz. Langraitzeko Kartzelako Zuzendariarekin elkarrizketa Arartekoaren egoitzan.

– **Urtarrilak 12.** Arartekoaren Ondokoak EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkarte) sindikatuko ordezkariak hartu zituen.

– **Urtarrilak 14.** Donostiako Zurriola ikastolako ordezkariekin elkarrizketa.

– **Urtarrilak 18.** Madril. Liburu eta Liburutegien Zuzendari Nagusiak eta Juan March Fundazioko Presidenteak gonbidatuta, Arartekoak *Encuentro con José Hierro* liburuaren aurkezpenean parte hartu zuen.

– **Urtarrilak 19.** Vitoria-Gasteiz. ENBA (Euskal Nekazarien Batasuna) sindikatuko ordezkariekin bilera Arartekoaren egoitzan.

– **Urtarrilak 21.** Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritzaren egoitzan, Arartekoak eta Lehendakaritza eta Autonomi Garapenerako Sailburuak 1993 urtealdian koordinatzeko lehen bilera egin zuten, Gubernuko sail ezberdinen kontrako kexa-espeditenteen egoera aztertzearen.

– **Urtarrilak 22.** Vitoria-Gasteiz. Zarataren kontrako Hiritarren Sarea elkarteak sustatu eta hamabost mila sinadura zeramatzan Zarataren kontrako Aldarrikapena eskuratu zion Arartekoak Hirigintza eta Ingurugiro Sailburuari.

– **Urtarrilak 23.** Donostia-San Sebastián. Arartekoaren Ondokoak Urte Judizialaren irekiera-ekitaldian parte hartu zuen Lurralde Entzutegian.

– **Urtarrilak 25.** Bilbao. Arartekoak Bizkaiko Gizarte Ongizate Saileko Diputatuarekin, Josu Montalban jaun txit argiarekin Txurdinaga zahar-egoitza bisitatu zuen. Arartekoa, jarraian, hiri horretako Erruki-etxera joan zen. Euskal Autonomi Elkarteko zaharren egoitzei buruzko *Eusko Legebiltzarrari Txosten berezia 1992-1993* deitua osatzeko antolatu ziren lehen bisitak izan ziren horiek.

– **Urtarrilak 26.** Vitoria-Gasteiz. Gasteiz Txiki elkarteko ordezkariekin elkarrizketa Erakundearen egoitzan.

– **Urtarrilak 27.** Donostia-San Sebastián. Miramar Jauregia. Arartekoaren Ondokoak Justizi Sailak antolatutako Bulego Judizialari buruzko Jardunaldien hasiera-ekitaldian esku hartu zuen.

– **Urtarrilak 28.** Donostia-San Sebastián. Arartekoak Bulego Judizialari buruzko Jardunaldietako mahai-inguru batean parte hartu zuen.

– **Urtarrilak 29.** Vitoria-Gasteiz. Arartekoak Nafarroako Gobernuko ordezkari eta, aldi berean, Oteiza Fundazioko zuzendaritzakide zirenekin bilera egin zuen.

– **Urtarrilak 30.** Donostia-San Sebastián. Arartekoaren Ondokoak Bulego Judizialari buruzko Jardunaldien amaiera-ekitaldian parte hartu zuen.

– **Urtarrilak 31.** Zarautz. Arartekoa Jorge Oteiza eskultorearekin bildu zen Zarautzen, Lesakako Agiña mendian zegoen eskultore horren “Aita Donostiaren omenezko hilarria” obrak jasandako erasoaren ondoren.

– **Otsailak 3.** Kanariak. Arartekoak Diputado del Común izandako Luis Cobiella Cuevas jaunaren *Juan Canario, los Derechos Humanos y el Diputado del Común* liburuaen aurkezpenean izan zen.

Era berean, Herri Defendatzailearen eta Kanarietako Diputado del Común erakundeen arteko elkarlanerako itunaren sinatze-ekitaldira gonbidatu zuten.

– **Otsailak 5.** Bartzelona. Arartekoa Kataluniako Síndic de Greuges berriaren, Anton Cañellas i Balcells jaun txit gorenaren kargu-jabetze ekitaldian izan zen.

– **Otsailak 10.** Vitoria-Gasteiz. Gipuzkoako alkate batzuk Arartekoarekin bildu ziren beren herrietan Lehen Auzipidetarako epaitegiak berriro indarrean jartzeari buruz hitzegiteko.

– Arartekoak Euskal Herriko Unibertsitateko Informazio Zientzien Fakultateko Dekanordea hartu zuen.

– **Otsailak 18.** Bilbao. Euskal Herriko Justizi Epaitegi Goreneko eta Bilboko Lurralde Entzutegioko presidenteeekin bilera.

Arratsaldez, Arartekoak Euskal Herriko Unibertsitateko Idazkari Nagusiarekin elkarrizketa egin zuen.



– **Otsailak 23.** Vitoria-Gasteiz. Arartekoa Frantziak Donostian daukan Kontsularekin mintzatu zen Eusko Legebiltzarrean.

– **Otsailak 24.** Ordizia. Erakunde honek sustaturik, Gurutze Gorriaren eta herri horretako adinekoen egoitzaren artean elkarkidetzeta eta elkarlanerako itunaren izenpetze-egintzan esku hartu zuen Arartekoak.

– **Martxoak 2.** Vitoria-Gasteiz. Bizkaiko zahar-egoitzetako gizarte laguntzaile eta laguntzaile tekniko-sanitarioen ordezkari batzuekin batzarra.

– **Martxoak 12.** Bilbao. Reina de la Paz zahar-egoitzan “Arartekoaren gain jarritako zereginak” gaiari buruzko hitzaldia eman zuen Arartekoak.

– **Martxoak 15.** Euskal Herriko REMAR erakundeko ordezkariekin bilera Arartekoaren egoitzan.

– **Martxoak 16.** Donostia-San Sebastián. Zuzenbide Fakultateak gonbidaturik, Arartekoak hitzaldi bat eman zuen Ararteko Erakundearen zereginaz.

– **Martxoak 22.** Vitoria-Gasteiz. Bilera Bizkaiko Foru Diputazioko Gizarte Ongizate Saileko teknikariekin, sail horren aurrean aurkeztutako kexa-espeditenteen biderapena antolatu eta haien egoera aztertzeko.

– **Martxoak 26.** Vitoria-Gasteiz. Zorroagako hirugarren adinekoen egoitzako zuzendariarekin elkarrizketa Erakundearen egoitzan.

– **Martxoak 28.** Lasarte. Arartekoak Euskal Eskola Publikoaren II. Fes-tan OHOKo ikasleentzako antolatu zen eskola-sari banaketan parte hartu zuen.

– **Martxoak 29.** Vitoria-Gasteiz. *Eusko Legebiltzarrari Txostena 1992* Legebiltzarburu den Joseba Leizaola jaun txit gorenari aurkeztu zitzaion.

– **Martxoak 31.** Oñati. Eusko Jaurlaritzako Justizi Sailak antolatuturik Soziologia Juridikorako Nazioarteko Institutuan egin zen “Justizia eta buru-osasunari buruzko lan-mintegia”ren hasiera-ekitaldian esku hartu zuen Arartekoaren Ondokoak.

– **Apirilak 1.** Oñati. Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Justizi Sailak antolatutako “Justizia eta buru-osasunari buruzko lan-mintegia”n parte hartu zuen.

– **Apirilak 20.** Donostia-San Sebastián. Miramar Jauregia. Eusko Legebiltzarrak argitaraturiko Arnaud d’Oihenarten *Notitia Utriusque Vasconiae* liburuaren aurkezpenean izan zen Arartekoa.

– **Apirilak 22.** Arartekoak Biktimei Laguntzeko Elkarteko ordezkariak hartu zituen Erakundearen egoitzan.

– **Apirilak 23.** Madril. Kultura Ministeritzak gonbidaturik, Miguel de Cervantes Gaztelarazko Literatur Saria emateko ekintza akademikoan parte hartu zuen Arartekoak Alcalá de Henaresko Unibertsitateko areto nagusian.

Arratsaldean, Liburutegi Nazionaleko Zuzendariarekin bilera egin zuen.

– **Apirilak 29.** Madril. Herri Defendatzailearen egoitzan bilera, Euskadiko Elkartzte-bidezko Lanerako Kooperatiben Federazioak erakunde honi azaldu zion arazoari buruz.

– **Maiatzak 4.** Vitoria-Gasteiz. Sahara Herriari Laguntzeko Batzordeko ordezkariak hartu zituen Arartekoak; bilera hartan, desagertutako sahararren arazoari buruzko txosten bat eskuratu zioten Arartekoari.

– **Maiatzak 5.** Vitoria-Gasteiz. Parlamentari den Xabier Markiegi jaun txit argiarekin elkarriketa.

– **Maiatzak 6.** Bilbao. Arartekoa Bizkaiko Gizarte Ongizaterako Foru Diputatu jaunarekin bildu zen.

Ondoren, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak gonbidaturik, Segoviako Lozoya Dorrean egin zen “Cuatro pintores Vascos” erakusketaren zabalaldian parte hartu zuen.

– **Maiatzak 7.** Tolosa. Arartekoak Ombudsmanaren erakundeari buruzko hitzaldia eman zuen OHOk ikastetxe batean.

– **Maiatzak 11.** Donostia-San Sebastián. Arartekoa Garraio eta Azpiegituretarako Foru Diputatuarekin, Roman Sudupe jaun txit argiarekin mintzatu zen.

– **Maiatzak 12.** Vitoria-Gasteiz. *Eusko Legebiltzarrari Txostena 1992* aurkeztu ondoren, Arartekoak Giza Eskubideen Legebiltzar Batzordean azaldu zuen urteko txostena.

– **Maiatzak 13.** Vitoria-Gasteiz. Koordinazio bilera Eusko Legebiltzarraren Lehendakaritza eta Autonomi Garapenerako Sailburuarekin, Joseba Zubia jaun txit gorenarekin.

– **Maiatzak 17.** Vitoria-Gasteiz. Arartekoaren Ondokoak Arabako Gizarte Ongizateko Diputatu den Loza jaun txit argiarekin bilera, erakunde hau EAEko hirugarren adinekoen egoitzei buruz osatzen ari zen txostenaz.

– Bartzelona. Arartekoak, Blanquerna elkarteak Síndic de Greuges izan zen Frederic Rahola jaun txit gorenari eskaini zion hil-ondoko omenaldian parte hartu zuen.

– **Ekainak 4.** Vitoria-Gasteiz. Hiriburu horretako Udalak antolaturik egin ziren Lehen Gerontologi Jardunaldietan, Erakundeko lege-aholkularitza buruak “Lege-agintaritza: gizarte eta osasun zerbitzuen jarduera eta koordinazio bi-deak” gaiari buruzko mahai-inguruan mahaiburu-lanak egin zituen.

– **Ekainak 11.** Vitoria-Gasteiz. Arartekoak Eusko Legebiltzarreko Osoko Bilkuran aurkeztu zuen *Eusko Legebiltzarrari Txostena 1992*.

– **Ekainak 18.** Vitoria-Gasteiz. Arartekoaren Ondokoak Eusko Legebiltzarreko Presako Legegintza, Araudi eta Jaurpide Batzordeari Erakundearen aurrekontu berezia aurkeztu zion.

– **Ekainak 26.** Bonn. Erakundeko ordezkari gorenek, Ombudsmanaren Hirugarren Hitzaldi Europarra antolatzeko Ombudsmanaren Institutu Europarrak eratutako bileran esku hartu zuten. Aho batez erabaki zen Gasteiz izango zela Europako ombudsmanen hurrengo elkargunea.

– **Ekainak 30.** Donostia-San Sebastián. Donostiako Zuzenbide Fakultatean egindako Euskadi eta Nafarroako IV. Jardunaldi Penitentziarioen zabalte-ekitaldian parte hartu zuen Arartekoak.

– **Uztailak 2.** Vitoria-Gasteiz. Arartekoa Legebiltzarburu den Joseba Leizaola jaun txit gorenarekin eta Gasteizko Alkatearekin, Jose Angel Cuerda jaun txit argiarekin bildu zen Eusko Legebiltzarraren egoitzan Ombudsmanaren Hirugarren Hitzaldi Europarraren antolaketaz hitzegiteko.

– **Uztailak 3.** Urkiolako Parke Naturala. Arartekoak Antonio Ferrer eta Indalecio Ojanguren egindako omenaldian hitzaldia eman zuen. Ekitaldi berean, *Crestas del Duranguesado* liburua aurkeztu zen.

– **Uztailak 13.** Vitoria-Gasteiz. Bizkaiko Enpresarien Zaingo-Batzordeko presidentarekin eta lurralde historiko horretako Harrobi-Enpresarien Elkarte-ko ordezkariarekin bilera.

– **Uztailak 16.** Donostia-San Sebastián. Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Foru Diputatu andrearekin bilera.

– **Uztailak 19.** Vitoria-Gasteiz. Iparralde Gizarte Etxean erakunde honi dagozkion zereginei buruzko hitzaldia eman zuen Arartekoak.

– **Uztailak 26.** Vitoria-Gasteiz. Arartekoa Ombudsmanaren Institutu Europarreko presidentarekin, Viktor Pickl profesorea, eta erakunde bereko diruzain eta Vorarlbergeko (Austria) Ombudsman den Nikolaus Schwärzler profesorearekin bildu zen.

– **Uztailak 27.** Vitoria-Gasteiz. Arartekoa Ombudsmanaren Institutu Europarreko presidentek eta Vorarlbergeko Ombudsmanak prentsaurrekoa eman zuten Eusko Legebiltzarrean, Ombudsmanaren Hirugarren Hitzaldi Europarra aurkezteko.

– **Abuztuak 13.** Donostia-San Sebastián. Jose Maria Mendiluce jaunari, ACNUR delakoaren ordezkariari (Errefuxiatuentzako Nazio Batuetako Goi-Karguduna), Donostiako Zilarrezko Domina eman zitzaion ekitaldian hartu zuen parte Arartekoak, hiri horretako udaletxean.

– **Irailak 11.** Donostia-San Sebastián. Arartekoa eta bere Ondokoa Julio Iglesias Zamoraren askatasunaren aldeko Hiritarren Ekimenak antolatutako manifestazioan izan ziren.

– **Irailak 17.** Oñati. Arartekoak Oñatiko Santa Ana Auditoriumean eta Unibertsitatean Eusko Ikaskuntza Elkartearen 75. urteurrena ospatzeko ekitaldian esku hartu zuen.

– **Irailak 21.** Donostia-San Sebastián. Beriyo Gerontologi Zentruaren zabalitze-ekitaldira gonbidatu zuten Arartekoa.

– **Irailak 23-24.** Madril. Autonomi lurraldeetako ordezkariak eta behin-behineko Estatuko Herri Defendatzaileak lan-jardunaldia egin zuten guztiari ardura zaizkien gaiak aztertzeko, dagozkien erakundeek egiten dituzten ohizko bileren barruan.

– **Irailak 30.** Oñati. Arartekoak Euskaltzaindiaren 75. urteurrena ospatzeko ekitaldien hasieran parte hartu zuen.

– **Urriak 8.** Vitoria-Gasteiz. Arartekoa Gobernuak Euskal Herrian duen Ordezkariekin, Jose Antonio Aguiriano jaun txit gorenarekin bildu zen, Gasteizen ospatuko zen Ombudsmanaren Hirugarren Hitzaldi Europarrari buruz hitzegiteko.

– Donostia-San Sebastián. Eusko Jaurlaritzako Justizi Sailak antolatutako, Epailaritza-Informatika eta Datuak Babestearen inguruan egin ziren jardunaldien amaiera-ekitaldian parte hartu zuen Arartekoak.

– **Urriak 14.** Zamudio. Arartekoa El Correo Español-El Pueblo Vasco egunkariaren errotatiba berriaren estrainaldira gonbidatu zuten.

– **Urriak 21.** Bilbao. Arartekoaren Ondokoak Euskal Herriko Unibertsitateko Idazkari Nagusiarekin bilera egin zuen.

– **Urriak 26.** Vitoria-Gasteiz. Ombudsmanaren Hirugarren Hitzaldi Europarra hasi baino lehen Eusko Legebiltzarrean eman zen prentsaurrekoa.

– **Urriak 27-30.** Vitoria-Gasteiz. Ombudsmanaren Institutu Europarrak Ararteko Erakundearen laguntzaz antolatutako Ombudsmanaren Hirugarren Hitzaldi Europarra egin zen, “Herrialdeko Ombudsmanaren Garrantzia” izenburu orokorraren pean.

– **Urriak 27.** Vitoria-Gasteiz. Eusko Legebiltzarburuak Ombudsmanaren Hirugarren Hitzaldi Europarrean parte hartu zutenei harrera eta ongietorria egin zien.

– **Urriak 28.** Vitoria-Gasteiz. Europa Jauregia Bitzar-Etxea. Ombudsmanaren Hirugarren Hitzaldi Europarraren lehen lan-saioa. Arartekoak herrialdeko Ombudsmanaren garrantziari buruzko azalpen batez ireki zuen hitzaldien saila. Andaluziako Herri Defendatzaileak “Nazioko, herrialdeetako eta tokiko Ombudsmanen arteko harremanak” txostena aurkeztu zuen.

– **Urriak 29.** Vitoria-Gasteiz. Ombudsmanaren Hirugarren Hitzaldi Europarraren bigarren lan-saioa. Werner Palla Hego Tiroleko Ombudsmanak “Ombudsmana eta gutxiengoak” gaiari buruz hitzegi zuen.

Arratsaldean, Ombudsmanaren Institutu Europarraren Urteko Batzar Nagusia egin zen, eta bertan erakunde horretako Lehendakariordea aukeratu zen, kargua Juan San Martin Arartekoari emanaz.

- **Urriak 30.** Arartekoa eta Europako Ombudsmanak Gernikara joan ziren euskal askatasunen ezaugarria den Gernikako Arbola bisitatzera. Bertan, Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak, Anton Aurre jaun txit gorenak hartu zituen. Ondoren, Donostiara joan eta Alkateak, Odon Elorza jaun txit argiak harrera egin zien.

- **Azaroak 4.** Vitoria-Gasteiz. Sestaoko Merkatarien Elkarteko ordezkariak hartu zituen Arartekoak bere egoitzan.

- **Azaroak 5.** Donostia-San Sebastián. Gipuzkoako Diputatu Nagusi jaunak eta Kultura eta Turismo Diputatu andreak gonbidaturik, Koldo Mitxelena Kulturunearen zabaltze-ekitaldian parte hartu zuen Arartekoak.

- **Azaroak 17.** Vitoria-Gasteiz. Sestaoko Alkatearekin bilera erakunde honen egoitzan.

- **Azaroak 18.** Bilbao. Bizkaiko Foru Diputazioko Presidentearekin koordinazio bilera.

- Bilbao. Arartekoaren bilera Bilboko Arte Ederren Museoko zuzendariarekin.

- **Azaroak 25.** Vitoria-Gasteiz. Eusko Legebiltzarra. Arartekoaren eta Lehendakaritza eta Autonomi Garapenerako Sailburuarekin eta Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako Zuzendariarekin hirugarren koordinazio bilera.

- **Abenduak 1.** Vitoria-Gasteiz. Eusko Legebiltzarra. Ararteko Erakundeak deiturik, 1993-1994 Elkarlanerako Bekerarako idatzizko proba egin zen.

- **Abenduak 9.** Vitoria-Gasteiz. Eusko Legebiltzarreko Presako Legegintza, Araudi eta Jaurpide Batzordean 1994. urterako erakunde honek prestatuturiko aurrekontua onartu zen.

- **Abenduak 14.** Vitoria-Gasteiz. Arartekoak PSE-EEko Senatore den Mario Onaindia jaun txit gorena hartu zuen Erakundearen egoitzan.

- **Abenduak 28.** Vitoria-Gasteiz. EAEko hirugarren adinekoen egoitzei buruzko *Eusko Legebiltzarrari Txosten Berezia 1992-1993* aurkeztu eta eskuratu zitzaion Legebiltzarburuari.

## 2.2. 1993-94 URTEALDIRAKO BI LANKIDETZA BEKA BANATZEKO DEIALDIA

Aurreko bi ekitaldietan, urtean bi beka eman ditu erakundeak giza eskubi-deen alorrean ikerketak egin eta trebatzeko. 1993an, aurreko urtean emandako beka garabidean jartzeaz gain, beste bi beketarako deialdia egin zen, orain arte oso emaitza onak izan dituen ekimenari eutsi asmoz.

Horrela, 1993. urtean zehar aurreko txostenean aipatu ziren ikerketak burutu dira. Horietako batek araugabeko inmigrazioa izan du aztergai, erabat lege-arauz ez dauden atzerritarrei dagozkien giza eskubide eta betebeharreran oinarritu delarik. Ikerketa horretan, nazioarteko Zuzenbidetik Euskal Autonomi Elkartearen indarrean dagoen Zuzenbiderako bidea egiten da etengabe, tarteko beste maila guztiak igaroz: hots, Europa eta Espainiakoa ere aztertuz. Azterketa pedagogiko hori erreferentzia eta aipamen bibliografiko ugariz hornitua dago, egiaz barreiatuta dagoen eta oso konplexua den Zuzenbidearen alor hori erraz ulertzeko aukera emanez.

Joan den urtean burutu den beste ikerketa lana adingutxikoen eskubideei buruzkoa izan da. Eskubide horiek batipat barne antolaketa juridikoaren argitan aztertu dira, familiaren egitekoaz gain, babeserako dauden beste lege-erakunde inguruko ikerketa ere eginez.

Iazko txostenean iragartzen zen bezala, giza eskubideekin loturiko gaien buruzko argitalpen bilduma baten sorrera bultzatu da, gai hori aztertzen dutentzat abiapuntu izan daitekeelakoan. Bilduma hori aurten zabaldu da *El derecho al ambiente como derecho de participación* lanaren argitalpenaz, aldi berean, erakunde honek emandako lehen beken emaitza dena. Halaber, 1994. urtearen hasierarako elkarlanerako beken bidez burutu diren beste bi lanen argitalpena iragartzen da; bata, *Viviendas de protección oficial y arrendamientos en el País Vasco (1982-1991)* izango da, eta bestea, aipatu den bezala, araugabeko inmigratioari eta giza eskubide eta betebeharreri buruzkoa.

Aurtengo beka deialdia 1993ko urriaren 8ko Arartekoaren Ebazpenaren bidez egin zen, eta zegozkien idatzizko eta ahozko probak burutu ondoren, 1993ko abenduaren 16an argitaratutako Ebazpenean eman ziren ezagutzera irabazleak.

Berriro, giza eskubideen alorrean azterketa monografikoak egingo dira beka horien bitartez, eta horrela, Ararteko Erakundea bera gertutik ukitzen duten gaien ikerketa sustatzeko lan garrantzitsua bideratuko da.

### **2.3. "PADRE FRANCISCO DE VITORIA" GIZA ESKUBIDEEN SAILA ETA BESTE ARGITALPEN BATZUK ABIARAZTEA**

Giza eskubideak babesteak, hau da, Arartekoaren sorrerako helburuak, kexak bideratzera ez ezik, gaia modu osoagoan hartzera ere behartzen gaitu. Horregatik, oso garrantzi handikoa iruditu zaigu Euskal Autonomi Elkartearen giza eskubideen begiruneari buruzko kultura sortzen laguntzea.

Ildo horretatik, giza eskubideezko azterlanak egiteko beka emateaz aparte, erakunde honi beharrezkoa iruditu zaio gai honi buruzko ikerlan monografikoak ere jartzea gizartearen esku.

Helburu hori iritsi asmoz, halako argitalpen bilduma bat sortu nahi izan dugu.

Bilduma horri "Padre Francisco de Vitoria" Giza Eskubideen Saila deritzo, euskaldun ospetsu haren omenez, eta bertako lehen ikerlanak *El derecho al ambiente como derecho de participación* gaia jorratzen du.

Urtean zehar beste argitalpen batzuk ere kaleratu dira, *Eusko Legebiltzarri Txostena 1992* eta haren *Gomendio eta iradokizun orokorrak* eranskinaz gainera; haien artean aipagarria da Herrialdeko Ombudsmanaren Garrantzia gaiari buruz egin zen Ombudsmanaren Hirugarren Hitzaldi Europarreko aktak jasotzen dituenena. Halaber, bilera horiek egin ziren bitartean, Aita Frantzisko Vitoriakoaren *De indis insularis* eta *De iure belli* izeneko lanak argitaratu ziren faksimil eran.

## 2.4. OFIZIOZKO JARDUERAK

Gizabanakoek erakunde honen bidez administrazioen baten kontra ezartzen dituzten erreklamazioengatik irekitzen diren kexa-espeditenteak bideratzea eta ebaztea da, oro har, Ararteko Erakundearen zeregina.

Halere, Arartekoak aurten ere beste zerbait egin nahi izan du erakunde hau arautzen duen legeak 17. artikuluan iragartzen duenaren bidetik. Alegia, artikulua horren arabera, Arartekoak bere baliapideez eta Erakundeari dago-kion jarduera-eremuan administrazioen batek oker jokatu duela ikusten badu, berarizko jarduerak buru ditzake.

Atal honi ekiterakoan, 1992-1993 urtealdian zehar Euskal Autonomi Elkarteko zahar-egoitzen egoerari buruz osatu eta joan den urtearen amaieran Eusko Legebiltzarburuari aurkeztu zitzaion txosten monografikoa aipatu behar da lehenik.

1992. urteari zegokion ohizko txostenean garbi adierazi ziren Erakundeak txostena osatuz lortu nahi zituen helburuak, bere jarduera-eremua eta horretarako erabiliko zuen metodologia.

Aldez aurretik egoitza publiko nahiz pribatu batzuk aukeratu ziren txostena egiteko, eta ondoren horietara bisitak egin genituen. Hautaketarako jarraitu den irizpidea ez da zorizkoa izan, bitarikoa baizik, eta bertan ezaugarri objektiboak eta lurralde-irizpidea hartu dira kontuan.

Arartekoak eta erakunde honetako beste ordezkari batzuk 1993. urtean zehar bisitatu zituzten egoitzak hauek izan ziren:

### ARABA

- San Roke Zahar-etxea (Laudio)  
Jabetza publikoa - burujabeentzat
- Egoitza geriatrikoa (Oion)  
Jabetza publikoa - laguntza premia dutenentzat
- Araba Klinika (Gasteiz)  
Jabetza pribatua - laguntza premia dutenentzat

- Arana Egoitza (Gasteiz)  
Jabetza publikoa - bitarikoa
- San Prudentzio Egoitza (Gasteiz)  
Jabetza publikoa - bitarikoa

## BIZKAIA

- Bolibar Fundazioa Egoitza (Areatza-Villaro)  
Jabetza pribatua - laguntza premia dutenentzat
- Abando Zentru Geriatrikoa (Bilbo)  
Jabetza pribatua - laguntza premia dutenentzat
- Bizkaiko Andra Mari Etxea (Bilbo)  
Jabetza pribatua - burujabeentzat
- Labayru Egoitza Geriatrikoa (Bilbo)  
Jabetza pribatua - burujabeentzat
- Nire Etxea Egoitza. Txiroen Arrebatxoak. (Bilbo)  
Jabetza pribatua - burujabeentzat
- Revilla Egoitza (Bilbo)  
Jabetza pribatua - burujabeentzat
- Erruki-etxe Saindu eta Erregezkoa (Bilbo)  
Jabetza pribatua - bitarikoa
- Pakearen Erregina Egoitza (Bilbo)  
Jabetza pribatua - burujabeentzat
- Txurdinaga Egoitza (Bilbo)  
Jabetza publikoa - burujabeentzat
- Zelaiondo - Laguntzadunen Zahar-etxea (Busturia)  
Jabetza pribatua - laguntza premia dutenentzat
- Ospitale Saindu eta Erruki-etxea (Durango)  
Jabetza publikoa - burujabeentzat
- Bihotz-Alai Egoitza (Gamiz-Fika)  
Jabetza pribatua - laguntza premia dutenentzat
- Bihotz Deuna Udal Egoitza (Getxo)  
Jabetza publikoa - bitarikoa
- Babesgabeen Andre Dena Zahar-etxea Ospitalea (Karrantza)  
Jabetza pribatua - bitarikoa
- Leioako Laguntzadunen Egoitza (Leioa)  
Jabetza publikoa - laguntza premia dutenentzat
- San Roke Egoitza (Markina-Xemein)  
Jabetza publikoa - burujabeentzat



- San Jose Etxe Alai Egoitza (Mungia)  
Jabetza publikoa - burujabeentzat
- "Residencia General" Egoitza (Muskiz)  
Jabetza pribatua - laguntza premia dutenentzat
- San Juan Bautista Dohatsuaren Ospitale Saindua (Portugaleta)  
Jabetza pribatua - burujabeentzat
- Juan Ellacuria de Larrauri Zaharrentzako Udal Egoitza (Sestao)  
Jabetza publikoa - burujabeentzat

#### GIPUZKOA

- Mizpirualde Egoitza (Bergara)  
Jabetza publikoa - bitarikoa
- Julian Rezola Laguntzadunen Egoitza (Donostia)  
Jabetza pribatua - laguntza premia dutenentzat
- San Jose Laguntzadunen Egoitza (Donostia)  
Jabetza publikoa - laguntza premia dutenentzat
- San Rafael Egoitza (Donostia)  
Jabetza pribatua - burujabeentzat
- Zorroaga Egoitza (Donostia)  
Jabetza pribatua - bitarikoa
- San Andres Fundazio Publikoa (Eibar)  
Jabetza publikoa - bitarikoa
- Pentsiodunen Egoitza (Eibar)  
Jabetza publikoa - bitarikoa
- San Lazaro Zahar-etxea (Elgoibar)  
Jabetza publikoa - bitarikoa
- Santa Maria Magdalena Egoitza (Hernani)  
Jabetza publikoa - bitarikoa
- San Gabriel Egoitza (Hondarribia)  
Jabetza pribatua - bitarikoa
- San Jose Egoitza Fundazio Publikoa (Ordizia)  
Jabetza publikoa - bitarikoa
- San Juan eta La Magdalena Erruki-etxe eta Ospitalea (Segura)  
Jabetza pribatua - bitarikoa
- Yurreamendi egoitza (Tolosa)  
Jabetza pribatua - bitarikoa

Bisita horien helburua, txostena egiteko beharrezko datuak biltzea eta egoitza bakoitzean dauden arazo guztiak ikertzea izan da, aurkitzen diren gabeziei erantzuteko.

Arartekoak egindako azterketez gain, SIIS fundazioak ere Erakundearekin batera lan egin duen teknikari taldea den aldetik, hirugarren adinekoentzako hamairu egoitza nolakoak diren neurtu du. Hauek dira aztertu dituen egoitzak:

#### ARABA

- Amurrioko Egoitza (Amurrio)
- Araba Klinika (Gasteiz)
- San Prudentzio Egoitza (Gasteiz)

#### BIZKAIA

- Agirretxu Baserria - Aiton-amonon Etxea (Berango)
- Erruki-etxe Saindu eta Erregezkoa (Bilbo)
- San Esteban Geriatrikoa (Getxo)
- Bihotz Deuna Udal Egoitza (Getxo)
- Leioako Laguntzadunen Egoitza (Leioa)
- San Roke Egoitza (Markina)
- San Juan Bautista Dohatsuaren Ospitale Saindua (Portugalete)

#### GIPUZKOA

- Julian Rezola Zentrua -Matia Fundazioa- (Donostia)
- Zorroaga Egoitza (Donostia)
- Santa Maria Magdalena Egoitza (Hernani)

Horrenbestez, Erakundeak aurkeztu berri duen txosten berezian ikerketa-egoitzen egoerarekin batera, zentru horietan dauden aiton-amonon eskubi-deak zenbateraino bermatzen diren jasotzen da, eta atal honetan gehiegi ez luzatzearren, gai honi buruzko azalpenetarako txosten horri atxikiko gataz-ikio.

Jarduera monografiko horretaz gain, beste ikerketa-espeditente batzuk ere bideratu dira, aldezturik kexarik egon ez arren.

Jarduera horien barruan bi espeditente-multzo garrantzitsu aipatu behar dira, gure autonomi elkartean bizi diren eta babes politikoa edo asiloa eskatu duten atzerritarren egoerari dagokiona bata, eta bi euskal udalek lanpostuetarako egindako deialdietan egin asmo zuten merezimenduen balioztapenari dagokiona bestea.

Izendaturiko lehen gaiari dagokionez, Ararteko honek Hirugarren Mundua deritzanetik gure herrialdera gero eta neurri handiagoan datozen atzerritarren inguruan gertatzen diren gizarte eta justizi mailako arazoez kezkatu-rik, ikusi zuen bazegoela Euskadin etorkin talde bat arazo politikoengatik etorria eta duela urte batzuek geroztik gobernu zentralari egindako asilo eta babes eskariaren erantzunaren zain jarraitzen zuena.

Egoera horrek giza mailako arazo larriak sorrarazten dizkie pertsona horiei, legez ezin dutelako ordaindutako lanik egin eta ez erakundeen, ez eta, orain dela denbora gutxitik aurrera, erakunde pribatuen laguntzarik ere jaso ezin dutelako.

Hori ikusirik, gizatalde horren izatezko eta legezko egoera jasotzen duen txostena osatu zen, eta bertan hiru foru diputazioei jarduera-proposamen zehatzak egiten zitzaizkien, gizarte ongizate gaietan dauzkaten ahalmenak direla medio, pertsona horien behin-behineko premiak ase ditzaten.

Txostenean, lehenik, Euskal Autonomi Elkartearen asiloa edo babes politiko eskatzen dutenen egoera azaldu zen; atzerrian nahiz Estatuan horientzat dauden araudiak aipatu ziren, eta beroriek ezartzeko gaurdaino administrazioek jarraitutako bidea aztertu zen:

“Lehenago aipatu diren arauetan iragartzen denaren arabera, ministerizarteko batzorde batek aztertu behar ditu asilo eta babes eskariak, eta horrek erabaki behar du eman ala ez. Gaurdaino, batzorde horrek bilera bakanak egin ditu, eta horietako bakoitzean eskari mordo bat aztertu. 1991. urtean eskaeren %97ari ezezkoa eman zitzaion, eta behar bezala betetako administrazio-agiriaren bidez egin zaie jakinerazpena dagokienei.

Espedienteen ebazpenerako epeei dagokienez, araudiko 29.4. artikulua dio babes eskarien biderapenak ez duela hiru hilabetetik gora iraungo. Halere, gaur egun eskaria egiten denetik bataz-beste hiru urte igarotzen dira ebazpena eman arte.

(...)

Azaldu den guztiagatik, babes politiko edo asilo eskaria egindako jende multzo bat dago gure lurralde autonomoan, horien artean 1992. urteko iraila baino lehen, nagusiki 1990 eta 1991 urteetan eskaria aurkeztu zutenak daudelarik. Eskaria egiten duten atzeritar berriak lehenago aipatu diren zentruetara bidaltzen dira eta, beraz, aipagai den gizatalde hau ez da haziko, eta Espainiako Gobernuak pertsona horiei dagozkien ebazpenak ematen dituen neurrian murriztuz joango da.

Pentsatzekoa denez, ebazpen gehienak ezezkoak izango dira eta atzeritarrek, Atzerritartasun Legearen arabera, beraz, hiru hilabeteko epea edukiko dute jarraian Espainian beraien egoera arautzeko, funtsean lana aurkituz, eta bestela Estatuko lurraldea utzi beharko dute, edo legezkanpo geratuko dira.

(...)

Horrenbestez, gizatalde txikia eta desagertze bidean dagoena dugu hau, neurri handi batean araudien kontraesanengatik zokoraturik dagoena. Aldi berean, bizi duten egoera hain premiazkoa izanik, gizarteko gainontzeko pertsonen aurrean erabat galtzen dute izen ona eta horiekiko dagoen mesfidantza, maila handi batean, bizi duten egoera inondik ere eza-gutzen ez delako sortzen da.”

Arartekoak gai horri buruz osatu zuen txostenaren bigarren zatian gai juridikoak aztertzen ziren, eta Autonomi Elkartean erakunde publikoek egin zezaketenari buruzko proposamenez osatua zegoen. Horrela, gai horri zegozkion eskumenak azertu ondoren, Europa, autonomi edo foru mailako araudi ezberdinek ekintza sozial publikorako ematen zituzten aukerak jaso eta, amaitzeko, ondoren biltzen dirèn arauak proposatu ziren:

“Euskal Autonomi Elkartean asiloa eta babeska eskatzen duen gizataldearen oinarritzko premiak asetzeko eta pertsona horiek gizarteratzeko jarraian dirulaguntzak sortzeko araudia ondorengo aukeren bidez gauza daiteke:

A) Gizarteratzeko Gutxieneko Irabazpidearen Legearen aldaketa, talde hori onuradun gisa bertan sartu ahal izateko. Ez dirudi bide hori zuzena denik, Pobreziaren kontrako Burrukarako Egitasmoa sustatu zuten irizpideetako bat hautsi dezakeelako, alegia, Autonomi Elkarteko pertsona probreenei zuzendua baitago. Bestalde, lege-bidezko egitasmo hori aldatzea konplexuegia litzateke, onura behin-behineko egoera dagoen talde batentzat izango litzatekeelako.

B) Gizarte Larrialdi-Premietarako Dirulaguntzei buruzko dekretuak aldatzea, bere baitan babes edo asilo eskaria egiten dutenak sartzeko. Bide horri buruz, aurrekoaz adierazitako gauza bera esan daiteke. Bestalde, talde horrek bizitza aurrera ateratzeko noizean behingo gutxieneko errenta bat nahikoa luke, beste arrazoi batzuegatik komenigarriak izan daitezkeen laguntza zehatz batzuez aparte.

C) Kaltetutako taldea foru dekretuetan edo, adibidez, Giza Zerbitzuen Legea garatuko lukeen Eusko Jaurlaritzaren dekretu batean sartzea, oro har Gizarteratzeko Gutxieneko Irabazpidearekin pareka litekeen gutxieneko errenta ziurtatuz. Ildo horretatik, bidezkoa litzateke Bizkaiko Foru Diputazioaren 41/1992 foru dekretua aldatzea, bertan jasotzen dena talde horri ezartzea oso zaila delako. Bestalde, komenigarria litzateke asiloa edo babeska eskatzen dutenei hiru lurraldeetan arreta bera eskaintzea. Azkeneko aukera edo bidea onartuko balitz, arau edo foru dekretu bat indarrean jarri beharko litzateke egoera berezian dauden taldeentzat noizean behingo laguntzak arautzeko. Horretarako, arauak edo arauak hiru irizpide jaso beharko lituzkete: talde horrekiko arretaren berezitasuna, laguntzen izaera unibertsala, eta laguntza horien izaera publikoa. Era berean, laguntza-eskariak egiteko baldintzak ere egokitu egin behar dira, aurkeztu beharreko agiriak salbu, eta azkenik, asilo edo babes eskariaren ebazpenak irauten duen denborarako iragarri behar dira laguntzak.”

Txostena gizarte ongizateko hiru foru diputatuei eskuratu zitzairen, eta horretarako bilera bat egin zen hirurekin. Ez ziren berdinak izan hiru lurraldeetan burutu ziren antolak, izan ere egoera ezberdinak antzematen ziren batetik bestera, bakoitzak etorkin-kopuru ezberdina zeukalako, eta horiek alor pribatutik jasotzen zituzten laguntzak eta berez zeuzkaten baliapideak ere ez zirelako berdinak.

Horrela, Arabari dagokionez, Foru Diputazioak atzerritarrentzako hainbat arreta-programa garatzeko deialdia egin zuen, eta bertan lurralde historiko horretan babes edo asilo eskaria aurkeztua zeukaten atzerritarrak sar zitezkeen.

Bizkaiko Foru Diputazioaren kasuan, Pobreziaren kontrako Burrukarako Osoko Egitasmoaren ondorioz zeuden laguntzak eskatzeko aukera ireki zitzaizen aipatu ezaugarriak betetzen zituzten atzerritarrei. Era berean, Gizarte Ongizate Sailak eta Espainiako Gurutze Gorriak itun bat sinatu zuten asiloa eta babesa eskatutako familietako adingutxikoei arreta eskaintzearen.

Azkenik, Gipuzkoa Lurralde Historikoari dagokionez, Foru Diputazioaren Gizarte Ongizate Sailak txosten bat bidali zion Arartekoari talde horrek Gipuzkoan bizi zuen egoera eta bertako pertsonen erakunde publiko eta pribatuetatik jasotzen zituzten laguntzen berri ematen zuena. Gizarte-egoera larrian dauden pertsona edo familiei laguntzeko 53/93 Foru Dekretuan iragartzen diren laguntzak atzerritar horiei emateko aukera ere aipatzen zen txosten horretan.

Lehenago aipatu dugun bigarren gaiari dagokionez, aurten ofiziozko bi espediente bideratu dira. Bi kasuetan Arartekoak esku hartzea premiazkoa zen, lanpostua betetzeko deia egiten zuen udalak, berau kokaturik zegoeneko udalerrian bizitzeari merezimendu gisa ematen zion balioagatik.

Zaldibarko (Bizkaia) eta Eskoriatzako (Gipuzkoa) udalek lehiaketa-noroghiagoka libre baten bidez hainbat lanpostu betetzeko egindako deialdiak jartzen ziren auzitan. Bietan, lehiaketa-aldian merezimendu gisa udalerrian bizitzea balioztatzen zen. Bietako batean, eskualdeko beste herri batean bizitzeari ere balioa ematen zioten, gutxiago halere.

Ateratako lanpostuetara aurkezten ziren hautagaiak herri batean zein beste bizitzeak garrantzirik ez zeukala ikusirik, erakunde honek iritzi zion deialdiek ez zutela puntu horretan errespetatzen hautagaien berdintasun irizpidea, hiritarrak lan publikoetan sartzeko bidean nagusitu behar duten merezimendu eta gaitasun irizpideei zor zaien errespetuaren ikuspuntutik hautagaiaren bizilekuak garrantzirik ez zeukalako.

Horregatik guztiagatik, eragindako administrazioei informazioa eskatu ondoren gomendio bana bidali zitzaizen, lehiaketa-aldian herrian bertan bizitzea merezimendu bezala ez zedila balioztatu eskatuz; eragindako administrazioek proposamena onartu eta deialdiak zuzendu egin ziren.

Beste maila batean bada ere, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle lagun talde baten lan egoerak piztutako arazoengatik inguruan Arartekoak 1993. urtean burututako jarduera aipatu behar da.

Fakultate batzuetako irakaskuntza garapenean oso eragin txarra daukan arazo luze horrek biziki kezkatu du Arartekoa.

Egoera okerragotzen ari zela eta, Arartekoak ofiziozko jarduera bat burutu zuen Errektore taldearen aurrean, eta bere kezka agertu eta irakaskuntzan normaltasuna bermatzeko beharrezko neurriak har zitzaizkien eskatu zion.

Arartekoaren ustez, arazoari emango zitzaion konponbidea ezin zen alderdirik ahulenaren kalterako izan, hots, ikasleen kalterako, eta beraz, ikasleei eskolak hartzeko eskubidea berehala aitortu behar zitzaizen, lege-arauz

izendatutako irakasleei eskolak emateko eskubidea aitortu behar zitzaien bezala.

Handik gutxira, Informazio Zientzien Fakultateko ikasleen ordezkari talde batek kexa formala aurkeztu zuen erakunde honetan, eta behin-betiko normaltasunera itzultzea eskatzen zuten; espedienteak oraindik ebatzi gabe jarraitzen du.

## 2.5. OMBUDSMANAREN HIRUGARREN HITZALDI EUROPARRA

Europako Ombudsmanaren Erakunde Austriako Innsbruck hiriko Unibertsitateko Ombudsman Europarraren Akademiako kideek sortu zuten, eta hiri horretan du bere egoitza nagusia; Ombudsmanaren lana ikertzeko eta ezagutzera emateko eginkizuna duen erakunderik ospetsuena da.

Erakunde honetako bazkide ohizkoen artean daude herri eskandinaviarretako ombudsmanak, bai eta Europako beste herri batzuetakoak ere, hala nola Britainia Handiko Legebiltzar Ordezkaria, Médiateur frantsesa, Ombudsman holandarra, Austriako länder-etako ombudsmanak edota Italiako herritarren babesleak.

Era berean, bai Arartekoa bera, bai gainontzeko autonomi lurraldeetako ordezkariak eta Espainiako Herri Defendatzailea ere badira erakunde horretako bazkide.

Erakundeak Bolzanon eta Florentzian halako hitzaldi monografiko batzuk antolatu ditu, gogoeta eta hausnarketak egin eta elkarrizketa ezagutzera emateko.

Joan den 1993. urtean, Gasteiz hiria aukeratu zen Ombudsmanaren Hirugarren Hitzaldi Europarra egiteko, eta antolakuntza-lanak Ararteko honek hartu zituen bere gain, Ombudsmanaren Institutu Europarraren laguntzaz.

Jardunaldion aztergai nagusia Herrialdeko Ombudsmanaren Garrantzia izan zen.

Lehen lan-saioa, Arartekoak gai horri buruz egindako mintzaldia izan zen. Mintzaldi horretan, puntu hori orokorki jorratu eta azaldu ziren ideiarik garrantzitsuenak honako hauek izan ziren:

1. Ez dago herrialdeko Ombudsman nozio zentzubakarrekorik, Estatu-Ombudsman edo tokikoarenik ez dagoen bezala.

2. Herrialdeko Ombudsmanari garrantzia ez dio emango herrialdetasun-eremu jakin batean jarduteak, baizik eta Ombudsmanari hertsiki dagozkion bereizgarriak izateak.

3. Donald C. Rowat irakaslearen arabera, Ombudsmana zehazten duten ezaugarriak eta, beraz, baita herrialdeko Ombudsmana ere, hauek dira:

a) Kexak Ombudsmanaren bulegoan zuzenean aurkezteko aukera eman behar da.

b) Bulegoa hiritar guztiek ezagutu behar dute eta irispide errazekoa izan behar du.

- c) Ombudsman orok ahalmen zabalak izan behar ditu, erabaki lotzai-leak ezin hartu izatea salbu.
- d) Ombudsmanak agintaritza betearazletik eta alderdi politikoen eragin guztietatik libre egon behar du.

Ezaugarri horietako batzuk egokiagoak gerta daitezke Ombudsmanak dihardueneko herrialdetasun-eremuan.

4. Herrialdeko Ombudsmanak ezartzeko aukera Estatu federal eta erdi-federal edo eskualdekoetan nabarmentzen da nagusiki.

Kasu horretan egin litezkeen hautakizun teorikoak hiru dira:

- a) Estatu-Ombudsman bakarra izatea.
- b) Estatu-Ombudsmanik ez dagoen Estatuan herrialdeko legebiltzar ordezkariak izatea.
- c) Estatu berean Estatu-Ombudsmana eta herrialde-ombudsman desberdinak batera izatea. Kasu horretan disfuntzioak eragotziko dituen erlazio-sistema ezarri beharko da.

5. Arrazoi bat baino gehiago daude herrialdeetako ordezkarien ugaltze nabarmena zuzitzen dutenak, politikoki dezentralizatutako Estatuetan:

- a) Sistemaren logikak berak baieztarazten digu Estatu dezentralizatuak aginte-organo propioak sortzeko ahaleginak egingo dituztela.
- b) Europan errealitate anitza izateak herrialde-Ombudsmanaren garrantzia kontutan hartuz garamatza, hiritarrak babestean arrazoi linguistiko, etniko edo erlijiozkoengatik bereizkeriak eragotzearren.
- c) Dezentralizazioaren ideia hiritarreganako hurbiltasun kontzeptuarekin bat dator. Alabaina, ez da aski Ombudsmana hiritarregandik hurbil dagoen erakundea izatea, eraginkorra izan behar du gainera.

6. Funtsezkoa da herrialde-ombudsmanek, egokitu zaizkien zereginak betetzean, gizarte-politikabide desberdinetan eskudun diren agintari publikoen aurrean gizarte-eskubideak defendatzen jardun ahal izatea. Gizarte-eskubideak babestea Ombudsmanaren zereginari estuki loturik dago. Ongizate-Estatu horren eredu auzitan jartzen eta Estatu eredu berri bat sortzen ari den une honetan, ombudsmanek, oro har, eta herrialdeetako ombudsmanek bereziki, hiritarren defentsan jardun behar dute elkartasuna, gizarte-justizia eta gutxiengoenganako begirunearen ildotik.

Bigarren lan-saioan, aldiz, Andaluziako Herri Defendatzaileak "Nazioko, herrialdeetako eta tokiko ombudsmanen arteko harremanak" izeneko mintzaldi entzungarria eskaini zuen.

Mintzaldi horretan, entzuleei Espainiako Estatu lurralde-antolakuntza nolakoa den eta Ombudsman edo Herri Defendatzailea eta gainerako autonomi-ordezkariak nola sortu ziren azaldu ondoren, ombudsman desberdinen arteko harremanetan munta handikoa den kontu bati heldu zion: alegia, komuni-

tate autonomoetako (herrialdeetako) herri defendatzaileen eta (Nazioko) Herri Defendatzailearen arteko harremanak arautzen dituzten tresnak.

Laburbilduz, mintzaldi honek ondo azpimarratzen zuen Herri Defendatzaileari buruzko Lege Organikoak dioena, hots:

“... Autonomia-Elkarteetako erakundeek euren ihardunak Defentsorearekin koordinatuko dituzte eta honek hauen lankidetzaz eskatu ahal izango du.”

Ildo honetatik, herrialde-mailako ombudsmanen erakundeak araupetzen dituzten legeek teknika bera agertzen zuten nazioko Defendatzailearekin koordinatzeari eta berari lankidetzaz emateari dagokionez, euren iharduketen agiango baterakidetasuna galerazteko xedez.

Ombudsman ezberdinen arteko harremanei buruzko araupeketak horren askiezaren aurrean, berarizko arau bat sortu zen, hots, azaroaren 6ko 35/86 Legea, eta honen ondorioz, esan dezakegu nazioko Defentsorearen eta herrialdeetako arteko harreman horiek araupetzeko sistema espainiarra, labur esanda, honako mekanismo hauetan oinarritzen dela:

- a) Eskudunentzako eskubideen eta bermeen zabalkuntza.
- b) Ombudsmanen ihardunaren iraunkortasun edo jarraitortasuna, are salbuespen edo herstura-egoeretan, edo Legebiltzarra bilduta egon ez edo bere agintaldia amaituta egonda.
- c) Aipatu erakunde arteko ituneen bideragarritasuna.
- d) Eta Estatuko Administrazioaren iharduna ikuskatzeko nazioko Defentsorearen aginpidearen sendespena, haren tegi, organo edo bulegoen lurralde-kokapena dena dela.

36/85 lege honetan dauden koordinazio mekanismoen garapen zehatzerako, zenbait teknika egiteratu dira:

- Erakundeen artean, nazioko erakundearen eta herrialdeetako ombudsmanen artean, itune edo hitzarmenak egitea, orokorrak nahiz aldebitakoak.
- Informazioa edo datuak elkarraldatzea, aurkeztutako kexuen eta ombudsmanen artean igorritako zenbaki eta identifikazioa eskainiz.
- Aldizkako bilerak eta jardunaldiak egitea, bertan, harreman eta koordinaziorako bideak eztabaidatu eta zehazteko xedez.

Azken urteotako esperientziak, herrialdeetako ombudsmanen ihardunaren ondorioak eskaintzen dituzten datuek ihardunaren goranzko joera agertzen dute.

Herrialdeetako ombudsmanen ihardunean eta eginkizunean datorren gerorako ikusten den gehikuntza hau ikuspegi bikoitz batetik ateratzen dugu: batetik, erakunde horiek sortu ziren unetik izan duten indartzetik;



eta, bestetik, autonomia-elkarteen aginpideen zabalkuntza ezartzen duten lege-aurrikuspenetatik.

Horregatik, gaur egun, lehenengo abiagune bat gainditu dugula eta herrialdeetako eskudunen ihardute-eremuaren garapenari, ikuspegi aberasgarriago batetik, ekiteko une egokian gaudela uste dugu.

Nazioko Ombudsmanaren eta autonomietako antzeko erakundeen arteko harremanak araupetzen dituen 36/85 Legeak ager ditzakeen eragozpenak gorabehera, begi-bistan dago lege honek, gaurko errealitateak agertzen duen egoerari atxikiz, herrialdeetako eskudunen partehartze handiagorako bide ematen duten harreman-bide batzuk eskaintzen dituela, eta hori, estatuko erakundeak konstituzioz emanda dituen eginkizunen kalte-tan gabe, honen ahalbideak oraindik ikuskizun daudela.

Espaniar esperientziak, ahalmen guztiz baterakideak izan ditzakeen nazio eta herrialde-mailako ombudsmanen arteko harreman bereziei dagokienez, koordinazioaren irizpidean aurkitu du, beraz, baterakidetasun hori konpontzeko lege-bidea.

Har daitezten neurri zehatzak eta teknika-aldetiko bereziak izango dira, zertzelada berrien aurrean, harreman hauetan ager daitezten arazo zehatzak konpondu behar dituztenak; helburu bakarra dutela: Ombudsmanek naziokoak nahiz herrialdeetakoak, herritarrek aurkeztu ditzaten kexuen izapideketan eginkortasun, hurbiltasun eta bizkortasun-mekanismoak eskaintzea.”

Hirugarren lan-saioan, Italiako Hego Tiroleko Ombudsman lanetan diharduen Werner Palla jaunak “Ombudsmana eta gutxiengoak” izeneko gaia jorratu zuen.

Adierazpen interesgarri honen arabera, argi dago Europa errealitate anitz delako, kultura, etnia eta erlijio ezberdineko hainbat herri osatua eta hizkuntza-ugaritasun handia duena.

Txostengileak gutxiengo kontzeptua zehaztu zuen, Ombudsmanari dagozkion zereginen argitan.

Bere azalpenean hizkuntza-gutxiengoak jorratu zituen batez ere, Italiako Hego Tirol edo Alto Adige eskualdean berak duen esperientziatik abiatuz; izan ere, bertako biztanle gehienak alemanieraz mintzo dira, baina badira italieraz eta ladinoz egiten duten hizkuntza-gutxiengo batzuk ere.

Txosten bakoitzaren ondoren, Ombudsman guztien arteko solasaldiak egiten ziren, azalduetako gaiei buruzko beren iritzia elkarri ezagutzera emateko, norberaren eskarmentuaren ikuspegitik.

## **2.6. OMBUDSMANAREN INSTITUTU EUROPARRAREN BATZAR NAGUSIA**

Joan den 1993ko urriaren 29an, Ombudsmanaren Institutu Europarrak bere urteroko batzar nagusia egin zuen Gasteizen.

Ohizko gaiak aztertu ziren, hala nola kontu-ematea, 1993rako aurrekontuaren erabilera eta urtealdi horretan Institutuak buruturiko ekitaldien laburpena.

Hurrengo bilera Berlin hirian egitea erabaki zen, eta horretarako "Giza eskubideen babeserako erakundeen finkapena Ekialde Europan" gaia aukeratu.

Zuzendaritza-batzarra hiru urtez behin aukeratzen bada ere, Ombudsmanaren Institutu Europarreko lehendakariordea hautatu zen; izan ere, postua hutsik zegoen, bera betetzen zuen Alvaro Gil-Robles jaunak Espainiako Herri Defendatzaile agintaldia amaitu zuelako.

Batzar Nagusiak, aho batez, Juan San Martin Arartekoa hautatu zuen Ombudsmanaren Institutu Europarreko lehendakariorde.

## **2.7. HERRI DEFENDATZAILEEN ARTEKO KOORDINAZIOARI BURUZKO VIII. JARDUNALDIAK**

Koordinazioa eta lankidetzak irizpideak dira Espainiako Herri Defendatzailearen eta autonomi-ordezkarien arteko harremanen ardatza.

Urtero egiten diren koordinazioari buruzko jardunaldiak oso baliagarriak dira herri defendatzaileen arteko harremanen oinarrian dauden irizpide horiek betetzeko.

Bilera horien bitartez, guztientzako jardunbide beretsuak finkatu eta ikuspuntu desberdinak elkarri ezagutarazi ez ezik, Estatu osoko biztanle ororenak diren hainbat arazo aztertu nahi dira.

Azken jardunaldiak Madrilen antolatuta dira, eta bertan adinekoen eta adingutxikoen eskubideak izan dira aztergai.

Lehen lan-saioan, Andaluziako Herri Defendatzaileak "Adinekoen egoera" izeneko txostena aurkeztu zuen.

Bestalde, Galizako Valedor do Pobo deritzanak jorratu zuen gaia "Estatuak eta gizarteak gure aiton-amonei bizimodu duina ziurtatzeko duten betekizuna".

Herri Defendatzailearen Bigarren Ondokoak, aldiz, "Gure adinekoen eskubideak" zeritzan komunikazio bat eman zuen; Arartekoak azaldu zuen gaia "Zahartzarora gure garaiko gizartean" izan zen, eta behin-behineko Herri Defendatzailearena "Hirugarren adinekoek jasaten dituzten arazoak laburpena". Aragoako Justicia delakoa aritu zen mahaiburu lanetan.

Arartekoak zuzendu zuen bigarren lan-saioa, eta hartan adingutxikoen eskubideen gaia aztertu zen.

Kataluniako Síndic de Greuges, Kanarietako Diputado del Común-ek eta Andaluziako Herri Defendatzaileak "Adingutxikoen lege eta laguntza mailako egoeraren arazoak" gaiaz hitzegin zuten. Bestalde, behin-behineko Herri-Defendatzailearen gaia "Adingutxikoaren babes konstituzionala eta Herri Defendatzailea" izan zen.

Txosten eta komunikazioak aurkeztu eta eztabaidatu ondoren, herri defendatzaile guztiek bere egin zituzten ondorio interesgarri batzuk hartu ziren; hona hemen:

"Legebiltzarretako ordezkariok, Herri Defendatzaileen Koordinazioari buruzko VIII. Jardunaldietan bilduta, adinekoen egoera eta arazoak aztertu ditugu. Gure eguneroko lanetan, guztiok jasotzen ditugu biztanle-multzoz garrantzitsu honen kezak; keza horiek, oro har, Administrazioak arlo honetan egiten duen lanean hutsune eta hutsegite ugari daudela erakusten dute.

Halaber, argi ikusten da azken urteotan administrazio publikoak, bakoitza bere esparruan, gero eta gehiago arduratu direla gai hauetaz, adinekoei arreta emateko dirubideak ugalduz; horren lekuko dira Nazio mailako Gerontologi Egitamua eta komunitate autonomoek abiarazi dituzten plangintza desberdinak.

Hala eta guztiz ere, hiritar hauek jasaten dituzten arazoek konpondu gabe jarraitzen dute. Horregatik, legebiltzarretako ordezkariok komenigarri irizti genion gure urteroko bilkuran arazo honetaz jarduteari.

Azaldutako gai guzti-guztiak jorratzea ezinezkoa izanik, garrantzi berezia eman diegu osasun eta gizarte zerbitzuei, bai eta bi alor horien ardura duten administrazioek elkarrekin lan egin beharri ere.

Elkarren artean egindako gogoeta honen emaitza gisa, hona hemen atera ditugun

## ONDORIOAK

1) Ugalkortasun eta hilkortasun tasak jaitsi eta bizi-itxaropena zabaldu ondoren, erronka handi bat daukagu orain esku artean: biztanleriaren zahartasuna. Espainiako gizarte-babes sistemak derrigorrez heldu beharko dio erronka horri datozen hamar-urtealdietan. Gauzak horrela, adinekoei ematen zaien arreta zabaldu beharra gertatuko da. Horretarako, premia-koa da behar adinako baliabideak bideratzea Nazio mailako Gerontologi Egitamua neurriak eta autonomi mailako beste plangintza-tresna batzuk ere aurrera ateratzeko.

2) Nahiz eta datozen urteotan ere adinekoen gizarte-babesaren ardatz nagusiak pentsio zergagarriak eta ez-zergagarriak izan, gizarte-zerbitzuak eta pertsona hauentzat bereziki dauden osasun-zerbitzuak areago garatu beharko dira; izan ere, badirudi "laugarren adina" deitzen dena gero eta

gehiago haziko dela, eta argi dago hiritar horiek askoz gizarte eta osasun laguntza handiagoa behar izango dutela.

3) Egia da konstituzio-antolamenduak behar adinako lege-babesa ematen duela adinekoen gizarte eta osasun egoerak dituen beharrizanak betetzeko. Hala ere, aribidean, erakundeek arreta handiagoz lan egin beharko dute, Konstituzioak aitortutako eskubideak krisialdi ekonomiko handiko garaiotan ere errespetatzen direla ziurtatzeko, horren ondorioak txarra-  
goak izan baitaitezke egoerarik okerrenean bizi diren biztanleentzat.

4) Herri-agintariek eta, oro har, gizarteak berak behar diren neurriak hartu beharko dituzte adinekoek beren bizimodurik gogokoena aukeratzeko duten eskubideaz baliatzerik izan dezaten; era berean, ahalik eta laguntza handiena eman beharko diete pertsona hauei, beren burujabetasunari ahal duten neurrian eustea izan dezaten.

5) Adinekoen osasunari arreta egitea ikuspuntu askotatik begiratu beharko litzateke; hau da, alderdi fisikoak ez ezik, psikologikoak, sozialak eta ekonomikoak ere hartu beharko lirateke kontuan.

6) Orobat, beharrezkoa iruditzen zaigu adintsuentzako osasun-egitarau bereziak prestatzea, bai aurre hartzeko neurriak, bai sendabideak eta bai birgaitzea ere egoki batuz.

7) Frogatu ahal izan denez, osasun-zerbitzuetan egon ohi diren itzarotzerrendek adinekoengan izaten dute eraginik handiena, eta, talde horren barruan, are eragin larriagoa izaten dute gizarte-babesik gutxieneko pertsonengan, hau da, osasun-zerbitzu pribatueta jotzeko aukerarik ez dutenengan.

8) Beste alde batetik, ondo azpimarratuta utzi behar da erietxe eta ospitale orokorretan egonaldi luze eta ertainetarako behar adina oherik ez dagoela, eta, orobat, beharrezkoa dela haietan gerontologi-zerbitzuak ugaltzea. Gainera, ahalegin handiagoak egin beharko lirateke beste era bateko osasunbideak garatzen, hala nola eguneko ospitaleak eta etxeko etxeko osasun-laguntzak.

9) Gizarte-zerbitzuen alorrean, egia da ahaleginak egin behar direla adinekoek, ahal den neurrian, beren ohizko bizitokian jarrai dezaten; baina, halere, behin eta berriz esan behar dugu egoitzetan nahikoa posturik ez dagoela, eta, beraz, premiazkoa dela horietan askoz ere aukera gehiago ematea, dagoen eskariari egoki erantzutekotan.

10) Bestalde, egoitza batera sartzen den aitona edo amona hasiera batean bere buruaren jabe bada ere, haien gaitasun fisiko zein psikikoak gero eta gehiago murrizten direnez, beharrezkoa da egoitzen egiturak moldatzea, premiadunentzako behar adinako modulurik ez badaukate; era berean, beharriz horiek ere hartu behar dira kontutan, egoitzetako langileak premiadunen arazoei heltzeko gauza izan daitezten.

11) Zaharrentzako egoitzek ematen dituzten zerbitzuez gainera, beste aukera batzuk ere bultzatu beharko lirateke, hala nola aldi baterako egonaldiak, eguneko egonaldiak, edota zaintzapeko etxebizitzak.

12) Beste alde batetik, ezinbestekoa da agintari publikoek zahar-egoitzen ordeko beste programa batzuk abiaraztea; haien artean, etxeko laguntzari eman beharko litzaioke lehentasuna, telelaguntza deitzen dena ere barne; izan ere, adinekoei arreta emateko modu hau azken urteotan dexente zabaldu den arren, oraindik ere oso handia da dagoen eskaera eta txikiegia, aldiz, eskaintza. Adineko pertsonak beren etxean bizitzen jarraitzekotan, etxebizitzak moldatzeko egitarauak ere antolatu beharko dira.

13) Adinekoak familietan hartzeko aukera ere aztertu beharko litzateke, orain arte aski aldi gutxitan gauzatu baita aukera hori.

14) Beste maila batean, adinekoez arduratzen diren erakundeak ireki eta lanean aritu ahal izateko, halako gutxienezko baldintza batzuk, langaiezkoak zein jardunezkoak, ipini beharko lirateke, haien bizigarritasuna eta jarduna bat etorriko badira gizon-emakume guztiak merezi duten tratu duinarekin. Hori bermatu ahal izateko, herri-administrazioek behar den maiztasunaz ikuskatu beharko litzukete zaharrentzako zentru pribatuak, erabiltzaileek tratu egokia jasotzeko duten eskubidearen aurkako egoerak galerazteko.

15) Helburu berberaz, gai honi buruzko legeriak ondo zehaztu beharko luke zeintzuk diren adinekoentzako gizarte-zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonen eskubideak, batez ere honako puntu hauetan: ematen den arretan bereizkeriarik ez egotea, tratu duina jasotzea, beste gizon-emakumeekiko harremanak, pertsonen askatasun eta intimitatea, behar bezalako atentziora ematea gizarte, osasun eta kultur mailan, besteak beste; orobat, erabiltzaileen betebeharrak ere finkatu beharko lirateke, adibidez, zerbitzua edo erakundea erabiltzeko baldintzak betetzea, eta gainerako erabiltzaileei zor zaien begirunea erakustea.

16) Beharrezkoa da, orobat, borondatezkoza suspertzea adinekoen alorrean lan egiteko.

17) Azkenik, ondo azpimarratu behar da zeinen beharrezkoa den osasun-zerbitzuak eta gizarte-zerbitzuak behar bezala koordinatuta egotea; izan ere, koordinazio horretarako biderik ez badago, berez osasun mailakoak, ez eta gizarte mailakoak bakarrik ez diren arazoak dauzkaten pertsonak ateratzen dira kalteturik.

Bestalde, adingutxikoen eskubideen gaian atera diren **ONDORIOAK** beste honako hauek dira:

Legebiltzarretako ordezkariok, Herri Defendatzaileen koordinazioari buruzko VIII. Jardunaldietan bilduta, adingutxikoen egoera eta arazoak aztertu ditugu.

Adingutxikoen egoera juridikoa bereziki kaltekorra denez gero, denok arreta berezia eskaintzen diogu alor honetako arazoak konpontzeko ahalegina-ri. Bestalde, kontutan hartuz adingutxikoentzat, adinagatik hain zuzen, beren eskubideak beren kasa babestea zailagoa dela, kasu horietarako lege-arautzai-leek dauzkaten baliabideak erabili beharrean gaude.

Arrisku egoeran dauden adingutxikoen bizimoduaren gabezia, hutsune eta gainerako ezaugarriak oso kaltegarriak izan daitezke beren nortasuna osoki garatzeko orduan, egoera horiek konpontzeko neurririk hartzen ez bada. Ildo horretatik, aparteko garrantzia daukate adingutxiko batzuek beren etxee-tan jasaten dituzten tratu txarrek.

Nahiz eta herri-administrazio batzuek lan oso onuragarria egin duten alor honetan, ezin esan daiteke behar adinako arreta ematen zaionik gai honi; ai-tzitik, gizarte-arazoak dituzten beste hiritar-multzo batzuei baino arreta gutxia-go eskaintzen zaie.

Jardunaldiotan, alderdi guzti-guztiak jorratzea ezinezkoa izanik, agintari publikoek babesgabeko adingutxikoen eta delitugileen egoeraren inguruan egi-ten dutena aztertu dugu. Halaber, adingutxikoen intimitaterako eskubideaz ere jardun gara, eta, azkenik, haurtzaroaren arazo bereziek gure erakundeen anto-laketarako eduki ditzaketen ondorioez ere arduratu gara.

Horren guztiaren emaitza, honako ondorio hauetan laburbilduko dugu:

**1.** Agintari publikoek adingutxikoen inguruan egiten dutenari osotasu-nean helduko dion legeria edukitzea komeni da.

**2.** Adingutxikoentzako Epaitegien Eskumena eta Prozedura Arautzeko Legearen Aldaketari buruzko 4/1992 Lege Organikoa, ekainaren 5ekoa, aurrerapausu nabarmena izan da adingutxikoek ere epaileen babes era-ginkorrerako eskubide osoa dutela aitortzeko. Dena dela, baieztapen horretatik abiatuta, legegileak oraindik arautu ez dituen alderdi batzuk badira, batez ere zigortzeko neurriak burutzeari dagozkionak. Arautu behar diren alderdiak honako hauek dira, besteak beste: zigor-neurri horiek betearazteko orduan epaileari eta Administrazioari dagozkien bete-kizunak zehazki bereiztea; adingutxikoa zuzenbideratzeko neurria bete-tzen ari deneko zentruak hura tratatzerakoan gogoan izan behar dituen funtsezko irizpideak, hala nola irakaskuntza -eta bereziki derrigorrezko irakaskuntza- jasotzeko eskubidea, guraso, senide eta hurkoen bisita jaso-tzekoa, eta gutun edo telegrama bidezko harremanak edukitzeko eskubi-dea bermatzea; neurria betetzen den bitartean adingutxikoari ezar dakio-keen diziplina-araubidea, zigorren legezketasun irizpidea derrigorrez bete behar baita; administrazio eta epailaritzaren eremuan errekurtsioak ezartzeko aukera; eta, azkenik, adingutxikoak zentruaren jardunean izan dezakeen partaidetza.

Honi guztiari gagozkiolarik, bereziki nabarmen utzi behar da legegilearen hutsune horren eraginez oso hutsegite handiak ari direla gertatzen adin-gutxikoentzako epaitegiek erabakitako neurriak betetzeko orduan.

**3.** Esanak esan, horrelako epaitegiak ezartzeari buruzko egitasmoak aurrera atera beharko lirateke, haiei arlo anitzeko lantaldeak atxekiz. Orobat, adingutxikoei laguntzeko abokatu txanda bereziak antolatuta beharko lirateke, bai eta adingutxikoentzako polizia taldeak Espainiako lurralde osora zabalduta ere.

**4.** Beste alde batetik, aurre hartzeko neurriak eman beharko litzaieke lehenetsuna, eta, halaber, adingutxikoari lagundu, beharrezkoa bada, zigor-neurria bete ondoren.

**5.** Adingutxikoa babesteko lege-esparrua hobetu beharra dago, eta horretarako, besteak beste, komenigarria litzateke azaroaren 11ko 21/1987 Legea gara dezaten hori oraindik egin ez duten komunitate autonomoek, beren Zuzenbide zibil berezian horri buruzko aurrakuspenik badagoenean izan ezik.

**6.** Adingutxikoez arduratzeko baliabideetan ez da egon inolako plangintzaririk. Hortaz, egoki diren bideak erabiliz, dauden baliabideak egiazko beharrezanetara moldatu beharko lirateke, batez ere zuzenbideratzeko zereginari eskaintzen zaizkionak; era berean, baliabide horiek egokiago banatu beharko lirateke lurralde guztien artean, eta bestelakotu ere egin beharko lirateke; horrela, epaileak erabakitzen dituen neurriak betetzera-koan, erantzun egokiagoa eman ahal izango da behar bezain zerbitzu zabal eta era askotakoak edukiz gero. Hori lortzeko, badirudi administrazioek estuago elkar hartuz lan egin behar dutela, gaur egun dauden baliabideei ahalik eta etekinik onena ateratzeko.

**7.** Epaileek erabakitako zuzenbideratze-neurriak, berez, jabetza publikoko zentru edo zerbitzuetan bete beharko lirateke. Hala ere, erakunde pribatu-  
tuen laguntza behar baldin bada, hitzartzen den zerbitzu publikoa behar bezala eskainiko dela ziurtatu behar da, dagozkion kontrolbideak prestatuz.

**8.** Adingutxikoei behar bezalako arreta eskaintzearen, egoitzetako barnealdien ordezkotako beste bide batzuk erabili beharko lirateke, etxebizitza funtzionalak esaterako, ahal den neurrian famili-giroa eskaintzeko; familietan harrera egitea ere erabili liteke orain baino gehiago. Bestalde, aurre hartzeko neurriak ere suspertu nahi baditugu, familiaria laguntzeko neurriak zabalduta beharko dira, oso kontutan hartuz adingutxikoak babesik gabeko egoeran daudela etxean tratatu txarrak jasaten dituztenean. Hori erdiestearren, egoera horiek antzemateko egitarauak antolatuta beharko lirateke, batipat osasun eta heziketa zentru eta zerbitzuetan.

**9.** Administrazioaren zainpean egondako adingutxikoei, adin-nagusitasunera heltzean, beren nortasuna osoki garatzeko behar adinako laguntza eman beharko litzaieke.

**10.** Gaia aldatuz, biziki kezkatzen gaituzte komunikabideetan sarritan agertzen diren adingutxikoei buruzko zenbait albistek, haien ohore, inti-

mitate eta irudi onerako eskubideak urratzen baitituzte. Horri dagokionez, are berme gehiago eman beharko lirateke eskubide horien jabe adingutxikoak direnean, eta, horrela, informatzeko eta adierazteko askatasuna haurtzaroa babestu beharrari egokitu beharko litzaioke; izan ere, are garrantzi handiagoa eman beharko litzaioke adingutxikoa babesteari, beronek jasan ditzakeen kalteak egiaz konponezinak izango bailirateke.

**11.** Oro har ikusita, osotasunaren ikuspegitik erantzun behar zaie adingutxikoen arazoei, arauen hutsuneak aztertzeko eta horien lekuan adingutxikoen arazoen alderdi desberdinak kontutan hartzen dituzten irizpideetan oinarritutako bidez baliatzeko.

**12.** Ildo horretatik, arazo nagusiei heltzeko orduan, agintari publiko guztiek, bakoitzak bere eskumeneko esparruan, adingutxikoek dauzkaten beharrizan bereziak hartu beharko litzukete gogoan, beren jarduna beharrian horiek eskatzen dituzten konponbide bereziei egokitzeko.

**13.** Oso komenigarria litzateke adingutxikoei zer diren herri defendatzaileak eta zer egin dezaketen beren eskubideak babesteko erakustea; horretarako bide bat, irakaskuntza maila desberdinetan haien berri eman eta aztertzea izan liteke.

**14.** Adingutxikoen arazoak bereziak direnez gero, herri defendatzaileek arreta egokia ere eskaini behar diete. Horretarako, haurtzaroaren eskubideak babestu ahal izateko behar diren tresna apropos eta eraginkorrak eduki beharko dituzte beren esku. Komenigarria litzateke erakunde bakoitzak, bere barne-antolamenduan, arazo horiei erantzun berezia emateko neurriak hartzea, erakunde bakoitzaren ezaugarrietara ondoen moldatzen den bidea erabiliz.

**15.** Amaitzeko, haurtzaroaren babeserako gobernuetz kanpoko elkarteekin harreman iraunkorrak edukitzeko asmoa dugula esan nahi dugu; elkarlanean aritu nahi dugu haiekin, adingutxikoen eskubideak gero eta eraginkortasun handiagoaz suspertu eta zaindu ahal izateko.”



III. ATALA

**KEXEN LABURPENA SAILEZ SAIL**

### 3.1. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURIS- MOA

#### A) Sarrera

Sail honetan 21 kexa jaso dira, hau da, Erakundean aukeztu direnen %3,7.

Eragindako administrazioei begira, banaketa ondorengoa da:

- Eusko Jaurlaritza.....	16
- Diputazioak.....	4
- Udalak.....	5

Edukiaren arabera, honela bana daitezke erreklamazioak:

- Nekazaritza .....	6
- Industria.....	9
- Merkataritza .....	6

Nekazaritza azpisailean, nekazaritzako erakunde profesionalek Ararteko honi aurkeztu dizkietenak azpimarratuko ditugu; kexa horiek sustapen gaietan erabilitako irizpideei buruzkoak izan dira, Administrazioak era horretako erakunde baten sorrera zela eta emandako laguntzen kontrakoak hain zuzen.

Industriari dagokionez, gas instalazioetako akatsek eragindako kexak nabarmen ditzakegu; izan ere, zenbaitetan akats horien ondorioz, zerbitzuak behar bezala ez emateagatik ardura eska dakieke administrazioei. Era berean, gas instalazioetan derrigorrez egin beharreko errebisioetan erabilitako tarifetan inolako argibiderik ez agertzea salatzen duen erreklamazio bat ere jaso da.

Bestalde, urtealdi honetan ere egin dira Ibilgailuen Ikuskaritza Teknikoa-rekin loturiko salaketak.

Azkenik, Merkataritza azpisailari dagokionez, ogia saltzeko dendetan prentsa saltzeari buruzko kexak aipa daitezke.

## B) Kexa aukeratuak

### *Egur-saila ez esleitzeagatik agertutako desadostasuna (94/92)*

Erakunde honetan jasotako kexa batean, Aletxako biztanle batzuek salatzzen zuten bidegabeki egur-pilarik gabe utzi zituztela, Zikujanoko Administrazio Batzarrak hartutako erabakiaren ondorioz.

Haien esanetan, Administrazio Batzarrak erabaki hori herriko biztanle baten aitorpenean bakarrik oinarrituz hartu zuela, zeinak adierazi bait zuen kexadunak ez zirela bizi izan sei hilabetez jarraian Aletxan zuten etxean.

Horri zegokionez, beraiek uste zuten biztanle baten edo gehiagoren iritzia ezin zela froga ezeztatzin bezala hartu, are gehiago beren etxea herritik bostehun metrora dagoela kontuan izanik.

Lehenik Zikujanoko Administrazio Batzarrera jo genuen, eta eskuratu zizkiguten agirien bidez frogatu genuen egur-saila ukatzeko erabili zuten argudioa herriko biztanleen hitzeko aitorpena izan zela, eta horiek adierazi zuten, kexa-aurkezleak ez ziren sei hilabetez jarraian herrian bizi izan. Herriko ondasunez baliatzeko baldintza hori betetzea derrizgorrezkotzat jotzen zuen Kontzejuaren aurreko akordio baten indarrez, beraz, ez zegokien egur-andanarik.

Aletxako biztanleek sinatutako zinpeko aitorpenetik ez zen ondorioztatzen, ordea, kexadunak ez zirela han bizi izan arauz ezarritako denboraldian. Orobat, uste genuen beharrezkoak zirela aitorpen haiek zein egunetan egin ziren jakitea, herrian ez egoteko bidezko arrazoiak egon zitezkeelako.

Horregatik, Ararteko honek informazio osoagoa eskatu zion Zikujanoko Administrazio Batzarrari, Aletxar haiek zein denboralditan ez ziren egon herrian zehaztearren; horrela, kexadunek herrian ez egoteko bidezko arrazoirik zuten ala ez adierazi ahal izango zuten, nahi izanez gero.

Puntu hori zehaztu ondoren, interesatuei aditzera eman genien eskatu frogak aurkeztu behar zituztela Administrazio Batzarraren txostenean ezarritako epean, bestela, Batzarraren jokabidea zuzentzat jo beharko zelako.

Kexa-aurkezleei emandako epean horri buruzko argitasunik jaso ez genuenez gero, espedientea itxi eta artxibatu egin zen.

### *Ibai ondoko zuhaitzak botatzea (579/92)*

Arabako Fontetxa herriko orube baten jabeak erakunde honetara jo zuen, orube inguruko zuhaitz sail bat botatzeko asmoa zuela eta lan hori egiteko trabak aurkitzen zituela azaltzeko.

Auziaren muinean arazo publiko eta pribatuak zeuden. Pribatuak, kexadunak bota nahi zituen zuhaitzen jabetzari zegozkion, nahiz eta garbi egon norena zen zuhaitz haiek zeudeneko lurra.

Arazoen nondik-norakoak argitu nahirik, erakunde hau orube-jabearekin, Arabako Nekazaritza eta Abeltzaintza Elkartearekin eta Ebroko Bazkun Hidrografikoarekin harremanetan jarri zen. Azken erakunde hori eskuduna zen, auzitan zegoen gaia foru eta estatu mailako erakundeen pean zegoelako, hain zuzen ingurugiroa eta uren arazoa biak hartzen baitzuten.

Azkenik, Arabako lurraldean zuhaitzak botatzeko baimena emateko eskua Arabako Foru Diputazioak zuela frogatu ondoren, Diputazioko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendien Sailari informazio eskaria bidali zitzaion, kexadunak erakunde horri igorriko idatziei erantzun zehatza eman ziezaion eskatuz. Aurrerago, erreklamatzailaren eskariari zegokion espedientea zein egoeratan zegoen galdetu zitzaion idatziz Diputazioari. Bigarren idatzi horri emandako erantzunean, aipatu foru sailak, administrazioaren isilaldi positiboaren indarrez orube-jabeari eskatutako baimena ematen ziola aitortzen zuen.

Arartekoari zegokion jardun-eremuan kexari zegokion arazoa konpondu ondoren, eta Ebroko Bazkun Hidrografikoaren beharrezko baimena bakarrik falta zela ikusirik, erakunde honek kexadunari jakinarazi zion zein bideri ekin behar zion jarraian bere orube inguruko zuhaitzak botatzeko asmoa betetzeko. Horrekin batera, Ararteko honek gai honen inguruan ezin zuela besterik egin iritzi zion.

#### *Nekazari-elkarteei dirulaguntzak emateko irizpideak (5,15/93)*

Gipuzkoa eta Bizkaian 1991. urterarte nekazal sindikatu bakar bat zegoen, Euskal Herriko Nekazarien Elkartea (EHNE), eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantzu Sailetik bederatzi milioi t'erdi pezetako laguntza jasotzen zuen lurralde bakoitzagatik.

Euskal Nekazarien Batasuna (ENBA) 1992. urtean sortu ondoren, ordu-rarte osorik EHNERi ordaintzen zitzaion dirutza bitan banatu behar izan zen, eta horrek sorrarazi zituen bi elkarten arteko lehen eztabaida eta auziak, zegokien diruaren banaketazkoak, alegia.

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailak, dirulaguntzak banatzeko irizpideei buruzko lehen txostena osatu zuen. Bertan adierazten zenez, aurrekontuetan finkatu dirutza neurri berean banatuko zen hiru lurralde historikoen artean. Lurralde bakoitzari izendatzen zitzaion kopurutik %30 lurralde horretan jarduten zuten erakunde profesional bakoitzari emango zitzaion, eta gainontzekoa afiliazioaren eta erakunde bakoitzak aurkezturiko jarduera txostenen arabera banatuko zen.

Zirriborro hori atzera bota zuten bi elkarteek eta, beraz, aipatu sailak banaketa hau egitea erabaki zuen: Bizkaian sei milioi EHNERi eta hiru milioi ENBARI, eta Gipuzkoan, aldiz, EHNERi bost milioi eta ENBARI lau.

Bi elkarteek, orduan, Arartekora jo zuten, EHNERen ustez ENBARI emandako diru-kopurua handiegia zelako zeukan afiliazioari begira, eta ENBAREN ustez, berriz, banatutako diruaren arteko aldeak diskriminatzaileak eta arrazoi-gabeak zirelako.

Horri dagokionez, dirulaguntzen izaera ezagutu behar da. Premia publikoak asetzeko edo guztien erabilerarako jo daitezkeen ekimenak babestu eta sustatzeko administrazio-jarduera da dirulaguntza, eta sustapenarako administrazio-alorrean txerta dezakegu. Aurrekontuetarako Oinarrizko Legeak dio, Aurrekontu Orokorren pentzutan emango diren laguntzek publizitate, partehartze eta alderdikieriarik ezaren irizpideetan oinarritu behar dutela.

Konstituzio Epaitegiak, berriz, besteak beste ondorengo epaien bidez eman du bere iritzia: Konstituzio Epaitegiaren otsailaren 14ko 20/1985 eta otsailaren 22ko 26/1985 epaiak, elkarteei beren ordezkari-tza-mailaren arabera laguntzak ematen zizkieten 1983ko eta 1984ko Aurrekontu legeen kontrako errekurtsioetan ebatziak.

Epaitegi gorenaren bigarren epaiak dioenez, elkarteekiko burutzen duen edozein jardueratan askatasun sindikala errespetatu behar du Estatuak, hau da, alde batetik, Administrazio publikoak ez du eraginik izan behar erakunde sindikalen jardueretan, langileak laguntzarik handiena jasotzen duten sindikatuetan afiliatzen bultzatzen ez ditzan, eta bestalde, erakunde horiek Administrazioaren aldetik nahikeriaz edo arrazoirik gabe diskriminatuak ez izateko daukaten esku-bidea errespetatu behar zaie.

Horrela, Nekazaritza Sailak laguntzak banatzeko ezarri zituen irizpideez gain beste batzuk ere bazeuden arren, ez zirudien aukeratuak alderdikieriarik eza eta laintasun irizpideak hausten zituenik.

Nolanahi ere, aurrerantzean aurrekontuetako atal hori banatzeko erabiliko diren irizpideak agindu bidez jasota utz ditzan gomendatu genion Nekazaritza Sailari.

## 3.2. KULTURA ETA ELEBITASUNA

### A) Sarrera

Sail honetan 18 kexa aurkeztu dira, hots, guztien %3,2a.

Zein administrazioen kontrakoak izan diren kontuan harturik, honela bana daitezke:

- Eusko Jaurlaritza.....	13
- Foru Diputazioak.....	7
- Udalak.....	2

Kultura sailean kexa gehienak administrazioek alor ezberdinetan gauzaten ari diren sustapen jarduerarekin lotuta daude. Kasu batzuetan laguntzarik eza eta beste batzuetan dirulaguntza horiek atzerapenez ordaintzea izan dira kexa-arrazoiak.

Sail honi dagokionez, eta kontutan harturik sustapen-jardueraren berezko izaeratik, gai honetan administrazioek aukerako ahalmena daukatela, Arartekoak batez ere legezketasun-irizpidea behar bezala bermatu den frogatzeari

eta zenbaitetan laguntzak ordaintzerakoan gertatzen diren atzerapenak zuzen daitezzen gomendatzeari ekin dio bere lana.

Euskararekiko hiritarren eskubideak eta herri-agintaritzaren betebeharrak oraindik kexa askoren arrazoi dira.

Lurralde honetan hizkuntzaren erabilerari buruzko edozein aipamen egiterakoan, ez da elebitasuna ahaztu behar. Bi hizkuntzek araubide bera dute eta, beraz, biek babes juridiko bera dute. Halere, azaroaren 24ko 10/82 Legeak bete asmo duen euskara normaltzeko helburua ezin da berehala gauzatu, ordaindu ezineko diru-xahupena ekarriko lukeelako; horregatik, arestian egin dugun baieztapenak batzuetan arazoak sorrerazten ditu, gaztelerez bezalaxe bete ezin diren zerbitzuak euskaraz eskatzen direnean. Horrek euskararen erabileraren eskubidea funtsean hausten dela esan nahi ez badu ere, aldiz, zerbitzua ematen duen administrazioak eskaintako konponbidea ez da gaztelerez eskaintzen denaren parekoa.

Hizkuntza aukeratzeko askatasun osoaren aitorpena, zuhurtasunez egin beharrekoa bestalde, momentuz unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako hizkuntz ereduari bakarrik ezar lekieke. Eta seguruenik, irakaskuntzaren bidez lortu ahal izango da euskararen erabileraren benetako normalkuntza.

Hiritarren eta Administrazioaren harreman zuzenetan, erabateko berdintasuna lortzeko asmo edo helburu hori ibilbidearen hasieran baino ez dago oraindik ere. Administrazio ezberdinetako funtzio publikoa euskalduntzea, euskararen erabilera normaltzeko baldintza bada ere, oraindik ezin da esijitu, eta horregatik, harremanak euskaraz izateko eskubidea gauzatu ahal izango da administrazioek berek horretarako beren burua prestatuz doazen neurrian.

Administrazio ezberdinak arian-arian euskalduntzeko eman diren urratsen neurria ez da erabatekoa. Horrela, Hizkuntz Normalkuntzarako Egitasmoan sartu gabeko administrazioen artetik, irakaskuntzaren alorreko funtzio publikoari bakarrik ezarri zaio araubide berezia. Osasunaren Administrazioak ez du oraindik egin beharrezko den arautzea, Ertzaintzak bezalaxe, eta zerbitzu horietan maiz izaten dira zuzeneko harremanak hiritarrek.

Jaso dituen kexak aztertzerakoan, Erakundeak aintzat hartu dituen arrazoi horiek galerazi gabe, salatu diren beste gertakizun batzuek ez zeukaten bitarteko ezarekin zerikusirik, baina agente publikoei sarritan euskararen erabilera bermatzeko ezarritako betebeharrak ahazten zaizkiela erakusten zuten. Halakotzat jo daitezke iragarki-oholetan iragarkiak gaztelera hutsean jartzea, edo aurrez kontuak ez ateratzeagatik lehiatzaile batek azterketa testuak euskaraz ez aurkitzea, kasu honetan, frogak hizkuntza honetan burutzeko duen eskubidea gauzatzea ezinezko gitezen zaiolarik.

## B) Kexa aukeratuak

*Lana lortzeko probetan eta Administrazioarekiko harremanetan euskara erabiltzeko eskubidea (378/92)*

SVS-Osakidetzaren deialdiaren bidez eskaintzen ziren postuetako bat eskuratzeko gai zen pertsona bat konturatu zen hautaketa-prozeduran ez zela frogak euskaraz egiteko aukerarik iragarri.

Frogetako batzuetan, galdera zerrenda luzea gazteleraz eman ziotenean, frogak euskaraz egin nahi zituela adierazi zuen. Bere eskariari erantzuteko, epaimahaiak galderak ahoz itzultzea proposatu zion. Irtenbide hori ez zuen onartu, horrek berarekin zekartzan arazoez gain, beste lehiakideen atzean geraraziko zuela uste zuelako.

Ukatze ekinga horri kexadunak zuzenean aurka egin ez bazion ere, geroago administrazio-errekurtsoak ezarri zituen frogak gainditu zituztenen zerrendak onartzen zituen erabakiaren kontra.

Administrazio-errekurtsoei buruzko ebazpen zehatzaren zain egon ondoren, kexadunak 1992ko ekainaren 3ko data zeraman idatzi bat jaso zuen, postuak betetzeko deia egin zuen administrazioak bidalia, eta bertan zergatik ez zegoen frogak euskaraz egiterik azaltzen zen.

Eskari eta errekurtsu idatzi guztiak euskaraz bidali zituen arren, erantzuna gaztelera hutsean jaso zuenean, euskara erabiltzeko eskubidea berriro ere ez ziotela errespetatu irudituz zitzaion kexa-aurkezleari eta, gainera, erantzun hori ez zela ezarritako errekurtsuen ebazpena; horregatik jo zuen Ararteko Erakundera.

Kexaren azterbidean, Arartekoak jakin zuen Hizkuntz Politikarako Idazkaritzak postuak betetzeko deialdia egin zuen administrazioari txosten bat bidali ziola kasu honengatik, eta bertan jakinarazi ziola lehiatzaileak frogak bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egin zitzaizkeela eta eskubide hori betearazteko beharrezko neurriak hartu behar zituela.

Ararteko Erakundea bat zetorren ondorio horiekin, eta azaldutako kexa aztertu ondoren, ondorengo puntuak biltzen zituen gomendioa luzatu zion, deia egin zuen administrazioari, SVS-Osakidetzari alegia.

Alde batetik, adierazi genion SVS-Osakidetzaren ohizko jarduerak pentsarazten zuela erakunde hori ados zegoela Hizkuntz Politikarako Idazkaritzak euskara erabiltzeko eskubideaz bidalitako txostenean jasotako zehazpenekin. Halere, batzuetan eskubide hori bermatu beharra ahazturik, kexa hau bezalakoak eragiten zituzten arau-hausteak gertatzen zirela. Aurrikuspen-falta hori herri-agintaritzan osatzen dugun erakundeok batzuetan euskararen erabilera bermatzeko ezarritako betebeharez ez jabetzeak eragin zezakeela ere jakinarazi genion.

Horren froga 1992ko ekainaren 3ko idatzia zen, SVS-Osakidetzak bere arazoak azaltzeko gaztelera hutsean idatzi ziolako kexadunari.

Kaltetuak jarritako administrazio-errekurtsoei ebazpen zehatza ez emateari zegokionez, Arartekoak iritzi zion, erantzun idatzia bazegoenez, ezin zela ebazpen zehatza emateko betebeharra hautsi zenik esan.

Idatzi horretan, ordea, hutsak nabariak ziren: adibidez ez zen esaten zein errekurtso aurkezteko zitezkeen edo noiz arteko epea zegoen horiek aurkezteko. Administrazio Prozeduraren Legetik hartutako alderdi horiekin batera, Euskararen Erabilerarako Legea urratzen zen (8.2. art.), errekurtsoak euskaraz ezarri eta gaztelera hutsean ebatzi zirelako.

Horregatik guztiagatik, administrazio-errekurtsoaren ebazpen zehatzari zegokionez, aurkitutako hutsak zuzen zitzala gomendatu zion Arartekoak SVS-Osakidetzari Administrazio Prozeduraren Legeari eta Euskararen Normalkuntzarako Oinarritzko Legeari jarraiki. Horrez gain, aurrerantzean egingo ziren deialdietan euskararen erabilera bermatzeko neurriak har zitzala ere gomendatu zion.

Errekurtsoei emandako erantzun idatzian zeuden hutsak, besteak beste kexadunak aukeratutako hizkuntzari zor zitzaion errespetuari buruzkoa konpondu ondoren, espediente artxibatu egin zen.

#### *Euskalduntzat jotako abizenak idaztean, euskal grafia errespetatzea (14/93)*

Bizkaiko neskatxa bat Biztanle-errolan sartu zutenean, abizenak berezko euskal grafiaz idatzi ziren eta, beraz, Familia-liburuan, pasaportearen eta neskatilaren osasun txartel indibidualean hala agertzen ziren.

Haurra Osakidetzako bi ospitaletan egon zenean, ordea, zentru horietan abizenak gaztelarazko grafiaz zerrendaratu zituzten, nahiz eta amak gaisoaren agirietan azaltzen ziren bezalaxe idatz zitzaizkien.

Haurraren amak, kexa-aurkezleak alegia, bere idatziarekin batera ospitaletako agirien fotokopiak eskuratu zituzkigun, eta horietan garbi ikusten zen salatutakoa.

Horregatik, Arartekoak idatzi bat bidali zion Osakidetzari esanaz, era horretako gertakizunak ohizkoak edo noizbehinkakoak ote ziren jakin ez arren, euskal administrazio publikoaren pean dauden zentruetan, bera barne, halako kasuetan euskal grafia errespetatzea komeni zela. Aldi berean, osasun zentru publikoetan, eta bereziki aipatu bi zentruetan, euskal hiritar guztiak eskubide horretaz balia daitezzen beharrezko aginduak eman zitzala eskatu zitzaion.

Osakidetzak eskariarekin ados zegoela eta gure idatzia bi osasun zentruetara bidali zuela jakinarazi zuen.



### *Errenta aitorpena egiteko euskarazko inprimakirik ez egotea (312/93)*

Hiritar batek kexa-idatzia aurkeztu zuen erakunde honetan, Norbanakoen Urteko Irabazien gaineko Zergari zegokion aitorpena euskaraz aurkeztu nahi eta bere ohizko estankoan hizkuntza horretan argitaratutako inprimakirik ez zuela lortu salatuz.

Arartekoak berehala idatzi bat bidali zion Gipuzkoako Diputazioko Ogasun eta Finantzetako Foru Diputatuari kexa-aurkezleak adierazten zuenari buruzko informazioa eskatuz. Erakunde horrek igorriko idatzian jakinarazten zuen euskarazko inprimakirik eza banaketa arazo batek eragin zuela, kexaduna bizi zen aldean hizkuntza horretako aleak agortu zirelako, eta hurrengo banaketaldian berriro eraman zirela.

Arazoaren sorburua argitu eta kexaren zioa konpondu ondoren, hizkuntz legediak Komunitate Autonomoko hiritar guztioi aitortzen dizkigun eskubideak ez zirela hautsi ikusirik, Arartekoak espedientea itxi eta artxibatu egingo zela adierazi zien eragindako bi parteei.

### *Euskararen erabilera Administrazioak jartzen dituen iragarkietan (527/93)*

Elkarte autonomo honetako administrazioiko funtzionari batek kexa aurkeztu zuen, euskararen erabilerari zegokionez Administrazioak bere eginbeharrak ez zituela betetzen uste zuelako.

Euskal Herriko Komunitate Autonomoko Administrazioak bere funtzionariei egiten zizkien jakinarazpen-iragarkiak horretarako dauden oholetan gaztelerara hutsean agertzen zirela zioen kexadunak. Bere lantokian behintzat hala gertatzen zela zirudien.

Kexarekin batera eskuratu zizkigun agiriak Nekazaritza eta Arrantzu Sailak lanpostu baterako egindako deialdiari zegozkien, eta kexadunak aipatzen zuen iragarki-ohola, berriz, HAEE-IVAP saileko atal batekoa zen.

Zertzelada horrek Administrazioak normalean jokabide hori duela pentsatzeko bide ematen ez bazuen ere, hizkuntz normalkuntzarako bidean hutsegite hori zuzendu beharrekoa zela jabetuz, HAEE-IVAP eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantzu Sailari igorri genien kexa.

Bi erakundeei bidali idatzian hauxe genioen: erakunde honek ez zekiela deialdia egin zuen administraritzak iragarkia gazteleraz bakarrik bidali zuen oholean jar zedin ala, bi hizkuntzetan izkiriaturia egon arren, hutsegite bategatik ohol horretan gaztelerara hutsean azaldu zen.

Aurrerantzean halakorik gerta ez zedin aipatu erakundeei kexa eragin zuten arrazoiari berri jakinarazi ondoren, kexa artxibatu egin zen.

Hilabete geroago, kexadun berberak berriro Arartekora jo zuen iragarki-ohol berean sail ezberdinei zegozkien iragarki eta jakinarazpenak gaztelerara hutsean azaldu zirela jakinarazteko. Bigarren aldi honetan HAEE-IVAPeko iragarkiak sail hauei zegozkien: Lan eta Gizarte Segurantzza Saila, Hirigintza,

Etxebizitza eta Ingurugiro Saila, Justizia Saila, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eta Lehendakaritza, Araubide Juridiko eta Autonomiaren Garapenerako Saileko Funtzio Publikorako Kontseilariordetzaren jakinarazpen bat.

Salaketa berri horiek zirela arrazoi, amaitu gabe oraindik dauden jarduerak burutzen ari gara.

### 3.3. HEZKUNTZA

#### A) Sarrera

Sail honetan guztira 48 kexa aurkeztu dira, kopuru osoaren %8,5.

Kexa horiek eragindako administrazioen arabera sailkapena, berriz, honako hau da:

- Eusko Jaurlaritza.....	45
- Udalak.....	3

Joan den urtean aurkeztutakoetatik aukeratu ditugun kexak aipatu aurretik egiten dugun laburpentxo honetan ezin dugu ahaztu heziketa munduan eragina duten indar politiko eta sozial ezberdinek onarturiko irakaskuntza-ituna. Akordio horren bidez, aski ezaguna den bezala, Euskal Herrian heziketa sistema antolatu eta eraenduko duten legeak onartu dira (Euskal Eskola Publikoaren Legea eta Irakasleen Sailei buruzko Legea), bai eta araudia garatzen duten arau garrantzitsuak ere, eta horien artean hizkuntz eskakizunen dekretua deritzana da nagusi. Antolamendu berri horri esker, Arartekoak kexak ebazteko erabili behar dituen lege-irizpideak arras argitu dira.

Aztertu diren kexen artean, hizkuntz eskakizunak arautzearekin eta B ereduko ikastetxeetan lanpostuak betetzeko derrigortasun-epeekin loturikoak dira aipagarriak.

Ondorioz, Ararteko honek uste du lortutako euskalduntze-mailak bermatu behar direla, hezkuntza gaietan administrazioak burutu behar duen jardueran nagusitu behar duten oinarrizko bi irizpide hauek bete daitezzen: alde batetik, ikastetxeen burujabetasuna, eta bestetik, hizkuntz ofizialkidetasuna modu erangikorrean hedatzea.

Orobat, hizkuntz normalkuntzarekin loturik dauden beste kexa hauek ere aipatu behar dira: hain zuzen, hezkuntz eredu ezberdinak (batipat A eta D ereduak) batera dauden ikastetxeetako zuzendaritzakideei hizkuntza mailan eska lekiekeen gaitasunari buruzkoak. Erakundearen ustez, zuzendaritzakide guztiek bere eginbeharrak euskaraz burutzeko ezintasuna azaltzen denean sorturiko arazoak, Euskal Eskola Publikoaren Legearen V. ataleko arauen garapen egoziaz konpon daitezke, alegia, lege horren 37. artikuluan xedatzen dena ezarri, non esaten baita zuzendaritzakideen hizkuntz gaitasuna bermatzeko neurriak hartu behar direla.

Azkenik, zentru pribatuetan irakasteko baimenari dagokion araubide-prozedurazko kexak aipatuko ditugu; eskatzaileen ustez, baimena arrazoirik gabe ukatu zaielako aurkeztu dira kexak.

## B) **Kexa aukeratuak**

*Herritarrek lanbide eskola baten egoitzaren jabetza iker dadin eskatzen dute (79/90)*

Patronatoaren Alde deritzan Laudioko auzotar elkarteak Arartekora jo zuen, Lanbide Heziketarako Udal Zentrua kokaturiko egoitza Udalaren jabetzat jo beharko luketela eta herri-erroldean hala erroldaratua egon beharko lukeela azalduz.

Arartekoak, gaia aztertu ondoren, 1991ko maiatzaren 3ko datuz hauxe gomendatu zion Laudioko Udalari: ikerketa egin zezala udal jabetzaren pean zein ondasunek egon behar zuten argitzeko eta ondasunen udal zerrendan eta Jabego-errolan halaxe sartzeko.

Udalak 1992ko ekainaren 1ean Arartekoaren gomendioa onartu eta Lanbide Heziketarako Udal Zentrua osatzen zuten ondasun higiezinaren jabetzari buruzko ikerketari ekitea erabaki zuen.

Jarraian, udalbatzarrak ikerketa hasi zuen eta, aldi berean, Hermanos de las Escuelas Cristianas-ekoekin harremanetan jarri zen, hura baita gaur egun egoitza horretan dagoen elkartea, eta egoitza horren izenean agertzen baita Jabego-errolan.

Harreman horien ondorioz, eta bi alderdien erabakiz eskola-partzuergo publiko bat sortzea proposatu zen. Partzuergo horrek eraenduko zuen lanbide heziketaren irakaskuntz zerbitzua, eta eskolaren ondasun higiezinak bere izenean jarriko ziren errolan; partzuergoa desagertu ondoren, bere ondasunak Laudioko Udalaren eskuetara pasatuko ziren.

Jarraibide horren bideragarritasunari buruzko kontsultak egin ondoren, Arartekoak erantzun zien ez zuela arazorik ikusten Laudioko Udalaren eta Hermanos de las Escuelas Cristianas deritzen artean eskola-partzuergo publiko hori osatzeko, baldin eta ikerketa hori azken ondorioetaraino eramaten bazen.

Ondorengo pausoa 1993ko apirilaren 26an Udal Batzarrak eman zuen akordioa izan zen; erabaki horren arabera, Hermanos de las Escuelas Cristianas-en jabetzako ondasun higiezinaren lagapena onartzen zen, eta horrela Arartekoaren gomendioa beteaz irekitako ikerketa-espeditentea amaitutzat jo zen.

Doanezko lagapena zenez, egoitza Udalaren esku lagatzen zela formalki jasotzen zuen agiriaren kopia bat bidal diezaiola eskatu zion Arartekoak Laudioko Alkateari.

Erantzunean, ordea, aditzera eman ziguten Hermanos de las Escuelas Cristianas elkarteak egindako ondasun higiezinaren lagapenaren eskribau-agiririk ez zegoela, ez eta higiezin horiek Udalaren eskuetara aldatu zirela jasotzen zuen beste inolako agiririk ere.

Egoera horren aurrean, Arartekoak 1993ko irailaren 14an beste gomendio bat egin zion Udalari, ondasunak doan jasotzeko Kode Zibilak 633. artikuluan baldintza hau jartzen duela gogorarazteko: alegia, eskualdatzen den ondasuna noren eskuetan geratzen den adierazten duen eskritura publikoa egitea. Hermanos de las Escuelas Cristianas elkarteak egoitzaren lagapena eskritura publikoetan lege-arautu gabe zeukanez, Arartekoaren iritzia zen 1993ko apirilaren 26ko Udal Batzarraren ebazpenak ondasunen lagapena onartzen zuenak ez zuela lege-indarrrik eta, beraz, ondorio juridiko baliagarririk gabe geratzen zela. Horregatik, ikerketa-espeditentea amaitutzat jotzen zuen erabakia atzera bota zezala gomendatu genion Laudioko Udalari, azterketak bere bidea jarrai zezan.

*Akordiorik eza ikastetxe bateko obrak bukatzea zein administrazio-sailari zegokion erabakitzean (570/92)*

Santurtziko eskolaurreko ikastetxe publiko bateko zuzendaritzak, eskola-ko patioan berritze-lan batzuk egiteko premia azaldu zuen, patio horretan egunero jolasten ziren haurrentzat zeukan arriskuagatik. Behin baino gehiagotan aurkeztu izan zuten eskaria Santurtziko Udaletxean, baina sekula ezer lortu gabe.

Ararteko honek lehen informazio eskari bat egin zion Santurtziko Alkateari, aipatutako arazoaren aurrean zergatik ez zuten ezer egin adieraz zezan.

Hori dela eta, eskatutako lanak egitea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari zegokiola jakinarazi zigun Udalak, bere ustez lan haiek diru-ezarpenezkoak zirelako eta ez mantenimendukoak.

Horregatik, kasua Jaurlaritzako sail horri aurkeztu genion, eta handik aditu bat bidali zuten ikastetxeko instalazioak aztertzeko eta kexa idatzian aipatzen ziren arazoak zehazteko. Ikuskaritza lanak egin ondoren, aditua udaletxera joan zen eta alor horretako zinegotziari adierazi zizkion aurkitutako arazoak, gune arriskutsuak ahalik eta lasterren konpontzeko erabakia hartu zutelarik.

Alabaina, lau hilabete igaro eta lanak hasi gabe zeuden, eta ikasketxeak ez zeukan inolako berririk; horregatik, Arartekoak berriro Hezkuntza Sailera jo zuen.

Haien iritziz, berritze-lanak nolakoak ziren kontuan harturik Santurtziko Udalari zegokion horiek egitea, Hezkuntza Sailak kasu zehatz honetan berariz esku har zezakeen arren.

Erakunde honek, bi administrazioen artean elkar-aditzerik ez zegoelako ustean, berriro Udalera jo zuen egin asmo ziren lanak burutzeko egitamuaren berri izateko, bai eta epe laburrean gauza zitekeen eta elkar-egokitze ezarik bazegoen ala ez jakiteko ere, hala izanez gero, Arartekoak bere bitartekaritza eskaintzearren.

Udako oporrak igaro ondoren, kexadunek eta Udalak jakinarazi ziguten obrak oso-osorik Hezkuntza Sailaren bitartez egin zirela eta eskolaurreko ikastetxeko zuzendaritza erabat pozik zegoela egindako lanekin.

*Zentruetako eskola-kontseiluen eta hezkuntz Administrazioaren jarduerak ikasleak onartzeko arauetara biltzeko eskaera: Administrazioak ikuskatzeko duen ahalmena erabil dezala (593, 638, 643, 648, 649, 650, 651, 652, 653, 654, 655, 656, 659, 660, 661, 727, 731, 749/92)*

Arartekora jo zuten guraso batzuek 1992-93 ikasturtean ikastetxe publiko batean D ereduan matrikulatutako 3 urteko haur-kopurua handiegia zela salatu zuten.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak gai horri buruz osatu zuen txostenaren arabera, ikastetxe publikoari guztira 25 postu eskaintzeko muga ezarri zitzaion.

Zentruko eskola-kontseiluak ez zuen errespetatu eskaintzarako ezarrita zeukan muga, eta ikasle gehiago onartu zituen. Dirudenez, ezarritako mugari (25) egokitzearren, hasieran onartutako zenbait ikasle kanpoan utzi zituen eta horietako batzuek errekurtsioak aurkeztu zituzten.

Eskola-kontseiluaren jokaera horrek, eraentza-organu horri dagokion jarduera-eremua eta ikasleak onartzerakoan kontseiluak jarraitu bideari buruz hezkuntz Administrazioak har ditzakeen neurriak aztertzeraz garamatza.

Ikastetxeetako eskola-kontseiluak eskola-komunitateko sail ezberdinen partaidetzaz osaturiko eraentza-organutzat jotzen direnez gero, berez ez dira administrazio-organuak, eta horregatik, ez dago beren jarduerak berariz ikuskatu beharrik, ez baitaude menpekotasun ierarkikoko egoeran.

Halere, eskola-kontseiluaren jardunbideak Legeari men egingo diola bermatu beharrak, hezkuntza-Administrazioaren aurrean erreklamazio bideak ezartzea dakar berekin, eta horrela, ustez gertatzen diren kasu horien aurrean Administrazioak ikuskapenak egin ahal izango ditu.

Kasu horretan, eskola-kontseiluak ez zituen errespetatu ikasleen onarpenerako irizpideak, eta ondorioz, besteak beste hezkuntzaren kalitatea hobetzeko neurriak ezartzen dituen Hezkuntza Sailaren egitamuketan iragarritako ikasle kopurua (25 gelako) gainditu egin zen.

Horregatik, Ikastetxeko eskola-kontseiluak hartutako erabakia ezin zen hartu ikasleen onarpenerako zeuzkan ahalmenen erakusgarritzat, neurri-haustetzat baizik, eta horren aurrean hezkuntz Administrazioak ikuskatzeko duen ahalmena erabiltzea espero zitekeen.

Aurkeztutako errekurtsioen ondorioz, ikasle guztiei beraien etxebizitzatik gertuen zeuden eskoletara joateko aukera ematea erabaki zuen Hezkuntza Sailak, eta aukera hori onartzen ez bazuten, ikastetxe berean gera zitezkeen. Guraso batzuek seme-alaben matrikula tokatzen ez zitzaien ikastetxe horretan uztea erabaki zuten eta, hortaz, Sailak bere egitamuketan iragarritako 25 postuak 30eraino igo ziren.

Hezkuntza Sailak egoera horri eustea erabaki zuen, berori eskola-kontseiluaren jarduera araugabeak sortu zuelako eta hainbat gurasok seme-alaben matrikula beste ikastetxe batzuetara aldatu nahi ez zutelako.

Arartekoa ez zegoen ados irizpide horrekin, izan ere, ikastetxe publikoan ez bazegoen 30 ikasleri gela batean erakusteko aukera fisikorik, edo haiek erratioak gutxitzeko egutegian sartzeko ezin bazen programazioa finkatu, ezin ziren onartu beren etxebizitzetatik gertuago zeuden ikastetxeetan gurasoek matrikulatu nahi izan ez zituzten haurrak. Horregatik, ikasle-kopurua erratioak gutxitzeko egutegi orokorrari egokitzeko neurriak hartu behar zituen Hezkuntza Sailak.

Gertatutakoari buruz eskola-kontseiluak zeukan arduragatik ezin ziren bete gabe utzi ikasleei berez dagozkien bermeak (ikasle kopurua gelako). Hain zuzen, ikasleen onurarako, eskola-kontseiluaren erabakiak Sailaren aginduei egokitzuz hartuko direla bermatzeko ezartzen dira erreklamazio-bide egokiak martxoaren 17ko 61/92 dekretuan eta baita 1992ko martxoaren 18ko aginduan ere.

Hogeitamar ikasleen guraso guztiak onartu izan balute ere, ezin zitekeen onar ikasleen sarrerarako eskubidea behar bezala bete zenik, ez baitzegoen eskolaren eskaintzari egokituia. Eskola-eskaintza hori Hezkuntza Sailak onartzen du irakaskuntzaren egitamuketa orokorra egiteko daukan ahalmena erabiliz, eta kasu horretan, hezkuntz sistemaren antolamendu berria martxan jartzeko egokituia zegoen.

Azaldu den bezala, Ararteko honen ustez, eskola-kontseiluaren erabakiek hezkuntz Administrazioarekiko daukaten menpekotasuna da hain zuzen burutu bezalako ekintzak sendotu daitezten galerazteko bidea.

Hezkuntz Administrazioak gai horretan dauzkan eskumenen ondorioz dagoen menpekotasun-erlazioa dela medio, Arartekoak gomendioa bidali zion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, gela bakoitzeko ikasle-kopurua erratioak gutxitzeko egutegi orokorrari egokitzeko neurriak har zitzan, hori baita hezkuntz sistemaren antolamendu berriak eskatzen duena.

Hezkuntza Sailak, azkenik, onartu egin zuen Arartekoak emandako gomendioaren zentzua, eta datorren ikasturterako arazoa konponduko zuten neurriak hartzeko hitza eman zuen.

*Unibertsitatekoak ez diren ikasketak egiteko laguntza osagarria ukatzea (598/92)*

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren 1991ko uztailaren 29ko Aginduaren bidez, 1991-1992 ikasturtean ikasle ez-unibertsitarioek eskura zitezaketen ikasketa-laguntzetarako deia egin zen.

Kexadunak, bere kontura lan egiten zuen langile baten semea, REM-II ikasketak egiteko laguntza eskatu zuen; horretarako, deialdian eskatzen ziren diruzko argibideak igorri zituen, eta langai didaktikoetarako laguntza eman zitzaion. Halere, familiaren irabazien arabera deialdiko aginduaren 2. e) artiku-

luan iragarritako laguntza osagarria jasotzeko eskubidea zeukalakoan, eskaria egin eta ondoren errekurtsioa aurkeztu zuen, baina ez zizkioten onartu, testu bereko 11.1. artikulua indarrez, laguntza hori jasotzeko, ezinbestekoa baita norbanakoak besteren kontura lan egitea.

Laguntzen helburua aintzat hartuz, ordea, pentsatzekoa zen laguntzak errenta txikiak dauzkateni eman behar zitzaizkiela, dirusarrerak iturri batek nahiz bestetik etorri.

Horrela, erakunde honek gomendioa egin zion Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari, eskuratutako argibideak egiazte zitezten galerazi gabe, orokorrean beste baldintza guztiak bete eta norbere kontura lan egiten dutenei laguntza osagarriak jasotzeko aukera eman ziezaien.

Gomendioa onartu egin zuen sail horrek eta, beraz, 93-94 ikasturterako laguntzen ebazpenean, aipatu baldintzak zuzendu ez badira ere, malgutu egin dira, langile autonomo multzo jakin bati ezarri ahal izateko.

Nolanahi ere, segurtasun juridikoaren irizpideari jarraiki, aitorten hori deialdiaren oinarri-arauetan ere jaso dadin gomendatu die erakunde honek Hezkuntza Saileko arduradunei, aurkeztutako eskariez hartu diren erabakiak ez daitezten gera oinarri adierazle gisa bakarrik.

*Ikastetxe publiko batean euskalduntze mailari eusteko bermeak (645, 705/92 eta 431,510,550/93)*

B ereduko ikastetxe publiko batzuek Arartekora jo zuten, beren ustez lanpostuen zerrenden arabera irakasleek bete behar zuten euskara mailarengatik ikastetxearen euskalduntze maila oso baju geratzen zelako.

Horrela, 1992. urteari zegokion txostenean ere aipatzen zen arazo beraren aurrean geunden. Euskal Eskola Publikoaren Legea onartu berria zen une hartan genioenez, lege horren garapenak hezkuntzarako eskubidearen lege-erapidetzari zuzenki loturiko gai horietara hurbiltzen lagunduko zuen.

Irakaskuntzarako lanpostuen zerrendak onartzen dituen maiatzaren 4ko 124/1993 Dekretuari jarraiki kexen edukia aztertu ondoren, Arartekoak zerrenda horien inguruan hainbat zehazpen egiteko beharra ikusi zuen, eta haiak burutu ondoren, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari bidali zizkion.

Hezkuntz eredu jakin batean ikasketak burutzeko eskubideari eman lekiokkeen erantzuna, horretarako dauden bitartekoen menpe dago. Zerbitzu baten baitan dauden eskubide guztiei dagokien ezaugarri hori ezin zaio kontrajarri hiritarren eta Administrazioaren arteko harremanek eskatzen duten segurtasun eta konfidantzari.

Horrela, bere izaeragatik, ikasteko eskubidea nahi den ereduan gauzatzea berehalako eskakizuna ezin izan daitekeen arren, ikasketak ematen hasten den unetik lortu den mailari eustea logikoa da, Administrazioaren jarduerak beti eskaini behar duen segurtasun juridikoaren irizpidearen arabera.

Arazoari zegokion testuingurua horrela finkatu ondoren, Administrazioak hezkuntzarako eskubidea egoki bermatzeko eskura jarri behar dituen baliapideei erreparatu behar diegu orain. Horretarako egingo den azterketa, eskubide hori jasotzen duen legearen arabera izango da, zeinetan gurasoen nahia irakaskuntzako egitaraua orokorrari loturik azaltzen baita.

Irakaskuntzako egitaraua orokorraren osagai nagusietako bat irakaskuntzako lanpostuen zerrendak dira, eta 124/1993 dekretuan jasota daudenak. Zerrenda horietan zehazten dira ikastetxe publiko bakoitzari dagozkion hizkuntz ezaugarriak, eta horien bidez gauzatzen da ikastetxe bakoitzaren euskalduntze maila.

Martxoaren 9ko 47/1993 dekretuan xedatutako oinarrizko irizpideei jarraiki, zehazten diren zentru bakoitzeko hizkuntz ezaugarriek beste bereizgarri batzuen islada ere izan behar dute: zona bakoitzeko ezaugarri sozio-linguistikoak, dagoen hizkuntz eredu eskakizuna, dauden baliapideak (maila ona eta postu fijoak daukatenak,...) Horrela ulertzen da, bada, bi ikastetxek, A, B eta D ereduak izanik biek, hizkuntz eskakizun ezberdinak eskatzen dituzten lanpostu-zerrendak edukitzea.

Martxoaren 9ko 47/1993 dekretuak oinarrizko irizpidetzat jotzen dituenak, beraz, ez daude ezarritako portzentaiak zabaltearekin kontrajarrita, eta hain zuzen Euskal Herriko Justizia Epaitegi Gorenak iritzi hori bera azaldu izan du zurrubide objektibo eta arrazoitua egon den kasuetan, eta halakotzat jo behar dira guraso eta/edo tutoreek eredu sendotuak ezartzeko egindako eskariak.

Lanpostuen zerrenda horrela ulertzen bada, hau da, ikastetxe publiko batean ematen den irakaskuntzaren euskalduntze maila finkatzeko tresna gisa, lanpostu haietan jasotzen den hizkuntz eskakizuna eta gaitasun hori lortzeko derrigorrezko epeak bermatu behar dira ezinbestez. Alegia, ematen den euskarazko irakaskuntza eta lanpostu-zerrendak elkarri egokitu behar zaizkio.

Zentruak auzeratu kexetan egoera berri batek sortutako arazoa agertzen zen, hots, lanpostu-zerrendetan isladatutakoa: ordurarte ikastetxean ematen zen hizkuntz ereduari zegokiona baino maila baxuagoa eskatzen zen zerrendetan eta, beraz, ordurarte egiaz emandako maila ez zuten bermatzen.

Kexa hori arrazoizkoa zen, postu bakoitzerako baldintzak lanpostu-zerrendetan finkatzen direlako, hain zuzen.

Aurreko argudioak direla medio, kexa-espeditentek eragindako ikastetxe publikoetarako lanpostu-zerrendak aztertu zituen Ararteko Erakundeak, eta ondorio hauetara iritsi zen:

1- Espeditentek eragindako B ereduko ikastetxeetako irakasle postuetarako 47/1993 dekretuak ezartzen zituen hizkuntz eskakizunen eta horiek lortzeko epeen banaketari buruzko xedeak errespetatu egin dira.

2- Gaurko lanpostu-zerrendak eta 92/93-ikasturteari dagozkion langilekopuruak alderatzen badira, kaltetutako ikastetxe batzuetan hizkuntz gaitasun mailak beharatu egin direla ikusten da.



3- Lanpostuetarako hizkuntz gaitasun maila beheratzeak eragin zuzena eta berehalakoa eduki dezake euskalduntze mailetan, postuak hornitzeko legez ezarrita dauden baldintzak lanpostu-zerrendakoak direlako.

Arartekoak, azaldutako gogoeten ildotik gomendioa luzatu zion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, hauxe adierazi ziolarik: baliapideek eta hezkuntz plangintzak horretarako bide ematen dutenean, ikastetxe publikoetan ematen diren hezkuntz eredu mailak bermatuko dituzten tresnak egokitu daitezela, hori guztia hizkuntz ofizialkidetasuna zabaltzen eta ikastetxeen burujabetasuna bultzatzen jarraitzearren.

Txosten hau idazterakoan oraindik ez da ezagutzen Hezkuntza Sailak egin zitzaion gomendioari buruz duen iritzia.

*Salneurri publikoen zenbatekoa zerbitzu akademikoengatik (692/92, 208/93 eta 266/93)*

Euskal Herriko Unibertsitateko hainbat ikasleren kexa-idatziak jaso ziren Erakunde honetan, eta, norik bere izenean edo taldearenean, 1992-93 ikasturteari zegozkien salneurri publikoak kobratzeko bidearekin ados ez zeudela azaltzen zuten.

Halaxe da, 1992-93 ikasturtean irakaskuntza-zerbitzuarengatik ordaindu behar ziren salneurriak finkatzen dituen 1992ko uztailearen 28ko Aginduak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Sailburuarenak, aurreko urteetan ez bezala, ez du jasotzen ikasgai solteengatik ordaindu beharreko kopuruak ez duela ikasturte osoagatik ordaindu beharrekoa gaindituko dioen atala.

Horren ondorioz, aribidean, ikasgai batean bigarren aldiz matrikulatze hutsagatik %50 garestiago ateratzen zen.

Horrela, adibidez, zegokien ikasturte osoan matrikulatzeaz gain, hurrengo ikasturteko ikasgai batean ere matrikulatzea erabaki zuten bi ikaslek, hurrengo ikasturtean ikasgai solteak hartu behar izan zituzten, horrek ekarri zien salneurri igoeraz, eta matrikulatu zirenean, gainera, inork ez zien adierazi zer gertatuko zitzaien.

Konparazio gisa, hemengoaren parekoa den Kataluniako Generalitatearen 1992ko uztailearen 6ko dekretuak, hau iragartzen du 6. artikuluan:

“Ikasgai solte bakoitzeko salneurria, ikasturtea zazpi ikasgaiz, zazpi baino gutxiagoz edo zazpi ikasgai baino gehiagoz osatua egotearen arabera finkatuko da.”

Era berean, beste hau ere badio:

“(…) matrikularengatik ordaindu beharrekoa ezin izango da ikasturte osorako finkatutakoa baino garestiagoa, eta ikasgairen batean bigarren aldiz edo beste aldi batzuetan matrikulatzen bada, ezin izango da ikasturte osoa gehi %40 baino gehiago.”

Era berean, Andaluziako Komunitate Autonomoari dagokionez, Hezkuntza eta Zientzien Kontseilaritzak 1992ko uztailaren 23ko aginduan esaten du, ikasgai solteen matrikula ikasturte oso baten parekoa baino altuagoa ez dela izango kasu honetan salbu: "ikasgairen batean hirugarren aldiz edo gehiagotan matrikulatzen denean, eta kasu horietan ere ezin izango da matrikula osoa gehi horren %30 baino garestiagoa".

Euskal Herriko Unibertsitateko Klaustroak bere aldetik, joan den maiatzaren 20ko bileran Ikasle Kontseiluaren proposamen bat onartu zuen irakaskuntza erakunde horrek tasei buruzko ohizko araudia berreskura zezan.

Bestalde, erakunde honek Unibertsitate Zuzendaritzarekin harremanak izan zituen gai horregatik zuen kezka azaltzeko.

Horrela, 1993ko uztailaren 27an, 1993-94 ikasturterako salneurriak finkatzen dituen Hezkuntza Sailburuaren Agindua argitaratu zen.

Berrikuntzarik nabarmenena ikasturte osorako matrikula-kopurua ezartzen duen 2. kapitulua da: ikasgai solteei dagokiena, matrikula osoaren zenbatekoa zati ikasgai-kopurua formularen bidez kalkulatu da, lehenengo, bigarren, hirugarren edo gehiago aldiz ikasgai berean matrikulatzen den bereiziz.

Horrela, zazpi ikasgai baino gehiago dauzkaten unibertsitate eskoletan eta giltza-ikasgaien sistema deritzanaren ondorioz gertatzen ziren kopuru-aldaeteki aurre egiten zaie.

Era berean, espediente ona eduki eta dagokien ikasturtearen ondorengotik ikasgai batzuk aukeratu nahi dituzten ikasleak ez dituzte dirubidez zigortzen ikasgai solte horietakoren bat gainditzen ez badute.

#### *Nekazal-aldeetako irakaskuntzaren egitarauagintzaz (171/93 eta 428/93)*

Bizkaiko nekazal-alde bateko eskolako ikasleen guraso-elkarteak, eta baita antzeko ezaugarriak dituen Bizkaiko beste eskola bateko irakasleek ere Erakundera jo zuten ikasleak beren bizi-herrietan eskolaratu eta eskolaratze-baldintzak hobetu zitezen eskatuz.

Arartekoak kexadunei iritsarazi zizkien idatzietan hauxe adierazten zien: Hezkuntza jasotzeko Eskubideari buruzko Lege Organikoko 20. artikulua eta Euskal Eskola Publikoaren Legeko 5. artikulua diotenari jarraiki, Euskal Herriko Komunitate Autonomoko aginte publikoei dagokie, bakoitzari bere eskumenen arabera, bai irakaskuntzako egitarau orokorra burutzea, bai Euskal Eskola Publikoa osatzen duten ikastetxeak sortzea, aldatzea edo ixtea. Hori guztia, besteak beste, Konstituzioak aitortutako hezkuntza jasotzeko eskubidea eraginkortasunez berma dadin; halere, horrek ez du esan nahi, eskubide hori bermatzeko, ikasleak bizi diren herrietan eskolaratu behar direnik derrigor.

Orobat, beste hau ere adierazten zen bidalitako idatzian: Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Lege Organikoak 65. artikuluan, 1. puntuan, ikasle orori lehen mailako heziketa burutu dezan bere herrian doaneko postua bermatu behar dio; halaz guztiz, komenigarri irizten den nekazal-alde-

tan, haurrak beren bizilekuaren ondoko beste herri bateko eskolara ere joan daitezkeela dio 2. puntuan, hain zuzen irakaskuntzaren kalitatea bermatu asmoz.

Arartekoak honetaz amaitzen zuen idazkia: aipatu hezkuntz ereduetao edozein (haurrak bizi diren herrian eskolaratzea edo, aitzitik, inguruko beste herri batzuetara eramatea) eta horietako bakoitzean egon daitezkeen beste anitz aldaerak lekua dutela lege-xedapen horietan; halaber, irakaskuntz-eredu bat egoki izatea juridikoez bestelako irizpideen ondorio da, egokierazko irizpideen ondorio, esaterako, eta beroriek banaketa geografikoaren, baliapideen, etabarren arabera zehaztu behar dira.

Aurreko arrazoiak eta aginte publikoek gai horretan diskrezionalitate tekniko maila zabala daukatela kontuan harturik, Ararteko honek gai horretan eskuhartzea ez zela bidezkoa erabaki zuen.

*Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU) lau hilabete eskolarik gabe irakaslea bajaran zegoelako (229/93)*

Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultateko ikasle batek kexa aurkeztu zuen "Analisiak eta Proiektuak" ikasgairako irakaslerik gabe zeudelako.

Martxoan aurkeztu zen kexan salatzen zuen, abenduan irakasle titularrak bajaran hartu zuenetik, "Analisiak eta Proiektuak I" ikasgaian eskolarik gabe zeudela.

Egoera hori zergatik gertatzen zen jakiteko Euskal Herriko Unibertsitateari txosten bat eskatu genion, eta erakunde horrek arrazoiak hau eman zuen: "Gizarte Segurantzaren araua jarraituz, gaisotasun iraunkorra edo kronikoa dela frogatu behar da", behin-behineko lanerako ezintasunagatik aldi baterako bajaran zegoen irakasle titularra ordezkatu baino hehen. Bajaren iraupen luzea "frogatu" ondoren, hutsik zegoen postua behin-behingo betetzeko lehiaketa-prozedurari ekingo zitzaion.

Euskal Herriko Unibertsitateak bidalitako txostenean ez zen ematen ikasleak bitartean (lau hilabete) eskolarik gabe edukitzeko arrazoirik.

Kexa-espeditentea bideratzen ari zenean irakasle titularrak alta hartu eta eskolak emateari berriz ekin zion arren, Arartekoari bidezko iruditu zitzaion gomendio bat luzatzea hain etenaldi luzeak gerta ez zitezen.

Gomendio horretan adierazten genuenez, eskolarik gabe egotea kanpontzeko irizpideak, etenaldi luzeak eragiten dituztenez, kasu bakoitzari egokitu behar zitzaizkion. Gai horretan ez da ahaztu behar irakaskuntza-zerbitzuak ordainketa-izaera daukala Euskal Herriko Unibertsitatean, hots, salneurri publiko baten ordain ematen dela zerbitzu hori.

Bestalde, irakaslea ordezkatzeko gaisotasun iraunkorra edo kronikoa dela ustez egiaztatu beharri dagokionez, hauxe jakinarazi genion Unibertsitateari: Arte Ederretako Fakultateko Dekanotzak bidalitako txostenean esaten zenaren

aurka, Gizarte Segurantzaren araudi bakar batek ere ezin zuela babestu salatu zen egoera bezalakorik.

Etorkizunean ordezkapeneterako erabiltzen diren irizpideak berrikus zitzaizten gomendatu ondoren, kexa espedientea artxibatu egin zen.

*Ikastetxe publiko batean hizkuntz eredia egokitzeko eskakizunaz (318/93)*

Gasteizko ikastetxe publiko batek, eskaintzen zuen B ereduaren ordezkari, D eredia ematea eskatu zion Hezkuntza Sailari.

Eredu-aldaketa ukatu ziotenez, ikastetxeko zuzendariak kexa aurkeztu zuen Arartekoan, eskariari uko egiteko Lurralde Ordezkariak emandako arrazoiak bidegabeak zirelakoan.

Ordezkariaren iritziz, eredu-aldaketa onartzeko guraso guztiek bat etorri behar zuten; ondorioz, eredu-aldaketa egiteko baimena oinarritzko ikasketetako lehen urterako bakarrik eman zen, D eredia sartuz, baina ez zen B eredu-tik D eredura pasatzeko baimenik eman.

Euskal Eskola Publikoaren otsailaren 19ko 1/93 Legeak, bere III. atalean, euskararen irakaskuntza arautzen du ikasketa ez-unibertsitarioetan eta, hortaz, atal horrek eredu-aldaketek dioena aztertu beharko da, hezkuntza alorreko administrazioaren jarraibidea eta hark emandako arrazoiak zuzenak diren jakin nahi badugu. Hori eskatzen du aginte publikoaren jardueran nagusitu behar duen legezketasun-irizpideak.

Aipaturiko 1/93 legeak, eredu-aldaketaren puntua jasotzen duenean, ez du eskatzen guraso edo tutore guztien adostasuna, baizik eta behar adinbat guraso-aldaketaren alde egotea. Eredu-aldaketaren gaia modu berean jasotzen zuen aurreko 138/83 dekretuak, Euskararen Normalkuntzarako Oinarritzko Legearen alderdi batzuk garatzen zituenak.

Legeak 21. artikuluan kontzeptu zehazgabea erabiltzen du aldaketa burutzeko behar den baldintza aipatzean, alegia, guraso "talde bat" eta aurkeztutako kexari dagokionez, baldintza hori betetzen zela esan daiteke, eragindako 257 guraso ingururen artean 228k aldaketari baietza eman ziotelako; haatik, 28 ziren B ereduaz jarraitzearen aldeko.

Beraz, ukapena emateko arrazioa ezin zitekeen izan guraso edo tutoreek nahi ez izatea.

Gurasoen nahiari buruz hitzegiterakoan, ezin dugu ahaztu hezkuntza mailako eskaintzarekin lotua dagoela. Hezkuntza mailako eskaintza, material eta giza mailako bitartekoekin estuki lotuta dago plangintzaren bidez, eta beraz hezkuntz eredia aukeratzeko unean bigarren irizpide gisa aintzat hartu behar da, eta horrela jasota dago lehen aipatua 1/93 legean.

Azkenik, Hezkuntza Sailak aurreko arrazoiekin ados zegoela adierazi zuen eta, beraz, espedientea aholkatu moduan bideratzeko hitza eman zuen.

*Ikastetxe publikoetan hizkuntz eredu desberdinak daudenean zuzendaritza-taldekideei eskatu behar zaizkien hizkuntz baldintzak (437/93)*

A eta D ereduak zeuzkan Bizkaiko ikastetxe publiko bateko guraso-elkar-teak kexa-idatzia bidali zuen, zuzendaritza talde osoak euskarazko hizkuntz eskakizuna ez betetzeak sorrarazten zituen arazo larriak aditzera emanaz.

Erakundeari aurkeztutako gaia arretaz aztertu eta gero honako ondorio hau atera zen: ikastetxe publikoetako pertsona bakarreko jaurlaririk gabeko hautatzeko indarrean dauden xedapenak (otsailaren 19ko Euskal Eskola Publikoaren 1/1993 Legeko V. atala) adierazi dugun bezalako egoerak gaitzesten ez badituzte ere, egia da hori ezin dela ondorio desiragarritzat jo, gerta daitekeelako egoera hori ikastetxearen hizkuntz normalkuntzazko helburuari kontrajartzea, azken finean horixe baita zaindu behar den helburua.

Zuzendariaren hautaketa, ikastetxeko ordezkari-taldea sail gorenaren gehien-go osoaren esku uzten da eta hautagaiari bi baldintza bakarrik jartzen zaizkio: ikastetxean gutxienez urtebetez eta irakasle lanetan gutxienez beste hiru urtez aritu izana; ikasketa-buruaren eta idazkariaren izendapena, berriz, zuzendariak aldeztetik egindako proposamenari jarraiki egiten dira.

Era berean, ikastetxeko zuzendariaren irudia indartu nahian, lehen aipatutako legean berarizko gaitasuna ematen zaio Administrazioari, eta gaitasun hori arau-bidez mamituko da: zuzendari izendatua izateko, aurrez zuzendaritza-postuak betetzeko prestakuntza bereziko ikastaroak gainditu beharko ditu zuzendarigaiak aukeratua izan ondorengo lehen deialdian.

Bestalde, Euskal Eskola Publikoaren Legeko 37. artikulua ondorio hau aterarazten digu: aurreko gaitasunez gain beste bat ere badagoela, hain zuzen espediente honetan jasotzen den arazoaren antzekoei aurre egiteko araudia garatzeko bidea emango lukeena. Hauxe adierazten duen artikulua:

“Hezkuntza-administrazioak ikastetxeetako zuzendaritza-taldekideen prestakuntza eta iharduera hobetzeko neurri egokiak hartuko ditu, besteak beste ikastetxearen hizkuntzazko normalkuntzazko helburuaren harikoa hizkuntza-prestakuntza.”

Horri dagokionez esan behar dugu, egiatan zaila gertatzen dela zuzendariaren hautaketan neurri zuzentzailearen bat sartzea, eta zaila baino areago, ezinezkoa ere izan daitekeela; izan ere, bakarreko irudi baten aukeraketa denez horretarako mugak ezartzen badira, izendapenaren ardatz nagusi izan behar duen izaera demokratikoa urra daiteke, alegia, eskola kontseiluan edo ordezkari-taldea sail gorenaren dauden alderdi ezberdinen ordezkari-taldeen eskuhartzeaz lortzen den gehien-go osoa.

Ikasketa-buruaren eta idazkariaren aukerarekin, ordea, ez da hori gertatzen. Gure ustez, zuzendariak postu horietarako edonor proposatzeko duen ahalmenari muga batzuk ezartzea bidezkoa litzateke, hots, hautagaien hizkuntz eskakizunak ikastetxean dauden eredu ezberdinen garrantziaren arabera izatea; bestela ezinezkoa litzateke 1/1993 legeko 37. artikuluan adierazi den zuzendaritza-taldeen hizkuntz gaitasuna lortzeko helburua gauzatzeko.

Azaldu berri ditugun zehazpenotan oinarrituz, Erakundeak hori erdiesteko gomendioa egin zion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari.

*Martxoaren 9ko 47/1993 Dekretua indarrean jarri ondoren emandako hizkuntz gaitasun agiriak baliokideak ez izateaz (482/93, 500/93, 501/93 eta beste batzuk)*

Irakaspostuetarako hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun datak zehazteko irizpideak finkatzen dituen martxoaren 9ko 47/1993 Dekretua indarrean jarri ondoren ateratako hizkuntz gaitasun agiriak zeuzkaten irakasle funtzionari askok Ararteko honen bitartekaritza eskatu zuten, beraien hizkuntz gaitasun agiriak berrien balio bera ez zutenez, eskubide-urratzea egon zitekeelako.

Kexadunei bidalitako erantzun-idatzian Erakundeak jakinarazten zien beraien agirien baliokidetasunik eza ez zela 47/1993 dekretuko hirugarren xedapen gehigarriaren ondorio. Aitzitik, agiriak baliokidetzeko ezartzen zen epearen mugak Euskal Autonomi Elkarteak Irakaskuntza Ez-unibertsitarioko Irakaslegoaren otsailaren 19ko 2/1993 Legearen ondorio zela, bere 53.3 artikuluan zehazki xedatzen baita, irakasle-postuen hizkuntz eskakizun berriak finkatzen dituen araudia indarrean jarri ostean, eratuko diren proba berezien bidez bakarrik egiaztatu ahal izango direla hizkuntz eskakizun horiek.

Bestalde, aditzera eman zitzaizkien agindu berria indarrean sartzeak beraien ekarri zizkien ondorio txarrak ezin zirela itzuri sendetsitako eskubideetan oinarrituz. Egiaz, hizkuntz agiri jakin batzuk dauzkaten irakasle funtzionarioek eskuraturako eskubideek ezin dute baldintzatu legegileak irakaskuntzaren alorrean hizkuntz normalkuntza berri baten araudia egiterakoan daukan diskrezionalitate maila, Autonomi Estatutuko 6. eta 16. artikuluek hizkuntzaren eta irakaskuntzaren normalkuntzarako gaietan ematen dion eskumenaren indarrez; are gutxiago, besteak beste, euskara maila handiagoa edo txikiagoa behar den lanpostuetan irakasle-lanak egiteko eskatu behar zaien gaitasuna bera arautu nahi denean.

Illo horretatik, eta eskuarki onartu ohi denez, arau-berritze batek eragina eduki dezake arauan bertan jatorria daukaten mesedezko egoeretan, batez ere funtzionari izaerak berez duen estatutuaren arauzko erlazioa aintzat hartuz, eta horren aurrean ezin da adierazi ustezko eskubide sendotuak dituztenik.

Azkenik, martxoaren 9ko 47/1993 dekretuaren aurreko edo hori indarrean sartu ondorengo hizkuntz agiriak dauzkatenak bereizteagatik ezin dela berdintasun-irizpidea hausten denik esan adierazi genien. Izan ere, tratu bereizketa horrek badu arrazoi objetibo bat, eta lortu nahi den helburuarekin bat dator. Horrela, ez da bidezkoa irakaskuntzaren berezitasunak kontuan hartzen dituen antolamendu berri bat indarrean jartzen denean, emandako agiriak eta berezitasun horiek aintzat hartzen ez zituen esparru "desegoki" batean emandakoak parekatzea, are gutxiago araudi berri honek ohizkoak ez bezalako egiaztabide ugari iragarri dituenean.

Azaldutako argudio guztiak direla medio, Arartekoak ez zuen bitartekari-tzarik egiteko arrazoirik ikusi.

*Plangintzaren arabera hurrei dagokien ikastetxea ez den beste bat aukeratu dutenean gurasoek, eskola-garraioa izateko eskubidea eskatzea (526/93)*

Derrigorrezko irakaskuntza mailan zegoen ikasle baten gurasoek kexa aurkeztu zuten, bere semeak aukeratu zuen ikastetxe publikora joateko eskola-garraioa ukatu ziotelako, eta horrek ikasteko eskubidean eragiten ziolako.

Ikaslearen herrian bazegoen ikastetxe publiko bat. Bere gurasoek, ordea, ondoko beste herri bateko eskola publikoan matrikulatu zuten haurra.

Hezkuntz Ordezkaritzak eskola-garraio eskaria ez zuen onartu, horrelako laguntzak kasuotan ematen zirela adieraziz: ikaslearen herrian eskolarik ez zegoenean, eskola egon arren posturik geratzen ez zenean, edo bestela, eskola arauetan iragarritakoa baino urutiago zegoenean.

Erakunde honek kexa aztertu ostean, zehazpenok egin zizkien kexadunei:

Heziketarako eskubidea zerbitzu-izaerakoa denez gero, aginte publikoen jarduerak hori gauza dadin erraztu behar dute. Zerbitzu-jarduera horretan, plangintzaren bidez burutzen den irakaskuntzaren programazio orokorrak eskubide hori bermatzeko baliabideak bereizi behar ditu.

Baliabideak egitamuperatu beharrak ez du derrigor esan nahi ikasleak beren herriko eskolara joan behar dutenik, hori guraso edo tutoreek ikastetxea aukeratzeko duten eskubidearen kontrakoa litzatekeelako. Horrela, aurkezturiko eskariaren arabera egingo da ikasleen hautaketa, aldezturik ikasleak egin duen aukerari jarraiki, eta ikaslearen nahia Administrazioak ezin du inola ere ordezkatu. Horrela bada, eskatu ikastetxean posturik badago, ikaslea onartu egin behar dute, eta posturik eza dagoenean bakarrik ezarri ahal izango dira Baztertzeko Eskubidea Arautzen duen Lege Organikoaren 20.2. artikuluan jasotako irizpide objektiboak.

Adierazi den moduan ikastetxea nork bere gogara aukeratzeko eskubidea eratu eta bermatzeak ez du esan nahi, agian fisikoki ezinezkoa delako, ikasleak aukeratu duen ikastetxean ikasketak jasotzea legez onartua dagoenik. Bestalde, ikasleen bizitxeen artean dagoen distantziarengatik tratatzeko modu desberdina egon daitekeela onartzeak, aurre-baldintza gisa, ikastetxe publiko guztietara tarte bera egoteko eskubidea dagoela onartzea adieraziko luke.

Konstituzioan eta nazioarteko legedietan jasota dagoen eran, ikastetxera dagoen tarteari buruzko alderdi horiek ez dira sartzen heziketarako eskubidearen barruan. Horrela, Arartekoaren ustez kasu horretan ez zegoen ikastetxea nork bere gogara aukeratzeko eskubidearen urratzerik edo, aukeratu ikastetxearen arabera, ez zitzaion ikasleei tratatu ezberdinik ematen.

Eskola-garraioa, ikasle batek bere herriko eskolan posturik ez dagoelako edo hizkuntz ereduaren arabera egindako bateratzeagatik nahitaez herritik kanpoko eskola batera joan behar izaten duenean ematen den laguntza da.

Horregatik, garraioaren helburua premia horiei erantzutea den neurrian, ez da nahikeriazkoa administrazioak zerbitzu hori nahitaez behar duten ikasleei bakarrik eskaintzea.

### 3.4. FUNTZIO PUBLIKOA ETA ADMINISTRAZIOAREN ANTOLAKUNTZA

#### A) Sarrera

Alor honetan 125 kexa aurkeztu dira, beraz, guztien %22.

Kexa horiek zein administraziori zegozkion ikusirik, honela bana ditzakegu:

- Eusko Jaurlaritza.....	81
- Diputazioak.....	7
- Udalak.....	43

Funtzio publikoarekin loturiko erreklamazioak honela banatzen dira azpiasailen arabera:

- Irakaskuntza alorreko funtzio publikoa.....	35
- Oposaketak eta lehiaketak.....	15
- Osasun alorreko funtzio publikoa.....	12
- Ordainketa jaurpidea.....	11
- Beste batzuk.....	5
- Herrizaingo alorreko funtzio publikoa.....	3
- Diziplina jaurpidea.....	2

Administrazioaren Antolakuntzak, bere aldetik, guztira 42 kexa sorrarazi ditu.

Aurreko zerrenda eta kexen banaketaren ondoren, orain eskuartean daukagun administrazioaren alorrari buruzko aipamen labur bati ekingo diogu, irakaskuntza alorreko Funtzio publikozko atalak izan duen aurrerabidea nabarmenduz.

Halaxe da, hezkuntza mailako gaietan garatu den arautze-jarduera sakanak zenbait prozesuri behin betiko aurrera eginarazi die, prozesu horiek geldirik egon diren bitartean aurreko txostenetan ere salatu izan den eta larritzat jo zitekeen egoera sortu baitzen. Hauek ziren, besteak beste, geldi zeuden prozesuak: Oinarrizko Heziketa Orokorrean sartzeko eta lekuz aldatzeko lehiaketarako bidea hirugarren urtez atzeratzea; enplegurako eskaintza publikorik eza, pertsona asko eta asko sartzeko zain egon arren; lanpostuen zerrendak osatzeko zehazgabetasun eta atzerapena, e.a.

Ez gara aurreko prozesuekin lotuta dauden kexen zehaztasunak ematen hasiko, jarraian egiten dugun hautaketan horietako batzuei buruzko aipamen zehatza egingo den arren.



Irakaskuntz alorreko Funtzio publikoaren sail honetan bertan, irakasle-lagunak kontratatzeko eta behin-behineko irakasle titularrak izendatzeko Euskal Herriko Unibertsitateak egin zituen deialdi publikoak zehatz eta bereziki adieraziko ditugu. Lehiaketa horien biderapenean ikusi ditugun araugabe-riek, bestalde, gomendioak luzatzera bultzatu gaituzte, eta kexa hautatueta berariz horien berri emango dugu.

SVS-Osakidetzaren lan-baldintzak arautzen dituen Akordioaren alorrean lanpostuak aldi baterako betetzeko deialdiak ere kexa-arrazoi izan dira. Postu huts horiek betetzeko zerrenden osakera oso konplexua izan denez gero, atzerapenez jarri da indarrean baliapide hori, langileen eraientza gauzatzen eta berorretan gardentasuna nagusitzen lagunduko duena.

Arrazoi gabe, edo Ararteko honek behintzat ezagutzen ez duen arrazoi- ren batengatik, SVS-Osakidetzak ez du bete hartuta zeukan erabaki bat, izan ere, 1991. urteaz egin genuen txostenean jasotako gomendio bat betetzea onartu zuen, baina gero lehengoari eutsi dio. Irizpide aldaketa hori, SVS-Osakidetzak arrazoitu ez duena, apetzakoa da Ararteko honen ustez.

Funtzio publiko orokorrari dagokionez, berdintasun, meritua eta gaitasun- irizpideak, baita publikitatearena ere ez dira behar bezala errespetatu, eta jaki- nekoa da funtzio publikoan premiak behin-behingo edo denboraldi batez betetzeko sarbideak irizpide horietan oinarritu behar duela. Garbi dago, era horretako hutsuneak oso presaka bete behar izaten direla, baina halere hauta- gaiei dagozkien bermeak kasu guztietan errespetatu behar dira.

Bestalde, postuetarako hautagaiek nahiz deialdia egiten duten erakun- deek derrigorrez bete behar dituzten baldintzak funtsezko joku-arauak direla dioen irizpidea, hots, jurisprudentziak "deialdiaren legea" deitu duena, era baketsuan betetzen da behin-betiko lanpostuak betetzeko prozesuetan, eta aldi baterako deialdietan ere berdinduz onartu behar da.

Eta azkenik, Administrazioaren Antolakuntza atalean, tamalez gure txos- tenetan behin eta berriz jaso izan diren gaiak ezagutarazten jarraitu behar dugu. Horien artean hauek azpimarratu behar dira: nor bere espedientea ikusi ezina eta hautaketarako organo teknikoaren erabakiak arrazoigabeak izate- a, eta zenbait organo edo administrazio-agintarik ahoz emandako erantzuna ebazpen zehatz bezala hartzeko duten ohitura zabaldia. Jokabide hauek ez dute batere laguntzen administrazio-isiltasunaren gehiegizko erabilera kentzen.

## **B) Kexa aukeratuak**

*Lansari osoa jasotzen jarraitzeko eskabidea (116/92, 117/92 eta 119/92)*

Irakasle batzuek kexa aurkeztu zuten ordurarte jasotzen zuten lansari zati bat ukatu zirelako.

Kexadunek, Arabako Foru Diputazioarena zen heziketa bereziko ikas- tetxe batean lan egin zuten, eta Araba lurralde historikoak eta Eusko Jaurlari-

tzak egin zuten zerbitzu-aldaketaren ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren pean geratu ziren.

Aldaketa horren ondoren, beren gainetik zegoen administrazioak ordu-rarte jasotzen zuten espezialitate-gehigarria kendu egin zien. Kenketa horren aurka jo zuten Euskal Herriko Justizia Epaitegi Gorenaren aurrean eta Epaitegiak arrazoiak eman zien, espezialitate horretan lanean ziharduten bitartean gehigarri hura hartzeko eskubidea aitortu zirelarik.

Aurrerago, Hezkuntza Sailak beraiek eskatu gabeko beste leku batera bidali zituen, eta berriro espezialitate-gehigarria kendu zien. Horren ondoren jo zuten Arartekora.

Hezkuntza Sailari eskatutako txostenean adierazten zenez, Eusko Jaurlaritzaren alorrera aldatu zituztenean, kexadunek artean utzi zioten aurreko zentru hartan lan egiteari eta, beraz, galdu egin zuten gehigarria jasotzeko eskubidea. Bestalde, eskatzen zuten gehigarria irakasle funtzionarien lansari-erapidetzatik kanpo zegoela zioen sail horrek.

Arazoa sakonki aztertu ondoren, Arartekoak hau iritzi zion: berriro ukatu zitzaien gehigarria jasotzeko irakasleek zuten nahiak ez zuela zalantzan jartzen irakasle funtzionarien lansari-erapidetza, ezta Administrazioak derrigorrezko lekualdaketak egiteko duen ahalmena ere, kasu horretan gertatu zen legez; aitzitik, duda egiten zuten bi bide horiek ezartzean, beraiek eskuratutako eskubi-deak errespetatu ote ziren.

Azaldutako kasuan eskubide finkatu bat zegoen, ez espezialitate-gehigarria jasotzekoa, baizik eta kexadunek ordurarte hartzen zuten lansaria jasotzekoa, eta hori norbanako osagarri baten bidez gauza zitekeen.

Aurreko gogoeta ez zen batere aldatzen Eusko Jaurlaritzaren menpe lanean hasi zireneko postua utzi izanagatik. Horrela, Justizia Epaitegi Gorenak emandako epaia ikastetxean jarraitzen zuten bitartean gehigarria jasotzeko eskubideari bazegokion ere, ezin zen ahaztu ikastetxe-aldaketa derrigorrezko lekualdatzearen ondorioz gertatu zela.

Arrazoi horiek kontuan izanik gomendioa luzatu zitzaion Hezkuntza Sailari, eta horrek onartu egin zuen. Azkenik hezkuntza-administrazioak ebatzi zuen erreklamatzailleek espezialitate-gehigarria jasotzen jarraitzeko eskubidea zeukatela, eta gehigarri hori behin-behineko norbanako osagarritzat hartuko zela.

*Hutsegitea etxebizitzak laguntzen bidez birregokitzeko emandako informazioan (204/92)*

Kexadunak, 1990. urteko otsailean etxebizitzak birregokitzeko laguntzei buruzko informazio-agiriak jaso zituen Eusko Jaurlaritzak Bizkaian daukan Etxebizitza Ordezkaritzan.

Agiri horietan, zerga-hobarien artean, obrak egiteko udal baimenean %90eko beherapena sartzen zen, nahiz eta garai hartan, Herri Ogasunen

Legea indarrean zegoenez gero, udal-xedapenetatik kanpoko zerga-hobari guztiak baliogabekotzat jo behar ziren.

Horrela, nahita izan ez bazen ere, hiritarrari oker ulertarazi zitzaion gaia, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Babeserako uztailaren 19ko 26/1984 Lege Orokorrak hauxe iragartzen baitu bere 8. artikuluan: erabiltzaileek eskaini zaizkien zerbitzuen edukia eta bermeak eska ditzakete, egindako hitzarmenean edo jasotako agirian zehazki aipatzen ez badira ere.

Ikuspegi horretatik, erakunde hau sortu eta arautzen zuen otsailaren 27ko 3/85 Legeko 11. b) artikulua indarrez, Etxebizitza Zuzendaritzari gomendatu genion obregatik udal-baimenari zegokion %90eko hobaria ordain ziezaziola kexadunari, Administrazio Publikoan Lege-Jaurpiderako eta Administrazioaren Jardunbide Arrunterako 30/92 Legeak 143. artikuluan iragartzen duen ondare mailako arduraren bidetik.

Gomendio hori onartu egin zen, eta hobaria kobratzeko behar ziren agiriak Etxebizitza Ordezkaritzari igortzeko eskatu genion kexadunari.

#### *Administrazioaren ebazpena atzeratzeagatik pentsioa ukatu izana (259/92)*

Bilboko 64 urteko andre batek Gizarte Ongizate Fondoko pentsio bat eskatu zuen elbarritua zegoelako. Horretarako, elbarritasun-aitorpena bideratu zitzaion.

Gizarte Ongizate Fondoko pentsioa ez zitzaion eman familia unitateak ezarrita zegoen muga ekonomikoa gainditzen zuelako, bere senarrak zahar-saria jasotzen baitzuen. Elbarritasunari dagokionez, dirulaguntza jasotzeko eskatzen den gutxienerako %65etik gorakoa zuela aitortu zioten.

Eskaria, ordea, beste pentsio mota batera bideratu behar zen, hain zuzen Elbarriak Gizarteratzeko 13/1982 Legean aitortutako Gutxienerako Irabazien Bermerako Laguntzara, eta hori jasotzeko eskubidea edukiko zuen, eskatzai-learen irabaziak bakarrik hartzen direlako aintzat, eta ez familia unitatearenak.

Halere, elbarritasun izaera aitortzeko antolak luzatu egin ziren, eta epe horretan abenduaren 20ko 26/1990 Legea onartu zen, hau da, Gizarte Segurantzako lansari izaerarik gabeko pentsioak finkatzeaz gain, lehen aipatu laguntza kendu eta, horren ordez, elbarritasun-saria ezartzen duena. Baina pentsio berri hori kobratzeko beste baldintza berri bat sartu zuten, 65 urte baino gutxiago edukitzea, alegia, eta aztergai dugun kasuan, kexadunak ordu-rako urte horiek beteta zeuzkanen ego, ezin zuen eskatu.

Emakumea, horrela, pentsioa kendu izan ez balute jaso zezakeen saria lortu gabe geratu zen, eta berria ere ezin zuen jaso adinaren baldintza betetzen ez zuelako.

Alde batetik, Administrazioaren erruz gertatu zen egoera hori, aurreko espedienteak bideratzen eta ebazten atzeratu egin zelako eta, esan bezala, garai horretan araudia aldatu zelako. Bestalde, kexadunaren eskaria lehen

aipatu laguntzara bideratu behar zen hasieratik, Gizarte Ongizate Fondoaren parean lehentasuna besteak zeukalako, baina ez zen horrela egin.

Horregatik guztiatik, elbarritasun-aitorpena beharrezko epean egin eta kasua behar bezala Elbarrien Integrazioarako Gutxieneko Irabazien Bermerako Laguntzetara bidali izan balu, andrea zegokion pentsioa kobratzen zegokeen.

Gizarte Ongizate Sailak hilabeteak pasatu zituen kasu honi buruzko erabakia hartu bitartean eta erakunde honek gertutik jarraitu zuen prozesua, behin baino gehiagotan sailarekin harremanetan jarritz.

Azkenik, sailak ebatzi zuen kasu horretan gertatutako gorabehera bereziak onartzen zituela, hutsegiteak Administrazioarenak zirelako eta ez emakumearenak. Horregatik, bere jarrera aldatu eta ebazpen baten bidez kexadunari Gutxieneko Irabazien Bermerako Laguntza jasotzeko eskubidea aitortu zion, laguntza eskatu zuen egunetik ordurarteko atzerapenak barne.

*Irakasle-lagunak kontratatzeko eta behin-behineko irakasle titularrak izendatzeko Euskal Herriko Unibertsitateak eginiko lehiaketa publikoak (414/92, 439/92 eta 272/93)*

Irakasle-lagunak kontratatzeko eta behin-behineko irakasleak izendatzeko prozesuetan araugabekeria larriak zeudela salatzen zuten hainbat kexa-identzi jaso ziren erakunde honetan.

Gertakizunak ardurazkoak zirela ikusirik, Arartekoak Euskal Herriko Unibertsitateari kasuari buruzko argibide zabal eta zehatzak eskatu zizkion, geroago datu gehigarriez osatu zena, eta horregatik espedienteak ebatzeko normalean behar izaten dena baino epe luzeagoa behar izan zen horretarako.

Erakundeak burutu zuen azterketatik atera zituen eta jarraian aipatuko ditugun ondorioak gogoan hartuz, gomendioa egin zitzaion Unibertsitateari, gaur egun oraindik erantzunik gabe dagoena. Hauek dira ondorioak:

Lehenengoa. Era horretako prozesuetan oinarri nagusi izan behar duen berdintasun-irizpidea urratu egin dela ikusten da, lehiakide guztiei ez baitzaizkie baldintza berberak eskatzen.

Kexa-espedienteak sorrarazi dituzten ekintzak berriro aztertzeari ekiteko nahikoa arrazoi bada lehenengo hori. Halere, ikusirik erabaki horrek beste pertsona batzuk kaltetu ditzakeela, kontratuak behin-behinekoak direla eta kexadunek ez dutela administrazioaren aurrean aurkezten diren errekurtsioetarako ohizko bidea jarraitu -eta azkeneko puntu hori kontutan hartzekoa da justiziaren alorrean segurtasun juridikoaren irizpideak nagusitu behar baitu-, horregatik guztiatik, beraz, izango lituzkeen ondorio txarregatik, Arartekoak ez du gomendatzen espedienteak atzera botatzea. Orain arte adierazitakoak, ordea, ez du esan nahi erakunde honek araugabekeria horiek kentzeko ahaleginari tinko eutsiko ez dionik, eta horretarako, beharrezko aholkuak eman ostean, ikuskapenak egingo ditu gomendioak betetzen diren bermatzearen.

Bigarren. Merituen zerrenda eta balioztatze-irizpideak deialdian bertan jaso behar dira, baremo zehatza finkatuz. Erabaki horiek hautaketarako organu teknikoak osatu arte finkatu gabe uzteko arrazoirik ez da ikusten. Horrela jokatzan ez bada, berdintasun-irizpidea hausteko arrisku handia dago, lehiakideen kurrikulumak ezagutu ondotik ezartzen bada baremoa, aurrez hautagai jakin bat proposatzeko aukerak areagotu daitezkeelako.

Nolanahi ere, aurreko baldintza hori betetzetik ez balego, bide malguagoa erabil liteke: deialdiaren testuari balioztatpenerako irizpide orokor batzuk gehitzea eta horien zehazpena hautaketarako batzorde teknikoak osatu arte atzeratzea. Baremo orokorra banatu eta gero, hautagaien espedienteak balioztatu aurretik, baremoak iragarpen-oholetan ezagutzera eman beharko lirateke.

Hirugarrena. Hautaketarako organu teknikoen erabakiak, edo bestela, hautagaiek aurkezten dituzten errekurtsioak arrazoitu gabe uztearen ondorioz, aginte publikoen nahikeria debekatzan duen irizpidea hauts daiteke, eta gainera ezinezkoa da Konstituzioko 24.1. artikuluan jasotzen den babes judizial eraginkorra izateko funtsezko eskubideaz osoki baliatzea (horrela, gogoratzekoak dira 1983ko ekainaren 3ko eta 1985eko otsailaren 29ko Epaitegi Gorenaren epaiak eta Euskal Herriko Justizia Epaitegi Nagusiaren azaroaren 22ko 558/89 Epaia ere).

Laugarrena. "Barne-lehiaketa" deritzanaren bidez lortu nahi dena (denbora urriagatik, deialdi publikorik gabe irakaslego premiak asetzea) modu zuzenagoan egin daiteke, esate baterako aurreko beste deialdi batzuetan parte hartu eta proposatuak izan ez diren irakasleez osaturiko zerrendak eratuz. Sistema horretaz, berdintasun, meritua eta gaitasun irizpideak bermatzen dira, funtzio publikoan sartzeko ezinbestekoak direnak.

*Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreorde karguan bete-beteko jardunean zegoenean Osakidetzak diziplina-zigorra ezarri izanaren kontrako kexa (693/92)*

Txagorritxu ospitaleko sendagile batek SVS-Osakidetzako Zuzendari Nagusiak emandako ebazpen baten kontrako kexa aurkeztu zuen. Ebazpen horretan diziplina falta oso larria leporatu zitzaion, baimen edo bidezko arrazoirik eman gabe 72 ordu baino gehiagoz zerbitzua utzi zuelako, eta 20 egunez enplegu eta soldatarik gabe utzi zuten.

Kexadunak aditzera eman zuenez, Osakidetzaren ustez zerbitzua bete gabe utzi zuen denbora horretan, Euskal Herriko Unibertsitateko Antolamendu Akademikoko errektoreordetza karguan zegoen. Kargu horretara, Erradiologia eta Medikuntza Fisiko Saileko postua zeukan irakasle eta, aldi berean, Txagorritxu ospitaleko Onkologia Erradioterapikoa Saileko zuzendari izateagatik iritsi zen.

Arartekoak kexa sakonki aztertu zuen, lehenik errektoreorde karguaren izaera ikertuz. Postu hori Unibertsitateko Errektoreak izendatzen du eta, gai-

nera, Unibertsitateko Klaustroak aukera dezan, Errektoreak bere hautagai zerrendan sartzen du.

Aldez aurretik, Unibertsitateko errektoreordeek beren betekizunetarako duten jardun-araubidea argitu behar zen. Zalantza hori Errektoreak berak bidalitako txosten bati eta Idazkari Nagusiaren ziurtagiriari esker argitu zen, eta horiek garbi jakinarazten zuten errektoreordeek bete-beteko jardunean betetzen dutela postu hori; ondorioz, Arartekoaren iritziz kaltetuak ezin zuen Txagorritxu ospitaleko karguari zegokion lana Unibertsitatean egin beharrekoarekin tartekatu.

Nabarmena zen Osakidetzaren eta Unibertsitatearen arteko harremanak lege mailan jaso eta zehaztu gabe zeudela, ez baitzegoen araupetzeko hitzarmenik, ez loturazko posturik, ez eta administrazioen arteko koordinazio-irizpidea garatzeko inolako biderik ere.

Arartekoak, azkenik, Osakidetzako Zuzendari Nagusiak ezarritako zigorra atzera bota eta, haren ordeztu, diziplina-espedita indarririk gabe uzteko gomendioa egin zuen. Gainera, SVS-Osakidetzaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen artean elkarlanerako hitzarmenak garatzeko aholkua egin zien, horrela beharrezko ez diren arazo asko saihestuko liratekeelako.

Osakidetzak erantzun zion Arartekoari ez zuela gomendioa onartzen eta irakasle nahiz sendagile lanak aldi berean burutzeari buruzko arauak legetan jasota zeudela; gainera, Osasunerako Euskal Zerbitzuak kexadunari behin eta berriz egin zizkion oharpenen aurrean, horrek ez zuela garbi eta borondate onaz jokatu zioen.

Arartekoak SVS-Osakidetzako Zuzendariari bidalitako idatzi batez itxi zen kexa. Idatzi horretan erakunde hau ez zegoela ados Osakidetzak emandako arrazoiekin adierazi zitzaion, eta gomendioa egiteko erabili ziren oinarritzko arrazoi batzuk, hala nola administrazio publikoen arteko eskumenak koordinatzeko Konstituzioak finkatzen duen irizpidearekiko errespetua, ez zirela erantzun-idatzian aipatu, ez erantzun ere egin.

*Sendagile batek SVS-Osakidetzan lanean egon zen garaian jaso behar zuen diru osagarria ordaintzea (34/93)*

Sendagile bat SVS-Osakidetzan aritu zen lanean espezialista gisa 1990ko ekainaren 1etik eta 1991ko urtarrilaren 6a arte.

Bere postuan egon zen bitartean behin eta berriz eskatu zuen zegokion osagarri berezia ordain diezaiotela. Kontzeptu hori, Langilegoaren Eraentzarako Zuzendaritzak agindutako 19/1990 zenbakidun Oharpideaz araututa zegoen.

Osagileari osagarri berezia bazegokion arren eta hori jasotzeko ezarritako jarraibideari lotu zitzaionalarik ere, bere izendapena amaitu zen eta artean diru hori kobratu gabe jarraitzen zuen.

Bere lan-harremanak SVS-Osakidetzarekin eten ondoren, berriro erreklamazioa egin zuen, baina egoera ez zen aldatu. Azkenik, 1993ko urtarrilean kexa aurkeztu zuen Ararteko Erakundeak.

Kexa arrazoizkoa zen, eta horregatik txostena eskatu genion erakunde arduradunari, eskatu diru-kopurua zergatik zegoen ordaintzeke azal zezan.

Iadtiz emandako erantzunean, SVS-Osakidetzak jakinarazi zuen kasua aztertu ondoren osagarri berezia jasotzeko eskaria onartua izan zela ezesteko arrazoirik ez zegoelako, eta sendagileak 1990. urtean lana egin zuen zentruaren bidez ordainketa egiteko agindua eman zuela. Ebazpenaren berri kexadunari helarazi zitzaioela ere adierazten zen.

Itxuraz arrazoirik gabe sortutako arazo hori konpondu zelakoan, kexa-espeditentea artxibatu egin genuen.

### *Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian (EHAA) iragarri epean aurkeztutako eskaera ukatu izana (60/93)*

Euskal Herriko Unibertsitateak lehiaketa bat eratu zuen 1992ko azaroaren 19ko ebazpen baten bidez unibertsitaterako irakasle postu batzuk betetzeko.

Iragarkia urtarrilaren 15eko Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitaratu zen eta eskuhartzea eskatu zuen lagun bati eskaria atzera bota zioten, nahiz deialdiko laugarren oinarri-arauean iragarritako hamabost eguneko epearen barruan aurkeztu zuen.

Euskal Herriko Unibertsitateak eskaera ez onartzeko arrazoi hauek adierazi zituen: Estatuko Agintaritza Aldizkariak (BOEK) deialdi berbera abenduaren 3an argitaratu zuen, eta eskabideak aurkezteko epea egun horretatik aurrera kontatu behar zen. EHUko arduradunek, bestalde, gehiagotan ere gertatu izan zela halakorik jakinarazi zioten.

Itxuraz erabat zentzugabea zen gertakizun horren aurrean irakasleak Arartekora jo zuen.

Kexa aztertu ondoren, Arartekoak iritzi zion deialdi ebazpeneko laugarren oinarri-arauea hitzez hitz interpretatzen bazen, hau da, lehiaketan parte hartu nahi zutenek eskaria bidaltzeko "deialdi hau Estatuko Agintaritza Aldizkarian argitaratzen denetik 20 laneguneko epea daukate"la, ebazpenaren edukia gauzatu ezinekoa zen berbera Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian ebazpen berbera argitaratu zen moduan, deialdian bertan ezartzen ziren epeak ordurako bukatuak baitziren. Ikuspuntu hori ez zen onartzeko modukoa kasu honetan, erabat zentzugabea zelako.

Bestalde, Arartekoak gogorarazten zuen beste alor batzuetan deialdia egiten duen Unibertsitateari dagokion lurraldean argitaratzeaz gain Estatuko Agintaritza Aldizkarian ere egiten zutenean, deialdia azkenik argitaratzen duen aldizkaria hartzen dela aintzat epe-egunak kontatzeko. Arartekoaren ustez, Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitaratzeak zeukan helburuari jarraiki, horrela ulertu behar zen oinarri-arauek zioena.

EHUri kexadunaren eskaria onar zezan gomendioa bidali zitzaion arren, Unibertsitateak bereari eutsi zion eskaria baztertzeko eman zituen arrazoiak aldatu gabe.

*Behin-behineko lanpostuak betetzeko deialdi batean hautatuak izan zirenen eskubideak: proposaturiko hautagaiak postu-zerrendan eskatu baldintzetara egokitzea (67,68/93)*

Eusko Jaurlaritzak, behin-behineko bi lanpostu betetzeko hautaketa-prozesurako deia egin zuen, eta oinarri-arauetan iragarri frogatuak burutu ziren.

Frogak amaitu ondoren, horien buru izan zen epaimahaiak hautatuak jakinarazi ziren postu horietarako proposatu zituztela eta epe laburrean deituko ziretela zegozkien postuak bete zituzten.

Lanean hasteko zain zeuden pertsona hautatuak harri eta zur geratu ziren egunkari bidez beraiei izendatutako postuak betetzeko berriro deialdia egin zela jakin zutenean. Arrazoi horregatik jo zuten Arartekora.

Aipatu aurrekariaren arabera, kexa arrazoizkoa zen eta horregatik deialdia egin zuen administrazioari txosten bat eskatu genion. Aldi berean, bigarren deialdiko frogak hasi gabe zeudela eta kexatzeko arrazoirik bazegoela kontuan izanik, Arartekoak, badaezpada, bigarren prozesua eten zedin eskatu zuen.

Eusko Jaurlaritzako Funtzio Publikorako Zuzendaritzak bidali zuen txostenean, eskaintako postuek lanpostu-zerrendan izan zituzten aldaketengatik sortu zela arazoa zioen.

Deialdia egin eta frogak burutu ziren bitartean lanpostu-zerrenda aldatu egin zen, eta jakina denez, zerrenda horretan postu bakoitzerako eskatzen den titulazioa jasotzen da. Horrela, kexa eragin zuen deialdian parte hartu nahi zuten lagunei eskatzen zitzaizkien titulazioa aldatu egin zen, eta postu-zerrenda berriatik kanpo geratu ziren hainbat lizentziatura, besteak beste hautatuek zutena, Geologiakoa hain zuten.

Postu bat betzen dutenek horretarako ezarri baldintzak bete behar dituztenez gero, kasu horretan ezin zituzten izendatu lehen deialdian hautatuak izan zirenak.

Aurreko zertzeladen arabera kexa eragin zuten arrazoiak aztertu ondoren, ezin zitekeen esan salaketa nahikeriazkoa zenik. Jakina, hautatuen eskubideen aldeko aitortpena bazegoen arren, postu-zerrenda aldatu izanak haiek izendatzea galerazten zuen.

Garbi zegoen, ordea, bigarren deialdia egin baino lehen deialdiaren berarizko birraztertze-espeditentea bideratu behar zela, eta ez deialdia behin-betiko bertan behera utzi.

Halere, bigarren deialdia eten zedin Arartekoak egin zuen eskaria luzatzeko, prozedurarik ezaz gain, beste arrazoi batzuk ere bazeuden. Horrela, bigarren deialdian sartzeko titulazioa aldatu bazen ere, postuaren edukiak aldaketa-



rik gabe bere hartan zirauen eta, beraz, kexadunen titulazioa postu-zerrenda berrian iragartzen zirenen artean sar zitekeen.

Hori zela eta, lehen deialdia bertan behera uzteko berarizko birrazterketarik egin ez izana konpondu beharraz gain, beste planteamendu bat egin zitekeen. Horregatik, indarrean zegoen lanpostu-osakera birraztertzeke egokiera proposatu zen, eta posturako betekizunek aukera emanez gero, horretarako eskaturiko titulazioen artean geologiakoa ere sartzea.

Arazoa era horretan azalduz, Funtzio Publikorako Zuzendaritzak postu-zerrenda titulaziori egokitzeko antolabideak egin zituen, eta horrela, hautaketarako lehen prozedura amaitu eta epaimahaiak aukeratu eta proposaturikoak izendatu zituzten lanpostuak betetzeko.

*Administrazioak aldi baterako postua betetzeko deia egin eta horretarako jarritako oinarri-arauak berak errespetatu ez izana (277/93)*

SVS-Osakidetzak, zerbitzu-manualdi eran administrari postu bat betetzeko deialdia egin zuen Komunitate Autonomoko Administrazioen Zerbitzutan lana egiten duen Langilegoaren Baldintzak Arautzen dituen Akordioan iragarritako bideari jarraituz.

Hautaketa-prozedura amaitu ondoren, aukeratu gabe geratu zen hautagai batek administrazio-errekurtsoa aurkeztu zuen bere ustez deialdiko oinarriak errespetatu ez zirelako. Errekurtsoan adierazten zuenez, lanpostua atera zuen pertsonak ez zuen betetzen posturako ezarri baldintzetako bat.

Arrazoizko denbora-epaia igaro eta ezarritako errekurtsoa ebatzi gabe zegoenez, hautagai baztertuak kexa aurkeztu zuen Arartekoaren aurrean, errekurtsoa ebazpenik gabe zegoela ere salatuz.

Posturako deialdia egin zuen erakundeari arazoa azaldu ondoren, errekurtsoa aztertzen ari zirela eta ebazpena laster emango zutela adierazi zigun.

Arartekoak berriro Osakidetzara jo behar izan zuen, administrazio-errekurtsoak ebazpenik gabe jarraitzen zuelako. Gaiaren muiari zegokionez, berriz, lanpostua betetzeko izendatu zuten funtzionariak horretarako eskatu baldintza betetzen zuen galdetu genion administrazio horri.

Jasotako erantzunean, SVS-Osakidetzak jakinarazten zuenez, lanpostua atera zuen funtzionariak ez zituen betetzen deialdian eskatzen ziren baldintza guztiak, hain zuzen hizkuntz eskakizunari zegokiona zen betetzen ez zuena, baina ez zituen azaltzen izendapena egiteko izan zituen arrazoiak.

Postua atera zuen pertsonak baldintzetako bat ez betetzeak kexadunaren eskaria aintzat hartzeko nahikoa arrazoi zirudien. Ebazpena zein izango zen ez jakin arren, deialdian eskaturiko baldintzak betetzen zituen beste hautagairik ba ote zegoen aztertzea interesgarria izan zitekeen. Izan ere, baldintza guztiak betetzen zituen pertsonarik ez egoteak, baldintzetako bat betetzen ez zuenaren aldeko izendapena proposatu zuen Langilegoaren Eraentzarako Zuzendaritzak emandako ebazpenean eraginik izan zezakeen.

Baina arrazoi horrek ere ezin zuen zuritu Administrazioaren jokabidea, kexa-aurrezleak bidali zizkigun agirietan garbi ikusten baitzen berak betetzen zituela deialdian ezarritako baldintzak: karrerako funtzionaria izatea, lanpostua atera zen unean lanean aritzea eta lanposturako eskatzen zen hizkuntz eskakizuna egiaztatzea.

Bestalde, deialdia egin zuen administrazioak ezagutu eta onartu zituen arrazoi horiek eta, ondorioz, Arartekoak gomendioa egin zion izendapen-prozedura berriro aztertu eta deialdian ezarritako oinarrien arabera ebatzi zedin.

Txosten hau osatzerakoan, SVS-Osakidetzak erakunde honek bidalitako gomendioari erantzun gabe jarraitzen du.

### *Katedratiko maila lortzeko merituen lehiaketak epe ezberdinetan ebatzi izana (402/93)*

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Kontseiluak 1991ko abenduaren 26ko aginduaren bidez (1991ko abenduaren 31ko EHAA) katedratiko maila lortzeko merezimendu-lehiaketarako dei egin zuen, eta bertan parte hartu zuen irakasle funtzionari batek hauxe salatu zuen erakunde honen aurrean: bere ustez, lehiaketaren ebazpena atzeratu egin zela, funtzionarioei katedratiko maila aitortzeko prozesuak denbora-alde handiaz burutzen direlako komunitate autonomo batetik bestera, eta horrek Konstituzioaren 14. artikulua jasotzen zuen berdintasun-irizpidearen kontrako bereizkeria garbia sortzen zuelako.

Azaldu gaiari buruz Arartekoak egin zuen azterketaren abiapuntua, errekamatzaileak bere kexa-idatzian adierazi zuena zen: alegia, nahiz Euskal Herriko Komunitate Autonomoan egindako deialdi berezia nahiz Hezkuntza eta Zientzien Ministeritzaren antolabidepean beste autonomi komunitateetan egitakoak, oinarritzko araudi amankomun bati atxikitzen zitzaizkiola. Araudi hori apirilaren 22ko 575/1991 erret dekretuan (1991ko apirilaren 23ko Estatuko Agintaritz Aldizkaria) eta LOGSEn bertan jasota dago, eta Konstituzioaren 149.1.1. eta 18. artikuluek legegileari horretarako ematen dioten eskumenaren indarrez onartu zen araudia, edozein administrazioaren pean egonda ere, irakasle funtzionari publikoen berdintasun-irizpidea bermatu asmoz.

Alabaina, oinarritzko arau horiek aztertzean, Arartekoak honek ikusi zuen, besteak beste, alderdi hauek jorratzen zirela: kidego bakoitzean gehienez zenbat funtzionari eman katedratiko maila; katedratiko izan nahi duten funtzionarioei zein baldintza eskatu; horretarako antolatu behar diren hautaketa-prozesuetan zein bide jarraitu, etabar. Arau horietan inondik ere ez zen iragartzen horrelako deialdiak iragarpen-egutegi bakar bati egokitu behar zitzaizkonik, ezta biderapen eta ebazpen amakomuna eduki behar zutenik ere.

Horregatik, Arartekoak ateratako ondorioaren arabera, era horretako prozedurei dagokien deialdia eta biderapena hezkuntz administrazio bakoitzaren eskuetan nahita utzi da, bakoitzaren eskumen-eremuan sartzen da ahalmen hori eta arrazoi horregatik ezin da esan komunitate autonomo ezberdine-

tako funtzionarien artean sor daitezkeen diferentziak berdintasun-irizpidearen aurkakoak direnik.

Hau da, prozesu horiek bereiz ebaztearen ondorioz posizio juridiko desberdinak baldin badaude ere -eta halaxe gertatzen da, katedratiko izateak berekin dakaitzan ondorio ekonomiko eta administratiboak modu ezberdinean aitortzen baitira komunitate autonomo batetik bestera-, horrek ez digu pentsarazi behar alde horiek berdintasun-irizpidea hausten dutenik; aitzitik, komunitate autonomoei aitortu dizkieten eskumenez baliatzearen ondorio naturalizat hartu behar dira. Hori bera aitortzen dute Konstituzio Epaitegiaren epaiek: martxoaren 26ko 37/1987 Epaiak, abuztuaren 5eko 76/1983 Epaiak eta 1981eko azaroaren 16ko Epaiak.

*Irakasle funtzionarioek, IRALE programaren euskara ikastaroetan sartu nahi badute, etorkizunean adinarengatik hizkuntz eskakizuna betetzetik libre geratzeko eskaera ez egiteko hitza eman behar dute (414/93)*

Bigarren mailako Irakaskuntzako Irakasleen Saileko funtzionari batek aurkeztu kexa-espeditentea bideratu zen Erakundean. Bertan salatzen zuen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak baldintza hau ezarri ziola IRALE programako euskalduntze ikastaroetan sartu ahal izateko: ikastaro horien ondorioz lanordu batzuk betetzetik iare geratzen bazen, bere gain hartu behar zuen etorkizunean adinarengatik hizkuntz eskakizuna betetzetik libre geratzeko eskaririk ez aurkezteko konpromezua.

Ararteko honek, hasteko, egoki zeritzon administrazio publikoek, ohi denez, zenbait sustapen-programatan, esaterako trebaketazkoetan, baldintzak ezartzeari; hau da, programetan esku hartuko dutenei zenbait konpromezu harrarazteari. Horrela, normalean urriak izaten diren baliapideei etekin handiagoa atera diezaiekete administrazioek, eta bestetik, guztien interesen alde jokatzeko beharra betetzen dute.

Hala eta guztiz ere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari bidalitako gomendio batean adierazi genionez, horrelako jardunbideak agian ez dira bidezkoak interesatuei antolamendu juridikoan aitortzen zaizkien eskubideetan eragina dutenean, kasu honetan gertatzen zen bezala.

Halaxe da, adinarengatik hizkuntz eskakizunak egiaztatu beharrik gabe geratzeko aukera ez eskatzeko baldintza ez dator inondik ere bat martxoaren 9ko 47/1993 dekretuaren 12 artikuluen a) atalean jasotzen denarekin, bertan esaten baita 45 urtetik gorako irakasleei hizkuntz eskakizuna frogatu beharretik iare geratzeko eskubidea aitortzen zaiela. Eta kontutan harturik eskubide horretaz baliatzeko aukerari ez zaiola inolako mugarik edo baldintzarik jarri, hezkuntza alorreko administrazioak ez dauka horrelako atal murrizgarririk ipintzeko ahalmenik.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak adierazi zuen gomendioa aztertzeko prest zegoela eta Arartekoaren argudioak arrazoizkoak iruditzen zitzaizkiola. Horregatik, Erakundeak espeditentea amaitutzat jo zuen, kexadunari

alde zurretik administrazio horrek azaldutako borondatearen berri eman ondoren.

*Deialdi-oinarriak berdintasun, merezimendu eta gaitasun irizpideei egokitzeko eskaria (571/93)*

Donostiako Udalak teknikari postu bat betetzeko deialdia egin zuen, eta oinarri-arauetan zuzendu beharreko zenbait gauza zegoen Arartekoaren ustez. Hauek ziren puntu horiek:

- Merezimendu bakarria balioztatzen zen: Donostiako Udalean lanean aritutako denbora.
- Norgehiagoka-aldiko probetako bakar bat ere ez zen baztertzaila.
- Udalak ezarritako gai kopurua ez zettorren bat herri-Administrazioko funtzionariak aukeratzeko prozedurari buruzko 896/91 Erret Dekretuak eskatzen duenarekin.

Aurreko zehazpen horiek langile publikoen hautaketan beti nagusitu behar duten berdintasun, merezimendu eta gaitasun irizpideak urra zitzaketez gero, erakunde honek deialdia behin-behingo bertan behera utz zezan eskatu zion Donostiako Udalari egindako oharpenen garrantzia aztertzen zen bitartean.

Donostiako Udalak berehala jakinarazi zuen deialdia behin-behingo eten egin zuela, eta postu horretarako deialdia berriro aztertuko zuela zegozkion egokitzapenak egitearren.

Birraztertze-prozedura bideratu ondoren, Udalbatzak oinarri-arau berriak onartu zituen, kexa-espedita eragin zuten puntuak aldatuz.

*Sartzeko hautaprobetako emaitzak neurtu eta bateratzeaz eta hizkuntz eskakizunak aukeratzeko (585/93)*

Irakaskuntzaren alorreko funtzio publikoan sartzeko hautaprobetan parte hartu zuten lehiakide batzuek kexa aurkeztu zuten erakunde honetan. Kexan bi gauza salatzen zituzten: alde batetik, epaimahai bat baino gehiago osatu zituzten espezialitatean emaitzak neurtzeko koefizienterik ezarri ez izana, eta bestetik, hautagaiak hizkuntz eskakizunak aukeratzeko jarraitu zen bidea.

Salatutako lehen gaiari zegokionez, hots, zuzenketetarako koefizienterik ezarri ez izana, Arartekoak arretaz aztertu zituen 1993ko maiatzaren 4ko deialdi aginduan (1993ko maiatzaren 11ko EHAA) jasotzen diren oinarri-arauak, alegia, ezagupenak balioztatu eta hautagaiak aukeratzearen ardura duten organoei buruzkoak, bai eta sail horietako bakoitzak dituen betekizun bereziei buruzkoak ere (6.1., 6.3., 6.5.1. eta 6.5.2. oinarri-arau amankomunak).

Halaber, argibideak eskatu zizkion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari. Eta zehazpen horiek guztiak arretaz aztertu ostean, ondorio hauek ateratu zituen:

Lehenengoa. Lehiaketa-aldiko probetan lehiakideen ezagupenak balioztatu eta epaitzeko ahalmena horretarako propio izendatutako epaimahaiek bakarrik daukate.

Bigarrena. Epaimahaien jarduera-irizpideak zehaztu, neurtu eta bateratzeko hautaketa-batzordeei ematen zaien ahalmena, geroago epaimahaiek erabili behar dituzten irizpideei dagokie; horrek ez du esan nahi hautaketa-batzordeek, emaitzak neurtu eta bateratzearren, epaimahaiek emandako puntuazioak alda ditzaketarik.

Hirugarrena. Azkenik, zuzenketarako koefiziente bat erabiltzea ez da emaitza bateratuak ziurtatzeko bide bakarra, deialdiko oinarri-arauei jarraiki, hautaketa-organoek berezko duten diskrezionalitate teknikoaren esku uzten baita egokien jotzen diren irizpide neurtzaileak ezartzea.

Goiko arrazoen ondorioz, Ararteko honek iritzi zion deialdiko baldintzei egokitzen zitzaiola 1993ko abuztuaren 31n argitaratu ziren hautatuen lehen zerrendak bertan behera uzteko Hezkuntza Saileko Langilegoaren Eraentzarako Zuzendaritzak emandako agindua. Zerrenda horietarako, epaimahai ezberdinek alde aurretik onartu eta argitaratu zituzten emaitzei koefiziente zuzentzaileak ezarri zitzaizkien, eta Hezkuntza Sailak horiek indarrik gabe uzteko eskatu zuen eta haien ordean berri batzuk ateratzeko; berriak 1993ko irailaren 27an argitaratu ziren Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Hautaketa-batzordeek aukeratzeko eta neurtzeko aukerak ematen zaien ahalmena alde aurretik finkatu beharreko irizpideei soilik dagokie, baina inolaz ere ezin dituzte aldatu epaimahaiek emandako kalifikazioak. Bestela, deialdiko baldintzen arabera, hautaketa-batzordeak epaimahaiei dagokien zeregina betetzen arituko liriteke, eta horrek aipatutako oinarri-arauek hausteak ekarriko luke.

Hizkuntz eskakizunak aukeratzeko bideari dagokionez, Ararteko honen ustez, hautaketa-prozesuan jasotako puntuazioa lehiakideek ezagutu eta postu baterako edo besterako (1. hizkuntz eskakizuna eta 2. hizkuntz eskakizuna) aukeratuak izan zitezkeela jakin ondoren bakarrik zen bidezkoa perfiletako bat hautatzea, eta, aitzitik, bidegabekoa zen hizkuntz eskakizuna aukeratzeko hautabide baztertzailatzat jotzea, hots, bat aukeratzeko beste hizkuntz eskakizunak uko egiten zitzaizkien ulertzea.

Jardunbide hori, hautaprobetako partehartzaileentzat kaltegarria izateaz gain, deialdiaren baldintzetan jaso gabe zegoen.

Seguraski gogoeta hori bera erabiliko zuen Hezkuntza Saileko Langilegoaren Eraentzarako Zuzendaritzak, bide horri jarraituz, 1993ko abuztuaren 31n argitaratu ziren zerrendak indargabetu eta berriak argitaratzeko agindua eman zuenean. Izan ere, bertan zioenez, zerrenda berrietan agertuko zirenek egindako hizkuntz eskakizunaren aukerak ez zituzten beste aukerak baztertuko, baizik eta lehentasun izaera izango zuen; hortaz, bigarren lehentasun bezala markatutako hizkuntz eskakizunagatik ezin izango zen inoiz puntuazioa txikiagoa zeukan beste inor hautatu.

*Hautaketa prozeduretan organo teknikoek hartutako erabakien arrazoiak eta administrazio-espeditentea ikusteko ahalmena (596/93)*

“Arratiako Egoitza” deritzan herri-erakunde autonomoak 1993ko apirilaren 22an hartutako erabakiaren bidez bertako zuzendari-postua betetzeko deia egin zuen, eta hautaketa-prozesuan parte hartu zuen lagun baten kexa-espeditentea bideratu zen erakunde honetan. Erreklamatzailerak bere idatzian salatzaren zuzenez, hautatuen azken zerrendan bera atzean uzteko ebazpenak arrazoigabeak ziren eta, gainera, epaimahaiak beste lehiakide baten espeditentea ikusteko baimena ukatu zion.

Hiritarrei aitortzen zaien babes judizial eraginkorra izateko eskubidea zaindu eta babesik ezazko egoerak ekiditearren erakunde honek ahalegin handiak egiten ditu, eta administrazioaren ebazpenak sarritan arrazoitu gabeak direlako eskubide hori hauts daitekeela kontuan izanik (1992ko urtealdiari buruzko erakunde honen txostenean jasotako gomendio orokorra gogorarazten dugu), Arartekoak hautatuen zerrendan aldaketak eragin zituzten ebazpenei buruzko arrazoiak zehatz-mehatz jakinaraz diezazkion eskatu zion erakunde horri. Aldi berean, prozesuan partehartzaile izan eta besteren azterketak ikusteko benetako eta zuzeneko interesa frogatzen dutenei administrazio orok bidea zabalik uzteko daukan betebeharrak legala gogorarazten zion.

Erakundeari eskuratu zion txosten eta agirien bidez ikusi zen ebazpenen arrazoietan hutsegiteak zeudela, eta kasu batzuetan arrazoirik ere ez zela ematen. Horren ondorioz, gomendio hau bidali zitzaion, oraindik erantzunik gabe jarraitzen duena:

“...Arratiako Egoitzarako behin-behineko kontratua izango duen zuzendari bat hartzeko hautaprobetan jardun zuen epaimahai kalifikatzaileak, bere ebazpen guztiak berriro aztertzea, arrazoietan hutsegiteak daudelako, edo kasu batzuetan arrazoirik ere ez dagoelako, azken emaitzak eza-gutzera eman aurreko unera itzuliz bere jarduerak”.

*Lanerako hautaprobak egiteko dei edo onarpen baldintzatua eta hizkuntz eskakizunak egiaztatu beharrik eza (597/93)*

Irakaskuntza alorreko funtzio publikoan sartzeko hautaprobetan parte hartu zuen lehiakide batek kexa-idatzia bidali zuen erakunde honetara, eta bertan salatzen zuen, oposaketetako probetan puntuazio handia lortu zuen arren, behin-betiko zerrendetatik kanpo utzi zutela, hautaketa-prozesuan jarraitzea debekatu ziotelarik. Hautaprobetan onartu eta atzera botatuko lehiakideez osaturiko behin-betiko zerrendaren kontra aurkeztu zuen errekurtoa ebatzi gabe zegoelako utzi zuten kanpoan.

Gainera, erreklamatzailerak jakinarazi zigunez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin izandako harremanetan, errekurtoa ez ziotela onartuko adierazi zioten hizkuntz eskakizunik egiaztatu ez zuelako, eta ez zegoelako

hori egiaztatetik libre, behin-behineko irakasleak eta aldi baterako kontratatuak egon ohi diren bezala. Kexa-aurkezleak zioen jardunbide hori erabat diskriminatzailea zela.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saisetarako beharrezko informazioa jaso ondoren, Erakundeak gai horri buruz egin zuen azterketan bi alderdi garbi bereizi zituen: alde batetik prozedurazko alderdiak, eta bestetik, zerrendetatik kanpo uzteko erabili ziren funtsezko oinarriak.

Lehenengoei dagokienez, 1993ko maiatzaren 4ko deialdirako Agindua-ren 2. oinarri orokorrean (1993ko maiatzaren 11ko EHAA), hautagaiek bete beharreko baldintzei buruzkoan, hauxe eskatzen zen lanpostu horietan sartzeko: hizkuntz eskakizunak eta irakasleen lanpostuetarako derrigortasun datak zehazteko irizpideak finkatzen dituen martxoaren 9ko 47/1993 Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak ezarritako hizkuntz eskakizun ezberdinen agiri baliokideak eduki behar zirela, besteak beste, edo bestela, 5. oinarri orokorrean adierazitako egiaztatze-probak gainditu behar zirela, eta 5. oinarri horretan zehazten zen hautaprobak egin aurretik burutu behar zirela hizkuntz eskakizunari zegozkionak.

Deialdiaren aurreko iragarpenen eta horien arabera bideratzeko ezarri zen egutegiaren ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bi zerrenda desberdin argitaratu behar izan zituen. Lehenik, behin-betiko zerrenda bat, onartutako eta onartu gabeko hautagaiez osatua, eta zerrenda hori osatzeko 2. oinarri orokorrean ezarri baldintza guztiak hartu ziren kontuan, hizkuntz eskakizunak egiaztatzeari buruzkoak salbu; bigarren zerrenda, berriz, oposaketa probetara deitutakoez osatua zegoen, eta honetarako bai, aintzat hartu zen lehenengoan bazterturiko hizkuntz eskakizunen baldintza, eta beraz, hizkuntz eskakizunen proba gainditu zutenak, homologatutako hizkuntz agiriak zeuzkatenak eta baldintza hori betetzetik aske zeudenak bakarrik izan zitezkeen deituak probak egitera.

Sail horrek beste erabaki hau ere hartu zuen: hautagai bat aipatu bi zerrendetako batean sartuta ez bazegoen, ezingo zuela hautaketa-prozesuan jarraitu. Baina, zerrendetatik kanpo utzi izanaren kontrako errekurtsioa aurkeztu zutenak, probetara modu baldintzatuan joan zitezkeela ere erabaki zuen, eta beraz, oposaketa-prozesuan ateratzen zuten puntuazioa aurkeztu errekurtsioari emango zitzaion ebazpenaren menpe geratuko zela.

Kexa-aurkezlea onartutako hautagaien lehen zerrendan zegoen, deialdiko 2. oinarri orokorreko baldintzak betetzen zituelako, hizkuntz eskakizunarena ezik. Halere, ez zituen gainditu hizkuntz eskakizuna egiaztatze probak, eta horregatik ez zen azaltzen oposaketetara deitutakoen zerrendan, ez baitzeukan homologatutako hizkuntz agiririk, eta agiri hori aurkeztetik salbuetsita ere ez baitzegoen. Nolanahi ere, zerrendan ez sartzearen kontra aurkeztu zuen errekurtsioari esker, hautaprobetan jarraitu ahal izan zuen eta epaimahaiaren kalifikazioa ere lortu zuen; azkenik, ordea, errekurtsioa onartu ez zitzaionez, behin-betiko zerrendetatik kanpo geratu zen.

Erakundearen iritziz, kexaduna behin-betiko kanpoan utzi arte hezkuntza alorreko administrazioak eman zituen pausoak deialdiko oinarrietan iragarritakoekin guztiz bat zetozen.

Gainera, interesdunen bermeak gehitzen zituzten bideak erabili ziren, hala nola baldintzapean onartzea, horren bidez konponbide zaila zeukaten arazoetara aurre egin zitzaielako. Esate baterako, opositore bati zerrendetatik kanpo uztearen kontrako errekurtsoa onartzen bazaio, gero egin beharreko hautaprobak sekula ez dira burutuko beste lehiakideek egin zituzten baldintza beretan, eta horrek bereizkeria eragin dezake.

Zerrendetatik kanpo uzteko egon ziren funtsezko arazoetara dagokienez, deialdiko 5. oinarri orokorrean azaltzen diren salbuespenen izaera murriztua hartu behar da kontutan. Oinarri horretan, martxoaren 9ko 47/1993 dekretuko lehen xedapen gehigarrian jasotakoa errepikatzen duenean, irakaskuntza alorrean lanean sartzeko unean hizkuntz eskakizunak ziurtatu beharrik eza behin-behineko irakasleentzat eta aldi baterako kontratatuentzat ezartzen da, eta beraz, zehazki aipatzen ez diren beste kasu batzuei ezin zaie irizpide hori bera ezarri.

Oinarri horren kontra azaltzeko, berdintasun-irizpidea hausten dela esatea ez da bidezkoa Ararteko honen ustez. Guztiz ezaguna den bezala, eta Konstituzio Epaitegiaren jurisprudentzia zabalak adierazten duenez, "desberdintasun orok ez du nahitaez bereizkeria adierazten; desberdintasuna zuribide objektibo eta arazoitu gabea denean bakarrik bortxatzen da berdintasuna, eta zuribide hori epaitzen den neurriaren helburu eta ondorioen arabera aztertu behar da".

Horrela, irakaskuntza publikoan behin-behineko irakasle eta aldi baterako kontratatu gisa lanean aritu direnei funtzionari izatera iristeko sarrera bermatzeko premia aski da hizkuntz eskakizunak egiaztatuta beharretik salbuesita uzteko.

Neurri hori, dagokion taldearentzat behin-behinekoa izanik, ezin da neurrigabe eta arbitrariotzat jo lortu nahi duen helburuarekin alderatzen bada; eta desberdintasuna ezartzen badu ere, hori lortu nahi den iraupen jarraituarekin loturik dago, eta horren bidez, gainera, irakaskuntza alorreko funtzio publikoan sarrera eskatu nahi duten beste pertsonetara ez zaizkie aurkezteko aukerak kentzen.

Bestalde, salbuespena ez da behin-betikoa, aldiz, irakaskuntza alorreko funtzio publikoan sartu nahi duten behin-behineko irakasleei eta aldi baterako kontratatuei martxoaren 9ko 47/1993 dekretuan iragarritako epeetan hizkuntz eskakizunak egiaztatzea eskatzen zaielako.

Azaldu diren arazoak zirela medio, erakunde honek ebatzi zuen ez zegoela kasu horretan Arartekoak parte hartzeko arrazoirik eta horrela adieraziz zion kexadunari.



### 3.5. OGASUNA

#### A) Sarrera

Alor honetan ia ez du aldaketarik izan gaien araberako banaketak eta, beraz, lehen kexa-multzoan Norbanakoen Urteko Irabazien gaineko Zergari dagozkionak sartzen dira. Zergak biltzen dituen administrazioak eta norbanakoek iritzi ezberdina azaltzen dute irabazi jakin batzuek errentari lotuak joan behar duten ala ez aztertzerakoan.

Kenketetarako eskatzen diren baldintzak zergapekoen artean diskriminazio sortzaile izan daitezke, eta horregatik zehazki azertu da ezar daitekeen araudia. Ikuspuntu horretatik lurralde historiko bereko zergapekoen artean sortzen diren auziak eta lurralde desberdinetako zergapekoen artean sorturikoak bereizi behar dira, izan ere, hiru lurraldeetan egitura eta eduki beretsua daukaten arren, bakoitzak bere ezaugarriak ditu.

Herri-zergei dagokienez, onura fiskalen aitorpen eta ezarpenagatik sorturiko kexak aipatu behar dira, bai Herri Ogasunen foru-arauak onartu aurreko xedapenetan jatorria eduki eta behin-behingo indarrean daudenetan oinarritzen direnak, bai, foru-arauak jarraiki, arau propioak onartu dituzten udaletan oinarrituak ere.

Halaber, Trakzio Mekanikoa duten Ibilgailuen gaineko Udal Zergarako ibilgailuen katalogazioari buruzko hainbat kexa jaso dira, ordaindu beharreko kuotan eragina duelako. Azkenik, indarrean sartu berria den Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergak kasu batzuetan ekarri zuen zama fiskalaren handitzearekin loturiko kexak aipa ditzakegu. Zerga berri horrek 1992ko urtarrilaren 1ean lizentzia fiskalak eta Kokatze, Publizitate eta Apaintze-Gastuen gaineko Zerga ordezkatu zituen.

Jardun-moduari buruzko alderdiei begira, berriro ere zergen jakinarazpenak egitean sorturiko arazoak nabarmendu behar dira, batez ere errezibo bidez aldiro kobratzen diren zergek eraginak (Ondasun Higiezinak, Jarduera Ekonomikoak, Trakzio Mekanikoa duten Ibilgailuak,...), Zerga Lege Orokorrak jakinarazpenak ediktu bitartez egiteko aukera ematen baitu eta, hortaz, ez baita jakiten jaso behar duenak hartzen duen ala ez.

Zergapekoaren bermeak eta interes publikoaren ikuspegitik eska daitēzkeen eraginkortasun eta bizkortasuna elkar egokituko dituen jakinarazpen sistema erabiltzea oraindik lortzeke dagoen asmoa da 30/92 lege berria indarrean sartu zenetik.

## B) **Kexa aukeratuak**

*Herri Ogasunen Legea onartu ondorengo hobari fiskalak kentzea (85/93)*

Arabako Foru Diputazioak 1988ko abenduaren 30ean, Lehentasunezko Interesen Inbertsiorako Foru Arauean babestuz, industri-jarduera zergapetzen zuten hainbat zergatan hobari fiskalak eman zizkion Gasteizko enpresa bati.

Hobari horien artean, udalari zegozkion Kokapen eta Hiri Zergetan %95eko hobaria ematen zitzaion.

Horri dagokionez, 8/1988 Aurrekontuetarako Foru Arau Orokorraren bigarren xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera, hobariak herri-zergetan ezartzen zirenez, eragindako udalak horiei zegokien akordioa berariz onartu behar zuen.

Horrela, kexadunak onura horien ezarpena Gasteizko Udalari eskatu zionean, honek ez zuen eskaria onartu, gaiari buruzko akordio zehatzik ez zegoe-la adieraziz.

Bestalde, Herri Ogasunen Foru Araua onartzearen ondorioak ere jasan behar izan zituen, izan ere, udal mailakoak ez ziren beste xedapen guztietan aitortuta zeuden zerga-hobari guztiak kendu zirelako, zerga berriei buruzko foru arauetan eta behin-behineko izaeraz aitortutakoak izan ezik.

Horrela bada, arau hori indarrean jarri baino lehen udalak hartu beharreko akordioa hartu gabe zeukanez gero, ezin zen esan aurretik lortutako hobari fiskalik zegoenik.

Indarrean zegoen legediaren urratzerik ikusi ez zenez, kexa artxibatu egin zen.

*NUIZen haurtzaindegiarengatik egin daitekeen kenketa (248/93)*

Arabako zergapeko batzuen eskariz bi kexa-espeditente bideratu ziren. Kexetan salatzen zutenek, ez zieten onartu NUIZen derrigorrezko irakaskuntzako zentruetan egindako ordainketarengatik kenketa, kasu horretan aita-amek biek lanaren bidezko irabaziak edukitzeko baldintzarik ez baitzegoen.

Ildo horretatik gogoratu behar da, haurtzaindegiei nahiz ofizialki aitortutako tituluak eman eta derrigorrezko irakaskuntza eskaintzen duten ikastetxeei ordaindutako kopuruak sartzen direla haurtzaindegiagatiko kenketetan. Kenketa egiteko, bi kasuetan, besteak beste, baldintza hau eskatzen zen: norberaren lanaren eta/edo jarduera ekonomiko, profesional edo artistikoen bidez aita-amek irabaziak izatea.

Halere, haurtzaindegien kasuan baldintza hori zentzuzkoa den arren, 13 urte arteko gaztetxoei derrigorrezko irakaskuntza banatzen dieten ikastetxeetan egindako gastuak kitatzeko aita-amek biek lan egin behar izateak ez dauka

bidezko zurbiderik, adinarengatik aita-amen etengabeko arreta behar ez duten oinordekoek hitz egiten ari baikara.

Ikuspegi horretatik, bigarren kasuan, gurasoetako batek bakarrik lan egi-teak ez du inolako eraginik diru-xahupen horiek bigarren mailakoak edo ezin-bestekoak izatean.

Horrela, hurrengo urtealdietarako gomendioa egin zen, familia unitatean batek bakarrik lana egiten duen kasuetan ere kenketa egin zedin.

Arabako Foru Ogasunak onartu egin zuen gomendioa abenduaren 15eko 31/1993 Foru Arauaren bitartez; arau horren 35. artikulua Norbanakoen Urteko Irabaziekiko Zergari buruzko 24/1991 Foru Arauaren 78.3. b) artiku-lua aldatzen du eta, beraz, aurrerantzean egingo diren aitorenentarako aipatu baldintza kentzen da, hots, nork bere lanarengatik eta/edo enpresa, lanbide edo ederlan jarduerengatik bi ezkontideek irabaziak lortu beharra.

*Legeek iraganean eragin ezinaren irizpidea ustez hautsi izana (287/93)*

Gipuzkoako Urrietako herritar baten eskariz kexa-espeditentea bideratu zen erakunde honetan. Ohizko etxebizitza ez zen beste ondasun higiezin batzuk erosteko mailegu baten interesak kentzeko bidea itxi ziotelako kexu zen, bide hori Norbanakoen Urteko Irabazien gaineko Zerga arautzen zuen lege berriak eten zuelarik.

Kexadunaren ustez, agindu hori ezartzeak, baita araua indarrean sartu aurretik erositako higieziñei ezartzeak ere atzerako eragina zuen eta, ondorioz, Konstituzioak 9.3. artikuluan jasotako irizpidearen aurkakoa zen, hots, legeek ezin dutela igaroan eraginik izan dioenaren kontrakoa.

Horri zegokionez, Ararteko Erakundeak ezin du ohizko etxebizitzaz kanpoko beste ondasun higiezin bat erosteagatik laguntza fiskalak sustatzeko ego-kitasunari buruz ezer esan, erabaki hori legeak indarrean jartzeko ahalmena daukatenen esku baitago.

Ustez, Konstituzioaren kontrako erabakia izan daitekeela diogen baieztapenari begira esan behar da, Konstituzio Epaitegiak alde aurretik finkatutako doktrinaren ildotik Epaitegi Gorenak emandako epai ugarik argitzen dutela auzi hori, alegia, aurretik zegoen lege batek zerga ordaintzetik iare uzteak ez du esan nahi horren onuradunek betiko eduki behar dutenik zergagabetze hori, aitzitik, salbuespena eman zuen legea indarrean dagoen denboran bakarrik ezarri ahal izango da hobari hori (Epaitegi Gorenaren Epaia 1987-IV-15, Ar. 2.515). Era berean, zergekiko hobariak (zergagabetze subjektiboak) ez dakarte atzerako eraginik, baldin eta arau indargabetzaileen eraginkortasuna "indarrean jartzen direnetik aurrera gertatzen bada, alegia, etorkizuneko egite eta zergalaritza-urteei begira, iraganean sendotu edo agortutako egoerak gale-razi gabe" (Epaitegi Gorenaren Epaia 1987-II-22, Ar. 937).

Kexa-espeditentean, beraz, Konstituzioa errespetatzen ez zelako susmoa ezin zen azaldu atzerako eraginean oinarrituz, burututako berrikuntzan ez zela-

ko halakorik gertatzen; izan ere, aurretik zegoen zergarekiko hobari-kenketa ez zitzaien sekula ezarri lege-aldaketa indarrean jarri aurretiko urtealdiei.

Azaldutakoaren arabera, indarrean zegoen legedia inondik ere ez zela urratu ikusirik, kexaren biderapena amaitutzat jo zen.

*Irakaskuntza-zerbitzuengatik ordaindutako salneurri publikoak itzultzea (360/93)*

Posturik ez zegoelako 1991-92 ikasturtean Zaragozako Unibertsitatean albaitaritza ikasketak egiterik izan ez zuenez, ikasle bat Euskal Herriko Unibertsitatean matrikulatu zen Zientzia Biologikoak karreraren eta lehenengo urtea ongi atera zuen.

Hurrengo ikasturtean, 1992-93an alegia, Zaragozako Albaitaritza Fakultatean egin zuen berriro eskaria, kanpoan eta itxaron-zerrendan geratu zelarik, eta horregatik, matrikula egiteko epea amaitu baino bi egun lehenago bigarren urterako matrikulatu zen Zientzia Biologikoen Fakultatean.

Alabaina, EHUn zegokion salneurri publikoa ordaindu ondoren, Zaragozatik Albaitaritza Fakultatean matrikulatu zitekeela jakinarazi zioten eta, beraz, hemengo matrikula deuseztatu egin zuen, baina ordaindutako dirua itzultzeko egin zuen eskaerari ezetza eman zioten.

Horri dagokionez, Euskal Herriko Komunitate Autonomoko Tasa eta Prezio Publikoen 3/1990 Legeak 146.6. artikuluan hau xedatzen du:

“Prezioa ordaintzera beharturik dagoenari leporatu ezin zaizkion arrazoiengatik jarduera burutzen ez bada, jabego publikoari erabilera pribatu edo aprobetxamendu berezirik ematen ez bazaio edo zerbitzua ematen ez bada, aurrez ordaindutako dirua itzuli egingo da (...)”

Errektoregoaren iritziz, ordea, artikulua horrek ezin aldatuzko zerrenda batean aipatzen ditu salneurri publikoak itzuli behar direneko kasuak, eta horregatik ez ditu onartu ikasleek azaldu dituzten era horretako eskariak.

Aurrekoarekin batera beste argudio hau ere erabiltzen du: unibertsitate zentruetan sartzeko prozedurak arautzen dituen ekainaren 14ko 1.005/1991 Erret Dekretuko 8.4. artikuluaen arabera, unibertsitate zentru ezberdinetan onartuak izan direnaren zehaztapenaren zai dauden ikasleek behin-behineko matrikula egiteko aukera daukate, eta dagozkien salneurri publikoak behinbetiko matrikula egiterakoan ordainduko lituzteke.

Halere, azaldutako kasua bakarra ez zenez gero, galdera bat sortu zen, alegia, unibertsitate zentruetan behin-behineko matrikula egiteko zegoen aukerari buruz behar bezalako informazioa ematen ote zuten.

Horrela, azaroaren 2ko dataz iritsi zitzaigun Antolamendu Akademiko eta Irakaslegorako Errektoreordeak bidalitako erantzunean esaten zitzaigunez, matrikula egiteko arauak eta epeak jasotzen zituen eta ikasleei eskuratzen zaien gidan ez da aipatutako erret dekretuaren berri ematen.

Beraz, unibertsitate bat baino gehiagotan aurreinskripzioa egiten zuten ikasleek behin-behineko matrikula egiteko daukaten aukeraren berri argibidezko inprimakietan eta ikasleentzako gidan sar zedin gomendatu zen. Antzeman bezalako arazoei aurre egiteko, Errektoregoak aurki zezakeen beste edozein bide ere erabil zitekeen.

Hori gutzia onartu egin du Unibertsitateko Errektoregoak.

### *Seme ezindu bat zaintzeko egindako gastuengatikoen kenketa (390/93)*

Kexadunak zioenez, seme ezindua zeukan, Bizkaiko Foru Diputazioko zerbitzuek semearen ezintasun maila %77,5 zela adierazi ziotelarik.

NUIZen aitortpena egiten zuenean 1991. urteko urtealdirarte, bere semea zaintzen zuen pertsonari ordaintzen zion dirua kendu egiten zioten, semeak laguntza behar zuelako bizitzako oinarrizko premietarako.

Urte horretan, ordea, behin-behineko kitapena egin zioten eta bertan ez zizkioten kenketak onartu, gastu horiek seme ezindua zaintzeagatik bakarrik sortutakoak zirela behar bezala frogatu gabe zegoela adierazi ziotelarik.

Ezintasun mailak gastu horien izaera frogatu beharrik eza zekarrenez, erakunde hau Bizkaiko Foru Ogasunarekin mintzatu zen gai horretaz, eta egindako kitapena baliogabetzea eta kontzeptu horregatik sortutako gastuak onartzea lortu zuen.

### *Balioetsitako salneurrian etxebizitzak saldu edo erosteagatik ordaindu behar den Ondare Eskualdaketengatikoen Zerga ordaintzetik iare gertatzea (447/93)*

Etxebizitzak erosteko 109/92 dekretuan iragartzen diren laguntzak eskatu zizkion kexadunak Eusko Jaurlaritzari, eta laguntza eman zitzaiola jakinarazi ziotenean, eskribau-agiria egin zuen notariaren aurrean.

Jabe berriak, lehenago ordaindutako Ondare Eskualdaketengatikoen Zerga (OEZ) itzultzeko eskatu zuen, bere ustez jabego-aldaketari zerga hori ez zegokiolarako. Izan ere, etxebizitza babes ofizialekoa zen erosleari horretarako eman zitzaizkion laguntzak eman zitzaizkiolarako; Gipuzkoako Foru Ogasunak, ordea, ez zuen eskaria onartu.

Horri dagokionez, OEZ zerga arautzen duen 18/87 Foru Arauaren 41.b.12. artikulua zera dio:

“Exenzioa izango dute:

(...) babes ofizialeko etxebizitzak ‘inter vivos’ lehen domeinu transmisioa, beti ere bere behin-betirako kalifikapen datatik sei urteren buruan gertatzen bada.”

Kexadunaren iritiz, laguntzak ematearekin batera babes ofizialeko etxebizitzetara salmentarako prezio-muga ezartzen zitzaizkien bezala, erosketa berriei ere indarrean zegoen legediak haiei ematen zizkien hobariak ezarri behar zitzaizkien.

Ogasun Sailak, aldiz, zergagabetzerik ez dagokiola uste du, ez gaudela etxebizitzaren lehen eskualdaketan, eta beraz, analogiaren bidetik ezin zaiola era horretako erosketa bati berez babes ofizialekoak diren etxebizitzentzako iragartzen diren hobariak ezarri.

Aipatu agindu hori hitzez hitz interpretatuko balitz, ez litzateke onargarria izango balioetsitako salneurria ezarri zaien etxebizitzetara zabaltea zergagabetzea. Ondorio berbera atera liteke BEZari buruzko Lege berriko 20.22. artikulutik, hauxe baitio:

“(…) lehenengo eskualdaketatzat hartuko da sustatzaileak egindakoa, baldin eta eraikitze edo birregokitze lanak bukatutakoan eta jabeak edo gozamen eskubide errealean jabeek bi urtez etengabe erabili aurretik edo alokatze kontratuen arabera (...) gertatzen bada.”

Dena den, kasu horretan edozein ondoriotara iristen direlarik ere, balioetsitako salneurria duten etxebizitzetara zergagabetze hori berariz ezartzeko gomendioa egiteko aukera aztertzen ari da gaur egun.

#### *Kenketa familian ezinduren bat edukitzeagatik (474/93)*

Kexa-aurkezleak adierazten zuenez, senar-emazte eta lau seme-alabez osatutako famili-unitatearekin batera, aitaren 84 urteko izeba bat bizi zen, Bizkaiko Foru Diputazioko Gizarte Ongizate Sailaren arabera %96ko ezintasun maila zeukana.

Egoera horrek dirubidezko zama handia zekarren arren, NUIZi buruzko Foru Arauak 78.1. d) artikuluan famialiar-teko ezinduengatik egin daitekeen kenketari buruz hitzegiterakoan, kenketaz beste pertsona batzuek balia daitezkeela dio, zaintze edo ordaindu gabeko babes aitortpena dagoen kasuetan.

Eskakizun hori, gainditu ezinezko traba izan ohi da askotan, norbanakoak ez daudelako prest dagokion prozedura judizialaren biderapenak sortzen dituen gastu eta gogaipenak beren gain hartzeko.

Bestalde, aginduaren teleologiari erreparatzen badiogu, esan behar da eskatzen den ahaidetasun harremanaren izaerak, hau da, zuzena eta inolaz ere ez zeharkakoa izateak, ez duela inolako eraginik zergapekoaren dirubidezko eta zerga ordaintzeko ahalmenean.

Era berean, gogoan hartzekoa da ezintasun aitortpena lortzeko gorputz edo buru gaisotasunak iraunkorra behar duela, ezinduari bere kabuz baliatzea eragozten diona. Baina, bestalde, zerga-ondorioetarako eskatzen den ezintasun maila %33koa besterik ez da.

Beraz, pertsona batek daukan ezintasunagatik NUIZen kenketa lor dezake, baina aldi berean burujabea ere izan daiteke, eta kasu horretan ezintasun

aitorpena ezin da zuritu; eta, bestalde, aitorten horri esker izendatzen da ezin-  
dua zaintzeko arduraduna.

Nolanahi ere, erakunde honen iritziz, famili-unitate batek familiakide ezin-  
du bat zaintzean egiten duen ahalegin ekonomikoa, edozein ezindu zaintzean  
eginikoaren pare jarri beharko litzateke, ahaidetasun-erlaziorik egon ala ez  
egon.

Horrela, erakunde honek gomendioa bidali zion Bizkaiko Foru Ogasuna-  
ri, beharrezko egiaztapenak egin ondoren, kitapen hori egiteko baimena eman  
zezan, eta kenketa norbanakoak zaintzen zuen ezinduekin zeukan ahaideta-  
sun-erlazioa edozein zelarik ere egin zezala, baita ahaidetasunik ez zegoenean  
ere.

Baina, Hitzarmen Ekonomikoak lurralde historikoetan eta lurralde aman-  
komunean famili-mailako kenketa berak egin behar direla agintzen duenez, gai  
hori Estatuko Herri Defendatzaileari bidaltzeko aukera aztertzen ari gara.

#### *Herritarren erabilerarako lekuak hartzeagatik salneurri publikoa kobratzea (475/93)*

Kexadunak adierazten zuenez, Getxoko Udalak etxe baten azpikaldeko  
garajeen jabeei ibilgailuak espaloiaren gainetik pasatzeagatik ariela kobratu  
nahi zien, 1975eko uztailean Alkatetzaren dekretu bidez, kale hori espaloi eta  
espaloj-ertzik gabe zegoenez, ordaindu beharrik ez zegoela adierazi zen arren.

Gaiari buruzko argibideak aipatu udalari eskatu ondoren, Alkatetzaren  
erantzuna jaso genuen, eta bertan hau esaten zigun: 1989. urterarte garaje-  
jabeek ez zuten arielik ordaintzen espaloirik ez zegoelako; baina Toki Ogasu-  
nen Legea indarrean jarri zenetik, zerga ezartzen zaio herritarren erabilerara-  
ko ondasunei erabilera pribatua emateari, eta hori salneurri publikoekin pare-  
ka daiteke, ez baita eskatzen espaloirik edo espaloi ertzik egotea.

Hala da, bai, espaloirik ez izanda ere, garajeetarako sarrera ateak bertan  
egote hutsak galeratzen zuen horien parean beste ezer jartzea, eta hori berez  
erabilera pribatua da.

Oharpen horiek kexadunari helarazi ondoren, indarrean zegoen legea  
bete zela ikusirik, kexaren biderapena amaitutzat jo genuen.

#### *Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergarako Sestaoko Udalak onartu- tako koefizienteak (663/93)*

Sestaoko Merkatarien Elkartek aurkeztutako kexa-espedientea bideratu  
zen erakunde honetan. Merkatariek ziotenez, 1992-93 urtealdirako bertako  
Udalak onartu zituen Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergarako koefizienteak  
gutziz gehiegizkoak ziren.

Lehenik esan behar da Herri Ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legeak ahalmena ematen diela udalei Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari dagozkion gutxieneko kuotak gehi ditzaten, eta horretarako, igoera ezartzea erabakitzen duten udal horiei, dagokien lurraldean eta jarduera gutzietarako koefiziente beraren arabera igoera ezar dezaten eskatzen zaie. Gehikuntza koefizientea 1,4 eta 2 artean koka daiteke herri bakoitzak daukan biztanleen arabera eta, beraz, Sestaori dagokionez, esaterako, 1991. artean 35.948 biztanle izanik, lurralde amankomunean gehienez 1,7ko igoera ezar zitekeen.

Lurralde historiekoek, berriz, Konstituzioak eta Autonomi Estatutuak zergtarako ematen dieten ahalmenaz baliatuz, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergarako beren foru-arauek atera zituzten, gehikuntza muga 2,2raino igoz, eta ezarpena mailakatzeko ez zuten erabili herri bakoitzak zeukan biztanle kopuruaren faktorea.

Estatuak eta Euskal Herriak sinatu zuten eta indarrean dagoen hitzarmen ekonomikoen arabera, ezin da baieztatu foru-arauek ezartzen dituzten gehienezko mugak lurralde amankomuneko ezarriak ez bezalakoak direnean, hitzarmeneko koordinazio eta elkar-aditze irizpideak urratzen direnik, batez ere 3. eta 4. artikuluetakoak.

Ikuspegi horretatik, Sestaoko Udalak onartu zituen indizeak araudiarekin bat zetozela esan behar da, nahiz eta horrek martxoaren 17ko 2/1992 Foru Araudirako Dekretuak udalei ematen dien gutxieneko udal kuota (tarifa-kuota gehi azalera) gehitzeko aukera azken muturreraino eramaten dela adierazten duen. Dekretu horren bidez onartzen da Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren ekainaren 30eko 6/1889 Foru Arauaren testu bateratua.

Halere, iragarpen hori udalaren nahiaren arabera da, bai gehikuntzak onartzeari dagokionean, bai udalak ezar dezakeen gehikuntzari dagokionean ere, beti arauak ezarritako mugen barruan jardun daitekeelarik.

Hau da, udalaren gutxieneko kuota bakarrik ezarritako kobra liteke zerga, koefiziente eta egoera-indizearen bidez gehitu gabe, edo bestela, neurbide horietako bakarra ezarritako.

Sestaoko Udalaren kasuan, beraz, erabaki bikoitza zegoen: Udalaren gutxieneko kuotak gehitzea, eta gehikuntza ahalik eta mailarik gorenera igotzea, eta horrela herri horrek Euskadiko indizerik altuena lortu zuen eta, azaldutako arrazoiengatik, baita Estatu osokoa ere.

Adibide gisa, Bizkaiko beste herri edo hiri batzuetan biztanle-kopuruaren arabera ezarritako gehikuntza koefizienteak hauek dira:

	Biztanl.	1992	1993
SESTAO	35.948	2,2	2,20
BILBO	368.710	1,2	1,28
GETXO	79.577	1,2	1,30
PORTUGALETE	55.499	1,3	1,19

(Informazio-etorbidea: Euskal urtekari estatistikoa, 1991)



Konstituzioak ezarritako dirubide-ahalmenaren eta justiziaren irizpideei egokitu eta horiek errespetatzearen ikuspegitik, 31. artikulua dioenez, zerga-bilketa horietan oinarrituz egin behar baita, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren gehienezko tipoak Sestao bezalako udalerrri batean ezartzea aldiarik aldikotzat jo beharko litzateke, eta piskanaka inguruko beste udal batzuek onartutako mailetara egokituz joan beharko luke.

Alde batetik, ezin da ahaztu zerga horretan biztanle-kopuruak egite zerga-garriarekiko daukan garrantzia, alegia, jarduerarekin daukana, eta Sestaoren kasuan datu hori ez da kontuan hartu nahi izan dirua biltzeko premiarengatik.

Bestetik, udal-zergak oro har eta batez ere derrigorrezko lakapenezko hiru zergak udalen burujabetasuna eta dirubidezko gaitasuna lortzeko tresnatzat jotzen direla ahaztu ezin badugu ere, orobat gogoan izan behar da gizarte mailan egonkortasun eta aurrerabidea lortzeko eta errenta hobeto banatzeko (Zerga Bilketarako Lege Orokorra) balio dutela.

Azaldutako guztiagatik, erakunde hau sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legeko 11. artikulua arabera, Udalari gomendatu genion Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren gutxieneko kuotaren gaineko gehikuntza koefizientea eta egoera-indizeen ezargarratasuna arian-arian eta piskanaka egokituz joan zedila, Sestaokoaren antzeko biztanle-kopurua eta zerbitzu publikoak dituzten beste herri batzuetakoekin parekatu arte, beti ere gogoan izanik herri horrek egun dituen arazo bereziak.

1994ko urtealdirako, Sestaoko Udalak erakunde honek esku hartu baino lehenagotik iragarrita zeukan bezala, gehikuntza koefizientea 2ra jeistea erabaki zuen, eta une hauetan oraindik ezin da auresan datozen urtealdietan zein maila ezarriko diren.

Bestalde, lurralde amankomunean bezalaxe, hemen ere biztanle-kopurua kontuan har dadin foru-ogasunei eskatzea komenigarria den aztertzen ari da erakunde hau.

### 3.6. HERRIZAINGOA

#### A) Sarrera

1993ko urtealdian zehar, Herrizaingoari dagozkion 45 kexa jaso ditu Arartekoak, beraz, jaso diren guztien %7,9. Ohizkoa den bezala, alor horretako arazo gehienak Garraioari buruzko azpialari dagozkio, aurten alor honetako kexa guztien %89 azpisaile horri dagozkiolarik.

Eragindako Administrazioen arabera aztertzen baditugu, 1993ko hamabi hilabeteetan aurkeztu diren kexetatik 27 udalekin sortutako arazoei zegozkiela ikusten da, eta aldiz, beste 18 espedientek Eusko Jaurlaritzako Herrizaingoa zuten kexagai. Jakina denez, foru-diputazioek ez daukate ahalmen garrantzitsurik alor horretan, eta beraz hiritarrek ezin dute sail horri buruzko kexa gehiegirik eduki.

Berriro ere, bidezaingoari buruzko erreklamazio gehienak ustezko lege-urratzeak ikertzen dituen batzordeak irekitako zigor-espedienteei dagozkie. Udalen kontrako kexei begira, lege-hauste horiek autoak gaizki aparkatzeari edo gure hiri nagusietan bidezaingo eta aparkamenduetarako indarrean dauden arauetan jasotako xedapenak ez errespetatzeari buruzkoak dira.

Ildo horretatik, agintaritza-eskudun batek dagokion isuna jarri ondoren garabiak autoa erretiratzearen kontrako kexak aurkeztu dira. Kasu horietan, Arartekoak indarrean dagoen Bidezaingoari buruzko Legeak 71. artikuluan xedatutakoa zorrotz bete dadin gomendatzen du, herri-bidetik ibilgailuak erretiratzeke legezko arazoiak bertan jasota daudelako.

Herrizaingoak trafiko gaietan izandako jokabidearen kontrako salaketei dagokienez, aipatzekoak dira ezarri zigorren kontra eginiko gora-deiei ebazpenak oso berandu ematea legezkoa ote den zalantzan jartzen dutenak. Hain zuzen, kasu horietan sortzen diren arazo juridikoak txosten honetako gomen-dio orokor batean aztertzen dira.

Azkenik, ibilgailuen jabeei premiabide-prozeduraren bidez ibilgailua bahitzeko jarraibidea salatzen duten zenbait kexa-espediente bideratu dira erakunde honetan.

Ordena publikoaren azpisailari dagokionez, guztira 5 kexa aurkeztu dira, eta udaltzainen eta Ertzaintzaren ekintzei buruzkoak dira.

## B) Kexa aukeratuak

### *Tratu txarrentatik salaketa Udaletxean (3/93)*

Barakaldoko emakume batek bertako udaltzaingoaren jokaerarekin zeri-kusirik zuen kexa-idatzia aurkeztu zuen erakunde honetan. Bera eta bere alabari ustez jabegoaren kontrako delitu bat burutzea egotzi zieten eta, salatu ostean, udaltzaingo horretako polizia batzuk atxilotu egin zituzten eta, beraien esanetan, erregistrozakoan tratu bidegabea eman zieten.

Atxilotuen identifikazio eta erregistro lanak egin zituzten udaltzainen portaerari buruzko informazioa Barakaldoko Alkateari eskatu ondoren Erakunde-an jaso zen informazioak ez zien inolaz ere erantzuten, legeak ikerketarako aitortzen dion ahalmenari jarraiki, Arartekoak eskatutako datuei. Beste argibide-txosten bat eskatu zion alkateari, eta eskatu datuak eman gabe jarraitu zenez, Arartekoa hirugarren aldiz datuak eskatzera behartua aurkitu zen, eta azken aldi horretan, aurreko argibideez gain, salatutako gertakarien inguruan burutu ziren idatzizko agiri guztien kopia bidal ziezaizkion ere eskatu zion.

Azkenik, erakunde honetan kexadunen identifikazio eta erregistro lanei buruzko agiriak jaso ziren. Bertan zeuden atxiloteta, azalpen, aurrean agertze, aitorten, erregistro eta identifikazio lanen kopia guztiak, eta horiek aztertu ondoren Arartekoak ez zuen ikusi gaiaren inguruan beste era bateko jarduera burutzeko bidea emango zuen inolako araugabekeriarik.

Azaldutako guztiagatik, ama-alaba salatuen eskariz bideratu zen kexa-espedientea itxi eta artxibatu egin zen, eta Udalarari gogorarazi zitzaion udaltzai-

nek une oro eta zorrotz errespetatu behar dituztela atxilotutako eta, hala izanez gero, erregistratutako pertsonen bermeak eta funtsezko eskubideak.

### *Epaibidea atzerapenez bideratzea (45/93)*

Gipuzkoako Lasarte herriko biztanle batek kexa-idatzia aurkeztu zuen erakunde honetan. Bertan, Donostiako argibide-epaitegian ustez trafikoko segurtasunaren kontra burutu zuen delitu batek eragindako zigorlege-epaibidea atzerapen handiz bideratzen ari zela salatzen zuen.

Justizia Administrazioaren jardunaren kontrako kexa horietan ohizkoa den bezala, eta Arartekoaren Legeak berak 9.2. artikuluan xedatutakoa bezateaz, honek eskumena daukan erakundeari bidaltzen dio kexa, eragindako epailaritza-organoaren arabera, ikertu eta ebatzi dezan. Kasu horretan, salaketa Donostiako Lurralde Entzutegiko Fiskal Buruari igorri zitzaion.

Erakunde horretatik oso bizkor bidali zitzaigun erantzunean, kexa-idatzian aipatzen zen prozeduraren jarraibidea eta gertatutako atzerapena argitzen ziren; istripua eragin zuen autoa, haren bere jabea eta aseguru konpainia Frantzia zeudelako gertatu zen atzerapena. Nolanahi ere, fiskalak berak eskatuzion argibide-epaitegiari Espainian aurki zezala Frantziako aseguru-etxea ordezkatzeko konpainia, hangoari zegozkion diru-kopuruak eska ziezazkion, eta gaiaren inguruan ematen ziren aurrerapauso guztien berri Arartekoari jakinarazteko konpromezua hartu zuen.

Herri-salataritzak azaldutako guztiaren berri kexadunari eman ondoren, Arartekoak agortutzat jo zituen arazoa konpontzeko eskura zituen jardun bideak.

### *Zamatze eta zama gabetze aldean ibilgailua mugitu ezinik uztea (69/93)*

Portugaleteko biztanle batek ahozko kexa aurkeztu zuen Ararteko honetan bere herriko udaltzainen jokaera baten kontra. Gaizki aparkatzeagatik isuna ezarri eta, aldi berean, gurpiletako batean zepoa ezarri autoa mugitu ezinik utzi ziotela salatzen zuen.

Erakunde honetako lege-aholkulariek kasua aztertu eta ebatzi zuten, aparkatzeko debekua zegoen aldean autoa uzteagatik egindako salaketa eta ondoren jarritako isuna erabat zuzenak zirela, autoa mugitu ezinik utzi zioten aldean garbi ikus baititezkeen aparkatzea debekatuta zegoela adierazten zuten seinaleak.

Ibilgailu arau-hauslea gerarazteko hartu zen badaezpadako neurria bidezkoa zen aztertzean, ordea, ikusi zen gertatua ez zegoela jasota Bidezaingoaren Legeko 70. artikuluan aipatzen ziren aukeretan, eta horregatik udaltzainek alderdi horri buruz hartu zuten neurria legez kanpokotzat jo zen. Ondorioz,

Udalari gomendioa bidali zitzaion, eta bertan, besteak beste, eskatzen zitzaion autoa mugitu ezinik uzteko erabakia bertan behera utz zezala eta sortutako gastuak itzul zitzala, eragindako aldeko seinaleak garbiago adieraztearekin batera.

Portugaleteko Alkateak bidalitako erantzunean, Arartekoaren gomendioa osorik onartzen zuela aditzera eman zuen. Horregatik, kexadunari autoa askatzeagatik ordaindu zuen dirua itzuli eta gero, kexa-espeditentea itxi eta artxibatu egingo zela jakinarazi zitzaion bi alderdiei.

### *Udal-zigorra atzerapenez jakinaraztea (81/93)*

Bilboko biztanle batek kexa-idatzia aurkeztu zuen Ararteko Erakundearen udaltzaingoak ezarri eta Udaletik Bidearau-bilduma hausteagatik bidali zioten isun baten kontra.

Kexa-aurkezleak zioenez, isunaren jakinarazpena jaso zuen egunerako borondatezko ordainketa egiteko epea amaitua zegoen eta, jakina denez, epe horretan ordainduz gero, isuna %20 merkeagoa izaten da.

Arrazoi horregatik, Arartekoak Bilboko Udalera jo zuen gai horri buruzko argibide eske, zigortzeko prozedura honen inguruko datak garbi adieraz zitzaion. Udal administrazioak bidali informazioa aztertu ondoren, kexadunak esandakoa egiazkoa zela ikusi zen.

Horren guztiaren ondorioz, erakunde honek gomendioa luzatu zion Bilboko Alkateari, kexadunari ezarritako zigorra eta haren hasierako birraztertze-errekurtsoa ezesten zuen ebazpena bertan behera utz zitzaion eskatuz. Azkenik, hutsegite berberagatik beste isun bat jarri eta kexadunari jakinaraz ziezaion eskatu zion, horrela borondatezko ordainketa egiteko aukera eduki zezan.

Udalak Arartekoak gomendatua betetzeko prest zegoela jakinarazi ondoren, egindako antolen berri kexa-aurkezleari eman eta espeditentea itxi eta artxibatu egin zen.

### *Ibilgalua hiri-bidetik erretiratzea (215/93)*

Getxoko biztanle batek kexa-idatzia aurkeztu zuen erakunde honetan aparkatzea debekatutako alde batean autoa uzteagatik ezarri zioten isunarekin ados ez zegoelako. Kexadunak adierazten zuenez, nabarmena zen autoa hondatua zegoela eta laguntza teknikoa bilatzeko behar izan zuen denboran baka-rik egon zela leku debekatu horretan. Azkenik, autoa garabiak eraman zuen, eta jabeari leku debekatuan aparkatzeagatik isuna eta herri-bidetik autoa kentzeagatik ariela kobratu zizkioten.

Ararteko honek informazio eskaria egin zion Getxoko Alkateari, eta bertan erreklamatzailak adierazia argi zezan eta isuna ezartzeko eta autoa erretiratze-ko arrazoiak azal zitzaion eskatu zion.

Udaletik jasotako txostenak zioenez, autoa gaizki aparkatua egoteagatik ezarri zitzaion isuna, eta ezerk ez zuen aditzera ematen autoa hondatua zegoenik. Bestalde, jakinarazten zuen diskoen bidez aparkatzea debekatua dagoela adierazita dagoen lekuan uzteagatik erretiratu zuela garabiak autoa.

Informazio horren aurrean Arartekoak iritzi zuen Bidearau-bildumako debeku bat hausteagatik ezarri isunean araugabekeriarik ez zegoela, ez zelako adierazten hondatua zegoela. Alabaina, autoa erretiratzeko udalak emandako arrazoiak nabarmenki ez ziren nahikoak, Bidezaingo Legeko 71. artikuluan jasotzen diren puntuetako bakar bat ere hausten ez zuelako.

Horregatik guztiagatik, Getxoko Alkateari gomendatu zitzaion autoa erretiratzeko neurriaren ondorioak bertan behera utz zitzala, eta garabi zerbitzua erabiltzeagatik kexadunari kobratu zioten arielaren zenbatekoa itzul ziezaioela.

Getxoko Udalak gomendioa jaso bai, baina ez zuela onartzen jakinarazi zuen, bere iritziz, kasu horretan autoa erretiratzeko arrazoiak bazeudelako, hain zuzen trafikoa galeraztea. Arartekoa ez zegoen ados jarrera horrekin, alde batetik, autoa erretiratzeko Udalak hasieran eman zuen arrazoiarekin bat ez zetorrelako, eta bestetik, arrazoi hori behar bezala egiaztatua ez zegoelako.

Izan ere erakunde honen ustean, trafikoko arau-hausteak aginte-eskudunek aitortzen badituzte ere, Udalek aipatu 71. artikuluko agintzen duena betetzen dela ziurtatu behar dute, xedapen horretan iragartzen den neurria behar bezala hartu dela frogatzeko.

Hortaz, bi alderdiei espediente itxi eta artxibatu egingo zela jakinarazi zitzaion, bai eta kasuaren laburpena txosten honetan sartuko zela ere.

*Araupetzeko udal ordenantzan adierazten diren bideak errespetatu gabe TAO zerbitzua Irungo beste kale batzuetara hedatzearen kontra (522/93)*

Biztanle batzuk Irungo Udalaren jokaera salatu zuten, beren ustez Trafiko eta Aparkaleku Kontrolatuetarako Ordenantza (TAO) herriko beste hiri batzuetara bidegabeki hedatu zelako. Era berean, aparkamendu kontrolatuengatik arielak legekontra kobratu izana salatzen zuten.

Arartekoak gaia aztertu ondoren biztanleei jakinarazi zien ordenantzak TAO araudia herriko beste alde batzuetara hedatzeko eskumena ematen ziola Alkatezari, erabakia ezarri baino gutxienez hamabost egun lehenago jakinaraziz. Bestalde, ikusi zen mugatutako aldean aparkatzeagatik diru-kopuru bat kobratzea ordenantza fiskal arautzaileak babestuen zuela, 1992ko abenduaren 31ko Gipuzkoako Agintaritza Aldizkarian argitaratutako azken aldaketaren arabera.

Halaber, biztanleek beren kexan azaltzen zutenari erantzunez, zerbitzuaz arduratzen zen enpresako langileak udaltzainen antzeko uniformeez jantziak egotea ez zela araugabea adierazi zitzaion.

Azkenik, TAO zerbitzua beste alde batzuetara hedatzeko erabakia Gipuzkoako Agintaritza Aldizkarian argitaratu eta ordenantzak agintzen dituen derri-

gorrezko hamabost egunak igaro baino lehen indarrean jarri zela ikusirik, Arartekoak Alkatearengana jo zuen TAO zerbitzua hedatzeko epeetan bidegabeki jokatu zuela adieraztearren, eta TAO zerbitzua hedatutako alde berri horietan uztailaren 2tik abuztuaren 4ra bitartean aparkatzeagatik biztanleek ordaindu zuten dirua itzularaz ziezaieten eskatzeko eskubidea ere eduki zezakete erabiltzaileek.

### 3.7. JUSTIZIA

#### A) Sarrera

Gaia era zabalean hartuta alor honi dagozkion kexa ugari aurkezten dituzte norbanakoek erakunde honen aurrean.

Baina badago arazo bat: alegia, Konstituzioaren 117. artikulua jasotzen duen askatasun judizialaren irizpidea oinarri harturik, epaitegi eta auzitegiek ematen dituzten ebazpenen edukia beraiek bakarrik ikuskatu dezaketela kexadunei ikusaraztea nekeza da; izan ere, horren ondorioz daude Arartekoaren jardura-eremutik kanpo sendetsitako epailaritz-erabakia jaso duten edo epailaritz-ebazpenaren zain dauden kasuak.

Illo horretatik, bideratu diren gaiak epailaritz-jardueraren prozedurari buruzkoak izan dira, eta ondo bereizten diren bi multzotan bana daitezke.

Lehen multzoan, batez ere ebatzi beharreko espediente asko edukitzeagatik prozesuen biderapenean, ustez arrazoi gabe, gertatu diren atzerapenen edo etenen kontrakoak daude. Bide horretan, hiru lurraldeetako fiskal buruek eskaini duten laguntza goraiatzekoa da, eraginkorra zein azkarra izan delako.

Bigarren multzoa, langile eta bitarteko material gehiago eskatzeko aurkeztutako kexek osatzen dute. Jakina, baliabide horiek ematea Estatuko eta Euskal Herriko administrazioei dagokie. Horrela, besteak beste, gai hauek aipa daitezke: peritorik eza, horien partaidetza kasu batzuetan erabakiorra baita ebazpenetarako; epaile eta idazkari falta, eta baita kasu asko pilatzen diren herri edo eskualdeetan partidu judizial berriak sortzeko eskariak ere.

Sarritan, kexa-multzo horiek elkarri loturik daude, argi eta garbi, eta horiek konpontzeko gaia osoki hartu behar da.

Zuzenbidea eragiteko bidean garrantzi erabakiorra duten beste kexa adierazgarri batzuk ere sartzen dira atal honetan, hala nola abokatuen jardura eta beren zerbitzu-sariak zalantzan jartzen dituztenak. Bi gai horiek ikuskatzea dagozkien kolegio profesionalen eskuetan dago.

Azkenik, jardun juridikionalak presondegien alderdiarekin daukan loturatik sortzen diren gaiak ere aipatu behar dira. Horien artean daude atxilotuei ematen zaizkien baimenak, gradu izendapenak, lekualdaketak, etabar; gai horiek Arartekoaren jardura-eremutik kanpo badaude ere, honek eskumena daukaten jardute-sailetara bideratzen ditu.

## B) **Kexa aukeratuak**

*Gizarte-gaietarako epaitegietan postu batzuk hutsik egoteagatik espediente-biderapenean izandako atzerapena (61/93)*

Gasteizen gizarte-gaien ardura daukaten bi epaitegietan hutsik geratu ziren postuengatik lan-arazoan biderapenean zegoen etenaldia salatzen zuen kexa-idatzia jaso zen erakunde honetan.

Etenaldi horren ondorioz, adibidez, lanetik bota zituztelako auzietan sartuta zeuden langileek ezin zuten langabezi-saria kobratu, izan ere, epaitegiek lanetik botatzeak bidezkoak ziren ala ez ebatzi arte, kexadunek ez baitzuten legez langabezian egon beharraren baldintza betetzen.

Horregatik, Euskal Herriko Justizi Epaitegi Gorenari eskatu genion, postu horiek lehenbailehen betetzeko eskaria zegokion organu gorenari egitearekin batera, arazo horiek konpontzeko behin-behineko neurri egokiak har zitzala.

Horrela, 1993ko otsailaren 18an aipatu epaitegiaren Eraentza Sailak egindako bileran hau erabaki zuen aho batez: gizarte-gaiez arduratzen diren 1 eta 2 zenbakidun epaitegien egoera ikusirik, Lehen Auzipidetarako 3 zenbakidun Epaitegiko auzimaisua izendatzea, ordezko lanak egin zitzaizkan berak lehenetik alor horretan zeukan eskarmentuagatik, Justizia Epaitegi Gorenako Lan Arazoetarako Sailan auzimaisu lanak egin baitzuen.

Horrela, aldi baterako bederen, kexa-arazoa konpondua geratu zen.

### *Dohaineko justizi eskaria ukatzea (463/93)*

Kexadunak, dibortzio auzia bideratzearen doaneko justizia izatea eskatu zuen. Horretarako arrazoi hau eman zuen: bere irabaziak gutxieneko soldata halako bitik gorakoak ziren arren, ez zirela iristen hura halako lau izatera, eta famili-etxea ez zen beste etxebizitza batean bizitzeak zekarzkiten gastuak nahiz famili-etxeak zeukan hipoteka ordaintzeaz gain, emazteari pentsioa pasatu behar ziola zioen.

Arestian aipatu zehazpenei buruzko egiaztagiria eskuratu ostean, Auzitaratze Zibilaren Legeak (AZL) 20. artikuluko bigarren atalean aipatzen dituenak baitira, eskaria bideratzea onartu zen eta eragindako aldeei ahozko auzibidera joateko deia egin zitzaizen.

Lehenik, kexadunaren irabaziak gutxienezko soldata halako bitik gorakoak zirela ikusi zen eta, hortaz, bere gain zeuzkan beste ardurak kontuan izan arren, Epaitegiaren ustez, hark irabazten zuena nahikoa zen auziaren gastuei aurre egiteko, eta ez zegokion AZL legeak bere 15. artikuluan iragartzen duen salbuespenezko ezarpena.

Horri dagokionez, hau da AZL legeak 14. eta 15. artikuluetan adierazten duena:

“Epaileen bidez doaneko justiziarako eskubidea aitortuko zaie horretarako eskaria egiten den unean indarrean dagoen lanbidearteko gutxienezko soldata halako bitik gorako irabazi eta dirusarrerak ez dituztenei” (14. art.).

“Halere, epaileek eta epai-mahaiek, eskaria egiten duenaren famili-egoera, bere gain dauzkan seme-alabak edo ahaideak, osasun-egoera, dauzkan betebeharrak, auziaren kostua edo horien antzeko beste arrazoi batzuk direla medio, lege honetako 30. artikuluko lehenengo hiru zenbakietan jasotako onurak eman ahal izango dizkiote lanbidearteko gutxienezko soldata halako bi baino gehiago, baina halako lau baino gutxiago irabazten dutenei” (15. art.).

“Ahal izango dizkiote” esapideak arau hori ezartzea haien nahiaren esku dagoela adierazten duela kontutan izanik, erakunde honek ez zuen ikusi lege-urratzerik, eta espedientearen biderapena amaitutzat jo zuen.

### 3.8. INGURUGIROA

#### A) Sarrera

Iazko urteari dagokion ekitaldian 44 kexa jaso dira, beraz, erakunde honetan jaso direnen %7,7, eta eragindako administrazioen arabera honela banatzen dira:

- Eusko Jaurlaritza.....	5
- Udalak.....	41

Edukiei dagokienez, sailkapen hau egin daiteke:

- Hiriko jarduera sailkatuak .....	35
- Ingurugiroarekiko beste arazo batzuk .....	6

Aurreko urteetako txostenetan gai horri buruz erakunde honetan jasotzen ziren kexak gero eta gehiago zirela ikusten zen. Aurten, ordea, ingurugiroaren alorreko kexa-kopuruak beherakada nabaria izan duela esan behar dugu, eta zehazki hiriko jarduera sailkatuetan gertatu da beherakada.

Horri dagokionez esan behar dugu udal batzuek konpromezu handiagoa hartu dutela arazo horiekiko, eta erakunde honek bidalitako gomendioen onarpenari buruz ere beste horrenbeste esan behar da. Ostalaritza, taberna, pub, dantzaleku eta antzeko lokaletan araugabeki jarduteagatik sortzen ziren zaratek eragindako gogaipenek biztanleei kalte egiten diete, eta horren ondorioz, salaketa ugari egin zituzten herri-erakundeen eta erakunde honen aurrean.

Horrela, azpimarratzekoa da udal batzuek ingurugiroaz arduratzeko sail organiko berriak sortu dituztela eta, beraz, langile eta baliapide material gehia-



go izanik, era horretako jarduerak modu eraginkorragoan kontrolatzen direla. Joera hori herri-erakunde guztietara hedatu behar dela uste dugu.

Bestalde, oso egoki jotzen dugu 1993ko uztailearen 16ko Aginduaren bidez Barne Sailburuaren 1988ko otsailaren 11ko Aginduko 5. artikulua aldatu izana, zeinaren arabera finkatzen baitira ikuskizun publiko eta aisiarako jardueretarako lokal eta tokiak zabaltzeko eta ixteko orduak.

Horri esker, era horretako lokalek, batez ere "makailuaren bidea" deiturikoan sartuta zeuden dantzalekuek ezin dituzte ateak goizeko seieta zabaltu, ohizkoa zen bezala. Izan ere, ez da ahaztu behar indarrean dagoen zaratei buruzko araudiak egunez gaez baino zarata maila handiagoak baimentzen dituela.

Ingurugiroari eragiten dioten beste arazo batzuk deritzan azpisailean kokatzen diren kexen artetik, berriro aire zabaleko jarduerak eragindako gogaipenen kontrako salaketak agertzen dira eta, gainera, animalia mota batzuen babesari buruzko salaketak ere jaso ditugu.

## **B) Kexa aukeratuak**

*Gimnasio jarduera batek eragindako zaratek sortzen dituzten gogaipenak (590/92)*

Bilboko biztanle batek bere etxebizitza azpian kokatutako gimnasioaren jardueretatik etxean jasaten zituen zaratak salatzen zituen.

Kexadunak zioenez, behin eta berriro joan zen Udalera gertatzen zena salatzeri eta, ondorioz, udal zerbitzu teknikoek beharrezko probak egin eta lokalaren zaraten kontrako sistema ez zela egokia frogatu zuten. Halere, arazoa konpontzeko inolako neurririk hartu gabe jarraitzen zuten.

Bilboko Udalari argibide-eskaera egin ondoren, lehenik aipatu jarduerak ez zeukala Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Araudiak ezinbesteko jotzen duen baimenik egiaztatu genuen, eta beraz, Udalak udal-ebazpena eman behar zuela gimnasioaren egoera legezatzeko edo, bestela, bere jarduna galeratzeko.

Bidezko denbora-epea igaro zen eta herri-erakunde horrek ez zigun adierazi arazoari buruzko neurririk hartu zuen; eta, kexadunaren kalterako zen egoerak bere hartan ziruela jakinik, berriro informazioa eskatu genuen Udalari, arazoa konpontzeko legez ezarrita zegoen prozedura zein zen gogoraziz.

Udalaren erantzunak zioenez, gimnasioa jartzeko baimenik ez izateagatik hamar eguneko epean jarduera ixteko agindua eman zion lokalaren jabeari; honek alegazio-idatzi bat aurkeztu zuen, eta horren bidez lokalak gimnasia egiteko eta makinak edukitzeko baimena bai, baina musika ipintzeko ez zeukala egiaztatu zen.

Horregatik, Alorreko Alkateorde Delegatuaren dekretu bidez musika ekipoa zigilatu zen, eta lokala jabeari jakinarazi zitzaion zigilua ez zela kenduko musika jartzeko udal-baimena eskatu eta ekiptoak beharrezko baldintzak betezen zituela ziurtatu arte.

Udaltzaingoak musika-ekipoa zigilatu zuen arren, kexadunak gimnasiotik zetorren musika-hotsa entzuten jarraitzen zuela adierazi zuen. Udaltzaingoa berriro lokalera joan eta ikusi zuen, musika ekipoa zigilatua egon arren, lokal berean beste bi irratikasete pizten zituztela, eta horregatik erretiratu egin zituzten.

Bilboko Udalak jakinarazi zigun udaltzainek gimnasioa ikuskatzen jarraituko zuela eta, horrela, erakunde honek konpondutzat jo zuen kexa sortu zuen arazoa.

*Supermerkatu batean egiten ziren zamatze eta hustutze lanek eragindako gogaipenak (676/92)*

Gasteizko biztanle batek bere etxebizitzaren azpian kokaturiko supermerkatuaren jarduerak ustez eragiten zituen araugabekeriak salatu zituen. Zehazki hau zioen: supermerkatu horretan kamioiak zamatatu eta zamagabetzeko lanak lokalarena zen tunel antzeko batean egiten zirela, eta hortik zetozkiela inguruko biztanleei salatzen ziren zaratengatik gogaipenak, izan ere, udaltzainek kexadunaren etxebizitzan egindako zaraten neurketek erakutsi zuten, 50 eta 52 dezibeliotara iristen zen zarata-maila.

Gasteizko Udalarekin harremanetan jarri ondoren jakinarazi ziguten jarduera horrek, etxebizitzak zeuden hiri-aldeetan burutzen ziren antzeko jarduera gehienek bezalaxe, hiru zarata mota nagusi sortzen zituela: konpresore ekipoez eragindakoa, biltegian merkantziak harat-honat erabili beharrak sortua eta herri-bidean zamatze eta hustutze lanek eragina.

Aipatutako lehen arazoari dagokionez, herri-erakunde horrek adierazi zigun jarduera-jabeari zenbait eskabide egin ondoren, soinua indarrean dagoen Zaratei buruzko Ordenantzak baimendutako zarata-mailara jeistea lortu zuela, hobetze nabaria gertatu zelarik.

Produktuak jaso eta banatzeko biltegi-barruan kaxen eraman-ekarriak eragiten zituen zaratak zirela eta, lurra, sapaia eta hormak zaraten kontra isolatzeko neurriak hartu zirela jakinarazi ziguten, arratsaldeko seietatik aurrera (gaueko zaratetarako aldia) erabiltzeko asmoz. Emaitzak ikusita aukera hori baztertu egin zen eta, hortaz, biltegia goizeko zortzietatik aurrera (eguneko zaratetarako aldia) bakarrik erabil zitezkeen. Tarte horretan baimentzen diren zaratak oso ozenak dira eta horregatik egunez izandako jarduerak ordenantzen arabera eman zitezkeen. Halere, tarteka gertatzen ziren zaratak, kaxen erortzeak edo gurditxoek kolpeek aldizka eragindakoak ezin zirela aurrez iragarri adierazi ziguten eta, beraz, zaraten kontrako isolamendu neurriak egokiak baziren ere, biltegi jardueraren gehiegizko erabileraren aurrean ezin zela bermatu zaraten kontrako babesa.

Herri-bidean egindako zamatze eta zamakentze lanek sorturiko zaratei begira, hornitzaileen jokoera oro har nahiko ona zela aditzera eman zituzten eta, egun berezietan izan ezik, biltegirako sarreran ez zela zarata sortzen zuten pilaketarik gertatzen.

Horregatik, erakunde honek jakinarazi zion kexadunari bere etxebizitzan egin ziren neurketek agerian utzi zuten arazoa bilketa-jardueraren gehiegizko erabilerak eragin zuela, hau da, lehenago esan dugun bezala, tarteka nahi gabe egiten ziren zaratek, biltegia behar bezala soinu-gabetua zegoelako.

Horrenbestez, espediente itxi eta artxibatu egingo genuela adierazi genion, aipatu kasuan jokabide horregatik zigortzeko aukera besterik ez zela geratzen gehituz. Hori egin nahi bazuen, zaratak somatzen zituen bakoitzean Udaletxean salatu behar zituen, biltegiko lanetan baimendutako mugak gainditzen ziren egiaztatu eta supermerkatu-jabearen kontra zigor-espediente ireki zezaten.

### *Donostiako kaian jarritako karruselek eragindako gogaipenak (22/93)*

Donostiako biztanle batek, gabonetan hiri horretako kaian jarri ziren karrusel batzuen jardunak bere etxebizitzan zarata eta argitasunagatik kalte larriak sartzen zituela salatu zuen erakunde honetan.

Arazoari buruzko informazio eske Donostiako Udalera jo genuenean, erabat harrituta geratu ginen eman ziguten erantzunaren aurrean: kaian betidanik jartzen zirela gaztetxoek aisiarako tresnak eta Udalak ez zuela zuzenean parte hartu beharrezko azterketa egin eta baimena emateko orduan, hiriko alde horri buruzko eskumena Eusko Jaurlaritzari zegokiolako.

Hara zerk harritu gintuen: Poliziaren Araudi Nagusia onartzen duen 2.816/1982 Erret Dekretuaren 48. artikuluan, ikuskizun publiko eta aisiarako jardueri buruzkoan esaten da, aldi baterakoak, aldagarriak eta desmontagarriak diren instalazioak, eta oro har, jendeari aisiarako eskaintzen zaizkion aukera txikiak jartzeko (feriak eta erromeriak, behin-behineko txoznak edo aire zabalean daudenak, zalditxo biratzaileak, karruselak, kolunpioak, tiro egiteko lekuak eta antzekoak) Alkatezkan eskuratu behar dela derrigorrezko baimena.

Halere, Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilaretarako Sailari informazio gehigarria eskatu genion, gai horretan zer nolako partaidetza izan zuen jakiteko.

Horrela, Portu eta Itsas Gaietarako Zuzendariak jakinarazi zигun Itsasertzen Legearen eta hori garatzeko indarrean dagoen araudiaren babesean Garraio eta Herrilaretarako Sailak ematen dituen baimenak, hirialdeak desmontatzen diren instalazioez edo gehienez urtebete irauten duten tresnez betetzeko izaten direla, eta salatu kasua horrelakoxea zen. Herritarren erabilerarako lekuak betetzeko baldintzak, okupazioa amaitutzat jotzeko arrazoiak, e.a. arautzen dira, guztiak jarduera kokatzen deneko ingurua zaintzera bideratuak, baina halere jarduera garatzeko beharrezko beste baimen eta lizentziak ere lortu beharko lituzke jarduera-jabeak.

Era berean esan zigun zuzendaritza horrek sekula ez ziola bertan jarri eta jarduteko baimenik eman gogaipenak eragindako karruselari, baimena Donostiako Udalari eman zitzaiola, Erakarpen eta Turismorako Zentruaren bitartez, portuko lurrazala feria-tresnez bete zedin, eta zuzendaritzan ez zekitela zein

tresna kokatuko ziren, Udala zelako txozna bakoitzaren jarduna baimendu behar zuena, Ikuskizun Publiko eta Aisiarako Jardueren Araudian ezarritakoari jarraiki.

Txostenean adierazten zenez, bereziki hurrek erabiltzen zituzten txozna horiek udalbatzarrak ikuskatu ez zituenez gero, Portu eta Itsas Gaietarako Zuzendaritzak jakinarazi zion Donostiako Udalari aurrerantzean Udalaren kontrol zehatzaren pean portuan jarriko ziren jardueretarako bakarrik emango ziola baimena eta inolaz ere ez feria edo txozna tresnak kokatzeko.

Azkenik, Arartekoak idatzi bat bidali zion Donostiako Udalari, gertatutakoarengatik bere haserrea azalduz, eta egindako antolen berri eman zion kexa-aurkezleari.

### *Taberna bat ixteko udalak ateratako dekretua (174/93)*

Erreneriako taberna baten jabeak aditzera eman zuen bertako Udalak lokalean neurri zuzentzaile batzuk hilabete baten buruan egiteko agindua eman ziola eta, baldintzak betetzen ez bazituen, jarduera itxi egingo ziotela jakinarazi ziola.

Kexadunaren aburuz zigorra handiegia zen, taberna 1966tik baitzegoen zabalik, eta 1986an indarrean zegoen hirigintza-araudira egokitzeko berritzelan handiak egin zirenetik, lokalak arazorik gabe zabalik iraun baitzuen 1992. urtean alokatu zuen arte. Maizter berriak jabego-aldaketarako beharrezko baimena eskatu zuenean, Udalak ukatu egin zion jarduerarako beharrezko ziren neurri zuzentzaileak betetzen ez zituelako.

Horri dagokionez, Erreneriako Udalak 1992ko apirilaren 8an Tabernen Instalaziorako Udal Ordenantza Arautzailea onartua zeukala jakin genuen, eta ordenantza hori aztergai den kasuari ezar zekiokoela.

Ildo horretatik, aipatu ordenantzako bigarren behin-behineko xedapeanean adierazten da, eskualdaketa zein jabego-aldaketa edo berritze-lanak egin direnean, xedapen horretan ezarritakoa bete beharko dela udalaren baimen berria jaso baino lehen.

Horregatik, jabego-aldaketarako baimena jaso baino lehen, udal-zerbitzu teknikoek ikuskapena egin zuten lokala ordenantza berriak eskatzen zituen baldintzei egokitzen zitzaizkien jakiteko.

Egindako ikuskapenaren ondorioz, zarata eragozteko sistema ez zela egokia, komunen azalerak ez zirela eskatu neurrietañoak eta lokaleko airea ateratzeko aparailua ez zela behar bezain indartsua ohartu ziren.

Erreneriako Udalak eskaera bat baino gehiago egin zizkion lokalaren jabeari beharrezko neurri zuzentzaileak jasoko zituen lehen egitamua aurkezzezan, eta ezarrita zeukan epean inolako argibiderik aurkeztu ez zuenez gero, hilabeteko azken epea ezarri zion egitamua aurkezteko, hori betetzen ez bazuen, lokala itxiko ziotela adierazi ziolarik.

Udalaren jokabidean lege-araugabekeriari ez zela egon kexadunari adierazi ondoren, espedientea itxi eta artxibatu egin zen.

*“Makailuaren bidea” deritzanaren barne zegoen lokal batek ateratako zarata (379/93)*

Gasteizko auzokide-elkarte batek sustatutako kexa-idatzia jaso genuen erakunde honetan, eta bertan etxe-azpian zeukaten dantzaleku baten jardunak sortzen zuen zaratagatik beren etxebizitzetan jasan behar izaten zituzten gogaienak salatzen zituzten.

Kexadunek ziotenez, gertaera horiek behin baino gehiagotan salatu zituzten Gasteizko Udalaren aurrean, baina erantzun zehatz eta erabakiorrik jaso gabe jarraitzen zuten; egoera benetan eramanezina zenez gero, asteburuetan etxeak utzi beharrean aurkitzen ziren.

Gasteizko Udalarekin harremanetan jarri ondoren, jakin genuen biztanleei iristen zitzairen zarata ez zuela lokalaren soinu-gabetze-sistema txarrak eragiten, musika-ekipoak gehiegizko soinu-mailan jartzeak baizik.

Bestalde, aipatu dantzalekua goizeko seietatik eguerdirarte egoten zela zabalik esan zigun Udalak, gazteen artean “gaupasa” izenaz ezagutzen den asteburuetako dibertimendua eskaintzearen, eta horregatik ohizkoak ez ziren orduetan dibertitzeko leku bilakatu zela alde hori; ondorioz, kalean zaratek, automobil eta motor hotsek, musika-zarata handiegiak, etabarrek arazoak eragiten zituzten. Dantzaleku hori, azken finean, “makailuaren bidea” deritzanearn sartua zegoen.

Jokaera hori, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren 1988ko otsailaren 11ko aginduak babestua zegoen. Sail horrek dauka lokalen ordutegiak finkatzeko eskumena, eta aipatu aginduko bosgarren artikulua dantzaleku-lokal horiek goizeko seietan zabaltzeko baimena ematen du, baldintza bakarra ezartzen zaielarik, hau da, gutxienez lau ordu jarraian itxita edukitzea.

Azaldu den lehen arazoari dagokionez, Gasteizko Udalak dekretu bidez jardueraren jabeari eskatu zion musika-ekipoan indar akustikoa mugatzeko tresna ezar zezala inguruko biztanleei gogaipenik ez sortzeko.

Emandako epean jarri ez bazuen ere, udal-zerbitzu teknikoek egin zuten ikuskapenaren ondoren, eraginkortasun bermeak nahikoa zirela onetsi zuten. Era berean, Udalak zigor espedientea ireki zion dekretua ezarri epean ez betetzeagatik.

Azkenik, irekitzeko ordutegiari zegokionez, Herrizaingo Sailburuaren 1993ko uztailaren 16ko aginduaren bidez, 1988ko otsailaren 11ko aginduaren 5. artikulua aldatuz konpondu zen arazoa. Aginduak orain dienez, lokala itxi eta berriz ireki bitartean gutxienez sei orduko tartea utzi behar da eta, gainera, sei ordu horiek, bere mailaren arabera lokalak beranduenik ixteko ezarritan daukan ordutegitik aurrera kontatu behar dira, ixteko derrigorrezko ordua bete ala ez.

Lezoko biztanle batek, bere etxe-azpian zegoen taberna jarduerak eragiten zituen ustezko araugabekeriak salatu zituen erakunde honen aurrean.

Bere kexa-idatzian zioenez, etxe horretan bizitzen jarri zirenetik jasaten zituzten tabernak sortutako zaratengatik gogaitaldiak, eta sarritan aurkeztu zuten kexa Lezoko Udalean, Ertzaintzak egindako neurketen emaitzekin batera, baina Udalak neurriak hartu gabe jarraitzen zuen.

Lezoko Udalak jardueraren espedientea bidali zigun, eta bertan lokalaren jabeak ez zituela jarduera legeztatzeko beharrezko antolak egin ikusi genuen.

Horrela, udal-teknikariak egindako ikuskapenenean agerian utzi zuten zarata eragozteko sistema ez zetorrela bat 171/85 Dekretuan xedatu baldintzekin, hots, etxebizitzak dauden hiri-lurrean garatzen diren jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei ezarri beharreko arau tekniko orokorreari buruzkoekin, eta suteei aurre egiteko tresnetan ere hutsuneak nabaritu ziren; gainera, instalazioak ez zitzaizkion 1991ko Suteen kontrako Babeserako Baldintzen oinarritzko arauari egokitzen.

Arazoi horiengatik, Lezoko Udalak beharrezko neurri zuzentzaileak jasoko zituen zurbidezko txostena eta aginpidedun teknikari batek onetsi, sinatu eta idatzitako egiaztagiria aurkez zitzan eskatu zion jarduera-jabeari.

Lokalaren jabeak ez zien eskaera horiei jaramonik egin eta, horregatik, Arartekoak jarduera legeztatzeko egitamu osoa aurkez zezan, hilabeteko epea ezar ziezaion eskatu zion Lezoko Udalari, bai eta jakinaraz ziezaion agindua betetzen ez bazuen jarduera behin-behingoan itxi egingo ziotela, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen ordenantzan xedatutakoari jarraiki.

Egindako gomendioari erantzunez, Lezoko Udalak adierazi zigun Eraentza Batzordeak 15 eguneko epea eman ziola jabeari zarata guztien gehieneko maila baimendutakoaren arabera finkatu eta gainditzen uzten ez duen aparailua ezar zezan, horrela zaraten gehinezko muga areagotu ez zedin.

Gure gomendioaren edukari zegokionez, egoera ekonomikoa kontutuan izanik, jabeari hainbat milioitako obrak egin zitzan eskatzea ez zela bidezkoa izango zioen Udalak eta, bestalde, herriko taberna gehienek zeuzkaten baldintzekin erkatuz, eskakizun hori baztertzaileria izango zela.

Lezoko Udalaren argudio horiei begira Ararteko honek idatzi bat bidali zion hauxe adieraziz: hartutako erabakiarekin ez zegoela ados, bere ekintzak zurrizko administrazio batek ezin duelako egungo egoera ekonomikoa erabili, kasu zehatz honetan, norbanakoak nahiz Administrazioa bera ere baitaude araudia betetzera behartuak, eta legezkotasun-irizpideak aginte publikoen jardura guztien ardatz nagusi izan behar baitu.

Bestalde, herriko beste tabernak ere araugabekeria-egoera beretsuan zeudelako taberna-jabeari neurri zuzentzaileak eskatzea diskriminatzailea litzatekeela esateari buruz, Ararteko honek administrazio-Zuzenbidearen irizpide nagusia gogorarazi zion: legekontrako aurrekariak ez dute behartze-indarririk.

Azkenik, gure gomendioa onartu gabekotzat jo genuela jakinarazi genion Udalari.

Lezoko Udalak, ordea, ohar bat bidali zigun, hartutako neurriak nahikoa ez baziren eta gogaitaldiak berriro sortzen baziren, jarduera legeztatzeko egitamu osoa eskatuko ziola adieraziz.

Horrela bada, Ararteko honek ulertu zuen bere gomendioa onartu egiten zela, eta kexadunari egindako antolen berri eman genion.

*Ibilgailuak konpontzeko legezkontrako tailer baten jardunak araugabekeria larriak eragitea (577/93)*

Ondarroako biztanle talde baten kexa jaso zen erakunde honetan; bertan beren etxebizitzetan jasaten zituzten zaratak salatzen zituzten, etxe-azpian zegoen ibilgailu konponketarako tailerraren jardunak sortuak.

Horri dagokionez, kexadunek eskuratu zizkiguten agiriak eta Arartekoaren eskariz Ondarroako Udalak bidali zizkigunak aztertuz, legezkanpoko jarduera zela jakin genuen, tailerraren jabe berriak jabe go-aldekaterik eskatu ez eta horretarako baimenik ez zuelako.

Ildo horretatik, Epaitegi Gorenaren aginduz, lokal baten jabetza eskuz aldatzen denean irekitzeko baimen berria eskatu behar dela gogorarazi behar da, jabetza aldatzen denean Udalak derrigorrez egiaztatu behar duelako jabe go-aldaketaren ondoren jarduera berbera burutuko den ala beste bati ekingo zaion, eta, aldi berean, neurri zuzentzaileak egokiak diren ere egiaztatu behar duelako, ondoren baimena eman ala ukatzearren (1983ko otsailaren 23ko Epaitegi Gorenaren Epaia, Ar. 938; 1980ko azaroaren 7ko Epaitegi Gorenaren Epaia, Ar. 4.402).

Bestalde, tailerra kokaturik zegoeneko eraikina antolamendutik kanpo eta, udal-hirigintza araudiaren arabera, hiriko bizitxetarako izendatua zegoela jakin genuen eta, beraz, jarduera hori ezin zen inolaz ere legezkotu.

Arazoa are larriagoa zen, izan ere, udal-teknikariek lokalean egin ikuskaritza azterketan jarduera egokirako beharrezko neurri zuzentzaileen araua ez zuela betetzen ikusi zuten, inguruko biztanleei zarata eta usainengatik gogaipe-nak sortuz.

Azkenik, Ondarroako Udalak tailerraren jabearekin bilerak egin zituela jakinarazi zigun, jarduera egokitu eta neurri zuzentzaileez hornitzeko, baita tailerrarentzako beste kokagune bat aurkitzeko ere.

Azaldu diren arrazoi guztiengatik, Arartekoak Ondarroako Udalari gomendioa luzatu zion, indarrean dagoen araudia beteaz, ibilgailuen konponketarako tailer hori itxi zezan aholkatuz.

Udalak ez zuen gomendioa onartu, hauxe aditzera emanez: tailerraren inguruko biztanleen kexak onargarriak ziren arren, herriak bizi zuen egoera ekonomikoagatik ezin zuen tailerra itxi, jarduera horretatik sei edo zazpi pertsona bizi baitziren. Era berean, arau subsidiarioetan industria zona bezala Erreterria auzoa industrialdetzat jo zela zioen eta, beraz, "egunen batean"

herriko industria guztiak han kokatuko zirela, baina bitartean ez zegoela beste irtenbiderik.

Horregatik guztiagatik, erakunde honek espedientea itxi eta artxibatu egin zuen, zegokienei kasua Legebiltzarrari aurkeztuko zitzaion txostenean sartuko genuela adieraziz.

Era berean, Ararteko honek bere haserrea azaldu zion Ondarroako Alkateari gomendioa ez onartzeagatik eta horretarako eman zituen arrazoiengatik. Bere jarduera eza zurtzeko herriak bizi zuen egoera ekonomikoa aitzakiatzat aipatzea onartezina zen, kasu horretan derrigorrez bete beharreko araudia zegoelako eta araudi hori hiritarrei ez ezik, Administrazioari ere bazegokiola, legezketasun-irizpideak nagusitu behar duelako aginte publikoen jarduera guztietan.

### 3.9. HERRILANAK ETA ZERBITZUAK

#### A) Sarrera

Etxebizitzetarako ur horniduran gertaturiko ustezko araugabekeriak salaketa ugari sorrarazi dute sail honetan. Udal guztiak daude zerbitzu hori ematera behartuak eta, beraz, erabiltzaile asko dituen zerbitzua da eta era askotako kexak eragiten ditu.

Beste kexa batzuk ere aurkeztu dizkiote Arartekoari garraio-mota ezberdinekin zerikusirik dutenak (errepide eta tren bidezko zerbitzu erregularrak, taxiak, etabar), bai eta saneamendu zerbitzuaren eta zabor-bilketaren ingurukoak ere.

Azkenik, biztanle taldeek aurkeztutako kexak azpimarratu beharko lirateke; gure komunitate autonomoan, azpiegitura-lan handiak egitean edo mar-txan jartzerakoan gerta daitezkeen ondorio txarrak jasotzen dituzte kexa horiek. Azpiegitura-lanen eraikuntza-sistema berez alorkakoa dela erakusten digute biztanleek eta, beraz, alorkako izaera horregatik ez dutela bizitza kalitatearen alderdi guztiak hobetzeko asmorik izaten, zuzenkien kaltetutako biztanleek erreklamatzan duten bezala. Azpiegitura egitamu edo programek gizar-tean izaten duten eragina zuzentzeko neurriak hartu beharko lirateke, hiri ingurunean eragiten dituzten kalteak txikiagoak izan daitezen.

Gainera, azpiegitura gogorrenak eta inork nahi ez dituen hornikuntzak hiriguneko aldean onurarako, hirigunetik urrutien eta gehien kaltetutako au-zoetan kokatzen direla azaltzen dute kexadunek, hau da, hirigunean bizi direnek sekula ez dituztela jasan behar zama horiek.



## B) **Kexa aukeratuak**

### *Araugabekeria uraren errezipoa kobratzean (33/92)*

Gasteizko biztanle batek erakunde honetan aurkeztu kexa-idatzian hau salatzen zuen: 1991ko lehen sei hilabetei zegokien ur kontsumoaren errezipoaren bidez, 1990. urteko azken sei hilabeteetako ere kobratu ziotela, eta ordaindu behar den kopurua finkatzeko ezartzen den eskala gero eta gehiagokoa denez, kalte ekonomiko handia eragiten ziola. Bestalde, uraren hornikuntza eta kobraketa arduratzen den udal-enpresak zioen 1990eko azken sei hilabeteetako kontsumoa zenbatekoa zen ez zela beharrezko epean neurtu, kontagailua etxe barruan egon eta interesduna etxean ez zegoelako.

Horren guztiaren aurrean, Gasteizko Udalarari idatzi bat bidali zitzaion, kexadunak ematen zituen arrazoiak egiaztatu eta kontagailuak markatzen duena irakurtzeko unean norbanakoak etxean ez badaude jarraitu behar den bidea azal zezan eskatuz.

Udalaren erantzunaren arabera, erabiltzen zen programa informatikoan iragarrita zegoen sei hilabete epeko neurketarik agertzen ez zen kasuan, zegokionari gutuna bidaliko zitzaioela neurketa berak bidal zezan eskatuz. Datu hori, ordea, inolaz ere ez zetorren bat kexadunak adierazitakoarekin, eta horregatik Arartekoak hiritarrari gutuna bidali zitzaioela egiaztatu zion uren udal-elkarteari.

Udal-erakundearen erantzuna jasotzean jakin genuen gutuna ohizko postabidez bidali zela eta horregatik ez zegoela bidalketa horren frogarik. Hiritarrari eragindako kalte ekonomikoa konpontzearen, igorri zioten errezipoa bitan banatu zen, sei hilabete bi epeak bereiz kontatuz eta kexadunari hasieran pagatu zuen kopuruaren ordaina eman zitzaion.

### *Udal-polikiroldegiko salneurri publikoak indarrean irauteaz (374/92)*

Getxoko Fadura kirol instalazioak erabiltzen zituen herri horretako biztanle batek hauxe salatuz: polikiroldegiko instalazio batzuk kendu ondoren, urte berria hastean, Udalak ez zien itzuli nahi erabilera anitzetarako taloitegiak zeuzkatenei artean aprobetxatu gabeko instalazioak erabiltzeari zegokion dirukopurua.

Azaldukoaren arabera, eta arazoari buruz zeuden arauak bildu ondoren, herri horretako Udalarari ofizialki bidali zitzaion gertakariaren inguruan izan zuten jokaera eta horren arrazoi juridikoak azal zitzaion eskatuz.

Udalak, bidali zigun erantzunean aitortzen zuen oso denbora-epe laburra geratu zela Fadurako instalazioen erabileraren prezio publikoak aldatzen zituen akordioa hartu eta araudi berria indarrean jarri zen arte, eta araudi berriak ez zuela onartzen aurrez emandako erabilera anitzetarako taloitegien balioa.

Horregatik guztiagatik, Arartekoak gomendioa bidali zion Getxoko Alkateari. Araudi-aldaketaren berri emateko bitarteko gutxi erabili zirela, eta instalazio batzuen erabilera anitzetarako taloitegien jabeentzat asmo onak zeudela kontuan izanik, Udal horri eskatu genion aprobetxatu gabeko erabilerei zegoki-  
kien dirua itzultzeko taloitegi-jabeei, ezen, araudi-aldaketaren eraginez, taloitegi horiek ezin baitziren gehiago erabili; bestela, horien truke araudi berriaren araberako tiketak ematea proposatu genuen, horretarako bidea erraza delako eta epe laburrean egin daitekeena. Era berean, irizpide horiei jarraiki hartuko zen erabakiaren publizitatea egin zezan gomendatu genion, erabilera anitzetarako taloitegiak zituzten guztiek horren berri jakin zezaten.

Azkenik, Getxoko Udalak gomendioa aztertu ondoren, aprobetxatu gabeko erabilerei zegoki-  
kien dirua itzultzeko bi hilabeteko epea ematea erabaki zuen eta, horrela, Arartekoaren ebazpena bete zen.

### *Udalak ibia kentzea (201/93)*

Gasteizko automobilen salmenta eta konponketarako tailer baten jabeak kexa-  
idatzia aurkeztu zuen Ararteko honetan. Ibilgailuak tailerrean sartzeko zeuzkan bi ibietako bat Udalak legez-tatu nahi ez zuelako zen kexu. Bi ibiak denbora luzez erabili zituen, baina azken udal-arautzearen ondorioz, Udalak bietako bat ken zezan eskatzen zion, bestea erabiltzeko baimena ematen ziolarik.

Udal-ebazpen horrek kalteak ekartzen zizkion eragindako lokalean burutzen zen jarduera ekonomikoari, izan ere, tailerrak barruan bi solairu zeuzkan, bata salmentarako eta bestea automobilen konponketarako, eta ebazpenaren ondorioz, izugarri zaila gertatzen zen solairu batetik besterako bidea izatea.

Arazoa zuzenean ezagutzeko, lehenik tailer horri zegokion udal-espeditentea aztertzer-  
a Udalera jo genuen, eta gero informazio eskari baten bidez osatu genuen azterketa. Era berean, kaltetutako lokalera ere joan ginen, bi ibietako bat ixteak kexadunaren jarduera ekonomikoan eragin zitzakeen kalteei buruzko informazioa zuzenean jaso asmoz.

Kasu honen inguruko egintzak aztertu ondoren, Udalak beste ibia debekatzeko jarraitutako prozedura zuzena izan zela ikusirik, Ararteko honek gomendatu zion Gasteizko Alkateari, Udalaren jokaeran araugabekeri-  
arik ikusten ez bazen ere, Udalak bere erabakia berriro azter zezala, han ezarritako beste ibia erabiltzeko baimena ez emateak kalte ekonomiko handiak ekar ziezaki-  
o keelako jabeari eta jarduna aurrera ateratzea eragotz ziezaki-  
o keelako.

Gure gomendioa, beraz, ez zen arau-mailako arazoietan oinarritzen, bai-  
zik eta gizalegean edo onginahian, baina Udalak ez zuen onartu, bere erabi-  
kiari eutsi baitzion; ondorioz, arazoari buruzko ekintzak artxibatu egin ziren.

*Errepideko obrek lurjausia eta baserri baten egitura zartatzea eragiten dute (459/93)*

Ezki-Itsasoko Santa Luzia auzoko baserri baten jabeak Arartekora etorri ziren, GI-6.322 eskualde-errepidea zabaltzeko eta konpontzeko egiten ari ziren obren ondorioz baserriaren zutabeak eta hormak zartatu zirela eta une batetik bestera lurjausia gertatzeko arriskua zegoela azalduz.

Arartekoa bera joan zen obren kokagunera eta bertan ikusi zuenez, eskualde-errepidea zuzenago jarri eta bihurtu bat kentzerakoan, desjabetutako malda zati bat ezpondan moztu zuten, bai eta horrela lurjausiak eragin ere. Ziurrenik, lurrei eusteko azpialdean egin zuten eskoileraren ordeztu eusteko harresi bat eraiki izan balute, ez zatekeen horrelakorik gertatuko.

Gipuzkoako Foru Diputazioak, aldiz, baserriaren hondamena beste arrazoi batzuegatik gertatu zela zioen: alegia, kontratistak baserriaren inguruetan bertako jabeen baimenaz egin zituen betetze-lanek eta maldaren beheko aldean industrialde bat urbanizatzeko egindako zulaketa-lanek ahuldu zutela maldari eusten zion oina.

Arartekoak Garraio eta Errepideetarako Foru Diputatuarekin elkarrizketa izan zuen, aldeari buruzko txosten geoteknikoa eskatu zion eta akordio honetara iritsi ziren: eragindako kalteak balioztatu eta kaltetuei ordainsaria emateko ardura nork zuen zehaztuko zela.

Azkenik, akordio bat onartu dutela jakin dugu, hots, kaltetuei hondoratutako baserriaren inguruetan, zaharra bota egin behar baita, etxebizitza berri bat egiteko laguntza emango zaie.

### 3.10. OSASUNA ETA GIZARTE ONGIZATEA

#### A) Sarrera

Alor honetan 63 kexa aurkeztu dira, kopuru osoaren %11,1.

Eragindako administrazioen arabera, honela bana daitezke:

- Eusko Jaurlaritza.....	33
- Diputazioak.....	19
- Udalak.....	14

Gizarte Ongizate azpisailari dagokion alorrean gogoan izan behar dugu gizarte-eskubideen ezaugarrietako bat dela berehala ezar daitezkeenetakoak ez izatea, aitzitik, horiek betearazteko, ohizko legegileak garatu beharko ditu eta herri-agintaritzak esku hartu beharko du. Eskubide horietako batzuk, hirugarren adinekoei bereziki dagozkienak adibidez, legezt arautu gabe daude, tradizio handiena duten gizarte-eskubideak ez bezala. Horrek, zalantza eta segurtasunik eza sorrazten ditu eskubide horien jabe diren hainbat hiritarengan.

Horixe erakusten dute hirugarren adinekoentzako egoitzei buruzko kexa batzuek, esaterako horietan sartzeko dauden arazoei edo pertsonaren eskubi-deak mugatzen dituzten egoitzen barne-arauei dagozkienek.

Hori dela eta, kexak ebazteaz gain, gure elkarte autonomiko adinekoen egoitzetan bizi diren edadetuen eskubideen egoera aztertu dugu *Eusko Legebiltzarrari Txosten Berezia 1992-1993* deritzan lanean, Euskal Autonomi Elkarteko adinekoentzako egoitzen egoerari buruzkoan hain zuzen.

1992. urteari zegokion txostenean elbarritasun fisiko larria zutenentzako egoitza sortzeko premia azpimarratu zen. Lurralde batzuetan horretarako zenbait neurri hartu diren arren, oraindik badaude gabeziak, aurkeztu diren kexek ezagutzera eman diguten legez.

Osptalean egon beharrik ez, baina arrazoi sozialengatik alta ere eman ezin zaien pertsonen arazoak alor honetako alderdi korapilotsuenetako bat begitaratzen digute: istilu-iturri den gizarte-esparruen eta osasun-esparruen definizioa. Arazo horri aurre egiteko, gizarte-zerbitzuen eta osasun mailakoen arteko harremana litzateke kasu horietan biek eduki behar duten osagarritasuna lortzeko biderik egokiena.

Gizarte Ongizateari dagokion sailaren barruan, gizarte-laguntzen biderapena ere aztertu da, gaur eguneko egoera sozioekonomikoan erakundeen politikabidearen zati garrantzitsu baitira. Laguntza horien helburua bera, haien biderapenak eskatzen duen bizkortasunari arreta berezia eskaintzeko beste arrazoi bat da. Asmo horrekin, eta Gizarteratzeko Gutxieneko Irabazpideari buruz aurkeztutako kexa bat zela arrazoi, zegokion foru-erakundeari gomendioa egin zitzaion.

Osasun alorrean aurreko urtekoen antzeko kexagaiak ditugu: itxarotzerrendak, gastuak atzerapenez itzultzea, osatze-bidean eskainitako arretak gaisoa ez gogo-betetzea. Azaldu dizkiguten beste kexa, batzuen ondorioz, osasunaren merkatuan dauden tratamendu berrien eskaerak sorturiko arazoak ere aztertu dira. Horregatik, sorospen-zerbitzu berriak indarrean jartzeko dauden irizpideak aztertu dira, gaur egun horien inguruan eztabaida garrantzitsua piztu dutenak.

Osasunerako eskubidearen lege-antolapidetzan funtsezko aldaketak gerta daitezke hainbat arrazoi direla bide: esaterako, eskaera gero eta handiagoa, bitarteko teknologiko berriak garestiak izatea eta osasun mailako zerbitzuen hedapena; horregatik, horiei guztiei buruzko azterketa sakona egiteko premia dago, eta horixe egin dugu. Osasun mailako zerbitzuen zerrenda egitea oso baliagarria izan daiteke hiritarrekin izan beharreko harremanetarako, bai eta harreman horietan beti bete behar den segurtasun juridikoa bermatzeko ere, noski.

## B) Kexa aukeratuak

*Neskatila bati hortzak txertatzeak sortutako gastuak itzultzeko eskaria (321/92)*

Bizkaiko 10 urteko neskatila batek igandez izandako istripu batean hainbat hortz galdu zituen. Gurutzetako ospitalera eraman ondoren, Traumatologiako Larrialdietarako Zerbitzuan sendatu zuten. Neskatoaren aitak, eroritako hortzak txerta ziezazkioten Zirugia Maxilofazialeko Zerbitzuan ikus zezaten eskatu zuen. Ospitalean esan zioten sail horretan ez zegoela jaiegunetan larrialdietarako zerbitzurik eta sendagileak ezin zirela topatu. Horregatik, astelehenean itzultzeko eskatu zioten.

Aitaren ustez, txertaketa lehenbailehen egin behar zitzaion, hurrengo egunerarte itxaroten bazen, agian arrakastarik izango ez zuelako. Horregatik, sare pribatuko sendagile dentista batekin harremanetan jarri zen, eta horrek egun berean txertatu zizkion.

Geroago, neskatoaren aitak sare pribatuan egindako gastua itzul ziezaion eskatu zion Osakidetzari, baina eskaria ez zioten onartu, osasun zerbitzu hura Gizarte Segurantzaren alorretik kanpo geratzen zelako.

Erakunde honek Osakidetzara jo zuen kexaren arrazoiak balioztatzeko interesgarritzat jotzen genituen alderdi batzuei buruzko argibide eske. Adibidez, jakin nahi genuen ea 1993ko urtarrilaren 1a baino lehen jaio eta, beraz, Osakidetza Haurrentzako Aho-Zerbitzuan sartu gabekoek sare publikoan era horretako zerbitzurik jaso zezaketen; baiezeko kasuan, arrakasta osoz egiteko bermeak gutxitu gabe txertaketa egun berean edo hurrengo egunean egitea komeni zen; eta azkenik galdetu genion zein tratamendu jasoko zuen haurrak Zirugia Maxilofazialeko Zerbitzuan atenditu izan balute.

Osakidetzak aitortu zuen era horretako tratamenduak ahalik eta azkarren egitea komeni zela ondo atera zitezen, eta zirujau maxilofazial bat egon izan balitz, Gurutzetako ospitalean egingo zitzaiokeela. Horregatik, espedientea berriro aztertu eta eskaera-aurkezlearen alde ebatzi zuen, sare pribatuan emandako tratamenduak kexadunari sortu zizkion gastuak itzuli zizkiotelarik.

*Nekazal eremuko herri batzuetan pediarririk ez egotea (559/92 eta 721/92)*

Bizkaiko Larrabetzu herriko biztanle batek eta Arabako Okondo herriko haurtxoen gurasoek azaldu zioten Arartekoari 14 urte baino gutxiagoko beraien seme-alabek ez zeukatela pediatria-zerbitzurik, eskubide hori aitortuta zeukatzen arren. Herritar guztientzako sendagile orokor bat besterik ez zeukaten.

Bi kasuetan behin eta berriz eskatu zitzaion Osakidetzari zerbitzu hori, eta antola ugari egin zituzten inolako arrakastarik lortu gabe. Okondoko kasuan,

Udalak ere esku hartu zuen, udalbatzak herriko haurrentzat pediatria baten laguntza eskatzeko hartu zuen erabakia Osakidetzari bidaliz. Erakunde horretako ordezkari batekin bilera ere egin zuten, eta eskaria 170 pertsonen sinatuta eskuratu zioten.

Kexadunek ez zuten eskatzen herrian pediatria bat aldi-oro edukitzea, baidiz zonaburuetan Okondo eta Larrabetzutik kilometro gutxira zeudenek -Laudi eta Galdakaon- atenditu zitzatela, edo beste edozein konponbide egoki aurki zezatela.

Horri zégokionez Osakidetzak esan zigun halaxe zela, bazeudela nekazal aldetako zenbait herri arreta berezi hori jasotzen ez zutenak, eta hurrei beren herrietan zerbitzu hori eskaintzeko aukerak aztertzen ari zirela. Horrela, pediatria bat egun jakinetan herrira joatea edo sendagile orokorrak pediatriaren laguntza eta aholkuez atentzioa eman ziezaieten eskatzen zuten. Zonaburuan zegoen pediatriak arreta eskaintzeko aukera ere aztertu zen.

Era berean, hartzen zen erabakia edozein izanda ere, birrantolaketa egin eta eragindako profesionalen arteko akordioa lortu beharra zegoen, horrek zekarren aurrekontu-premia kontuan izanik.

Azkenik, Larrabetzuko haurren osasun txartel indibidualak Galdakaoko pediatriaren alorrean sartu zituzten, eta txosten hau idazteko unean Okondoko-koenak Audioko pediatriaren eta herriko sendagile orokorraren pean uzteko aukera aztertzen ari ziren, beren helburua 1994ko urtárrilean indarrean jarzea zelarik.

Bestalde, aipatu osasun erakundeak jakinarazi zigun nekazal eremuetan pediatriaren arreta ziurtatzeko pausoak epeka ezartzeko asmoa zutela.

*Hirugarren adinekoentzako etxebizitzek bete behar dituzten legezko baldintzei dagokienez, udal-sail ezberdinek elkarrekin jardun beharra (697/92)*

Bilboko auzokide-talde batek kontsumo-bulegoaren bidez igorri zigun erreklamazioan, beren etxeko solairuetako batean udalaren baimenik gabe zegoen zahar-egoitzak gogaipenak eragiten zizkiela salatzen zuen.

Egoera hori Bilboko Udalean behin eta berriz salatu zutela, baina, neurri batzuk hartu ziren arren, horiek ez zirela betearazi ere adierazten zuten.

Ildo horretatik, kexadunek zioten egoitzaren jabeak lizentzia eskatu zuen arren, ez ziotela eman, ez zituelako betetzen hirugarren adinekoentzako egoitzak arautzen zituen ekainaren 30eko 218/1990 Dekretuan xedatzen ziren legezko baldintzak. Horregatik, Udalak lokala itxi eta jarduera bertan behera utziaraztea erabaki zuen, eta jabeari adierazi zitzaion, agindua betetzen ez bazuen, lokala zigilatua egingo ziotela. Baina akordio hori hartu zenetik zazpi hilabete igaro ziren arren, egoitzak jardunean zirauen.

Arartekoak Bilboko Udalarekin beharrezko antolak egin ondoren, egoitza pribatua zela eta bertan 10 aiton-amona zeudela ikusi zuen, horietako bost Udalaren dirulaguntza jasotzen zutenak.

Lokala itxi eta jarduera bertan behera uztea agintzen zuen Udalaren akordioari zegokionez, erabakia indarrean zegoen legediareki bat zetorrela ikusi genuen, izan ere, lokala laugarren solairuan egonda aparteko sarbide berezirik ez zeukanez, ez zituen betetzen jardunerako beharrezko diren hirigintza-bal-dintzak.

Halere, ixteko agindua ez zen bete, Gizarte Ongizate Sailak eskatu baitzuen urtebetez ez zedila betearazi, hirian adinekoentzat behar adina postu ez zegoenez gero, hori ixteak bertan zeuden zaharrak beste leku batean sartzeko arazoak ekarriko zituelako.

Era berean, sailaren iritiz, era horretako etxebizitza komunitarioek gizarte-zergin garrantzitsua betetzen zuten, beren kabuz nahiko ondo baliatzen ziren pertsoneri beren ohizko inguruan jarraitzeko aukera ematen zitelako, eta bestalde, lehenago esan den bezala, hirian zegoen postu gabeziari aurre egiten laguntzen zutelako.

Bilboko Udalaren Hirigintza eta Ingurugiro Sailak eta Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Ongizaterako Zuzendaritzak elkarrekin bilerak egin zituztela ere jakin genuen. Bilera horietan, hirugarren adinekoentzako egoitzei buruzko 218/1990 Dekretua birraztertu eta aldatzeko aukera aztertu zen, dekretu horrek galerazi egiten baitzuen zahar-egoitzak etxebizitza normaletan kokatzea.

Bestalde, eragindako Udalaren bi sailak eta auzokideak bildu ziren eta, aiton-amonak beste egoitza batzuetara pasatzeko aukera egon bezain laster, artean zuedeneko etxebizitza itxi egingo zela erabaki zuten; horretarako epe bat jarri zen, horren berri egoitzaren jabeari jakinaraziz.

Azkenik, egoitza itxi egin zen, eta hango aiton-amonak titularrak berak lehen solairuan ireki zuen beste egoitza batera aldatu ondoren, indarrean zegoen araudia bete egin zen.

Arartekoak, arazoaren zailtasunaz jabeturik, indarrean zegoen legedia bete bai, baina egoitzan zeuden aiton-amonari zor zitzaizen errespetua erakutsiz jokatu behar zela kontuan izanik, Bilboko Udalarari gomendatu zion sail ezberdinen elkarlanerako bideak jar zitzala, era horretako arazoak sor ez zitezen.

*Hirugarren adinekoentzako egoitza batean zegoen amona baten eskubideak ustez hautsi izana (742/92)*

Monja-ordena baten ardurapeko hirugarren adinekoen egoitzan zegoen amona baten alabek Arartekoan salatu zuten ustez "zigorra" ezarri ziotela amari eta, bere iritiz, hori zentruko zuzendariaren aginte-gehiegikeriaren erakusgarri zela.

Kexadunek ziotenez, amonak maitasun-harremanak zeuzkan beste egoiliar batekin. Horrelako egoitzetan gizon eta emakumeen artean, jangeletan nahiz logeletan, dagoen banaketagatik, emakumeak modua aurkitu zuen gizonak batzutan beraren gelara bisitan joan zedin. Monjen ustez hori inolaz ere ezin zitekeen onartu, eta horregatik amona gelaz aldatu zuten: beren kabuz

baliatzen zirenen aldetik ezinduen zonaldera aldatu zuten; alde hori beste solairu batean zegoen eta erabat ezinduta zeuden beste bi amonarekin batera jarri zuten.

Leku-aldaketak guztiz apurtu zituen amonak burujabeen aldeko egoiliarrekin zituen harremanak, ezin baitzen ezinduen aldetik atera.

Amonaren alabek uste zuten aldi baterako eramango zutela zona horretara, baina, zentruko zuzendariarekin hitzeging ondoen, behin-betik aldatu zutela eta aldaketa amona "zigortzeko" egin zela ulertu zuten.

Erakunde honetan kexa jaso ondoren, gertatua Gasteizko Udalari jakinarazi genion, alde batetik egoitza hiri horretan dagoelako eta, egoitza pribatua izan arren, Udalaren laguntzak jasotzen dituelako; gainera, Arartekoak kasu horretan eskumenik ez bazeukan ere, gaiaz arduratuta zegoen, ustez pertsona baten eskubideak urratzen ari zirelako.

Horren ondotik, Udalak Hirugarren Adinekoen Zerbitzuko teknikariak bidali zituen egoitzara, eta horiek azaldutakoa egia zela sendetsi zuten. Monjek, egindakoa zurrizteko, andrearen osasun-egoera txarra zela adierazi zuten. Alabaina, aipatu udal-zerbitzuko sendagile batek amona ikusi eta aditzera eman zuen fisikoki nahiz psikikoki berez baliatzeko gauza zela, eta sendagilearen ikuspegitik ez zegoela ezinduen sailean edukitzeko arrazoirik.

Udalak ere ez zeukan bere antolekin aurrera jarraitzerik egoitza pribatua zelako, baina amonaren egoerak hain larriki okerrera jo zenez gero, familiaren eskariz udal-egoitza batean sartzeko zerrendan ipini zuten.

Arartekoak, bere aldetik, zentrua monjen ardurapean zegoenez, gertatuaren berri eman zion Gasteizko Gotzaindegiari, horrela bere eskuhartzea amaitzat jotz. Gotzainak adierazi zuen, monjen ordena gotzaindegiaren pean ez zegoen arren, egoitzako zuzendariarekin hitzegingo zuela egoera argitzen saiatzeko.

*Adinekoentzako egoitza batean dauden pertsonen eman beharreko osasun mailako arreta eta botikak (780/92)*

Zahar-egoitza pribatu bateko zuzendariak erakunde honetara jo zuen, bertan zeuden aiton-amonek sendagileen arreta eta botikak lortzeko zeukaten arazoa azaltzeko. Zuzendariak zioenez, Gizarte Segurantzaren pertsioidunak ziren edadetu horietaz normalean arduratzen zen herriko sendagileak hilabeteak pasatu zituen egoitzara joan gabe, eta botiken errezetarik ez zuen egiten, ez sendagairik eman ere.

Sendagilea lehenagoko zerbitzua berriro ematen hasi zen arren, zuzendaria beldur zen atzera etena gertatuko ote zen, bere garaian zerbitzu hori eteteko erabakia ahoz jakinarazi ziotelako, eta ez idatziz, horrela egitea eskatu zuen arren. Erabaki horri zegokion berarizko ebazpena eskatuz osasun-erakundeari bidali zizkion bi idatziek ere ez zuten erantzunik jaso.

Hori zela eta, Arartekoak Osakidetzara jo zuen, azaldutako gertaerei buruzko argibideak eman diezazkion.



Osakidetzak erantzun zigun Gizarte Segurantzak babesten zituen pertsona guztiei ematen ziela osasun eta farmazia zerbitzua, eta zerbitzua kentzeko eskubidea erakunde horretako medikuen esku zegoela.

Era berean, hauxe jakinarazi zuen: alor horretan beti eskaini zitzaizela behar zuten arreta, nahiz eta onartzen zuten noizbait sare publikoko sendagileak errezetaren bat ukatu izana, eskaturiko botika berak jarritako tratamenduarekin ondo ez zetorrenean.

Halere, haren esanetan, zenbaitetan egoitza batzuetako zuzendariak sare publikotik kanpo dauden sendagileek erabil zituzten errezeta ofizialak eskatu zituztelako sortu zen arazoa, eta, baita ere, egoitzaren bateko sendagileak herri-sendagile titularrari zuzenean eskatu ziolako halako produktu jakin batzuk errezeta zitzaizkan zeramatzan kartilen jabeen izenean.

Batez ere errezetak egiterakoan sortu ziren arazoaren aurrean, Osakidetzak zioen zahar-egoitzetan osasun eta farmazia zerbitzua ematerakoan zeuden arazoei konponbide osoa aurkitzeko neurriak birrantolatzen ari zela, jarduerak lege-araudiari egokitzearen.

Txosten hau idazteko unean espedientea amaitu gabe dago, eta kexak agertzen den gaia erakunde honek Eusko Legebiltzarrari hirugarren adinekoen egoitzez eginiko txostenean jasota dago.

#### *Eguneko zentru batera joaten diren elbarriei emandako tratuaz (46/93)*

Anaia buru-elbarritua zeukan pertsona bat Arartekoaren aurrean kexu zen, eguneko zentru batera joaten ziren elbarriei begiraleek ematen zieten tratuagatik. Zentrua elkarte pribatu batena zen (ASPACE), baina Bizkaiko Foru Diputazioak dirulaguntza emanten zion.

Kexa-aurkezleak zioenez, gaisoak gogor tratatzen zituzten, haiek nekez egin zitzaizkaten gauzak beren buruz eginarazten zizkietelako, hala nola, jatea, arropa aldatzea, etabar. Bere gurasoek zentruko arduraduradunei gaia azaldu zietenean, horiek ez omen zituzten kexak onartu, familiak anaia mizkez hazi zuela esanaz. Azkenik, kexadunak jakinarazi zigun bere anaia bezalaxe zeudela beste gaiso guztiak ere, eta familia asko ez zirela ezer esatera ausartzen, zigorak ezarri eta etorkizunean elbarria zaintzea ukatuko zieten beldur zirelako.

Arartekoaren ustez, kexadunak adierazten zituenak egiak ziren jakin beharra zegoen, gizatalde horrekiko sentiberatasun handia eduki behar delako eta beren eskubideak bermatzeko babes berezia eskaini behar zaielako. Horregatik, Bizkaiko Foru Diputazioko Gizarte Ongizate Sailarekin harremanetan jarri zen.

Foru sail horretako ikuskari batek bisitak egin zituen zentzurara; alde bate-tik, gaisoekin eta begiraleekin hitz egin zuen, eta bestetik, bertakoen arteko harremanak, antolaketa eta burutzen ziren ekintzak aztertu zituen.

Ikuskariak osatu zuen txostenean adierazten zuenez, zentruko gaisoek zituzten buruzko eta mugimenduzko gabeziengatik ia ez zeukaten eskolaratze-

diziplinarik, ez zeuden diziplinara eta ahaleginak egitera ohituta, eta sarritan gehiegizko babespean bizitzen ohituak zeuden. Horregatik, zentruan gaisoek eguneroko bizitzako eginbeharretarako ahalik eta burujabetasun handiena lor zezaten saiatzen ari ziren: alegia, jantzi, jan, garbitu, komunak erabili, zenbatu, margoak bereizi, eguna eta ordua bereizi, telefonoa eta dirua erabiltzen, eta-  
bar erakusten zieten.

Helburu hori lortzeko, begiraleek bazekiten ez zituztela erabiltzaileek berek egin zezaketen edozein gauza egin behar haien orde; izan ere, bestela jokatzera askotan errazagoa eta bizkorragoa izan arren, jarrera hori ez zetorren bat iritsi nahi zen heziketa-helburuarekin.

Txostenean, kexa-bidaltzaileak emandako arrazoi guztiak ukatzen ziren, eta erabiltzaileak zentruan gustora zeudela baieztatu zen. Hala eta guztiz ere, begiraleei gaisoen familiartekoeekin zituzten harremanak estutzeko eskatu zien, horiek proiektua hobeto ezagutu eta horretan lagundu zezaten.

Horregatik guztiagatik, Arateko honek ezin izan zuen frogatu zentru horretan gaisoen eskubideak hausten zirenik, eta gainera jokabidea zentruaren helburuekin ados zegoela azaldu zuen. Besterik gabe, espediente itxi eta kexadunari egindako antolena berri eman zitzaion.

#### *Haur elbarri bati aparailu bat erosteko dirulaguntza (108/93)*

Hiru urteko mutiko bati trakeotomia egin zioten, eta Osakidetzak mukiak zurrupatzeko aspiradore elektriko bat jarri zion. Aparailu horrek, ordea, argin-darraz bakarrik funtzionatzen zuen, eta horregatik haurra ezin zuten askotan etxetik kanpora atera.

Gurasoek bateriaz ibiltzen zen aspiradore portatila lortu nahi zuten, eta horretarako Arabako Foru Diputazioko Gizarte Ongizate Sailari eskatu zioten laguntza. Horrek bi aldiz ukatu zien eskaria; lehenengoan esan zuten laguntza hori osasun mailakoa zela, eta bigarrean, aldiz, ezarritako diribudezko-baremoei gainera zegoela.

Ararteko honen ustez, aspiradore portatila funtsezkoa zen mutikoaren gizarteratze eta mugikortasunerako, etxetik atera eta beste ume batzuekin harremanak edukitzeko, eta eskolara joateko moduan aurkitzen zenean eskolaratzeko aukera emango ziolako. Gainera, familiak beste seme elbarri bat zeukan.

Arrazoi horientzat, kasua berezia zelako, zatiz behintzat arazoari arreta egitea gure iritziz merezi zuela adierazi genion Diputazioaren sail horri. Aldi berean, Arartekoa beste administrazio-sail baten aurrean bitartekaritza lanak egiteko prest azaldu zen, horri buruzko akordio bat lortzearren, beharrezko jotzen bazen.

Gizarte Ongizate Sailak kasuaren berezitasunak eta baldintzak aintzat hartu zituen eta, eskabidea-egileak ezarrita zeuden dirubidezko baremoak gainditzeko zituen arren, salbuespen gisa laguntza ematea eta aparailuaren kostuaren erdia ordaintzea ebatzi zuten.

*Auto istripuaren ondorioz burmuinean kalteak izan zituzten pertso-  
nek mediku-tratamendua jasotzeko aukera (113/93)*

Pertsona kaltetuen familiarteko batzuk erakunde honetara etorri ziren gaisoen egoera azaltzera, guztiek ezaugarri hau baitzuten: pertsona gazteak ziren, kasu gehienetan auto istripu larria izan eta gero, buruko hezur-muinetan zauriak zituztenak. Denbora luzez ospitalean egon ziren, sendagileek gaisoen sendabidean aukera guztiak ia agortuak zeudela iritzi zioten arte.

Familiartekoek burmuinean kaltea zeukaten gaisoak bereziki tratatzeko gure komunitate autonomoan zentru pribatu bat ireki zutela jakin zuten, itxuraz Estatuan ireki den mota honetako bakarra. Zentru horrek, barnetegi moduan tratamendu trinkoa jarraitzeko aukera ematen zien.

Tratamendu hori oso garestia zenez, Osakidetzari eskatu zioten gaisoak zentzura bidal zitzala, tratamendu-kostuak bere gain hartuz, baina erakunde horrek ez zuen eskaria onartu.

Arartekoak hainbat antola egin zituen Osakidetzarekin, azaldu kasu guztiak edo herietako batzuk zentru pribatura bidaltzeko aukerarik bazegoen jakiteko. Era berean, osasun-erakunde horrek eskatutako laguntza sistema publikoaren barne ez hartzeko eman zituen arrazoien nondik-norakoa ere aztertu zen.

Horrela, zentru hori pribatua izateaz gain, hitzartu gabea zela jakin genuen. Osakidetzaren osasun-zerbitzu osagarrietarako zentru pribatuekin akordioak egiteko legez baimendua dagoen arren, zentru horiek homologatuak izan behar dute eta egiaztaturiko emaitzak eskaini behar dituzte Osasunerako Lege Orokorreko 90. artikulua eta Eusko Jaurlaritzaren 724/1991 dekretuak agintzen duten gisan.

Aipatu zentrua, oraindik esperimentazio-epean dago, eta bere emaitzak balioztatu gabe daude. Arrazoi horregatik eta aurrekontuetan murrizpenak daudelako, Osakidetzak uste zuen denbora-epe bat itxaron behar zela zentruaren emaitzak balioztatu arte, eta bitartean zentru horretara gaisorik ez bidaltzeko erabakia hartu zuen.

Hori guztia ikusirik, Arartekoari ez zitzaion iruditu Osakidetzak bidegabeki jokatu zuenik, eta horrela jakinarazi zien erreklamatzailerei, momentuz beraien eskaria betetzen ezinezkoa zela, alegia; erakunde honek, ordea, arretaz jarraitzen du gai horren bilakaera eta egin daitezkeen aldaketan zain dago.

*Gizarteratzeko Gutxieneko Irabazpidearen (GGI) eskaria ebazten atzerapena (383/93 eta 404/93)*

Bizkaiko biztanle batzuek bidalitako kexa-idatzietan batzuetan salatzen zutenek, GGI jasotzeko aurkeztu zituzten eskarien ebazpenak hainbat hilabetez atzeratu ziren, eta aldi horretan dirubiderik gabe egonik, larri bizi ziren.

Eskariak jaso zituzten erakundeekin, udalekin alegia, harremanetan jarri eta ikusi genuen herri-erakundeek eskatzaileen agiri guztiak, balioztapen sozia-

lekin eta zegozkien ebazpen eskaerarekin batera, Bizkaiko Foru Diputazioko Gizarte Ongizate Sailera bidali zituztela epe laburrean, eta Diputazioan zermatzatela zenbait hilabete ebazpena eman zain.

Ararteko honen ustez, GGI bizitzako gutxienezko premiei erantzuteko dirurik ez daukatenei elikatzeke ematen zaien laguntza dela gogoan hartuz, horren biderapen-epeak luzatzeak lortu nahi zen helburua kaltetu zezakeen.

Horregatik, arrazoiok zegozkion sailari bidaltzearekin batera, zenbait alderdi argitzeke ere eskatu genion: batetik, zenbat denbora pasatzen zen eskaria egiten zenetik ebazpena atera arte; eta bestetik, ebazpena aldekoa izanez gero, laguntza-eskatzailea noiz hasten zen zegozkion dirua jasotzen.

Erakunde honetan jaso zen erantzunaren arabera, foru-erakunde horrek eskariak bideratzeko hartzen zuen denbora gehiegizkoa zen; batzuetan hiru hilabete behar izan zituen ebazpena emateko eta, gainera, onuradunek beste hilabete bat itxaron behar izaten zuten onartutako diru-kopuruak jasotzen has-teko.

Gizarte Ongizate Sailak alderdi horri zegokionez argitu zigun zein zen diru-kopurua eskatzaileei iristarazteko zegoen arazoa: izan ere, ezer baino lehenago, ziurtatu behar zuten araudian finkatutako baldintzak zenbateraino betetzen ziren eta, gainera, ebazpenak elkarkidetuko zituen irizpide bateratzaile-a ezarri beharra zegoen.

Horren aurrean Arartekoak Foru Diputatuari gomendioa luzatu zion. Laguntzen helburua kontuan izanik, GGI eskariak ebazteko denbora ahalik eta gehien laburtu zezala eskatzen zitzaion, eta ebazpenak aldekoak zirenean, ordaindu beharreko dirua berehala eman zezala, ebazpena eman ondoko hila-ren bukaera arte zain egon behar izan gabe, nahiz eta hurrengo hilabeteetako sariak, egoki den bezala, hilaren amaieran ordaindu.

Txosten hau idazteko unean ez zen ezagutzen sailak gomendio horri emandako erantzuna, idatzian bertan eta ondoren egindako eskarietan ere hori eskatu genion arren.

*Amona bati huts egitearen ondorioz pentsio bat eman eta horrek sorrarazi zizkion itxaropenak (393/93)*

Bizkaiko Foru Diputazioko Gizarte Ongizate Sailak pentsio ez-zergagarri bat eman zion Barakaldoko amona bati elbarri egoteagatik. Erabakia hartu zenetik hilabete batzuk igaro ziren arren, andreak artean izendatutako kopurua jaso gabe zirauen, eta horregatik jo zuen erakunde honetara.

Aipatu sailean beharrezko antolak egin ondoren, amonak ez zituela pentsioa jasotzeko baldintzak betetzen konfuratu ginen. Zehazki, abenduaren 20ko 26/1990 Legea (Gizarte Segurantzako pentsio ez-zergagarriak ezartzen dituen) garatzen duen martxoaren 15eko 357/1991 Erret Dekretuko 1. artikulua dioenez, zergapekoa ez den elbarritasun-saria jasotzeko eduki behar den elbarritasun mailak %65ekoa edo handiagoa izan behar du. Maila horre-

tan, kexadunak %23ko elbarritasun maila zuela onartu zen, eta horregatik ez zuen zahar-saririk jasotzeko eskubiderik.

Hutsegiteaz oharturik, sail horretako zerbitzu teknikoak berariz espediente birraztertzeari ekin zion, aurrekoa balio gabetuko zuen beste ebazpen bat emateko.

Ararteko honen ustez, bigarren ebazpenerako jarraitzen ari ziren bidea legezkoa zen, eta horren berri kexadunari eman ondoren, kexa-espedientearen biderapena amaitutzat jo zen.

### 3.11. LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA

#### A) Sarrera

Lan eta Gizarte Segurantzaren alorreko 6 kexa bideratu dira 1993 urtealdian, hau da, aurkeztu diren erreklamazio guztien %1,1a.

Eragindako administrazioari bagagozkio, aurkeztutako sei kexak Eusko Jaurlaritzarekin izandako arazoei zegozkien.

Kexen edukiei begira, honela bana daitezke:

- Lana.....	4
- Gizarte Segurantzaren.....	2

Gizarte Segurantzaren azpisailean, Euskal Autonomi Elkartearen Administrazioarentzako lan egindako pertsonen gozamen-eskubideak arautzeari buruzkoak eta gizarte-arretarako erakundearen jardueraren kontrakoak azpimarra daitezke.

Bideratu ziren espedienteetatik bat nabarmendu behar da: Euskal Autonomi Elkartearentzat lanean aritutakoen gozamen-eskubideei buruzko erreklamazioa izan zen, eta Arartekoak gomendio bat egin zuen pentsio-eskaria aurkezteko zegoen epearen eskakizuna araubidez alda zedin eskatuz, horrela, baldintzak bete bai baina eskaria epeaz kanpo egin edo artean egin gabe zeudenez ere haietarako bidea izan zezaten.

Azkenik, aurreko urteetan bezala, aurten ere Gizarte Segurantzaren inguruko gaiei dagozkien galdera ugari jaso dira, hala nola, pentsioen kobraketa eta kopuruei, ordainketei, bajei, etabarri buruzkoak, nahiz eta Arartekoak alor horretan eskumenik ez eduki, oraindik Euskal Autonomi Elkartearen eskuetan ez dagoelako.

Halere, jasotako zenbait kexak berehalako erantzuna behar zuten, Arartekoak berak ebatzi ditu Estatuko Herri Defendatzaileari igorri gabe, erakunde hori baita gai horretan ahalmenak dauzkana; jarduera horiek beste gestio batzuk deritzan atalean sartu dira.

## B) **Kexa aukeratuak**

### *Gozamen-eskubideak eskatzeko epea jartzea (341/93)*

Lehen Eusko Jaurlaritzarentzat 1936an lan egindako emakume batek pentsioa jasotzeko eskubidea zeukala uste zuen maiatzaren 13ko 1/1986 Dekretuan aitortutakoari jarraiki, dekretu horretan onartzen baita Euskal Herriko Komunitate Autonomoarentzat lanean jardundako langileen Lanbide eta Gozamen Eskubideen Testu Bateratua.

Eskaria Eusko Jaurlaritzari aurkeztu zion, baina ez zioten onartu epez kanpo aurkeztu izanagatik, epea 1991ko abenduaren 31n amaitu baitzen 1991ko EAeko Aurrekontu Orokorren Legeak 22.2. artikuluan xedatzen zuenaren arabera.

Erakunde honetako lege-aholkularitzak gaia aztertu eta ikusi zuen aurreko erabakia indarrean zegoen legediarekin bat zetorrela, baina halere, egindako azterketatik ondorio hauek atera zituen:

Lehenik, egungo euskal Administrazioak eskubide horiek aitortzeko arrazoi hauek izan zituela: euskal Administrazio hasberriarekin lotura izan zutenek egindako lanaren aitortpena, berori finkatzea galerazi zuten baldintza historikoak eta bere zerbitzura aritutako langileak araubidez homologatzea. Arrazoi horiengatik, Estatuak indarrean jarri zituen antzeko xedapenak indarririk gabe geratu ziren administrazio ezberdinetako funtzionarioentzat, esate baterako euskal Administraziokoentzat, honek funtzionari izaerarik eman ezin zuelako.

Bestalde, eskubide horren lege-aitortpena eskariak aurkezteko epe baten bidez egin zen. Geroago, epe hori kendu egin zen denbora mugarik gabe zabalik utziz, eta lehenago esan den bezala, berriro eskariak aurkezteko epe-muga ezarri zen.

Pentsioa eskatzeko eskubidea mugatzen zuen epea jartzea, zuzena ez izateaz gain, ez zetorren bat pentsioei (bai Gizarte Segurantzakoei eta baita Gozamen Saridunenei ere) juridikoki aitortzen zaien ezin baliogabetuzko izarekin, berri hauek beste horien pareko baitziren kopuruari begira.

Era berean, epea ipintzeko argudioa ezin zen aurrezteko premian oinarritu, eragindakoak gutxi eta zaharrak zirelako.

Horregatik guztiagatik, Arartekoak gomendioa bidali zion Lehendakari-tza, Araubide Juridiko eta Autonomi Garapenerako Sailburuari, ezarrita zegoen epea kendu, epe-mugarik gabe aurkezpenak egiteko aukera eman eta epez kanpo aurkezteagatik atzera botatako eskariak ofizio bidez ebatzi zitezten eskatuz. Gomendioa onartu egin zen, eta aldaketa 1993 urtealdirako elkarte autonomo honetako Aurrekontu Orokorrek onartzen dituen Lege Egitasmoari buruzko 9/1993 Legean sartu zen, abenduaren 22koan. Hain zuzen, hau dio aipatu legearen 22.2. artikulua:

“Euskal Herriko Administrazio autonomiadunaren zerbitzura lan egindako langileen lanbide eta gozamen-eskubideak aitortzeko eskabideak aurkezteko epea 1991.eko abenduaren 31n amaituko zela erabaki zen Euskadi-

ko Komunitate Autonomoko 1991.erako Diruegitamu Nagusiak Onartze-ko Legearen 22. atalaren bigarren lerroaldian. Lerroaldi horretan ohartarazitako ondorioetarako, ireki egiten da, epe-mugarik gabe, maiatzaren 13ko 1/1986 Legegintza Dekretuak emandako onurei heltzeko epea.

Aipatu den irekia baino lehenagoko eskabideak, 1991.eko abenduaren 31z gero aurkeztu izanik epez kanpoko bezala baztertu zirenak, Administrazioak bere kabuz berraztertuko ditu eta, horietarako, interesdunek eskabideak egin zituzten egunetik izango dituzte diru-ondorioak."

### *Kooperatiba alorrean dirulaguntzak ematea (392/93)*

Arabako Leortza herriko biztanle batek kexa-idatzia bidali zion erakunde honi, Europako Gizarte-Fondoaren laguntzen alorrean Lan Ministeritzak eta Eusko Jaurlaritzan ardura hori zeukan sailak ustez batera ez zihardutelako.

Kexadunak zioenez, kooperatiba bateko kide izan nahi zuen eta Lan Ministeritzako Probintzi-Zuzendaritzara jo zuen erakunde horrek aipatu helburua lortzeko ematen zituen laguntzen berri jakiteko.

Han esan ziotenez, Euskal Autonomi Elkarte bizi zirenek ezin zituzten laguntza horiek jaso, errekurtsio horien biderapena 1993ko urtarrilaren lehenengo egunetik Eusko Jaurlaritzako Lan Saileko Gizarte-Ekonomiarako Zuzendaritzak bere gain hartua zuelako.

Kexaduna zuzendaritza horretara joan zenean, biderapena bai aldatu zela, baina fondoak ezetz esan zioten, eta horregatik urte horretan ez zirela laguntzak banatuko.

Erakunde honek, Lan eta Gizarte Segurantzako Saileko Araubide Juridikorako Zuzendaritzari eskatu zion gaiari buruzko informazioa, eta jasotako erantzunaren arabera, Euskal Elkarte Autonomoak kooperatibei buruzko gaietan ahalmen osoa eta dirubidezko burujabetasuna daukanez gero, Ministeritzak ematen dituen laguntzetatik ez bezalako beste batzuk ematen ditu Eusko Jaurlaritzak, baina halere euskaldunek batzuk nahiz besteak jaso izan dituzte.

Beraz, batera ez jardutearen ondorio baino gehiago, euskal kooperatibentzat askoz onuragarriagoa zen egoera zirudien aipatu kasuak.

Halere, 1992. urtearen amaieran, Gizarte-Ekonomiaren Sustapenerako Institutuak egoera hori arautu egin zuen, eta probintzietako zuzendaritzei beren kargurako beste eskaririk ez zezatela onar agindu zitzaizen.

Horren ondorioz, Arabako Lurralde Zuzendaritzak kooperatiben alorreko ordezkariekin hitzegin zuen sortutako egoera azaldu eta zeuden baliapideen banaketarako irizpideak finkatzeko, helburua alor hartzailearekin akordio batera iristea baitzen.

Erakunde honek kexaren helburua aztertu ondoren, ez zuen ikusi indarrean zegoen legearen hausketarik, eta horregatik gai horren inguruan urra zitzakeen bideak agortuzat jo zituen.

### 3.12. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA

#### A) Sarrera

Hirigintzari dagokionez, biztanle-taldeek behin eta berriz azaltzen dute hirien hedapena eta aprobetxamendu pribatuak ez daitezela hornikuntzarako espaziorik onenetan eta berdeguneetan kokatu. Kopuruaz baino gehiago kalitateaz kezkatzen diren pertsonen kexak dira, eta auzo eta hiri askotako bizitza kalitate andeatua hobetzea dute helburu.

Era berean, kaltetutako auzoak hobetzeko eta bere onera ekartzeko premia ere aldarrikatzen da, eta helburu hori bigarren mailan ez uztea hiriak hedatzeko ekintzak sustatzeagatik.

Asmo horien aurrean, bere errekurtsioak mugatuak direla eta eskaera horiek gastu gehigarria dakartela dio Administrazioak; gainera, ahal denaren eta nahi denaren arteko oreka bilatu behar dela adierazten du, eta aldi berean alor guztietan inbertitu ezin denez, bere jardueran halako lehentasun batzuk ezarri beharrean dagoela.

Hirigintza lizentziek eta obrak burutzeko lanak lizentzietara egokitzeko premiak ere udalen kontrako kexak eragiten dituzte. Alor horretako arazoak oso zehatzak izan ohi dira, baina interes publikoak eta pribatuak mugatzea oso zaila gertatzen denez, egoera nahasiak sortzen dira. Arartekoak bidezko interesa duela frogatzen eskatzen dio beti kaltetuari, hori zentzurik zabalenean ulertuz, hots, udalen ustezko jarduera araugabeagatik edo arazoetan esku hartu nahi ez izateagatik kaltetua izan daitekeela erakusten duen interesa.

Udal-administrazioaren kontrako beste kexa batzuk, aldiz, hirigintza-egitامتuketarako erabakiak hartzean gertatzen diren atzerapenek eta eginkorrak ez diren antolabideek eragin dituzte.

Etxebizitza azpisailean, Euskal Herriko Komunitate Autonomoko biztanleek etxebizitza duina edukitzeko nahia isladatzen dute aurkeztu kexek: batzuetan, etxebizitza sozialak banatzeko bidearen kontrako erreklamazioak dira, eta besteetan, etxebizitza erosteko finantziarioak dirulaguntzei buruzko ebazpenen kontrakoak.

Gainera, etxebizitzaren eraikitze-lanen akatsei eta bereziki horien ondorioz sorturiko hezetan arazozko kexak ugariak dira. Kasu horietan dauden legezko babespeideak ez dira oso eraginkorrak, epaitegietara jo behar delako sustatzailearen kontrako salaketa egitera, eta bestetik, Administrazioaren jardura osagarria nahi bezain tinkoa izaten ez delako.



## B) Kexa aukeratuak

*Lurren hirigintza-sailkapena baliogabetzearen eta hirigintza-debepko lurrean industri-pabilioia eraikitze baimena ematearen kontrako kexa (311/91)*

Ormaiztegiko biztanle batek Arartekoan kexa aurkeztu zuen Udalaren jokabidearengatik; izan ere, Egitamuketarako Arau Subsidiarioen bidez bereak ziren lurzati batzuei beste izaera bat eman nahi zieten, eta industriak eraikitze-ko gai jotako lurak izatetik, izaera intentsiboko landaluz izatera pasatuko ziren.

Horretaz gainera, bere etxearen aurrez-aurre, beste biztanle bati hirigintza-debepko lurrean industri-pabilioi bat eraikitze baimena eman ziotela ere adierazten zuen.

Azkenik, Udalari bidali zizkion idatzi eta informazio eskaera guztiak erantzunik gabe geratu zirela azaltzen zuen, eta, beraz, administrazio-isiltasuna ezarri zela bidegabeki.

Ararteko honek kexadunari jakinarazi zion Ormaiztegiko Udalak eskumena zeukala herriko zonei egoki zeritzon hirigintza-izaera emateko eta, hortaz, eskatzailearen lurak hirigintza-debepkotzat jotzea ez zela legez kanpoko. Nolanahi ere, hori arau subsidiarioen lehen zirriborroa zela aditzera eman genion, eta agian bideratze-prozesuan lehen idazketan jasotako lurren sailkapenak aldatu egingo zirela.

Udalak hirigintza-debepko lurrean obrak egiteko emandako lizentziari zegokionez, jabearekin hirigintza-hitzarmena onartu zuela adierazi zuen Udalak, eta hirigintza mailan behin-behineko jaupidea finkatu nahi zuela ondoren arau subsidiarioetan sartuko zena. Horren bidez, inbertsioak eta industri-egitasmoak sustatzearen zegoen lur eskaera gero eta handiagoari erantzun ahal izango zitzaioala ere gehitu zuen.

Arartekoak ez zuen argudio hori onartu eta *sui generis*tzat jo zuen, sinatu hitzarmena hirigintzako legezkotasunetik at zegoelako eta, hirigintza-arauhaustea larria izanik, lizentzia berehala bertan behera uztea komeni zelako.

Horregatik gehiegi atzeratzen ari ziren arau subsidiarioak ahalik eta lasterren onar zitzala adierazi zitzaion Udalari, eta bitartean ez zezala indarrean zegoen egitamuketak baimentzen ez zituen eraikuntzetarako lizentziarik eman, eta gainera, legeztagarriak ez ziren lur eta eraikuntza-erabilerei eta hirigintza-diziplinarako neurriak ezar diezazkiela.

Azkenik, biztanleak adierazi zigun Ormaiztegiko Udalarekin zituen harremanak bere onera etorri zirela eta ez zeukala arazorik zinegotziengana iristeko eta horiek entzun diezazioten lortzeko.

*Etxebizitzetarako eraikuntz-unitate bat garatzeko soluziorik onena hirigintz hitzarmena (470/91)*

Arabako administrazio-batzar batek Arartekora jo zuen etxebizitzetarako zati-egitamu baten kontra zuen iritzia azaltzeko. Batzarkideen ustez, hirigune berria sortuko zuen egitamu horrek, eta izango zuen luze-zabaleragatik herriaren bereizgarriak eta nortasuna aldatu egin zitezkeen.

Zati-egitamua egitamugintzan sartua zegoen Udalaren proposamenez, eta sortu berria zen sustapena lurarren jabeek berek zeramaten aurrera.

Aldi berean, lurjabeek beste kexa bat aurkeztu zuten, bere garaian Foru Diputazioak eta Udalak onartutako arau subsidiarioetan ezarritakoari atxiki zitzaizkiola salatuz. Beren lurretan etxebizitzak eraikitzeko zati-egitamua idatziz tajutu zuten arren, Administrazioak hirigintza-egitamua geratuta zeukan eta aurka egiten zien, inolako argibiderik ematen ez zuelarik.

Azkenik, elkarrizketa-bidez Udalak, Administrazio-Batzarrak eta lurren jabeak akordio bat onartu eta idatzizko hitzarmena egin zuten. Hitzarmenaren bidez, zona hura berriro sailkatu zen, hirigintzarako gai jotzen zen lurra izatetik hirilur izatera aldatuz; gainera, etxebizitzaren tankera, erabilerak, lerroakadurak, etxebizitza-kopurua eta hirigintza mailako beste neurbide batzuk ere aldatu ziren.

Hortaz, hitzarmenaren bidezko akordio horretaz auziko alderdi ezberdinen nahiak betetzen zituen konponbidea erdietsi zela iruditu zitzaigun. Prozeduraren aldetik, Egitamuketarako Arau Subsidiarioak aldatu behar izan ziren, eta Udalbatzak behin-behingoan onartu ondoren, Herri Erakundeekiko Harremanetarako eta Hirigintzarako Foru Sailera bidali ziren behin-betiko onar zitzan.

*Udalaren eta Foru Diputazioaren ikuspegi ezberdinek obra lizentzia bat geldiarazten dute (37/92)*

Amurrioko biztanle batek Ararteko honen aurrean azaldu zuen familia bakar batentzako etxebizitza eraiki nahi zuela eta horregatik obretarako lizentzia Amurrioko udaletxean eskatu zuela, baina horren biderapen-lanak Foru Diputazioan geldituta zeudela bi administrazioak ados jartzen ez zirelako.

Era horretako baimena lortzeko beharrezkoa da Arabako Foru Diputazioak alde aurretik txosten bat egitea; azterketa egin ondoren, aldundi hori etxebizitza eraikitzearen aurka azaldu zen, zona hori Amurrioko Egitamuketarako Arau Subsidiarioetako 1:5.000 eskalan eginiko planoan hirilur bezala sailkatuta zegoelako. Alabaina, Udalak erabili zuen arau subsidiarioetako 1:1.000 eskalan egin planoan, lur hori hirigintza-debekupeko lur bezala azaltzen zen.

Azkenik, kontraesana konpondu egin zen, eskala handienean egindako planoaren alde, hau da, Udalak erabilitakoaren alde ebatziz, eta hirigintza-debekupeko lurrean familia batentzako etxebizitza egiteko baimena bere bideari jarraiki zitzaion.

*Jabego-kentze prozeduran funtsezko tramiteak ez betetzearen ondorioz lurjabea babesik gabe geratu zen (224/92)*

Biztanle batek Berrikanoko Administrazio Batzarraren jokabidea salatu zuen, erabat araugabea zen jabego-kentze espediente batzar babespean, bere lurrak okupatuz kaleetan zola jartzeko obrak egin nahi zituelako.

Arartekoak Zigoitiko Udalari eta Arabako Foru Diputazioari eskatu zien informazioa, 1988ko Obra eta Zerbitzuetarako Foru-Egitamuan sartutako obra zelako, eta baita Berrikanoko Administrazio Batzarrari ere.

Informazioa aztertu ondoren, Arartekoak ebatzi zuen jabego-kentzea bideratzean funtsezko antolak ahaztu zirela eta horregatik jabea babesik gabe geratu zela. Ondorioz, Berrikanoko Administrazio Batzarrari gomendatu zion, kaleetan zola jartzeko obren egitamuaren lehen fasea onartu zen unera itzuli, espedientea berriro ireki eta jabegoa kentzeko pausoak eman zitza; horretarako, biztanleari kendu nahi zaizkion ondasunak eta eskubideak zehatz-mehatz aipatu behar dira.

Gomendioa onartua izan ondoren, espedientea itxi eta artxibatu egin zen.

*Administrazio-erantzukizuna hondamen egoeran zegoen eraikina botatzean (371/92)*

Erakunde honi bidali kexan, bilbotar batek adierazten zuenez, bere anaia bizi zen etxea, Bilbao La Vieja kalean zegoena, bota egin zuten Udalaren aginduz eta etxea erauztean anaiaren zenbait tresna eta balio ezberdineko gauzak galdu ziren.

Anaiak bere ustez merezi zuen kalteordaina lortzeko kexadunak Bilboko Udalaren aurrean egin zituen antolen kopia bat ere bidali zigun, eta esan behar da burutu zituen antola guztiek ez zutela inolako erantzunik jaso.

Arartekoak lehen informazio eskaria luzatu zion Bilboko Alkateari, kalteak ordaintzeko eskaerari ezezkoa zergatik eman zitzaion jakiteko, bai eta nolako irizpideak erabiltzen dituzten udal-teknikariek gauza baliotsuak barruan gorde ditzakeen eraikuntza erauzterakoan.

Udalak bidali zigun txostenean zioen, kalteak ordaintzeko eskaria ez zitzaiola onartu, hiri horretako Eraikinen Kontserbazio eta Hondamen Egoerarako Ordenantzan berehala jausteko arriskua dagoenean erabili ohi den prozedurari atxiki zitzaielako. Udalaren ustez, kaltetuek behar beste denbora izan zuten etxean zeuzkaten gauzak ateratzeko eta, etxea bota aurretik, jabeek ez zuten tresna eta gauza horiekiko interesik txikiena ere erakutsi.

Arartekoak beste informazio eskari bat igorri zion Bilboko Alkateari, erauzketa-espedientearen jasotako xehetasunak berariz argi zitzaiz. Lehenik, etxe hartan bizi zirenei erauzketa zehazki noiz burutuko zen adieraziz egindako jakinarazpenaren frogak. Bestalde, etxea bota baino lehen barruan zeuden tres-

na eta ondasunen zerrenda egin eta jasotakoak nonbait biltzeko betebeharra bete zuten galdetu zion.

Udalaren erantzunaren arabera, jaustear dauden etxebizitzak barruko tresna eta ondasun zerrendatze eta biltze lanak ez dituzte eskuarki egiten; izan ere, ordurarte ez omen zen inoiz horrelakorik gertatu eta, batzuetan, Udal Administrazioak berak tresnak jaso eta udalaren lokaletan denboraldi batez gorde izan omen ditu, erazutako etxeen jabeek hala eskatuta.

Azkenik, Arartekotik gomendio luzea helarazi zitzaion. Alde batetik adierazten zen, Udalak jarraitu erazketa-prozeduran ez zegoela funtsezko akatsik eta, hortaz, berez ez zegoela kexadunaren eskaria derrigorrez betetzeko arrazoirik. Bestetik, kasua honetan ea Administrazioaren erantzukizun objetiborik bazegoen aztertu zen, eta halakorik bazela iruditu zitzaigun.

Udal Administrazioak erantzukizun objetiborik bazeukan erabakitzeko, horren inguruan legez ezarritako eta eskatutako baldintza guztiak aztertu genituen. Bereziki ondorio hauek ateratu genituen: eragindako kaltea banakakoa eta ekonomi aldetik baliozta zitekeena zela, udal-zerbitzuak ohi bezala jardun zuela, ezinbesteko arrazoirik ez zegoela, eragindako kaltearen eta udalaren jardueraren artean ez zegoela ziozko loturarik. Gomendioaren amaieran kexadunari kalteordaina emateko eskatzen zitzaion Udalari, Konstituzioaren 106.2. artikuluan eta berori garatzen duten legeetan xedatutakoaren arabera.

Bilboko Udalak, haatik, ez zuen onartu Arartekoak egindako gomendioa, eta kasua Legebiltzarrari aurkezten zaion urteko txostenean sartuko zela jakinarazi genion.

### *Autoak zaintzeko lokal batera sartzeko arazoak (40/93)*

Gasteizko autozaindegi jarduera baten jabe-elkarteko zenbait ordezkari etorri ziren erakunde honetara haxe salatuz: Gasteizko Udalak higiezinaren enpresa sustatzaileari zaintze-jarduna bertan jartzeko eta ibietarako behar ziren lizentziak eman zizkion, baina ikusi ahal izan zuten, autozaindegira iristeko sarrerako aldapan akatsak zeuden.

Zabalera eta goierari zegokienez, aldapak zati batzuetan ez omen zituen Gasteizko Egitamu Orokorreko Eraikuntza eta Erabileretarako Orotariko Arauek eta indarrean zegoen Ibien Ordenantzak xedatutako neurriak.

Gasteizko Udalari beharrezko informazioa eskatu ondoren, erantzun zigun obrak amaitu eta garajearen erabiltzaileek salaketa egin ostean, egiaztatu ahal izan zutela arazoak zeudela sarreran, batez ere sarreratik behera jeisteko aldaparako bidean, baina ez aldaparen zabaleraetatik, baizik hara iristeko eman beharrek biragatik.

Era berean, arazo horri konponbidea aurkitzeko Udalak hainbat aukera aztertu zituela zioen. Sustapenez arduratzen zen konpainiarekin bilera egin ondoren, egin errazena eta merkeena zen bidea aukeratu zuten. Gainera, konponketa-obra horietarako ez zen eraikineko bizilagunen baimenik ere behar,

izan ere, bestela, horietako batzuk garaje postuen jabe ez zirenez, gerta zitekeen obrak egieari ezezkoa ematea.

Ibia aldatzeko obrak burututzeko baimena eman zitzaien, konpainia sustatzailea lanak berehala egiteko prest agertu zelako, eta horrela arazoa konpondua geratu zelakoan, espedientea itxi eta artxibatu egin genuela jakinarazi genien kexadunei.

*Auzoaren egoera txarra, erakundeen arretarik eza eta asteburuetan gazteak edateko kaleetan pilatzea salatzen dute auzokideek (189/93)*

Bizkaiko herri bateko auzokide-elkarte batek Arartekora jo zuen auzoko bizi-baldintza txarrak eta udal zerbitzuek ustez eskaintzen zieten arreta exkaxa salatzeko, horrek guztian berri honetako gainontzeko auzoen aldean bater uzten bait zituen kexadunak.

Kexa-idatzian hauxe azaltzen zuten: alde batetik, etxebizitza bat hondamen egoeran egonagatik ez zutela botatzen, eta bestetik, asteburuetan gazte anitz biltzen zela inguruetan, asko eta asko adingutxikoak, kaleetan edaten eta zarata ateratzen ibiltzen zirenak, eta horren ondorioz kaleetan zikinkeria piltzen zela eta gogaitaldiak jasan behar izaten zituztela.

Arartekoak Udalari informazioa eskatu zion; Udalak ez zuen onartu zerbitzuak burutzen ez zirenik, eta auzoan burutzen ziren jardueri buruzko agiriak aurkeztu zituen.

Jaso genituen argibide guztiek erakusten zutenez, salatutako arazoaren oinarrian auzoaren egoera txarra zegoen: erabileren nahasketa, etxebizitza zaharrak eta egoera txarrekoak, zuzkidura gutxi, trenbidearen muga fisikoa, herriaren erdigunetik urruti egotea, etabar. Horri beste zenbait alderdi soziologiko lotzen zitzaizkion: esate baterako asteburuetan beste auzoetako gazteak ere hara joaten ziren edatera, espaloiak eta errepedeak betetzen zituzten eta, batez ere, zarata eta zikinkeria sortzen zuten.

Azkenik, Arartekoak erantzun zien biztanleei ez zuela gomendio bat egiteko moduko araugabekeriarik antzematen administrazioaren jardueran. Arazoa konpontzeko, erakundeek elkarrekin jardun beharko lukete auzoari zuzkidura berriak emateko, egoera txarra hobetzeko eta auzo-ingurunearen kalitatea ere hobetzeko. Horrekin batera, beste neurri osagarri batzuk hartu beharko lirатеke, esate baterako Eusko Legebiltzarraren araudi bat, zaratak eta biztanleen arteko elkarbizitza baketsua arautuko lituzkeena.

*Trenbide azpian tunela egitearen kontra auzokideek aurkezturiko kexa, horrek auzora trafiko handiagoa ekarriko zuelako (214/93)*

Gasteizko Santa Luzia auzoko Errekatxiki auzokide-elkarteak Ararteko honetan Udalaren egitamu bat salatu zuen: trenbide azpian tunela egin nahi

zen, Jacinto Benavente kalearen luzapenaren parean, Santa Luzia auzoa lotzeko Uritiasolo industrialdearekin eta Adurtza, San Cristobal, Errekaleor eta Aretxabaleta auzoekin.

Biztanleek ziotenez, trenbide azpian zubi berri bat irekiko balute, Jacinto Benavente kaleko trafikoa areagotu egingo litzateke eta kamioiak ere handik pasatuko liriteke Uritiasolo industrialdera joateko. Horren ondorioz, Jacinto Benavente kaleak jasan beharko lukeen trafiko bizia oztopo fisikoa izango litzateke Santa Luzia auzoarentzat eta kale horretako biztanleentzat, kalea egunero zeharkatu behar dutenentzat arrisku larria litzatekeelarik.

Auzokideek beste aukera bat proposatzen zuten: hiriaren ekialdetik trenbideari gaina hartuko liokeen errepeidea egitea, Gasteizko hirigunera iristeko lotune perpendikularrak izango litzuzkeena.

Era berean, auzoko biztanleek manifestazioak egin zituzten, bai sinadurak bildu eta tunela egitearen kontrako beste protesta-ekintza batzuk burutu ere.

Gasteizko Udalak, berriz, hauxe zioen: jarduera hori Burnibidearen Barne-Eraldakuntzarako Egitamu Berezian sartzen zen, hiria mendebaldetik ekialderako bidean gurutzatzeko zegoen oztopo fisikoa gainditu nahi zuelarik. Trenbidearen taiuketak ezarritako oztopo iragangaitz hori arindu eta trenbidearen iparralde-hegoaldetan zeuden auzoen arteko errepeidezko komunikazioa erraztu nahi ziren, orain dauden trenbide gaineko zubi eta azpiko igarobide gutiz beteen trafikoa arintzearren.

Udalak Jacinto Benavente kaleko trafikoa arras areagotuko zela zioen argudioa ere ez zuen onartzen, dagoeneko kale hori hegoekialdeko auzoetara iristeko bide gisa erabiltzen delako.

Arartekoak, gaia aztertu eta bi alderdien jarrerak balioztatu ondoren, gomendio hau luzatu zuen: herrilanetarako proiektu teknikoak eta hirigintza-egitamuak onartzeko orduan diskrezionalitate maila bat dago, Udalari aukera ezberdinen artean hautatzeko ahalmena ematen diona. Halere, kasu horri dagokionez, tunela ireki ondoren Udalak trafikoaren bilakaera aztertu beharko luke, eta berori areagotzeak Jacinto Benavente kalean arrisku-egoera larriak sorrarazten zituela egiaztatuz gero, zirkulazioa mugatzeko neurriak hartu beharko litzuzke, eta agian baita ibilgailu pisuei igarotzea debekatu ere.

Horrez gain, Arartekoak gomendatu zion, une hartan idatziz tajutzen ari zen Gasteizko Hiri Antolamendurako Egitamu Orokorra birraztertzean, saihezbide-kale baten premiarik bazegoen iker zezala, biztanleek eskatu bezala; bertan egungo eta bihar-etziko erabilerak kontutan harturik, Jacinto Benavente kalearen neurriak eta ezaugarriak ahaztu gabe, beste honek ere hiriko beste auzo batzuetan dauden antzeko errepeideetarako onartzen diren trafiko-mailak baino handiagoak jasan ez zitzen.

*Berdintasun-irizpidearen kontra herri-bidean eraikitako eskailerak (240/93)*

Mendaroko biztanle batek salatu zuen Kilimon ibaia bideratzeko obrak egin zirenean, aldameneko auzokideak bere terraza luzatu egin zuela ibai-ertzearaino zihoan herri-bidea hartuz, eta hori guztia obra egiteko baimenik eskatu gabe. Jendea bidean barrena ibili ahal izateko, Udalak, 1992ko uztailen biztanleekin egin zuen bileran, terrazaren luzapenaren eta bidearen goratasunaren arteko tartea txuliatzeko eskailera txiki bat egitea proposatu zuen, eskailera jartzeko terraza bera moztu behar zelarik.

Akordio hori onartu arren, eskaileraren maila erdiek kexadunaren lurzatiaren aurrealdea hartzen zuten, eta beste erdiak bakarrik egin zituzten terrazaren aldean.

Mendaroko Udalarari informazioa eskatu ondoren, Arartekoak onartu zuen Udalak herri-bidearen erabilerari buruz erabakitzeko ahalmena zeukala baina, nolana ere, Udalak kontuan izan behar zuen beste auzokidearen jardunaren ondorioz, hau da, bere terraza legezkontra luzatu eta herri-bide zati bat bere onurarako hartu ondoren, beste biztanleek nahi ez zituzten eskailerak eraiki beharra gertatu zela.

Arartekoak amaitzen zuen esanaz, berdintasun-irizpidearen arabera, bidegabeki eta bere onurarako jardunez eskailerak eraikitzeko premia sortu zuen pertsonak jasan behar zuela lurzatiaren aurrean obrek eragin zuten ondorio kaltegarria eta, beraz, terrazaren aldera aldatu behar zirela eskailerak.

Dena dela, Mendaroko Udalak ez zuen gure gomendio hori onartu.

*Lehen okupaziorako baimena ukatzea (308/93)*

Araiako biztanle batek erakunde honi bidalitako kexa-idatzian salatzen zuen herri horretan familia bakar batentzako etxebizitza erosi eta eskritura publikoak egin ondoren, Asparrenako Udalak ez ziola lehen okupaziorako baimenik eman, haren esanetan, hirigintza-lanak amaitu gabe zeudelako.

Ararteko honek etxebizitzak egin zituen enpresari emandako baimenaren kopia eskatu zion Asparrenako Udalarari, baimen-ematea hirigintza-lanak egiteko baldintzaren pean zegoen jakitearren.

Igorri zigun informazio eta argibideen bidez egiaztatu genuen enpresa eraikitzaileari emandako baimenean hirigintza-lanak ere sartzen zirela; hortaz, Udalaren jokaera zuzena izan zela ebatzi zen, kasu horretan ezin baitzen eman lehen okupaziorako baimenik hirigintza-lanak bukatu arte.

*Administrazio-isiltasunaren eta legezkontra lokal bat zabaltzeko emandako baimenaren aurkako salaketa (342/93)*

Getxoko biztanle batek Arartekoari azaldu zionez, Udalak lokal batean bainu-tresnak erakutsi eta saltzeko lekua zabaltzeko baimena eman zuen, eta hori behin eta berriz salatu zuen Udalaren aurrean. Gainera, bera lokal horren jabea izan zenean, zabaltze-lan horiek egiteko aukerari buruzko informazioa eskatu zion Udalari, eta ezezkoa erantzun zioten.

Arartekoak, Udalari informazioa eskatu ondoren, kexadunari idatzi bat igorri zion baimenari zegozkion zenbait alderdi argitzeko, esate baterako, higiezin batean hasieran burutu asmo zen jarduera aldatzeko aukera badagoela, arau subsidiarioetan jasota eta baimenduta baldin badago. Era berean, idatzian bertan kontra egiten genion Udalak jarduera hedatzeko eskaria legeztaatzeko eman zuen argudioari: alegia, denbora igarotzearen ondorioz zilegiztatu zela lokala handitzeko eskaria; izan ere, legezkontrako jardueren kasuan, hau da baimenik gabe daudenetan, denbora igaro izanak legezkanpoko egiteko egoera sortzen du, baina egoera horrek ez dio ematen jarduera-jabeari eskuratutako eskubide berezirik.

Azkenik, erakunde honek Getxoko Udalari gogorarazten zion legeak agintzen duen eran herri-administrazio orok eman behar duela behar bezala arrazoitutako ebazpena, eta kexadunak behin eta berriz aurkezturiko idatziei berehala erantzun ziezaien eskatu zion.

*Ibilgailuentzako garajea eraikitzeko arazoak eta Udalak obrak ikuskatzeko duen arduraren garrantzia (347/93)*

Bilboko zenbait biztanlek Udalaren jarduera salatu zuten Ararteko honetan, beren ustez, eraiki berriak ziren etxe batzuen azpian garajea egiterakoan Udalak egiteratze tekniko okerra baimendu zuelako.

Biztanleek behin eta berriz salatu zituzten Udaletxean garajeen azaldu ziren zenbait akats: hezetasunak, uholdeak, sarrera bide desegoki eta txarrak, aireztatze gutxiegi izatea, etabar.

Kexaren nondik-norakoak aztertu ondoren, Arartekoak erantzun zion biztanleei, udal-baimenak eman baino lehen, obra egingo den alderako erabilerrari, bolumenari, goierari, etabarri buruz ezarrita dauden hirigintza-arauak betetzen direla egiaztatu behar izaten dela. Horrek ez du esan nahi proiektuaren ezaugarri teknikoak ikuskatu behar direnik, horien ardura egitamua idatziz tajutu duen adituak baitauka, ez eta hirigintza-arauetz bestelako egiteratze-baldintza teknikoak betetzen diren aztertu behar denik ere. Beraz, gai pribatua den neurrian, etxegintza-baltzuaren ardurapekoak lirakekeen akatsen ardura ezin zaio Bilboko Udalari eskatu, ez daukalako alor horretarako eskumenik; aitzitik, ardura sustatzaileari eskatu behar zaio Justizia epaitegien aurrean; horretarako Zuzenbidean aditua zen norbaiti aholku eska ziezaioten gomendatu genien biztanleei.



Orobat, gure idatzian aditzera eman genien etxebizitzan jendea bizitzen jartzeko baimena bideratzen ari zela Udala, eta horretarako sustatzaileari bi zati bateratzea eta lehenengo sotoetik bigarrenera jaisteko iraganbidea zegoen aldean gutxienez hiru metroko zabalera uzteko eskatu ziola.

Hori bai, gauza bat agerian geratu zen: hirigintza-ordenantzetan automobilen garajeetarako jasota dauden gutxieneko neurri batzuk zaharkituak zeudela eta berritzea komeni zela, ibilgailuak gaur egun gero eta luzeago eta zabalagoak direlako.

### 3.13. BESTE GESTIO BATZUK

#### A) Sarrera

Kexek eragindako gaiengatik aurrez aztertu diren sailetan ezin sartuzko erreklamazioak jasotzen dira atal honetan. Arartekoaren zeregin nagusia hiritarren funtsezko eskubideak babestea izanik, azaltzen dizkioten jardura edo auzi ugari askotariko antola-lanak eskatzen dituzte, eta sarritan, nekez bil daitezke ohizko gaien sailletara.

1993ko hamabi hilabeteetan zehar, atal honi dagozkion 57 kexa-espeditente jaso dira, urtealdi horretan bideratu diren guztien %6,9.

Zaila da izenburu honen pean bildutako espeditenteen artetik eraginik handiena izan duten gaiak nabarmentzea, izan ere, gaiak askotarikoak izanik, apurkakoak eta multzotan bateraezinak dira. Halere, aurten helburu berbera duten kexek osaturiko multzo handi samarra dugu: gaztetxoak beren heziketarako kaltegarriak izan daitezkeen telebista-emanaldietatik babestea. Atal honetako kexarik adierazgarrienak jasotzerakoan gai horretaz zabalago arituko gara.

Aurreko urtealdian bezalaxe, gizarte-laguntza aitortzeari, alegia, Gizarte Segurantzari atxikitako pentsio eta beste gai batzuei loturiko kexa-andana dago. Era berean, joan den urtean baino urriagoak izan diren arren, nagusiki Sobietar Batasuna zenetik iritsitako "gerrako haurrak" deritzenen aberriratzeari buruzko hainbat arazo ere aurkeztu dira.

Azkenik, Abokatu Kolegioren baten jardunarekin edo Zuzenbidean adituak diren pertsona batzuen portaerarekin zerikusirik duten bakan batzuk ere jaso dira. Horiek guztiak bideratzeko orduan, orain arte aztertu diren ohizko sailetan sartu ezineko arazotzat hartu dira.

## B) **Kexa aukeratuak**

*Adingutxikoentzako eduki kaltegarriak telebista-emanaldietan (147/93)*

Idatzizko komunikabide batean, norbanako batek bidalitako gutuna argitaratu zen; bertan, gazteentzako kaltegarriak diren indarkeriazko eta bestezko edukiak telebista-kate ezberdinetan maiz agertzeak sortutako arazoak aipatzen ziren. Gutun horretan, bestalde, adierazten zenarekin ados zeudenek Ararteko honetara kopia bat bidaltzeko gonbitea egiten zen.

Azaldutakoarekin bat zetozen hiritar anitzen gutunak jaso genituen, eta horietan telebista-kate publikoetan gaztetxoek beren heziketa-premientzako egokia izango den programazioa jasotzeko duten eskubidea errespetatu zedin aldarrikatzen zen.

Arartekoak, erakundeak alor horretan urratutako bideen berri jakinarazi zien gai horri buruzko gutunak bidali zituztenei, eta bereziki hau adierazten zien: Madrilgo Hezkuntza eta Zientzien Ministeritzaren egoitzan Espainiako telebista publiko eta pribatuetako ordezkariak eta telebista publikoa daukaten autonomi alkarte ezberdinetako hezkuntza sailen ordezkariak hitzarmen bat sinatu zela. Hitzarmen horretan jarduera-irizpideak finkatu ziren, beti ere gaztetxoaren artean pertsonetikiko begirunea, bakea, jasan-ahalmena, elkartasuna eta demokrazia bezalako balioak babestu eta sustatu asmoz.

Era berean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera eta Eusko Irrati Telebistara idatziak bidali genituen, Arartekoak gai horretaz zeukan kezka agertzeaz gain, prentsan azalduari atxikiriko gutunak berri ere ematen zutenak. Bestalde, arestian aipatu akordioa betetzeko zein neurri hartu asmo zituzten jakinaraz ziezaguten eskatu genien.

Bulego honek egindako argibide-eskariari buruzko erantzunak jaso ondoren, gai horren inguruan jaso eta bideratutako kexa-espeditenteak ixtea erabaki zen.

*Herri-komunikabide batean politikazko propaganda banatzeaz (430/93)*

Alderdi politiko batek kexa-idatzia aurkeztu zion erakunde honi, eta bertan 1993ko ekainaren 6an egin ziren hauteskunde orokorretan Eusko Irrati Telebista erakunde publikoak beraiei emandako tratuarekin ados ez zegoela salatzen zuen.

Alderdikideen iritziz, aurreko hauteskundeetan artean osatu gabe egoteagatik parte hartu ez zuen beren alderdi politikoari ez zioten tratatu onik eman hauteskunde-propagandarako dohaneko tarteak banatzean, ez eta informazio saioetan nahiz alderdiburuei egindako elkarrizketetan ere, beraien kanpainari ez baitzitzaion behar adinako garrantzia eman.

Kexan aipatzen ziren gaiak hauteskundeetarako indarrean zegoen legediaren arabera azertu ondoren, berori bideratzea erabaki zen. Halere, bertan azaltzen ziren alderdiak ondo bereizi behar ziren, batzuk erakunde honen jarduera-eremutik kanpo geratzen baitziren.

Horrela, hauteskunde-propagandarako dohaneko tarteen banaketari dagokionez, propaganda banaketarako irizpideak eta hautagaiak horietan parte hartzeko bete behar dituzten baldintzak, Hauteskunde Jaurpide Orokorrerako Lege Organikoaren 59.etik 67.era bitarteko artikuluetan xedatzen direla jakinarazi genion erreklamatzaille-taldeari. Nolanahi ere, tarte banaketarako arauak eta banatzeko irizpideak ikuskatzea Hauteskunde Batzorde Zentrari dagokio, eta gai horiei buruzko eskaerak erakunde horri egin behar zaizkio.

Hauteskundeetara aurkezten ziren alderdi eta talde politikioei buruzko informazioa ematearren EITB erakundeak hartutako irizpideei zegokienez, Arartekoak bi aldiz eskatu zion erakunde horri bertako administrazio-kontseiluek onartu akordioei eta horiek betetzeari buruzko informazioa. Kontseilukide guztien adostasunaz hartutako akordio horietan, talde bakoitzari zegokion denbora finkatzeko irizpideak ezarri ziren. Irizpideak arbitrarioak eta ohizkoak ziren, noski, baina, nahiz erabil zitezkeen bakarrak ez izan, Ararteko honen aburuz, beroriek ez zuten xede talde politiko bat edo gehiago diskriminatzea, eta ez zuen uste erakunde publiko horren jarduera guztietan nagusitu behar duten informazio objektiboaren eta aniztasunaren irizpideak hausten zirenik.

Hori jakinarazi zitzaien alderdi politikoaren kideei, eta aurreko hauteskundeetan parte hartu ez zuten edo, aurkeztu arren, gure komunitate autonomoan Legebiltzarrerako ordezkariarik atera ez zuten beste talde batzuekin erkatuz beraiei eskaini zitzaizkien tarteak zehatz-mehatz zein izan ziren ere ezagutarazi genizkien.

Ebazpen hori eman ondoren, eragindako alderdiei kexa-espeditentea itxi eta artxibatu egingo zela adierazi genien.

IV. ATALA  
**ESTATISTIKA**

#### 4.1. OHAR OROKORRAK

Guztira 4.028 idatzi eta txosten jaso dira Ararteko Erakundean 1993. urtealdian; epe berean 3.430 ofizio eta idatziri eman zaie irteera.

Kopuru horien arabera, 1992. urteko datuekin erkatuz igoera nabaria daukagu sarrera-kopuruan, %11,1, eta aldiz, bidali diren txostenetan oso igoera txikia gertatu da.

Datu horiek aurreko urteetako joera baiesten dute, hau da, sarrerak etengabe ugaltzeak, Erakundea gero eta herritar gehiagok ezagutu eta erabiltzen dutela adierazten du. Halere, bulego honek bidali dituen erantzun-idatzien kopurua ez da igo, aurreko urtekoen parean jarraitzen du, eta hori, maila handi batean, Erakundearen barne-lana eta baliapideak banatzearen ondorio da.

	1993	Igoera 1992koarekiko
Sarrerak	4.028	11,1%
Irteerak	3.430	1,1%

Hilean bataz-beste 286 idatzi atera dira Erakundetik, eta, aldiz, 336 sartu dira. Ondorengo taulan ikus daitekeen bezala, sarrerak eta irteerak modu orekatuan banatzen dira hamabi hilabeteetan, abuztuan salbu, hilabete horretan gizarte eta administrazio mailako jarduerak geldotu edo lasaitu egiten direlako, Erakundearen erroldan ondorioak dituelarik.

Hilabetea	Sarrerak	Irteerak
Urtarrila	252	218
Otsaila	338	310
Martxoa	420	367
Apirila	291	301
Maiatza	350	382
Ekaina	341	310
Uztaila	311	269
Abuztua	131	126
Iraila	338	260
Urria	420	247
Azaroa	499	415
Abendua	337	225
1993. urtea	4.028	3.430

(Ikus 1. diagrama 166. orrialdean)

### Jasotako kexak

1993ko hamabi hilabeteetan zehar, Ararteko erakunde honetan guztira 823 kexa jaso dira, ahoz zein idatziz aurkeztuak. Aurreko urteekin alderatuz, beraz, orotara kopurua igo egin da, eta batez ere 1992 urtealdian interesdunaren eskariz bideratutako gaietara begira, %5 igo da.

Erdi epera kexa-kopurua sendotu egingo dela ikusten den arren, egia da gero eta gehiago aurkezten direla, Arartekoaren eskumen-eremuak aldaketarik gabe jarraitzen duen bitartean.

	1989	1990	1991	1992	1993
Guztira	585	1.159*	769*	783	823

(Ikus 2. diagrama 167. orrialdean)

(\* 769 kexetatik 57 Getxo udalerrian hiri-zerga igo zelako sortu zen arazoaren ingurukoak ziren; gai horrengatik 1990ean ere 545 kexa aurkeztu ziren eta, banaka bideratu ziren arren, estatistika datuak prestatzerakoan kexa bakartzat hartu ziren).

### Onartu ez diren kexak

Ararteko erakunde hau sortu eta arautzen duen 3/85 Legeak 21. artikuluan jasotzen ditu hiritarren kexak onartzeko bete behar diren baldintzak. Horrela, 1993. urtean guztira jaso direnen artean, lehenik arrazoi anitzengatik onartu ez direnak bereizi behar dira. Batez ere, norbanakoen arteko arazo pribatuak izategatik, edo epaitegien aurrean azaldu eta sendetsitako epaia emanda edo epailaritza-ebazpenaren zain zeudelako baztertu dira.

1992. urtean onartu ez zen kexa-kopuruarekin erkatuz, urtealdi honetan igoera txikia antzematen da, eta hori partikularren arteko auziengatik kexa gehiago aurkeztu direlako gertatu da. Aldiz, Arartekoaren eskumenetik kanpo dauden alorretarako kexa gutxiago aurkeztu dira.

Nolanahi ere, erakunde honek 1993an erreklamazioei ahalik eta lege-babesik handiena emateari eutsi dio, eta jardunbide-arauak interpretatzera-koan beti administratuaren alde jokatzeko saiatu da. Onartu ez diren kexei dagokienez, Erakundeak une oro azaldutako arazoak konpontzeko egokien izan daitezkeen irtenbideak hiritarrari ezagutarazteko ahaleginak egiten ditu.

### **Onartu ez diren kexak eta horretarako arrazoiak**

---

- Norbanakoen arteko arazoak .....	47
- Auzibidera eramandako kexak .....	22
- Beste zenbait .....	18
- Aurretiaz kexabide administratiborik aurkeztu gabekoak .....	17
- Erakundearen eskumenetik kanpokoak .....	14
- Bidezko interesik eza .....	2
- Herri Defendatzaileak bere gain hartutakoak .....	1
- Urtebetetik gora iragandakoak .....	1
<hr/>	
Guztira .....	122

---

(Ikus 3. eta 4. diagramak 168. eta 169. orrialdeetan)

### **Herri Defendatzaileari igorritako kexak**

Zuzenean euskal Administrazio publikoaren kontra aurkezten ez diren kexen barruan, beroriek ikutzen dituzten alorren arabera, Espainiako Herri Defendatzaileari igortzen zaizkio bidera ditzan, Estatuko administrazioari baita- gozkio, eta hortaz, Arartekoaren eskumen-eremutik kanpo baitaude.

1993. urtean Herri Defendatzaileari aurreko urteetan baino kexa gutxi- go bidali zaizkio, hain zuzen %16ko jaitsiera egon da.

- Herri Defendatzaileari igorritako kexak .....	76
---	----

### **Beste gestio batzuk eragin dituzten kexak**

Estatistikak egitean aparte zenbatzen dira, Ararteko Erakundeak berak onartu eta bideratu arren, berez euskal Administrazio publikoaren jarduera jakin baten kontrakoak ez diren kexak, baina hiritarrak azaldu duen arazoa konpontzeko bestelako gestioak eragin dituztenak.

Atal honetan oso tankera ezberdineko gaiak eta arazoak sartzen dira, noski. Horrela, izen hori daraman atalean aztertu diren gaien laburpena aget- zen da.

Aurreko urtealdiari dagokionez, beste gestio batzuk eragin dituzten kexen kopuruak ez du aldaketa aipagarririk izan.

- Beste gestio batzuk eragin dituzten kexak.....57

## 4.2. ESTADISTIKA SAILEZ SAIL

Kexak dagokien gai-alorraren arabera aztertzerakoan, lehenik azpimarratu behar da Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntzak taulako lehen postuan jarraitzen duela, aurreko urteko emaitzekiko %5,6ko igoera izan duelarik, eta horrek esan nahi du guztira 1992. urtean baino 38 kexa gehiago aurkeztu direla.

Era berean aipatzekoa da Ogasun sailak azken bi urteetako joera hautsi egin duela, izan ere aurreko urteetan kexa kopuruengatik gehien eragindako sailen artean lehenbiziko hiru lekuetan Funtzio Publikoa, Hirigintza eta Etxebizitza eta Osasuna zeuden, eta orain hirugarren Ogasuna dago. Ogasun sailari dagozkion kexa-kopuruak aurreko urtearen parean %2,8ko igoera izan du.

Herrizaingoa ere igoera nabarmena izan du, guztira 18 kexa gehiagoz; portzentaietan, berriz, %2,8 igo da eta gauza bera esan daiteke Justizia alorraz, aurreko urtean baino 20 kexa gehiago jaso dituelako. Aldiz, 1993. urtean kexa gutxiago jaso dituzte Hezkuntza, Osasuna eta Gizarte Ongizatea eta Ingurugiroa sailek, portzentaietan lau puntu baino gehiago jeitsi baitira.

Azkenik, gainontzeko alorrek aurreko urtealdien antzeko portzentaiak dauzkate eta 1993an jasotako erreklamazioetan aldaketa txikiak izan dituzte.

	Zenbat kexa jaso	%
F. P. eta Adm. Antol.	125	22
Hirig. eta Etxeb.	74	13
Ogasuna	65	11,4
Osasuna eta Giz. Ong.	63	11,1
Hezkuntza	48	8,5
Herrizaingoa	45	7,9
Ingurugiroa	44	7,7
Justizia	34	6
Herrilanak eta Zerb.	25	4,4
Nek., Ind., Merk., eta Tur.	21	3,7
Kult. eta Elebit.	18	3,2
Lana eta Giz. Segur.	6	1,1
Guztira	568	100

(Ikus 5. diagrama 170. orrialdean)



## Kexak azpisailen arabera

1993 urtealdian jasotako kexak gai-aztertzean, ondorengo taulan ikusten da nolako eragina daukaten azpisaillek Ararteko honek bere lana eratzeko darabiltzan gai-alorretako bakoitzean.

Lehenik, Funtzio Publiko eta Administrazioaren Antolakuntza alorreko igoera, Administrazioaren Antolakuntza azpisailak izan duen igoerari zor zaio- la ikusten da, azpisail horretan aurreko urtean baino 34 kexa gehiago jaso bai- tira. Era berean, Bidezaingo azpisailean ere igoera nabarmena gertatu da, eta horrela kexen multzo osoan Herrizaingoak ere gora egin du. Azkenik, Elebita- suna azpisailean ere kexa-kopurua dexente igo da.

Iaz beherakada izan dutenen artean Osasuna eta Gizarte Ongizate saila dago, atal horretan sartzen diren kexen artetik osasunari dagozkionetan antze- man delarik beherakadarik handiena. Bestalde, Hezkuntza alorreko kopuruak behera egitea, irakaskuntzaren programazio orokorrarekin zerikusia duten arazo gutxiago azaldu izanak eragin du.

- Funtzio Publikoa eta Adm. Antolakuntza .....	125
- Funtzio Publikoa .....	83
- Administrazioaren Antolakuntza .....	42
- Hirigintza eta Etxebizitza .....	74
- Hirigintza .....	42
- Etxebizitza .....	32
- Ogasuna .....	65
- Udal salneurriak .....	6
- Udal zergak .....	15
- Foru tributoak .....	26
- Udal arielak .....	5
- Bestelakoak .....	13
- Osasuna eta Gizarte Ongizatea .....	63
- Osasuna .....	34
- Gizarte Ongizatea .....	29
- Hezkuntza .....	48
- Ikastegia aukeratzeko eskubidea .....	2
- Irakaskuntzaren programazio orokorra .....	16
- Bekak eta ikasteko laguntzak .....	5
- EHU .....	6
- Bestelakoak .....	19

- Herrizaingoa .....	45
- Bidezaingoa .....	40
- Herri-Bakea .....	5
- Ingurugiroa.....	44
- Sailkaturiko hiri-ekintzak .....	40
- Ingurugiroari eragiten dioten beste gorabehera batzuk....	4
- Justizia.....	34
- Administrazio autonomikoak Justizi alorrean burutu dituen ekintzei buruzko kexak .....	4
- Justizi Administrazioaren administrazio zerbitzuei buruzko kexak.....	30
- Herrilanak eta Zerbitzuak.....	25
- Herrilanak .....	5
- Garraioak .....	3
- Udal zerbitzuak.....	17
- Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismoa .....	21
- Nek., Abeltzaintza eta Arrantzua .....	6
- Industria .....	9
- Merkataritza.....	6
- Kultura eta Elebitasuna .....	18
- Dirulaguntzak .....	3
- Elebitasuna .....	13
- Bestelakoak .....	2
- Lana eta Gizarte Segurantza .....	6
- Lana .....	4
- Gizarte Segurantza .....	2

#### 4.3. ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO ESTADISTIKA

##### **Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Justizi Administrazioaren administrazio zerbitzuen kontrako kexak.**

Ararteko Erakundea sortu eta arautzen duen 3/85 Legearen 9.2. artikuluan xedatutakoari jarraiki, Euskal Autonomi Elkarteko Justizi Administrazioaren jardunari dagozkion kexak, kasu bakoitzean gaia ikertzeko edo ebazteko ahalmena duen organuari igortzen zaizkio.

Horregatik, euskal administrazio publikoen kontra jasotako erreklamacioak zenbatzerakoan kexa-multzo hori bereiztu egin behar da, agintaritzaz berezi baten jardunaren kontrako salaketak direlako.

Eusko Legebiltzarrari aurkeztu zaizkion aurreko urteetako txostenetan adierazi den bezala, Erakundeak kasu horietan Ministeritza Fiskalari eta, hala dagokionean, Epai Agintaritzaren Kontseilu Nagusiari igortzen dizkio kexak, erakunde horiek ikerketak egin ditzaten eta egindakoaren berri erakunde honi eman diezaioten.

1993 urtealdian Euskal Autonomi Elkarteko Justizi Administrazioaren jardunari dagozkion 30 kexa bideratu dira guztira, beraz, aurreko kopuruarekin alderatuz oso igoera handia gertatu da.

- Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Justizi Administrazioaren administrazio zerbitzuen kontrako kexak .....30

Euskal administrazio publikoren baten kontra aurkeztu eta Ararteko honen ikerketa-eremuan sartzen diren kexei dagokienez, aurreko urteko eske-ma errepikatzen da, zeinaren arabera, ia erdiak Autonomi Elkarteko Administrazio amankomunaren jardueren kontrakoak baitira, hamarretik lau, toki administrazio ezberdinen aurkakoak eta, azkenik, hamarretik bat baino gehiagoko hiru foru diputazioetakoren baten kontrakoak.

	Zenbat	%
- Eusko Jaurlaritzako Administrazioa	252	45,3
- Toki Administrazioa	229	41,1
- Foru Administrazioa	76	13,6
	557	100

(Ikus 6. diagrama 171. orrialdean)

Eragindako erakundeen araberrako banaketa hori nabarmenki sendotuz doa, aurreko urtean idatzitako txostenean ere iragartzen zen bezala. Nolanahi ere, oro har aipatu ditugun hiru administrazio mailen kontrako guztizko kexakopurua ugaltzen ari da.

### Foru administrazioen aurkako kexak

Hiru lurralde historikoetako foru administrazioen kontra 1993an aurkeztutako kexak aurreko urteetan ez bezala banatu dira. Ondorengo taulan ikus daitekeenez, Gipuzkoako foru Administrazioak buru egiten da bai portzentaie-tan, bai guztizko kopuruetan, bideratutako kexei begira. Araba eta Bizkaiari dagokienez, kexa-portzentaia 1992 urtekoaren oso antzekoa da.

Urtealdi honetan, beraz, ez dira antzematen iaz Bizkaia eta Gipuzkoak zituzten biztanle-kopuruaren araberrako kexa-ratio berdintsuak. Horrela, Bizkaiian 1993an 40.000 biztanleko kexa bat aurkeztu den bitartean, Araban eta Gipuzkoan kexa bat aurkeztu da 20.000 biztanle inguruko.

## Kexak foru diputazioen arabera

	Zenbat	%
Gipuzkoa	35	46
Bizkaia	30	39,5
Araba	11	14,5
Guztira	76	100

(Ikus 7. diagrama 172. orrialdean)

## Euskal Autonomi Elkarteko toki Administrazioaren kontra aurkeztutako kexak

Euskal Autonomi Elkarteko toki-Administrazioaren kontra aurkeztu diren kexei dagokienez, lehenik ikusten da Araba eta Gipuzkoak kexa-kopuru bera daukatela; Bizkaia da normala den bezala, toki-administrazioen kontra guztira kexa gehien aurkeztu dituen lurraldea.

Berrito, lurralde historikoetako hiriburuetako administrazioek jaso dituzte kexa gehien 1993an; horien artean Gasteiz nabarmentzen da, baina, halere, aurreko urteekin erkatuz, jaitsi egin da kexa-kopurua. Behin eta berriz azpimarratzekoa da, ordea, Arartekoaren egoitza hiriburu horretan egoteak bertako hiritarrei kexak aurkezteko ematen dien erraztasuna.

Autonomi Elkarteko beste udalerriei dagokienez, Bizkaian Getxo eta Sestao, eta Gipuzkoan Irun nabarmenarazi behar dira, 1993. urtean bost kexatik gora aurkeztu dituzten bakarrak direlako.

## Toki Administrazioaren aurkako kexak

### Araba

Vitoria-Gasteiz	50
Llodio	3
Artziniega	2
Cripán	2
Amurrio	1
Arraia-Maeztu	1
Arrazua-Ubarrundia	1
Asparrena	1
Barrundia	1
Campezo	1
Cigoitia	1
Lantarón	1
Leza	1
Guztira	66

(Ikus 8. diagrama 173. orrialdean)

## Bizkaia

Bilbao .....	33
Getxo .....	10
Sestao .....	7
Leioa .....	5
Barakaldo .....	3
Basauri .....	3
Ortuella.....	3
Portugalete.....	3
Abanto Zierbena.....	2
Elorrio .....	2
Erandio .....	2
Mendata .....	2
Ondarroa .....	2
Santurtzi .....	2
Valle de Trápaga-Trapagaran.....	2
Alonsotegi.....	1
Arrigorriaga .....	1
Berango.....	1
Bermeo .....	1
Busturia .....	1
Ermua.....	1
Galdakao .....	1
Gernika-Lumo .....	1
Igorre .....	1
Kortezubi .....	1
Larrabetzu.....	1
Lemoiz .....	1
Markina-Xemein.....	1
Murueta .....	1
Muxika.....	1
Orduña .....	1
Sopelana.....	1
<hr/>	
Gutzira.....	97

(Ikus 9. diagrama 174. orrialdean)

## Gipuzkoa

Donostia-San Sebastián.....	20
Irun .....	6
Lasarte-Oria .....	5
Renteria.....	5
Eibar.....	4
Andoain.....	3
Orendain .....	3
Tolosa .....	3

Zarautz .....	3
Hernani .....	2
Hondarribia .....	2
Arrasate .....	1
Ataun .....	1
Bergara .....	1
Lezo .....	1
Lizartza .....	1
Mendaro .....	1
Ordizia .....	1
Zizurkil .....	1
<hr/>	
Guztira .....	66

(Ikus 10. diagrama 175. orrialdean)

### Eusko Jaurlaritzaren aurkako kexak sailez sail banaturik

Eusko Jaurlaritzako administrazioen jarduera edo isiltasunen kontra aurkeztu kexei begira, Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza, Hezkuntza eta Osasuna eta Gizarte Ongizatea dira berriro ere kexa gehien sortu dituztenak, nahiz eta alor horien portzentaia aurten txikiagoa den; 1992. urtean lau kexatik hiru sail horien kontrakoak ziren bitartean, 1993an hirutik bi besterik ez dira izan, beraz, 1991 urtealdiaren antzeko emaitzak dauzkagu oraingoan.

Igoerarik handienak ondorengo lau sail hauetan gertatu dira: Funtzio Publikoa, Herrizaingoa, Kultura eta Elebitasuna eta Merkataritza, Industria eta Turismoa. Aldiz, Hezkuntza eta Osasuna izan dira portzentaiaetan beherakadarik handi eta azpimarragarriena izan dutenak.

	Zenbat kexa jaso	%
F. P. eta Adm. Antol.	81	31,9
Hezkuntza	45	17,8
Osasuna eta Giz. Ong.	33	13
Hirig. eta Etxeb.	22	8,7
Herrizaingoa	18	7,1
Nek., Ind., Merk. eta Tur.	16	6,3
Kult. eta Elebit.	13	5,2
Lana eta Giz. Segur.	6	2,4
Herrilanak eta Zerb.	5	1,9
Ingurugiroa	5	1,9
Ogasuna	5	1,9
Justizia	4	1,9
<hr/>		<hr/>
Guztira	253	100

(Ikus 11. diagrama 176. orrialdean)

## Foru administrazioen aurkako kexak sailez sail banaturik

Aurreko urtealdietan bezala, Ogasun alorra da lurralde historikoetako foru administrazioen kontra Ararteko Erakundean kexa gehien eragin dituena. Halaxe da, 1993. urtean hiru foru diputazioen kontra egindako erreklamazioen erdiak baino gehiago gai horri buruzkoak izan dira, Gipuzkoa buru delarik, guztira 25 kexa aurkeztu baitituzte probintzia horren aurka.

Era berean, foru erakundeen jarduera ikertzeko bideratu diren espedienteen ikuspegitik, Osasun eta Gizarte Ongizate alorra da garrantzitsuenen artean bigarren lekuan dagoena, lau erreklamaziotik bat sail horretan kokatzen baita.

Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza saileko kexa-kopuruak gora egin du, Herrilanak eta Zerbitzuak nahiz Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismo sailekoek behera egin duten bitartean.

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	%
Ogasuna	3	11	25	39	51,3
Osasuna eta Giz. Ong.	3	13	3	19	25
F. P. eta Adm. Antol.	3	3	1	7	9,2
Kultura eta Elebit.	-	1	4	5	6,6
Nek., Ind., Merk., Tur.	1	1	2	4	5,3
Hirig. eta Etxeb.	1	1	-	2	2,6
Herrilanak eta Zerb.	-	-	-	-	-
Ingurugiroa	-	-	-	-	-
Lana eta Giz. Segur.	-	-	-	-	-
Hezkuntza	-	-	-	-	-
Herrizaingoa	-	-	-	-	-

(Ikus 12. diagrama 177. orrialdean)

## Toki Administrazioaren aurkako kexak sailez sail banaturik

Euskal Autonomi Elkarteko toki-administrazioen kontrako kexak gaien arabera sailkatzerakoan, berriro ere lehen postuan Hirigintza eta Etxebizitza alorra daukagu, aurreko urtealdian Ingurugiroa izan zelarik postu hori hartu zuena. Nolanahi ere, biek egin dute behera joan den urtean. Toki Administrazioari begira ere Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza dira kexa-multzorik handiena eragin duten sailak. Horregatik, hemen hiru administrazio-mailaren arabera banaturik aztertzen ari garen alor hori osotasunean hazi egin da. 1993 urtealdian kopuru aldetik gora egin duten alorren artean, bigarren Herrizaingoa dago, hiriguneetan ibilgailuen zirkulazioarekin sortutako arazoekin zerikusia duten gaiengatik.

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	%
Hirig. eta Etxeb.	16	22	14	52	22,7
F. P. eta Adm. Antol.	12	21	10	43	18,8
Ingurugiroa	8	14	19	41	17,9
Herrizaingoa	6	12	9	27	11,8
Ogasuna	7	10	5	22	9,6
Herrilanak eta Zerb.	7	11	2	20	8,7
Osasuna eta Giz. Ong.	6	4	4	14	6,1
Nek., Ind., Merk., Tur.	3	2	-	5	2,2
Hezkuntza	1	1	1	3	1,3
Kultura eta Elebit.	-	-	2	2	0,9
Lana eta Giz. Segur.	-	-	-	-	-

(Ikus 13. diagrama 178. orrialdean)

#### 4.4. LURRALDEEN ARABERAKO ESTATISTIKA

Aurreko urteetan bezala, Bizkaia Lurralde Historikoko hiritarrek aurkeztu dizkiote Arartekoari kexa gehien 1993 urtean. Urte horietako datuekin erkatuz, Araba Lurralde Historikotik iristen ziren kexen kopurua hazteko joera eten egin da eta, aldiz, Bizkaitik bidalitako kexa-kopuruak gora egiten jarraitu du.

#### Kexen jatorriaren arabera lurralde banaketa

	1989	1990	1991	1992	1993	Joera
Bizkaia	288	284	293	332	376	+13,25%
Gipuzkoa	188	195	244	241	250	+ 3%
Araba	97	125	158	201	182	-10%

(Ikus 14. diagrama 179. orrialdean)

#### Kexen banaketa lurralde bakoitzean

Behin eta berriz ikusten denez, Arartekoari aurkezten zaizkion kexek batez ere hiru lurralde historikoetako hiriburuetan dute jatorria. Nagusitasun hori Araban nabarmenagoa da, gasteiztarrek egin baitituzte erreklamazio guttien %86a.

Aldiz, Bizkaia eta Gipuzkoaren kasuan, kexen erdiak baino gehiago lurralde horien hiriburuetatik kanpo bizi diren pertsonak egin dituzte eta, hortaz, hiriburu/gainontzeko udalerrriak erlazioa, kexak aurkezteari dagokionez, askoz ere orekatuagoa da bi lurralde historiko horietan Araban baino.



	Zenbat	%
<b>Araba</b>		
Vitoria-Gasteiz.....	157	86,3
Beste udalerriak.....	25	13,7
	<hr/>	<hr/>
	182	100
<b>Bizkaia</b>		
Bilbao.....	158	42
Beste udalerriak.....	218	58
	<hr/>	<hr/>
	376	100
<b>Gipuzkoa</b>		
Donostia-San Sebastián.....	93	37,2
Beste udalerriak.....	157	62,8
	<hr/>	<hr/>
	250	100

(Ikus 15. diagrama 180. orrialdean)

### Euskal Autonomi Elkarteaz kanpotik iritsitako kexak

Ohizkoa den bezala, badira zenbait kexa Euskal Autonomi Elkartekoak ez diren beste leku batzuetatik iristen direnak. 1993an era horretako kexa-kopurua dexente igo da, Autonomi Elkartetik kanpoko 15 erreklamazio jaso baitira. Horietatik 9 Espainiako beste alde batzuetatik bidali dituzte, eta 6 beste Estatu batzuetatik, horien artean Frantziatik igorritako 4 kexa direlarik azpimarragarri.

### Estatuko beste komunitate autonomo batzuetatik igorriak

Nafarroako Foru Komunitatea.....	2
Gaztela eta Leongo K.A. ....	1
Kataluniako K.A. ....	1
Kantabriako K.A. ....	1
Madrilgo K.A. ....	1
Aragoako K.A. ....	1
Errioxako K.A. ....	1
Asturiasko Printzerria .....	1

---

9

## Beste Estatu batzuetatik igorriak

Frantzia .....	4
Portugal.....	1
Ukrania.....	1
	—
	6

## Kexen jatorriaren arabera lurreko biztanleko 10.000 biztanleko

Lurreko historikoen arabera iritsi diren kexen jatorriari buruzko azterketa konparatua egiteko, probintzia bakoitzetik helarazi dizkigute kexa guztiak dagozkien probintzien biztanle-kopuruarekin lotuko ditugu. Ondorengo taulan eskaintzen dira lurreko bakoitzeko 10.000 biztanleko jaso diren kexak.

Erkaketa horretan ikus daitekeenez, nabarmenena Arabaren nagusitasuna da, nahiz eta 1993an Arabari dagokion ratioak behera egin duen eta, horrela, aurreko urtealdietan beste bi lurrekoekiko zeukan alde gutxitu egin den.

Beste bi lurreko horiei dagokienez, biek egin dute gora aurkeztutako kexa-kopuruan, eta Bizkaia da bietatik goerarik handiena izan duena. Nolanahi ere, horixe da Ararteko Erakundearen kexa-portzentaia txikiena daukan lurreko, nahiz eta Erakundearen jardunean emandako lehen urtean lortu zuen maila igotzen den.

	1989	1990	1991	1992	1993
Araba	4,3	4,5	5,8	7,4	6,7
Bizkaia	3	2,9	2,5	2,8	3,3
Gipuzkoa	3,3	2,7	3,6	3,5	3,7

(Ikus 16. diagrama 181. orrialdean)

## 4.5. PROZEDURARI BURUZKO ESTADISTIKA

Euskal administrazio publikoren baten kontra 1993. urtean aurkeztu diren 538 kexen biderapenari dagokionez, erdiak baino gehiago, %55, urte barruan ebazten dira, eta beste 243 abenduaren azken egunean artean biderapenean zeuden. Azken kopuru horretan, urteko azken egunerarte irekitako espediente guztiak sartzen dira, noski.

	Zenbat	%	Kexaduna zuzen	Kexaduna oker
Biderapenean	243	45,2		
Bukatuak	295	54,8	101	194

(Ikus 17. eta 18. diagramak 182. eta 183. orrialdeetan)

## 1993. urtean bukatutako espedienteak bideratzen hasitako urtean arabera

1993. urtean osorik bideratu diren 295 kexekin batera, aurreko urteetan egindako eta urte berean ebatzi ezinik geratu ziren beste 267 erreklamazioen biderapena ere amaitu da. Jakina, multzo horretako espediente gehienak 1992. urtearen azken sei hilabeteetan ireki ziren.

1989.....	1
1990.....	14
1991.....	53
1992.....	199
1993.....	295
Guztira .....	562

## Kexa bukatuak eta biderapenean daudenak

Erakunde honen lan juridikoan egiten den banaketaren arabera finkatzen diren gai-multzoak aintzat hartuz, 1993. urtean nagusiki Ingurugiro alorrean eman zaie arrazoia kexa-aurkezleei. Gai-multzo gehienetan, erreklamatzaileek hasieran azaldutako argudioen kontrako ebazpenaz itxi diren espedienteak dira nagusi.

	Biderapenean Bukatuak		Kexaduna zuzen	Kexaduna oker
F. P. eta Adm. Antol.	52	73	23	50
Hirig. eta Etxeb.	26	48	12	36
Osasuna eta G. O.	27	36	9	27
Hezkuntza	15	33	14	19
Ingurugiroa	20	24	15	9
Ogasuna	38	27	7	20
Herrilanak eta Zerb.	19	6	3	3
Herrizaingoa	23	22	6	16
Nek., Ind., Merk., Tur.	9	12	6	6
Kult eta Elebit.	9	9	4	5
Lana eta Giz Segur.	3	3	1	2
Justizia	2	2	1	1
Guztira	243	295	101	194

(Ikus 19. eta 20. diagramak 184. eta 185. orrialdeetan)

## Eusko Jaurlaritzako Administrazioaren prozedurari buruzko estatistika

Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren kontra bideratutako kexetatik 147 urte barruan itxi dira, eta horietako hirutik batean eman zaio arrazoia kexadunari.

### Kexa bukatuak eta biderapenean daudenak. Eusko Jaurlaritz

	Biderapenean Bukatuak		Kexaduna zuzen	Kexaduna oker
F. P. eta Adm. Antol.	32	49	13	36
Hezkuntza	13	31	13	18
Osasuna eta Giz. Ong.	14	19	5	14
Hirig. eta Etxeb.	5	17	3	14
Herrizaingoa	13	5	1	4
Lana eta Giz. Segur.	3	3	1	2
Nek., Ind., Merk., Tur.	7	9	5	4
Herrilanak eta Zerb.	3	2	-	2
Kultura eta Elebit.	6	7	3	4
Ingurugiroa	2	3	1	2
Ogasuna	5	-	-	-
Justizia	2	2	1	1
Guztira	105	147	46	101

(Ikus 21 eta 22 diagramak 186. eta 187. orrialdeetan)

### Foru Administrazioen prozedurari buruzko estatistika

Foru administrazioen kontra aurkeztu diren kexen atalean, 1993. urtean irekitako espedienteen herena urte amaierarako itxita zegoen, eta horietatik 11 kasutan eman zaie arrazoia kexa-bidaltzaileei.

### Kexa bukatuak eta biderapenean daudenak. Foru Administrazioak

	Biderapenean Bukatuak		Kexaduna zuzen	Kexaduna oker
Ogasuna	28	11	5	6
Osasuna eta Giz. Ong.	11	8	2	6
Herrilanak eta Zerb.	-	-	-	-
F. P. eta Adm. Antol.	5	2	2	-
Hirig. eta Etxeb.	1	1	-	1
Nek., Ind., Merk., Tur.	2	2	1	1
Kultura eta Elebit.	2	3	1	2
Ingurugiroa	-	-	-	-
Lana eta Giz. Segur.	-	-	-	-
Hezkuntza	-	-	-	-
Herrizaingoa	-	-	-	-
Guztira	49	27	11	16

(Ikus 23. eta 24. diagramak 188. eta 189. orrialdeetan)

## Toki Administrazioaren prozedurari buruzko estatistika

Azkenik, gure autonomi lurraldeko toki administrazioei dagokienez, erakunde honek bideratu dituen espedienteen erdia baino gehiago ebatzi dira. Kasu horietan, hirutik batean bidezkozat jo dira hiritarrek azaldutako arrazoiak.

### Kexa bukatuak eta biderapenean daudenak. Toki Administrazioa

	Biderapenean Bukatuak		Kexaduna zuzen	Kexaduna oker
Ingurugiroa	19	22	14	8
Hirig. eta Etxeb.	21	31	9	22
F. P. eta Adm. Antol.	20	23	9	14
Herrilanak eta Zerb.	16	4	3	1
Ogasuna	6	16	2	14
Herrizaingoa	10	17	5	12
Osasuna eta Giz. Ong.	4	10	3	7
Hezkuntza	1	2	1	1
Kultura eta Elebit.	2	-	-	-
Nek., Ind., Merk., Tur.	3	2	-	2
Lana eta Giz. Segur.	-	-	-	-
Guztira	102	127	46	81

(Ikus 25. eta 26. diagramak 190. eta 191. orrialdeetan)

## 4.6. ESTADISTIKA SOZIOLOGIKOA

1993. urteko erreklamazioak soziologikoki aztertu eta gero, taldeka egin-dako salaketak gehitu egin direla ondoriozta dezakegu. Pertsona bakarrek aurkeztuen artean, gizonenak emakumeenak baino gehiago izan dira, jaso diren kexen erdiak baino gehiago gizonetzkoen eskariz bideratu baitira.

Sexua	Zenbat	%
Gizonak	441	53,6
Emakumeak	226	27,5
Taldeak	156	18,9

(Ikus 27. diagrama 192. orrialdean)

Euskal Autonomi Elkarteak bi hikuntza ofizialen erabilerari dagokionez, 1993an erakunde honetan aurkeztu diren 823 kexak hartzen baditugu, hamarretik bederatzik gazteleraz egin dira, eta hamarretik bakarra euskaraz. Bi hizkuntzetan idatzitako kexa bakar bat jaso da.

Arartekoak, hiritarrak erreklamazioa egiteko aukeratu duen hizkuntza errespetatu eta hizkuntza berean bideratzen du beti kexa, gure herrialdean hizkuntz normalkuntzarako indarrean dauden legeek agintzen dutena beteaz.

Nolanahi ere, kexak aurkezteko unean gero eta sarrago erabiltzen dela euskara antzematen da, eta horrek aurreko urtealdietan gai honetaz egin genituen gogoetak betetzen ari direla erakusten du.

Hizkuntza	Zenbat	%
Gazteleraz	746	90,7
Euskaraz	76	9,2
Elebrietan	1	0,1

(Ikus 28. diagrama 192. orrialdean)

Azkenik, eta kexak aurkezteko moduari dagokionez, ohizkoena Arartekoarekin idatzizko harremanak izatea da, baina kexa anitz Arartekoaren egoitzara etorri eta ahoz aditzera eman dira, ondorengo taulan ikus daitekeen bezala.

Aurkezpena	Zenbat	%
Ahoz	194	23,6
Idatziz	629	76,4

(Ikus 29. diagrama 193. orrialdean)

#### 4.7. HIRITARRENTZAKO INFORMAZIO ZERBITZUA

Euskal hiritarrek zerbitzu horri ematen dioten erabilera finkatu egin zela genion iazko txostenean. Eta gauza hori bera frogatzen dute 1993. urteari dagozkion datuek.

Aurten 416 bisita hartu dira Arartekoan, hilean %34,6, beraz. Horietatik guztietatik 178, %42,79, lege-arauzko kexa bilakatu ziren. Gainontzekoei dagokienez, Arartekoaren eskumenetik kanpo geratzen zirela esan behar da eta, beraz, ezin ziren kexa bezala bideratu, edo agiri gehiago eskuratu behar zituzten, edo bisita-arrazoia ireki genien kexa-espeditentaren egoera jakitea besterik ez zen.

Jasotako bisita gehienak, %75, bakarrik etorri dira, eta gainontzeko %25a beste pertsona batekin. Guztira, 567 pertsona etorri dira zerbitzu honetara; horietatik %60 gizonak izan dira eta %40 emakumeak.

#### Erakundeak jasotako bisitak

	Zenbat	%
Banaka	310	75
Taldeka	106	25
Guztira	416	100

(Ikus 30. diagrama 194. orrialdean)

## Etorri den jende kopurua

	Zenbat	%
Gizonak	342	60
Emakumeak	225	40
Guztira	567	100

(Ikus 31. diagrama 195. orrialdean)

Pertsona horien adinari dagokionez, erakundera bakarka etorri diren gehienak gazteak (23 urtetik beherakoak) edo adinekoak (60 urtetik gorakoak) izan dira, bi talde horiek batera %20 osatuz. Gainontzeko %80a bi adin multzoen (24-59) artekoek osatu dute, eta horien artean gehienak 35 eta 46 urte bitartekoak izan dira, guztien %34,6ra iritsiz, ondoko taulan ikus daitekeen bezala.

## Pertsonen sailkapena adin taldeen arabera

Adina	Zenbat	%
23 urte arte	31	5,3
24 - 34	121	21,4
35 - 46	196	34,6
47 - 59	138	24,4
60 edo gehiago	81	14,3
Guztira	567	100

Erakundeari egindako bisita edo kontsulta batzuk euskaraz burutu dira, eta hizkuntza horretan izan dira hiritar horiekiko ahozko harremanak. Erreklamazioa idatziz egiterakoan, ordea, askok gaztelera erabiltzea nahiago izan dute eta, ondorioz, informazio zerbitzu honetan gaztelerez egin diren kontsultak euskaraz egindakoak baino gehiago izan dira.

Bisiten kopuruen banaketa ez da berdina urte sasoi guztietan; nahiko neurrizkoa bada ere, maiatzean eta azaroan gehiago egiten dira eta, noski, abuztuan beherapen handia izaten dute.

## Bisiten banaketa hilabetez hilabete

Urtarrila	32
Otsaila	38
Martxoa	33
Apirila	25
Maiatza	49
Ekaina	39

Uztaila	30
Abuztua	12
Iraila	44
Urria	30
Azaroa	51
Abendua	33

---

Guztira	416
---------	-----

---

(Ikus 32. diagrama 196. orrialdean)

Bisita horien jatorri geografikoari dagokionez, berriro azpimarratu behar da Ararteko Erakundea Gasteizen egoteak daukan eragina. Horrela, bisiten %62 hiri horretakoak izan dira, beraz bisita guztien %91 arabarrek egin dituzte.

Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoatik eta Bizkaitik bisita kopuru bera jaso da, alegia, %16 bakoitzetik, eta Arabatik, berriz, %68, lurralde horrek Euskal Autonomi Elkarteko biztanleen %13a besterik hartzen ez duela kontuan harturik.

### Bisitarien jatorria lurralde historikoen arabera

	Zenbat	%
Araba	285	68,6
Bizkaia	65	15,6
Gipuzkoa	65	15,6
Beste batzuk	1	0,2
Guztira	416	100

(Ikus 33. diagrama 197. orrialdean)

Hau da herrien araberako banaketa:

### Bisitarien jatorria udalen arabera

#### Araba

Vitoria-Gasteiz.....	257	%90
Iruña de Oca .....	3	
Llodio.....	3	
Amurrio.....	2	
Berantevilla.....	2	
Campezo.....	2	
Cigoitia.....	2	
Leza.....	2	
Aramaio.....	1	
Arraia-Maeztu.....	1	



Artziniega .....	1
Asparrena .....	1
Ayala .....	1
Cripán .....	1
Elburgo .....	1
Iruraiz-Gauna .....	1
Laguardia .....	1
Lantaron .....	1
Peñacerrada .....	1
Samaniego .....	1

---

Guztira .....

285

### Bizkaia

Bilbao .....	27	%41,5
Getxo .....	7	
Barakaldo .....	6	
Durango .....	5	
Basauri .....	4	
Portugalete .....	4	
Bermeo .....	3	
Ermua .....	2	
Abadiño .....	1	
Galdakao .....	1	
Gatika .....	1	
Leioa .....	1	
Orozko .....	1	
Valle de Trápaga-Trapagaran .....	1	
Zaldibar .....	1	

---

Guztira .....

65

### Gipuzkoa

Donostia-San Sebastián .....	15	23%
Eibar .....	11	
Arrasate .....	8	
Tolosa .....	6	
Elgoibar .....	3	
Ordizia .....	3	
Beasain .....	2	
Bergara .....	2	
Mutriku .....	2	
Zarautz .....	2	
Astigarraga .....	1	
Hondarribia .....	1	

Irún .....	1
Lazkao.....	1
Legazpi.....	1
Mendaro.....	1
Oñati.....	1
Pasaia.....	1
Renteria.....	1
Soraluce-Placencia de las Armas .....	1
Zegama .....	1

Guztira.....65

### Beste batzuk

Miranda de Ebro (Burgos).....1

Administrazioaren kontra aurkeztu diren kexen %75 inguru Euskal Administrazio Publikoaren kontrakoak izan dira eta %6 bakarrik Estatuko Administrazioaren aurkakoak. Azaldu diren arazoen %15 ezin izan dira onartu norbanakoen arteko auziak zirelako edo justizi epaitegien aurrean jada aurkeztuta zeudelako. Azkenik, bisita batzuen (%6) arrazoiak, beraiek aurkeztu kexei buruzko espedienteen egoera ezagutzea izan da.

	Zenbat	%
- Euskal Adm. publikoaren aurka	301	73
- Onartu ez direnak	63	15
- Beste administrazio batzuk	26	6
- Esped. biderapen egoerari buruzko kontsulta	26	6
Guztira	436	100

Euskal Administrazioarekin zerikusia dutenen artean, kexa-arrazoiak oso ezberdinak izan dira ondorengo taulan ikus daitekeen bezala; halere hiru alor nabarmentzen dira, guztien ia erdia osatuz (%48): Funtzio Publikoa, Gizarte Ongizatea eta Hirigintza eta Etxebizitza.

Kopuruaren arabera (guztien %19), bigarren lekuan beste bi sail hauek daude: Ogasuna eta Herrizaingoa.

Hirugarren multzo batean Hezkuntza eta Industria, Merkataritza eta Turismoa (guztien %11) daude, eta gainontzekoa portzentaia txikietan banatzen da. Justiziari buruzkoak azpimarratzekoak dira, iazkoekin alderatuz dexente gehitu direlako.

## Bisita-arrazoiak sailez sail

### Euskal Administrazioa

Saila	Zenbat
Funtzio Publikoa	52
Osasuna eta Gizarte Ongizatea	48
Hirigintza eta Etxebizitza	45
Ogasuna	31
Herrizaingoa	26
Nekaz., Indus., Merka. eta Turis.	23
Hezkuntza	16
Ingurugiroa	10
Kultura eta Elebitasuna	6
Herrilanak eta Zerbitzuak	5
Beste batzuk	11
Lanbide-bazkunak	5
Justizia	23
<b>Guztira</b>	<b>301</b>

(Ikus 34. diagrama 198. orrialdean)


Estatuko Administrazioa eragiten dutenak, berriz, hauek izan dira:

### Estatuko Administrazioa

	Zenbat
Gizarte Segurantza eta Estatuaren gozamen-saridunak.....	13
Garraioak eta Komunikabideak .....	4
Soldadutza .....	3
Ogasuna .....	2
Beste batzuk.....	4
<b>Guztira .....</b>	<b>26</b>

Amaitzeko, joan den urteko txostenean esaten zen bezala, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren SOS-Deiak larrialdietarako arreta-zerbitzuak jardunean dirau 088 telefono zenbakiaren bidez. Noizbehinka erabiltzen da zerbitzu hori, baina, halere, hiritarrak premia larria daukanean bertara jotzeko aukera bermatuta dago.

IDAZKIEN BANAKETA HILABETEZ HILABETE  
URTARRILAK 1-ABENDUAK 31 BITARTEKO ALDIAN




SARRERAK	252	338	420	291	350	341	311	131	338	420	499	337
IRTEERAK	218	310	367	301	382	310	269	126	260	247	415	225

SARRERAK    
  IRTEERAK

1. DIAGRAMA


## JASOTAKO KEKAK



\* Ikus oharra IV. atalean, 144. orrialdean

2. DIAGRAMA


KEXEN EGOERA ONARPEN PROZEDURAREN ONDOREN



3. DIAGRAMA


EZEZTUTAKO KEXEN BANAKETA

ERAKUNDEAREN ESKUMENETIK  
KANPOKOAK



4. DIAGRAMA


EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN  
 AURKAKO KEXAK SAILEZ SAIL BANATURIK



5. DIAGRAMA




ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO BANAKETA




6. DIAGRAMA

FORU ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO  
BANAKETA




7. DIAGRAMA

KEXEN BANAKETA ARABAN UDALEZ UDAL




8. DIAGRAMA

KEXEN BANAKETA BIZKAIAN UDALEZ UDAL




9. DIAGRAMA

KEXEN BANAKETA GIPUZKOAN UDALEZ UDAL




10. DIAGRAMA

EUSKO JAURLARITZAREN AURKAKO  
KEXAK SAILEZ SAIL BANATURIK




11. DIAGRAMA

FORU ADMINISTRAZIOEN AURKAKO KEXAK  
SAILEZ SAIL BANATURIK



12. DIAGRAMA


TOKI ADMINISTRAZIOAREN AURKAKO KEXAK  
SAILEZ SAIL BANATURIK



13. DIAGRAMA



KEXEN JATORRIAREN ARABERAKO LURRALDE BANAKETA



1989

1990


1991

1992

1993

14. DIAGRAMA



KEXEN BANAKETA LURRALDE BAKOITZEAN



HIRIBURUA    
  BESTE UDALAK

15. DIAGRAMA



KEXEN JATORRIAREN ARABERAKO  
LURRALDE BANAKETA 10.000 BIZTANLEKO



16. DIAGRAMA

ONARTURIKO KEXEN EGOERA


BUKATUAK  
295



BIDERAPENEAN  
243


17. DIAGRAMA

BUKATUTAKO KEXEN BANAKETA EMAITZAREN  
ARABERA




18. DIAGRAMA

BUKATUTAKO KEXEN ETA BIDERAPENEAN  
DAUDENEN BANAKETA SAILEZ SAIL




19. DIAGRAMA

BUKATUTAKO KEXEN BANAKETA  
SAILEZ SAIL EMAITZAREN ARABERA



20. DIAGRAMA


EUSKO JAURLARITZAKO ADMINISTRAZIOA:  
 BUKATUTAKO KEXEN ETA BIDERAPENEAN DAUDENEN  
 BANAKETA SAILEZ SAIL



21. DIAGRAMA




EUSKO JAURLARITZAKO ADMINISTRAZIOA: BUKATUTAKO KEXEN ETA BIDERAPENEAN DAUDENEN BANAKETA SAILEZ SAIL EMAITZAREN ARABERA




22. DIAGRAMA

FORU ADMINISTRAZIOAK: BUKATUTAKO KEXEN ETA BIDERAPENEAN DAUDENEN BANAKETA SAILEZ SAIL




23. DIAGRAMA

FORU ADMINISTRAZIOAK: BUKATUTAKO KEXEN  
BANAKETA SAILEZ SAIL EMAITZAREN ARABERA




24. DIAGRAMA

TOKI ADMINISTRAZIOA: BUKATUTAKO KEXEN  
ETA BIDERAPENEAN DAUDENEN BANAKETA  
SAILEZ SAIL




25. DIAGRAMA

TOKI ADMINISTRAZIOA: BUKATUTAKO KEXEN BANAKETA  
 SAILEZ SAIL EMAITZAREN ARABERA




26. DIAGRAMA

### KEXEN BANAKETA KEXADUNAREN ARABERA




27. DIAGRAMA

### KEXEN BANAKETA HIZKUNTZAREN ARABERA




28. DIAGRAMA

KEXAK AURKEZTEKO MODUA



29. DIAGRAMA

ERAKUNDEAK JASOTAKO BISITAK





30. DIAGRAMA



ETORRI DEN JENDE KOPURUA


GIZONEZKOAK  
342



EMAKUMEZKOAK  
225


31. DIAGRAMA

BISITEN BANAKETA HILABETEZ HILABETE




32. DIAGRAMA

BISITARIEN JATORRIA  
LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA



33. DIAGRAMA

BISITA-ARRAZOIAK SAILEZ SAIL  
EUSKAL ADMINISTRAZIOA



34. DIAGRAMA

V. ATALA

**ADMINISTRAZIOAREN SAIL  
BATZUEK ARGIBIDEAK EPE  
BARRUAN EZ EMATEARI EUSTEA**

Otsailaren 27ko 3/85 legeak 24. artikuluan dioenez, enpresa ordezkari edo moduren batean administrazio kontrolpean dagoen enpresa bateko funtzionari, agintari eta langile edo arduradunek erakundearen ikerketa-lanari trabak jartzen badizkiote, edo Arartekoari espedienteak edo administrazio-agiriak ikusteko eskubidea galerazten badiote, Arartekoak bere urteko txostenean eta dagokion atalean jokabide horiek aipatu ahal izango ditu.

Horren antzeko zerbait adierazten da xedapenean Arartekoaren gomendioak aintzat hartu ez, eta ondorioz neurririk hartzen ez den kasuetarako.

Jarraian aipatzen dira 1993. urtealdian Ararteko honen informazio-eskariei erantzuteko legezko betekizuna ahaztu duten erakundeak, eta jokabide horrek eragin dituen eskaera ezberdinak ere jasotzen dira.

Oro har esan dezakegu, aurreko urteetakoarekin erkatuz, 1993. urtealdian administrazio publikoek arras hobetu dutela argibideak emateko jarrera eta, beraz, baieztatu dezakegu eragindako funtzionari eta erakundeek zuzen eta errespetu osoz erantzun dietela erakunde honetatik egin zaizkien argibide-eskariei.

Azkenik, puntu bat argitu behar da: ondorengo zerrendan administrazio batzuk erantzun gabeko kexa batekin edo gehiagorekin azaltzeak ez du esan nahi beste zenbaitetan erantzun ez dutenik.

Halere, aipatu behar da arrazoirik gabeko luzamenduak egon direla, jarraian azaltzen dugun zerrendan jaso ditugunak, eta horiengatik espedienteen biderapen eta ebazpenetan atzerapen handiak gertatu direla. Horrela, udalak izan dira argibideak eman nahi ez izateagatik eskabide gehien eragin dituzten erakundeak.

Jarraian azaltzen diren zerrendetan, lehen data eskabide-ofizioa bidali zen lehenbiziko aldiari dagokio. Parentesi artean azaltzen den zenbakiak eskabidea zenbat aldiz egin zaion adierazten du, eta ondoren azaltzen diren datak beste eskabideei dagozkie. E eta B laburdurek, berriz, hurrenez hurren, espedientea bideratzen ari den edo bukatua dagoen adieratzen dute.

## 5.1. ARARTEKOAK ESKATU INFORMAZIOA ESKURATZEKO, ERREKERIMENDU-IDATZIA BIDALI BEHAR IZAN ZAIEN ADMINISTRAZIO SAILAK

### A) Eusko Jaurlaritza

#### Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

##### *Kabinete Teknikoko Zuzendaria*

- 103/93 - E - Irakasleen partaidetza "ORIXE esperientzia"n.  
1993-07-12 (1) 1993-10-07
- 110/93 - E - Beste azterketa bat egiteko eskaria ukatzea.  
1993-04-06 (1) 1993-05-21
- 448/93 - B - Arazoa EGA azterketaren inguruan.  
1993-08-10 (1) 1993-10-05
- 465/93 - B - Musika irakaskuntza berrietako oinarrizko lehen bi ikasturteak emateko baimenik eza.  
1993-09-09 (1) 1993-10-05

#### Ekonomia eta Ogasun Saila

##### *Finantzen burua*

- 567/93 - E - Administrazioaren isiltasuna.  
1993-09-16 (1) 1993-10-05

#### Industria eta Energia Saila

##### *Zerbitzu Orokorren Zuzendaria*

- 516/93 - B - Administrazioaren isiltasuna.  
1993-08-20 (1) 1993-10-05

#### Hirigintza eta Etxebizitza Saila

##### *Zerbitzuen Zuzendaria*

- 374/93 - B - Babespeko etxebizitza eskariaren ebazpenaren kontra.  
1993-07-29 (1) 1993-09-13

## **Osasun Saila**

### *SVS-Osakidetzako Zuzendari Nagusia*

- 11/93 - B - Administrazioaren zigor-espedientea prentsa idatziari jakinaraztea.  
1993-02-16 (1) 1993-04-03
- 44/93 - B - Medikuntza-informazio eskaria.  
1993-04-02 (1) 1993-05-14

## **Euskal Herriko Unibertsitatea**

### *Euskal Herriko Unibertsitateko Errektorea*

- 229/93 - B - "Analisiak" ikasgaiaren inguruko arazoak.  
1993-04-22 (1) 1993-05-21
- 266/93 - E - Matrikula berrikusteko eskaria.  
1993-09-10 (1) 1993-12-15

## **B) Foru Diputazioak**

### **- Arabako Foru Diputazioa**

## **Gizarte Ongizate Saila**

### *Gizarte Ongizateko Zuzendaria*

- 46/93 - B - ASPACEn ezinduei emandako tratua.  
1993-04-07 (1) 1993-05-06

## **Nekazaritza eta Izadiguneen Saila**

### *Nekazaritza eta Izadiguneen Diputatua eta Bozeramalea*

- 368/93 - B - Administrazioaren isiltasuna.  
1993-07-15 (1) 1993-10-05

## **- Gipuzkoako Foru Diputazioa**

### *Diputatu Nagusia*

- 361/93 - B - Elebitasuna zigor batean.  
1993-09-30 (1) 1993-11-09



## Ogasun eta Finantzen Saila

### *Ogasun eta Finantzen Zuzendaria*

124/93 - 139/93 - 330/93 - 479/93 - E -  
Mugako langileen zerga-ordainketa.  
1993-03-22 (1) 1993-10-29

## Gizarte Zerbitzuen Saila

### *Gizarte Zerbitzuen Diputatua*

481/93 - E - Egoitza baterako postu-eskaria.  
1993-10-08 (1) 1993-11-10

## C) Udalak

### - Araba Lurralde Historikoa

#### *Artziniegako Alkatea*

283/3 - E - Hirigintza-lanik eta udalaren ur eta zabor zerbitzurik eza.  
1993-05-21 (1) 1993-06-14

#### *Gasteizko Alkatea*

- 40/93 - B - Garajeetarako sarbideetan akatsak.  
1993-02-16 (1) 1993-03-25
- 84/93 - E - Lurzati bat argindartzearen kontra.  
1993-09-09 (1) 1993-10-05
- 130/93 - E - TAO txartela.  
1993-05-10 (1) 1993-06-11
- 201/93 - B - Ibiak ixtea. †  
1993-04-21 (1) 1993-05-21
- 214/93 - B - Trenbide azpian tunela eraikitzeko udal-egitamuaren kontra.  
1993-05-13 (1) 1993-06-11
- 429/93 - B - Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga oker ezartzea.  
1993-07-26 (1) 1993-09-27
- 598/93 - B - Administrazioaren isiltasuna.  
1993-09-22 (1) 1993-10-19
- 602/93 - E - Eskultura bat kentzeko eskaria.  
1993-09-21 (1) 1993-11-09

*Kripango Alkatea*

58/93 - B - Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.  
1993-06-11 (1) 1993-07-29

*Leciñana del Camino-ko Administrazio Batzarraren Presidentea*

351/93 - E - Hondakin toxikoak herritarrek erabiltzeko espazioan.  
1993-07-29 (1) 1993-11-12

**- Bizkaia Lurralde Historikoa**

*Abanto-Zierbenako Alkatea*

87/93 - E - Administrazioaren isiltasuna.  
1993-03-26 (1) 1993-05-06

*Alonsotegiko Alkatea*

307/93 - B - Jarduera gogaikarriak.  
1993-05-17 (1) 1993-06-14

*Basauriko Alkatea*

484/93 - B - Jarduera gogaikarriak.  
1993-07-29 (1) 1993-10-05

*Bilboko Alkatea*

123/93 - B - Jarduera gogaikarriak.  
1993-03-26 (1) 1993-04-23

288/93 - B - Jarduera gogaikarriak.  
1993-05-21 (1) 1993-06-11

347/93 - B - Haurtzaindegi jarduerarako lizentziako baldintzak ez bete-  
tzea.  
1993-08-04 (1) 1993-09-15

417/93 - B - Osasun-zentruaren kokapenaz.  
1993-08-11 (1) 1993-10-15

578/93 - E - Araugabekeriak obrak burutzean prozesuan.  
1993-09-17 (1) 1993-10-19

*Getxoko Alkatea*

303/93 - E - Administrazioaren isiltasuna.  
1993-06-04 (1) 1993-07-29

342/93 - E - Jarduera gogaikarriak.  
1993-08-04 (1) 1993-09-13

356/93 - B - Jarduera gogaikarriak.  
1993-06-04 (1) 1993-09-15

*Ondarroako Alkatea*

- 7/93 - B - Jarduera gogaikarriak.  
1993-02-01 (1) 1993-03-03  
577/93 - B - Jarduera gogaikarriak.  
1993-09-09 (1) 1993-10-05

*Santurtziko Alkatea*

- 566/93 - E - Jarduera gogaikarriak.  
1993-09-03 (1) 1993-10-05

*Sestaoko Alkatea*

- 23/93 - B - Jarduera gogaikarriak.  
1993-07-12 (1) 1993-09-15

**- Gipuzkoa Lurralde Historikoa**

*Donostiako Alkatea*

- 386/93 - E - Administrazioaren isiltasuna.  
1993-06-18 (1) 1993-07-30  
571/93 - E - Parke eta Lorategietarako Teknikari postua betetzea.  
1993-09-07 (1) 1993-10-06

*Lasarte-Oriako Alkatea*

- 261/93 - B - Zirkulazioaren gaineko udal-zerga.  
1993-06-18 (1) 1993-07-29

**D) Bazkun-administrazioak**

*Bizkaiko Abokatuen Bazkuneko Dekanoa*

- 137/93 - B - Aurkeztutako idatziei ez erantzutea.  
1993-03-26 (1) 1993-04-23

## 5.2. ARARTEKOAK ESKATU INFORMAZIOA ESKURATZEKO, ERREKERIMENDU-IDATZIA BI BIDER BAINO GEHIAGOTAN BIDALI BEHAR IZAN ZAIEN ADMINISTRAZIO SAILAK

### A) Eusko Jaurlaritza

#### Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

##### *Kabinete Teknikoko Zuzendaria*

450/93 - B - Nekazal eskualde edo etekin gutxi ematen duten aldeetako zinema aretoentzako laguntzak kentzea.  
1993-08-25 (2) 1993-10-05 / 1993-11-09

#### Osasun Saila

##### *SVS-Osakidetzako Zuzendaria*

34/93 - B - Osagarri berezia ordaintzeko eskaria.  
1993-02-05 (2) 1993-03-25 / 1993-04-23

#### Euskal Herriko Unibertsitatea

##### *Euskal Herriko Unibertsitateko Errektorea*

507/93 - E - Unibertsitateko argitalpen zerbitzurako lanak esleitzeko hautaketa-prozeduran Unibertsitateak jarraitutako bidea.  
1993-08-16 (2) 1993-10-05 / 1993-11-09

##### *Idazkari Nagusia*

60/93 - E - Unibertsitateko Irakasleentzako postuak betetzeko deialdia, EHAAn argitaturikoa.  
1993-02-11 (4) 1993-03-25 / 1993-04-07 /  
1993-05-06 / 1993-06-14

#### Ekonomia eta Ogasun Saila

##### *Finantzen Zuzendaria*

352/93 - E - Administrazioaren isiltasuna.  
1993-09-16 (2) 1993-10-05 / 1993-11-09

353/93 - E - Trafiko-isuna premiabidez jakinaraztea.  
1993-06-11 (3) 1993-09-13 / 1993-10-05 /  
1993-11-09

399/93 - E - Administrazioaren isiltasuna.  
1993-09-16 (2) 1993-10-05 / 1993-11-12

477/93 - E - Trafiko-isuna premiabidez jakinaraztea.  
1993-09-16 (2) 1993-10-05 / 1993-11-09

#### *Zerbitzuen Zuzendaria*

506/93 - E - Lan-kontrataziorako eskaintza publikoa.  
1993-09-03 (2) 1993-10-05 / 1993-11-08

### **B) Udalak**

#### **- Araba Lurralde Historikoa**

##### *Gasteizko Alkatea*

85/93 - B - Administrazioaren isiltasuna.  
1993-07-29 (2) 1993-09-15 / 1993-10-05

284/93 - E - Administrazioaren isiltasuna.  
1993-08-16 (2) 1993-10-19 / 1993-11-12

#### **- Bizkaia Lurralde Historikoa**

##### *Bilboko Alkatea*

122/93 - E - Balio-gehitzeagatik bidalitako kitapenaren kontra.  
1993-06-18 (2) 1993-07-30 / 1993-09-15

##### *Getxoko Alkatea*

24/93 - B - Gas kontagailuak ezartzeko baimena ematea.  
1993-03-08 (2) 1993-04-27 / 1993-05-21

215/93 - B - Trafiko-isuna.  
1993-04-22 (2) 1993-05-21 / 1993-06-14

##### *Urtuellako Alkatea*

97/93 - E - Administrazioaren isiltasuna.  
1993-06-25 (2) 1993-09-15 / 1993-11-12

#### **- Gipuzkoa Lurralde Historikoa**

##### *Irungo Alkatea*

6/93 - B - Jarduera gogaikarriak.  
1993-02-01 (2) 1993-02-25 / 1993-03-23

5.3. **ARARTEKOAREN EBAZPENARI ZER DERITZOTEN JAKITEARRREN, ERREKERIMENDU-IDATZIA BIDALI BEHAR IZAN ZAIEN ADMINISTRAZIO SAILAK**

A) **Eusko Jaurlaritza**

**Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila**

*Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailburua*

250/93 - E - Dirubidezko neurriak etxebizitza arloan.  
1993-06-25 (2) 1993-10-29 / 1993-12-10

B) **Foru Diputazioak**

– **Bizkaiko Foru Diputazioa**

**Gizarte Ongizate Saila**

*Gizarte Ongizateko Diputatua*

383/93 - 404/93 - E -  
Gizarteratzeko Gutxieneko Irabazbide eskaria atzerapenez ebaztea.  
1993-09-16 (1) 1993-11-19

C) **Udalak**

– **Bizkaia Lurralde Historikoa**

*Ondarroako Alkatea*

200/93 - B - Araugabekeriak udal polikiroldegiaren eraentzan.  
1993-07-12 (2) 1993-10-15 / 1993-11-17

*Portugaleteko Alkatea*

69/93 - B - Trafiko-isuna.  
1993-04-30 (1) 1993-06-04

*Uren eta Horniduren Partzuergoko Presidenteak*

270/93 - E - Elektromekanika eta gidari lanetarako bigarren mailako ofizial postuetan sartzeko deialdia.  
1993-10-25 (1) 1993-12-10

– Gipuzkoa Lurralde Historikoa

*Donostiako Alkatea*

- 83/93 - B - Ibilgailua udal garabiak erretiratzea.  
1993-07-12 (1) 1993-10-07
- 473/93 - E - Jarduera gogaikarriak.  
1993-09-17 (2) 1993-11-12 / 1993-12-10

*Hondarribiko Alkatea*

- 121/93 - E - Jarduera gogaikarriak.  
1993-05-17 (2) 1993-11-12 / 1993-12-10

*Mendaroko Alkatea*

- 240/93 - B - Herri-bidean eskailerak eraiki izana.  
1993-07-29 (1) 1993-10-07

VI. ATALA

**ARARTEKOAK EGINDAKO  
GOMENDIOAK BETETZEAZ**



Erakunde hau sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legeak 14. artikuluan Arartekoari ez dio baimenik ematen berak aztertzen dituen organuek ebatzitako ekintzak ezeztatu, baliogabetu edo aldatzeko.

Aldiz, 3/85 legeko 11. b) artikulua araberan, organu eskudunei, funtzionarioei edo horien buru egiten dutenei gomendioak egiteko edo legezko betekizunak gogorarazteko ahalmena izango du, jokabide okerrak edo legezkanpokoak zuzentzearen edo Administrazioaren zerbitzuak hobetu asmoz.

Arartekoak, ordea, legeak zuzen bete arren Administrazioaren egite edo ebazpenak ondorio bidegabeak, okerrak, arrazoigabeak edo agian bereizleak izaten dituzten kasuetan, ebazpen horietarako erabili dituen irizpideak aldatze-ra bultza dezake Administrazioa.

Era berean, kekak egoki eta bizkor ebazteko adiskidetasun edo akordio bideak proposa ditzake.

Esan den bezala, erakunde honetatik bidalitako ebazpenek behartze-indarrik ez badute ere, eta, horregatik, jasotzen dituzten administrazio publikoek horiek onar edo bazter ditzaketen arren, nolana ere, Legebiltzarraren ordezkari den neurrian, Arartekoak horri jakinarazi behar dio zenbateraino bete diren ala ez bere gomendioak, eta baita horien edukia eta izaera ere.

Beraz, atal honetan Euskal Herriko administrazio ezberdinek Arartekoaren gomendioei eman dizkieten erantzunak jasotzen dira, onartu direnak, onartu ez direnak eta erantzunik gabe jarraitzen dutenak bereiziz.

## A) Eusko Jaurlaritza

### **Lehendakaritza, Araubide Juridiko eta Autonomi Garapenerako Saila**

*Lehendakaritza, Araubide Juridiko eta Autonomi Garapenerako Sailburua*

341/93 - Gozamen-eskubideak eskatzeko epea.

Edukia: Ekainaren 22ko 11/1993 legean eta urriaren 2ko 11/1993 legean aitortzen den bezala, Euskal Herriko Administrazio Autonomoari zuzentzen zaizkion lanbide eta gozamen eskubideak jasotzeko eskariak egiteko dauden epeak kentzeko

beharrezko neurriak hartzea. Eskari-epea ez dadila itxi, eta epez kanpo aurkezteagatik kanpoan utzitakoak berariz bidera daitezela. Onartua.

## Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

### *Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua*

- 598/92 - Ikasketa ez-unibertsitarioetako beka deialdian iragarritako laguntza osagarriak ukatu izana.  
Edukia: Beren irabaziek ezarritako mailak gainditzen ez badituzte, beren kontura lan egiten duten langileei laguntza osagarriak jasotzeko aukera ematea. Onartua.
- 414/93 - Funtzionarioek euskarazko ikastaroetan parte hartzeko baldintzak.  
Edukia: Trebaketa ikastaroetan parte har dezaketenei, adinagatik hizkuntz eskakizunak betetzetik libre geratzeko eskaria ez egiteko ardura eskatzea bidegabea da. Onartua.

### *Kabinete Teknikoko Zuzendaria*

- 116/92 - 117/92 - 119/92-  
Lurralde historikoeek eskuratutako langilegoari soldata osagarria ukatzea.  
Edukia: Ordainsari osoa ordaintzea behin-behineko osagarri pertsonal baten bidez. Onartua.
- 437/93 - Ikastetxeetako zuzendari taldeen hizkuntz gaitasuna.  
Edukia: Otsailaren 19ko Euskal Eskola Publikoari buruzko 1/1993 Legean V. atalean egiten den garapenean, ikastetxeko zuzendariak zuzendaritza taldeko zenbat partaide (ikasketaburua eta idazkaria) izendatzeko daukan ahalmenari muga batzuk ezartzea zuzendaritza taldearen hizkuntz gaitasuna bermatzeko, hezkuntz eredu desberdinak dauzkaten ikastetxeetan hizkuntz normalkuntzarako ezinbesteko baldintza gisa. Onartua.
- 549/93 - Ikasle batek eragindako kalteak ordaindu nahi ez izana.  
Edukia: Eskola-orduetan eragiten diren kalteak ordain daitezela. Onartua.
- 711/93 - Irakaskuntzako bigarren mailan irakasle lanetarako hautaprobeetan merezimenduak balioztatzea.  
Edukia: Eskola-Kontseiluan irakasleen ordezkari gisa igarotako eta behar bezala egiaztaturiko urteak baliozta daitezela. Ebatzi gabe.

## Osasun Sails

### *SVS-Osakidetzako Zuzendari Nagusia*

- 378/92 - Funtzio publikoan sartzeko probetan eta Administrazioarekin izan beharreko harremanetan euskara erabiltzeko eskubidea.  
Edukia: Administrazio errekurtsio baten ebazpen zehatza hautagaiak aukeratutako hizkuntzan ematea.  
Norgehiagoka-probetan euskara erabiltzeko bitartekoak jar daitezela. Onartua.
- 693/92 - Unibertsitateko kargu batean bete-beteko jardunean zegoen bitartean lanpostura ez joateagatik irekitako espedientearen kontra.  
Edukia: Espedientea indarrrik gabe utz dadila, lanpostuan ez egoteko arrazoiak zeuzkalako. Ez onartua.
- 277/93 - Deialdiko oinarri-arauak bete ez izana.  
Edukia: Lanpostuaren esleipena deialdian ezarritako baldintzen arabera bete dadila. Onartua.
- 280/93 - Postuak aukeratzeko sisteman hutsegitea.  
Edukia: Postuak aukeratzeko ahalik eta informaziorik argiena ematea. Onartua.

## Nekazaritza eta Arrantzu Sails

### *Nekazaritza eta Arrantzu Sailburua*

5/93 - 15/93-

Nekazal elkarteei dirulaguntzak emateko irizpideak.  
Edukia: Aurrerantzean dirulaguntzak emateko irizpideak finantzatzea, berdintasun eta askatasun sindikalaren irizpideak osoki errespetatuz, erakunde batean edo bestean sartzeko aukera egitera doazenean, horrek nekazariengan inolako eraginik izan ez dezan bermatzeko. Onartua.

## Garraio eta Herrilan Sails

### *Eusko Trenbideak-eko Presidente*

- 294/92 - Eusko Trenbideak erakundearen 17/89 zirkularraren kontra.  
Edukia: "Autobusetan tolestatzen ez diren ume-kotxeak sartzeko debekatu egingo da, eta tolestagarriak, bilduta sartu beharko dira" dioen 17/89 zirkularra aldatzea, bereizkeriarik egin ez dadin. Eta zirkularra aldatzen ez den bitartean, Urolako autobusen izaera bereziagatik ume-kotxeak inolako bereizketarik egin gabe sartzeko aukera uztea. Ez onartua.

## **Euskal Herriko Unibertsitatea**

### *Euskal Herriko Unibertsitateko Errektorea*

414/92 - 439/92 - 272/93-

Postuak esleitzeko arrazoirik eza.

Edukia: Postuen esleipenak arrazoitzeko premia eta ezarritako errekurtsioak atzera botatzeko arrazoiak ematea. Ez onartua.

652/93 - Administrazioaren isiltasuna.

Edukia: Hiritarrek egiten dituzten eskari guztiei erantzun zehatza ematea. Ebatzi gabe.

### *Antolamendu Akademiko eta Irakaslegoaren Errektoreordea*

360/93 - Matrikula baliogabetu ondoren irakaskuntza-tasak itzuli nahi ez izatea.

Edukia: Informazio inprimakietan eta "Ikaslearen Gida"n aurreinskripzioa unibertsitate bat baino gehiagotan egiten denean, behin-behineko matrikula egiteko bidea badagoela adieraztea, Errektoregoak egoki ikus dezakeen beste bide bat ere baztertu gabe, erakunde honek aurkitu dituen arazoan antzekoei aurre egiteko helburuaz. Ebatzi gabe.

## **Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila**

### *Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailburua*

250/93 - Sustatzaileei finantziazio publikoa etxebizitza erosteko.

Edukia: Sustatzaile pribatuek etxebizitza erosteko finantzazioari buruz 433/91 Dekretuak adierazten duena betetzea. Ebatzi gabe.

### *Etxebizitza Zuzendaria*

204/92 - Obra-baimenarengatik tasan %90eko hobaria ez aitortzea.

Edukia: Obrak egiteko udal baimenean dagokionari %90eko hobaria ezartzeko aukera aintzat hartzea eskatzen da, zerga-hobari hori informazio inprimakietan hutsegite baten ondorioz sartuta egon arren. Onartua.

## **Kultura Saila**

### *Euskal Telebista*

519/93 - Hautaketa prozesu batean parte hartu zuen pertsona bat kanpoan uztea ezartzen ziren baldintza batzuen egiaztagiririk aurkeztu ez zuelako.

Edukia: Agirietan zeuden hutsegiteak konpontzeko aukera jakinaraztea. Ez onartua.

## B) Foru Diputazioak

### – Arabako Foru Diputazioa

#### Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetarako Foru Diputatua*

342/92 - 354/92 - 571/92 - 632/92-

NUIZen aitortenean hartzaindegiko gastuak kendu ezina.

Edukia: Hartzaindegiko gastua egin duten eta gainontzeko baldintzak betetzen dituzten guztiei hori kentzeko eskubidea ematea, ahaidetasun-loturaren izaera bereizi gabe. Ez onartua.

*Ogasun Zuzendaria*

248/93 - 285/93-

NUIZen hartzaindegiko gastuak kentzeko aukera.

Edukia: Datozen urtealdietan, NUIZi dagokionez, aitak ala amak, bietako batek bakarrik irabaziak eduki arren, gastu hori kentzeko eskubidea aitortzea. Ebatzi gabe.

### – Bizkaiko Foru Diputazioa

#### Herrilan Saila

*Herrilanetarako Diputatua*

732/92 - Lurren jabego-kentzea.

Edukia: Bermeoko saihezbidea egiteko desjabetu ziren lurak itzultzeko eskatzen da. Ebatzi gabe.

#### Gizarte Ongizate Saila

*Gizarte Ongizaterako Diputatua*

383/93 - 404/93-

Gizarteratzeko Gutxieneko Irabazbiderako eskarien ebazpena.

Gizarteratzeko Gutxieneko Irabazbiderako eskariak ebazteko denbora ahalik eta laburrena izan dadila, eta ebazpenak aldekoak direnean, berehala ordaintzea jasotzaileari dagokiona, ondorengo kopuruak hilaren amaieran ordaintzen hasiko diren arren. Ebatzi gabe.

452/93- Bizkaian gorputzez larriki elbarrituei arreta egiteko zentrua.

Edukia: Bizkaian gorputzez larriki elbarrituei arreta egiteko postu kopuru bat edukitzeko antolak egin daitezela. Ebatzi gabe.

## **Ogasun eta Finantzak Saila**

### *Ogasun eta Finantzatarako Foru Diputatua*

474/93 - Familiako ezinduen gastuak NUIZetik kentzeko eskubidea.

Edukia: NUIZi buruzko Foru Araudiko 78.1. d) artikuluan iragarritako kenketa norbanakoek egiteko aukera uztea, ezinduarekin edozein ahaidetasun-harreman daukatelarik ere, baita ahaidetasunik ez dagoen kasuan ere, egiaz elkarrekin bizi direla ziurtatzeko beharrezko azterketa guztiak egin daitezkeelarik. Ez onartua.

## **- Gipuzkoako Foru Diputazioa**

## **Ogasun eta Finantzak Saila**

### *Ogasun eta Finantzatarako Foru Diputatua*

300/93 - NUIZen ohizko etxebizitzarengatik egin ohi diren kenketak osorik onartu ez izana.

Edukia: Gipuzkoa Lurralde Historikoko Zergetarako Foru Arau Orokorreko 78.4. b) artikulua ezarriz, erosketaren eskrituratz eta hipoteka gastuak kenduta maileguaren kopuru osoa kentzeko eskubidea aitortzea zergapekoari, Zerga Zuzenen Eraentza Saileko Buruak 1991ko abenduaren 11n emandako ebazpenari jarraiki. Ebatzi gabe.

## **C) Udalak**

### **- Araba Lurralde Historikoa**

#### *Aiarako Alkatea*

554/93 - Biztanle baten etxe parean, aire zabalean belar legorra biltzeko zulo bat jartzearen kontra.

Edukia: Biztanleen osasungarritasuna bermatzeko gutxieneko tarte bat errespetatu dadila. Ebatzi gabe.

#### *Gasteizko Udala*

463/92 - Trafiko-isuna.

Edukia: Autoa gaizki aparkatu eta ibilgailua erretiratzegatik ezarritako isuna kentzea. Ez onartua.

201/93 - Ibiak ixtea.

Edukia: Merkataritza jarduera baterako beste ibi bat edukitzeko aukera berriz azter dezala Udalak. Ez onartua.

- 324/93 - Trafiko-isuna. TAO  
 Edukia: TAO ordenantza hausteagatik ezarritako isuna ezeztatzea eta eragindako aldean TAO dagoela behar bezala adieraztea. Ebatzi gabe.
- 608/93 - Administrazio-isiltasuna lurrazpiko aparkaleku bat ustiatzeko baimenaren tarifak berriro aztertzeko eskari baten aurrean.  
 Edukia: Udalak, zehazki eta arrazoituz erantzun diezaiola enpresaren eskariari. Onartua.

*Gasteizko Udal Urak, E.A.ko Arduraduna*

- 468/92 - Edateko ur hornidura kobratzeko sistema.  
 Edukia: Eraikitzaileak ur-kontagailu berezituentzako egin zuen lekuan jar daitezela aparailu horiek, eta erabiltzaile bakoitzari bere erreziboa bidal diezaiotela, dagokion tasa ordain dezan. Ez onartua.
- 492/93 - AMVISAK ur-hornidurarako hodia konpontzeko edo berria jartzeko emandako aginduaren kontra.  
 Edukia: Hornidurarako hodia kendu eta etxe atarian arketa bat eraiki dadila. Ebatzi gabe.

**- Bizkaia Lurralde Historikoa**

*Bermeoko Alkatea*

- 566/91 - Industriarako hirilurrean jarduera-unitateak banatzearen eta legezkanpoko eraikuntzen kontra.  
 Edukia: Arau subsidiarioak berritzerakoan aldearen antolamendua berriro azter dadila. Ebatzi gabe.

*Bilboko Alkatea*

- 371/92 - Etxebizitza bat erauztea.  
 Edukia: Hondamen-egoeran zegoen etxebizitza botatzean ja-beak galdu zituen ondasunengatik kalteordainezko eskaria. Ez onartua.
- 590/92 - Jarduera gogaikarriak.  
 Edukia: Neurri bermatzaile gisa, legezkanpoko gimnasio jarduera itxi dadila Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Araudian (JGOKAA) finkatutako prozeduraren arabera egoera legezkotu bitartean. Onartua.
- 81/93 - Trafiko-isuna.  
 Edukia: Trafiko hutsegite bategatik ezarritako zigorra atzera bota dadila. Onartua.
- 578/93 - Administrazioaren isiltasuna.  
 Edukia: Herritarrak azaldutako gaiak zehazki ebatzi daitezela. Ebatzi gabe.

## *Ur, Hornidura eta Saneamendurako Partzuergoaren Presidentea*

270/93 - Indarrean dauden xedapenak bete ez izana enplegu publikoa eskaintzeko deialdian.

Edukia: Aurrekontu bidez ordainduko diren postu hutsak betetzeko prozeduran arreta berezia jartzea puntu hauetan:

1. Enplegu publikoaren eskaintza alde aurretik onartzea eta argitaratzea.
2. Lehiaketa-norgehiagorako deialdia eta horren oinarriak dagokien agintaritzea aldizkarian argitaratzea.
3. Azkenik, oinarri horietan, deialdiaren bidez bete asmo diren postuen araubidea adieraztea. Ebatzi gabe.

## *Erandioko Alkatea*

733/91 - Industri-pabilioi bat eraikitzeko emandako baimenaren kontra, ibaitik bost metrora ez zegoelako.

Edukia: Zigor-espeditentea ireki eta berraztertze errekurtsuari erantzutea. Ez onartua.

## *Getxoko Alkatea*

374/92 - Tarifa berriak udal polikiroldegian.

Edukia: Aurretik indarrean zeuden erabilera anitzeko taloitegiei dagokien dirua edo dagozkien erabilerak itzultzea. Onartua.

342/93 - Bilketa jarduera zabaltzeko emandako lizentziaren kontra.

Edukia: Kexadunaren idatziei erantzun diezaietela. Ebatzi gabe.

## *Ondarroako Alkatea*

7/93 - Jarduera gogaikarriak.

Edukia: Taberna baten jabeak bere jarduera lehenbailehen legezkotu dezan eskatzea eta, hori betetzen ez badu, taberna berehala ixtea. Onartua.

200/93 - Araugabekeriak udal polikiroldegi baten eraentzan.

Edukia: Udal polikiroldegiko instalazio batzuk erabiltzeko ordutegia aldatzea. Ebatzi gabe.

432/93 - Jarduera gogaikarriak.

Edukia: Burdinola baten ikuskapen-lanak egin daitezela bere kontra aurkeztu diren salaketak egiazkoak diren jakiteko, eta hala izanez gero, gaur egun burdinolaren jardunak sorrarazten dituen gogaipenak amaitu daitezzen beharrezko neurri zuzentzaileak har ditzan eskatzea jabeari. Onartua.

577/93 - Jarduera gogaikarriak.

Edukia: Indarrean dagoen araudiaren arabera, ibilgailuak konpontzeko tailer jarduera bat itxi dadila, lan horiek burutzeko baimenik ez daukalako eta bere jardunak araugabekeria larriak eragiten dituelako. Ez onartua.



### *Portugaleteko Alkatea*

406/91 - Jarduera gogaikarriak.

Edukia: Etxe-azpi bateko lokal baten jabeari lokala garaje gisa erabil dezan galeraztea baimenik ez daukalako, eta horretarako erabili nahi izanez gero, legezkotu dezala. Onartua.

69/93 - Trafiko-isuna.

Edukia: Ibilgailua mugitu ezinik uzteko bermezko neurria bertan behera uztea. Onartua.

### *Santurtziko Udala*

363/92 - Udalaren jokaera hirigintza-egitamu batean.

Edukia: Ranzadi Parkearen egitamuak eragindako ondasun eta eskubideak desjabetzeko espedientea bultzatzea. Ebatzi gabe.

### *Sestaoko Alkatea*

663/93 - Gehikuntza koefizienteen onarpenaren eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren egoeraren kontra.

Edukia: Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren gutxieneko kuotaren indizea gehitzeko koefizientea piskanaka eta epeka egokitzeko premia, inguruko beste herrien parean jarri arte. Ebatzi gabe.

### *Trapagarango Alkatea*

180/92 - Jarduera gogaikarriak.

Edukia: Alkatetzaren dekretu bidez ibilgailu-garaje baten jabeai jarduera-baimenean ezarrita dauden baldintzak betetzeko hila-beteko epea ematea, horiek bete ezean, garajea behin-behingo itxi egingo dela jakinaraziz. Onartua.

### *Arratiako udalerrien Mankomunitateko Presidentea*

596/93- Arratia Egoitzako Zuzendari posturako sarrera.

Edukia: "Arratiako Egoitza" erakunderako zuzendaria behin-behineko erregimenean kontratatuzeko egindako hautaprobaren ondoren epaimahaiak emandako ebazpen guztiak berriro azter daitezela, erabili oinarri-arauak okerrak direlako edo oinarrikerie ere erabili ez delako, eta ebazpenak eman aurreko unera itzul daitezela. Ebatzi gabe.

## - Gipuzkoa Lurralde Historikoa

### *Donostiako Alkatea*

83/93- Trafiko-isuna. TAO.

Edukia: Herri-bidetik ibilgailua erretiratzeko neurria bertan behera uztea. Ez onartua.

473/93 - Jarduera gogaikarriak.

Edukia: Errege Katoliko aldean rock jarduera guztiak debeka daitezela urte osorako, Aste Nagusirako salbu, eta epe horretan beharrezko neurriak har daitezela inguruko biztanleei kalterik ez eragiteko; batez ere lokalak ixteko ordua errespeta dadila. Ebatzi gabe.

### *Eibarko Alkatea*

581/93 - Egindako lan-zerbitzuei buruzko ziurtagiriak.

Edukia: Administrazio publiko orori dagokion bezala, burututako lanen egiaztagiria emateko legezko betekizuna. Onartua.

### *Hondarribiko Alkatea*

601/92 - Jarduera gogaikarriak.

Edukia: Herriko Gipuzkoa enparantzan jarritako iragarki oholaren erabilerari buruz Udal Kultur Kontseiluak hartutako akordioa betetzea, eta ahalik eta lasterren, kultur-jarduerak nahiz hiritarrek ingurugiro egokian bizitzeko duten eskubidea, alegia, zarata eta gogaipenik gabekoa, elkarri egikitzeko modua egitea. Ebatzi gabe.

121/93 - Jarduera gogaikarriak.

Edukia: Lehenbailehen itxi dadila taberna-jatetxe jarduera bat eta horren jabeari zigor-espeditentea berehala ireki diezaziotela jarduera beharrezko udal-baimenik gabe burutzen ari delako. Ebatzi gabe.

### *Irungo Alkatea*

480/91 - Jarduera gogaikarriak.

Edukia: Udal teknikariek egindako ikuskapen-lanen ondoren sei jarduera ezberdinetan (taberna, pub, kafetegi, etabarretan) soinugabetze-sisteman akatsak zeudela ikusirik, Irungo Alkatetzari eskatu genion, dekretu bidez aipatu lokalen jabeei gehienez hilabeteko epea eman ziezaiela beharrezko soinugabetze-egitua aurkez zezaten; eta, halaber, jakinaraz ziezaiela agindutakoa betetzen ez bazuten, baimena behin-behingo z kendu egingo zitzaizela. Ebatzi gabe.

502/91 - Jarduera gogaikarriak.

Edukia: Dantzaleku jarduera bat berehala ixteko agindua, beharrezko baimenik ez daukalako. Ebatzi gabe.

504/91 - Jarduera gogaikarriak.

Edukia: Udalbatzarrak neurri zuzentzaileak ezartzeko agindu arren, egoitzaren jabeak behin eta berriz agindua bete gabe uzten zuenez, Alkatetzak dekretu bidez taberna-jabeari eskatu neurri zuzentzaileak jartzeko hilabeteko azken epea eman ziezaien eta, jartzen ez bazituen, behin-behingo z baimena erretira ziezaien eskatu genion. Onartua.

#### *Lezoko Alkatea*

435/93 - Jarduera gogaikarriak.

Edukia: Taberna baten jabeari hilabeteko azpen epea ematea jarduera legezatzeko egitasmoa aurkez dezan, agindua betetzen ez badu, jarduera behin-behingo itxi egingo zaiola jakinaraziz. Onartua.

#### *Mendaroko Alkatea*

240/93 - Herri-bidean eta kexadunaren lurzatiaren aurrez-aurre eskailera bat eraikitzearen kontra.

Edukia: Erreklamatzaillearen lurretan legezkontrako obra egitearren ondorioz, eskailera bat eraiki behar izan zen. Eskailera hori kentzea. Ez onartua.

#### *Ordiziako Alkatea*

316/93 - Jarduera gogaikarriak.

Edukia: Lokal bateko musika-ekipoa erretiratzea eta jabeari, Alkatetzaren dekretu bidez, beharrezko soinugabetze-egitاميا aurkez dezan eskatzea. Onartua.

#### *Orendaingo Alkatea*

422/93 - Udal aurrekontuetarako maileguaren aldaketa araugabe bideratu izana.

Edukia: Aurrerantzean, lege-arauz jokatzeta, horrela gainera, herriko gaietan partaidetza sustatzen delako. Onartua.

#### *Tolosako Alkatea*

414/91 - Jarduera gogaikarriak.

Edukia: Taberna jarduera batean musika-ekipoa kendu eta telebista aparailua, irratia eta musika-haria zigila ditzatela eta, horrez gain, jarduera komunitatearekin lotzen duen atea itxi dadila. Gainera, taberna-jabeari Alkatetzaren dekretu bidez gehienez hilabeteko epean soinugabetze-egitامia aurkez deza la eskatzea, agindu hori betetzen ez badu, baimena aldi baterako edo betiko kenduko zaiola adieraziz. Onartua.

VII. ATALA  
**GOMENDIO ETA IRADOKIZUN  
OROKORRAK**

Aurreko urteetan bezala, 1993an ere, 3/85 legearen 11. b) artikuluan finkatutakoari jarraituz, Arartekoak gomendio edo lege-oroigarri tankerako erabaki ugari hartu izan ditu, kexa bakoitzean azaldutako arazo jakinak aztertu ondoren hasitako kexa-espeditenteak amaitutzat emanez.

Hori hala izanik ere, jaso ditugun kexak aztertzean, sarri askotan topatzen gara kexa bakoitzaren arazo jakina gainditu egiten duten kontuekin, berez arazo orokorrak direla esan baitaiteke.

Hainbat aldiz, gainera, kexa bakoitzean ez dira ikutzen berori eragin duen arazoaren zoko-moko guztiak, eta arazoa ez da bere osotasunean ikertzen.

Horregatik, Erakundeak lanean daramatzan bost urteotan, otsailaren 27ko 3/85 Legearen 11. c) artikuluz baliatuz, komenigarria iruditu zaigu herri-agintariei halako gomendio edo iradokizun orokor batzuk helaraztea, berez kexa jakinak konpontzeko ez direnak, baizik eta gure iritziz hiritarren eskubideekin oso lotuta dauden arazoak bere osotasunean aztertzen dituztenak.

Gomendio orokor hauekin bilatzen dugun helburua argia da: hiritarren eskubideetan eragina duten gai guztietan legeriak edo araudiek dauzkaten hutsuneak adieraztea, bai eta eskubide horiek merezi duten errespetuarekin bat ez datozen administrazio-ekintzak nabarmentzea.

## **7.1. TRESNERIAREN KOSTUA ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREI BURUZKO ZERGAREN OINARRI EZARGARRIAN SARTZEA**

Herri Ogasunak arautzen dituen 39/1988 Legeak indarrean daramatzan urte apurretan arazo gehien eragin dituen gaietako bat, Eraikuntza, Instalazio eta Obrei buruzko Zergaren (aurrerantzean EIOZ) oinarri ezargarrria finkatzea izan da.

Zerga hori sortu berria da eta udalek aukeran daukate ezarri ala ez; zeharkako zerga bat da, eta bere egite ezargarrria udalerrri barruan, hirigintza baimena behar duen edozein eraikuntza edo lani ezartzen zaio, eta berdin obra horietarako baimenik eskatu ez denean ere, baldin eta horietarako baimena ematea zerga ezartzen duen udalari badagokio (Herri Ogasunen Lege Arauztailea (HOLA, 101. art.).

Horrela, Lur-Jaurpideen eta Hiri-Antolaketaren Legearen Testu Bateratu berriko 242. artikulua arabera, lizentzia edo baimena beharrezkoa du edozein eraiketa-lanek, eta baita lurrazalaren nahiz lurrazpiaren erabilerarako egiten direnek ere, hala nola, hiri-lurzatiketak, lurrak mugitzeak, eraikuntza berriak, lehenagotik dauden etxeei egitura edo kanpoko itxura aldatzeko lanak, etabar.

Beraz, atari bat konpontzea, igogailua jartzea edo etxe baten aurrealdea konpontzea bezalako lanak zerga horren pean daude.

Horrela, Ondasun Higiezinaren edo Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen Zergak bezain jende multzo zabala hartzen ez duen arren, nolabait hiritar guztiak, bai behintzat auzokide-elkarte bateko partaide guztiak ikutu ditzakeen zerga baten aurrean gaude.

Ekintza berak ustez bi zerga, hau da, obrak egiteko lizentziarengatikoa eta EIOZ ordaindu beharra berekin ekartzeaz doktrinak sorturiko eztabaidari jaramonik egin gabe, gainera, gure ustez, auzia ezezkoan konponduta geratu delarik, EIOZ zergaren egite ezargarria finkatzeari buruzko arazoak aztertuko ditugu nagusiki.

Toki-Jaurpidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak 106.2. artikuluan esaten duenaren arabera, herri-erakundeek zerga mailako araubideak ezartzeko daukaten ahalmena, zerga propioak arautzen dituen ordenantza fiskalaren eta eraentzarako agintarau orokorren bidez gauzatu behar dute, eta, beraz, ahalmen hori mugatua da, eta ordenantza horiek jasotzen dituzten funtsezko osagaien arauketa ezingo da legean bertan dagoenaz bestelakoa izan.

EIOZren kasuan, aukerakoa denez gero, 39/1988 legeko 16.1. a) artikulua arabera zerga hori arautzen duen ordenantza fiskalean ezarritako gutxieneko edukia hartuko da aintzat oinarri ezargarria finkatzerakoan.

39/1988 legeko 103.1. artikulua eta zergari buruzko foru-arau ezberdinetako xedapenek diotenez, EIOZren oinarri ezargarria eraikuntza, instalazio edo obren benetako kostuak eta lanengatik ordaindu behar denak ezartzen du.

Definizio hori, ordea, ez da nahikoa, interpretazio desberdin ugari eman baitzaizkio.

Horrela, udalen iritsian "benetako kostua"ren barruan bai jarritako tresneria, bai langileen ordainsaria sartzen diren bitartean, zerga honen sujetu pasiboak diren zergapekoek, irizpide horren arabera egin zaizkien kitapenak baliorik gabe uztea eskatu dute administrazio-azuzitegien aurrean.

Gai horri buruzko azterketa bat egin zen erakunde honetan Bilboko etxe bateko auzokideek Arartekoari kexa-espeditentea aurkeztu eta bideratu zenean.

Kasu hartan, erreklamatzailleek etxeko igogailua eta jasogailua konpontzeko obrak egin nahi zituzten, eta horretarako egitamua eratu zuten, Euskadi eta Nafarroako Arkitektoen Bazkondeak ontzat emana; lanen kostua 2.178.620 pezetakoa zen, jarri behar ziren aparailuena aparte, horiena 7 milioi pezeta ingurukoa zelarik. Alabaina, Bilboko Udalak, obregatikoa eta EIOZrengatikoa baimenaren tasan kitapena egiterakoan, oinarri ezargarri bezala bi kopuruak batera hartu zituen, hau da, 9.216.500 pezetatara oinarritu zen.

Bilboko Udalak onartutako zerga-agintarauek ez zituzten argitzen arazo horri buruzko zalantzak. Horrela, 6. artikuluan oinarri ezargarria eta "eraikuntza lanen, instalazioen eta obren benetako kostua" zehaztu ondoren, hau gehitzen zuen:

"Aurreko zenbakian xedatutakoari dagozkion ondorioetarako, beti ere, kontratuaren aurrekontuan materialen kostua, egitamuaren eta zuzendaritzaren gastu teknikoak, industri-onura eta alde zuzeneko lanak eta lan gehigarriak ere sartuko dira".

Ordenantza bereko 11. artikulua, berriz, hau zioen:

"Oinarri ezargarria interesatuek aurkeztu aurrekontuari ezarriko zaio, egitama dagokion bazkun ofizialak sinatuta egon behar duelarik. Bestela, oinarri ezargarria udal-teknikariek finkatuko dute, beraiek egitamuari ezarriko dioten kostuaren arabera".

Alabaina, esan bezala, aipatutako kasuan udalak oinarri ezargarrian lanabesen (igogailua eta jasogailua) kostua ere sartu egin zuen, eta horregatik, zergarengatik ordaindu behar zutena lau bider garestiago ateratzen zitzaien.

Udalak erakunde honen eskariz osatu zuen txostenean zioen igogailuak eta jasogailuak beste materialen antzeko helburua zeukatela, eta horregatik oinarri ezargarriaren zati izan behar zutela.

Auzokoei, ordea, oinarri ezargarria Arkitektoen Bazkunak sinatutako aurrekontuari ezarri behar zitzaiola zioten eta, aipatu 11. artikulua arabera, hor ez ziren tresnak sartzen.

Erakunde honen ustez, auzokoei bat etorriz, lanabesak aparte utzi behar ziren, izan ere, horren aldekoak ziren Herri Ogasunen 39/88 Lege berria onartu baino lehenagotik obra-baimenerako tasei buruz zeuden epaiak (Epaitegi Gorenaren 80-4-19 Epaia, Ar. 1.357 eta epaitegi beraren 82/5/10 Epaia, Ar. 2.763).

Une hartan Bilboko Udalak ez zuen onartu horren alde egin zitzaion gomendioa, eta auzokoei beren eskubideak aitortu zitzaizkieten administrazio-azipideetara jotzeko bidea bakarrik geratu zitzaien, eta bide hori ez zuten erabili garestia zelako.

Adibide gisa, Gasteiz eta Donostiako Udalek, Bilbokoaren oso antzekoa zen testuari esanahi desberdina emanaz, jarri beharreko tresneria oinarri ezargarritik kanpo utziz egiten zuten kitapena.

Madrilgo Udalaren zerga arautzen duen ordenantzak, askoz berritzaileagoa izanik, gai hori beraz aipatzen du, eta 5.2. artikuluan hau xedatzen du:

"Benetako kostuagatik ordaindu beharrekotzat hartu behar da, egindako obra-unitateen aurrekontua, kontratistaren ordainsaria sartuz eta langileen ordainsaria eta ezarri den tresneria alde batera utziz".

Horri dagokionez, Zergei Buruzko Legeak 23.2. artikuluan iragartzen duen irizpide hermeneutikoa aipatu behar da, zeinak hau baitio:

“Arauetan erabiltzen diren hitzak zergen antolamenduak azaltzen ez dituen bitartean, zentzu juridiko, tekniko edo ohizkoa eman ez ulertuko dira, bidezkoena dena jarraituz.”

Interpretazio-lan hori epaitegiek hartu dute beren gain, eta geroztik, justizi epaitegi gorenak Arartekoaren iritzia frogatzen duten epai bat baino gehiago eman dute.

Horrela, 1993ko ekainaren 2an Andaluziako Justizi Epaitegi Gorenak emandako epaiak hau dio 6. Zuzenbide-oinarrian:

“(…) logikoa dirudi “instalazio edo obra kostu” bezala ez ulertzea tresneria berez, baizik lanabes horiek jartzeko eraiki behar den solairua egiteko beharrezko lanena. Instalazio hitzaren bi adiera ohizkoenak hartuz (instalatzeko lanak egitea eta horren ondorioak, instalatutako gauzen multzoaren aldean), Epaitegiaren ustez Legeak lehenengoa erabiltzen du, ez bigarrena, eta, beraz, obraren edo instalatzearen kostuak hartuko ditu bere barne, eta ez instalatutakoarenak, hots, industri-erakuntza altxatzeko egin beharrezko lanen kostuak, ez bertan koka daitezkeen tresna mota ezberdinenak. Arrazoibide hori antzeko beste kasu batzuei ezar lekieke eta, hortaz, ospital bati zerga hori ezartzean egiten den kitapenean zentzugabea litzateke, esaterako, medikuntza diagnosietarako beharrezkoak diren oihartzun magnetikoak egiteko tresna garestiak sartzea. Horrek, bestalde, ez du esan nahi Eraikuntza eta Obren gaineko Zergaren oinarria obra zibil hutsera murriztu behar denik, Udalak egin zitzaion eskariari erantzutean adierazi zuen bezala.”

“Eta hori horrela da, halaber, -jarraitzen du epaiak-, berrikuntzaren ondorioz ekoizpen-prozesuetan sarri egiten den tresna-aldaketa zergaren pean ez dagoelako, horretarako ez baita behar obra edo hirigintza-lanetarako baimenik; aldiz, instalazioa berez aldatzeko eta kanpoaldean obrak egiteko lanetarako bai, behar da baimena.”

Tenerifeko Santa Cruzen Administrazio-Auzibideetarako Sailaren 1993ko ekainaren 16ko epaiak hau dio:

“(…) 39/88 Legeko 103.1. eta 104.1. eta 104.2. artikuluetan xedatutakoaren arabera, zerga horren oinarri ezargarria ez dagokio obra edo instalazioaren kostu osoari -kontzeptu guztiei-, baizik benetako kostuari (...).

Horrela, administrazio-espeditentean “obra zibil” izen teknikoa merezi duten lan, eraikuntza eta instalazio gastuei bakarrik ezarri behar zaie oinarri ezargarria, eta tresneriaren kostua kanpoan utzi behar da, horiek industri-instalazioa kontzeptu teknikoan sartzen ez direlako -Zergen Lege Orokorreko 23. art.-, eta aldiz, industri-instalazioa kontzeptu hori, duen ondare eta kontabilitate esanahiaz, enpresa-instalazio batek berez betetzen duen egitekoari dagokion balioaren aktibo kontuan sartzen da, tresneria salbu.”



Bigarren epai hori are urrutirago doa oraindik: ordainsari teknikoak oinarri ezargarritik kanpo uzten ditu, eraikuntzak, instalazioak eta obrak egitearekin sortzen den aberastasuna zergapetzen duen zerga erreal baten aurrean gaudela dio.

Nolanahi ere, aztertu diren iritzi-emaße ezberdinek badaukate gauza amankomun bat, zergaren oinarri ezargarrria finkatzerakoan lanabesen kostua kanpoan uztea.

Horrela, erakunde honen ustez, ez da onargarria zerga horren ordainearazpena arautzen duten ordenantza fiskaletan ia gauza berberak esan eta gero, zergaren oinarri ezargarrria erabakitzerakoan udal-teknikari eta agintariak ezartzen duten irizpidearen arabera, ezarpen mota desberdinak egitea.

Horregatik, Euskal Herriko udalek alderdi zehatz hori jasotzen duten artikulua berriro idatzi beharko lituzketela uste dugu, segurtasun juridikoaren eta nahikeria galerazteko irizpideei jarraiki, zergaren sujetu pasiboek egite ezargarrri berdinen aurrean tratu berbera jaso dezaten.

Irizpide horiek kontuan izanik, eta azken hilabete hauetan aztertzen ari garen gaiari buruz emandako epailetan oinarrituz, zerga horri dagozkion agintarua aldatu egin behar dira, zergapetutako obren barruan kokatuko den tresneriaren kostua oinarri ezargarririk kanpo utz dadin.

## **7.2. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ZERBITZURAKO LANGILEAK HAUTATU ETA POSTUAK BETETZERAKOAN NAGUSITU BEHAR DUTEN PROZEDURA-BERMEAK ETA FUNTZIO PUBLIKOAN ANTOLABIDE JAKIN BATZUK EZ ERABILTZEA**

Funtzio publikoaren sailean eztabaidagai diren kontuak (administrazioaren egitura arrazoibideratzea, zerbitzuak hobetzea, langileen mugikortasuna, etab.) garrantzi handikoak dira zalantzarik gabe, baina batez ere haien arteko bik eman diote atentzioa erakunde honi: alde batetik, funtzio publikoaren antolakuntzarako tresnak prestatu eta martxan jartzea enplegu publikoaren oinarriko irizpideak bermatzeko; eta bestetik, langilegoa hautatzeko probetan lehia-tzaileek dauzkaten prozedurazko bermeak.

Horretarako batez ere bi arrazoi genituen: bata, Arartekoak hiritarren eskubideak babesteko duen eginkizun berezia; eta bestea, esandako bi puntu horiek berdintasuna (EK, 1. art.), funtzio eta kargu publikoetan sartzeko aukera (EK, 23.2. art.) eta epailarritza-babes eraginkorra (EK, 24. art.) bezalako funtsezko eskubideekin duten lotura estua.

Funtzio publikoa antolatzeko bideak prestatu eta ezartzeari zegokion gomendioa sartu genuen 1991. urtealdiko gure txostenean. Bertan argi ematen zen aditzera Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak aipatutako antolabideak (hau da, lanpostu-zerrendak eta enplegu publikorako eskaintzak) oker edo ez-osoki ezarri gero, berez lege-hauste garbia edo legearen kontrako jarduera gertatzeaz gain (horixe gertatzen da, esate baterako, behin-behineko egoerak bidegabeki luzatzean, etab.), funtzio publi-

koan sartzeko bidean nagusitu behar duen berdintasun-irizpidea kaltetu ere egin liteke, zeharka, baina argi eta garbi.

Langilegoa hautatzeko probetan lehiatzaileek dauzkaten prozedurazko bermeei dagokienez, bestalde, joan den urtealdiko gomendioaren bitartez hautabide horietan gertatu ohi diren gehiegikeriak desagertarazi nahi genituen, adibidez: hautaketarako sail teknikoan erabakien arrazoirik eza, eta, orobat, lehiatzaileari bai bere espedientea, bai beste edonorena ikusteko aukera ukatzea; izan ere, gure gomendio horretan ondo finkatua utzi genuenez, bi jokabide horiek babesik eza larria eragin lezakete, eta, gainera, epailaritza-babes eraginkorraren irizpidea ere hautsi egingo litzateke.

Aurten bideratu ditugun kexa-espedienteetan ikusi ahal izan dugunez, oraindik zenbait alderdi zehatz betetzen ez diren arren, gero eta neurri handiagoan onartzen dira hemen aipatu ditugun berme hauek guztiak, bete beharreko lanpostu iraunkorren hautaprobetan, bai antolabideei dagokienez, bai forma hutsezko bermeei dagokienez ere. Dena dela, oraindik ere egoki deritzogun egoeratik urrun samar gaudela esan behar da, hala behin-behineko lanpostuak betetzeko hautaprobeen arloan, nola funtzionariantzat soilik direnen arloan.

Horregatik, komenigarria iruditu zaigu hemengo gomendio hau txertatzea aurtengo txostenean; gure asmoa bikoitza da: batetik, hautaprobeen berme bereziak herri-administrazioen zerbitzuko langilegoa hautatzeko eta lanpostuak betetzeko prozedura guztietara zabaldu beharra azpimarratzea; eta, bestetik, lanpostu-zerrendekin zuzeneko lotura duten beste antolabide batzuk martxan jartzen ez direla salatzea; izan ere, horren eraginez, salbuespenezkoak ziren beste hainbat bide bidegabeki erabili izan dira, erabilera hori zabalduz.

Gauzak honela, argi utz dezagun gure gomendio hau egitean ez dugula era honetako hautabideetan errespetatu behar diren irizpide eta eskubide guzti-guztien azterketa teoriko zabalik osatu nahi. Guk baino eskumen handiagoko doktrinak eta maila handiko jurisprudentziak dihardute lan horretan, gure aurreko beste gomendio batzuetan jaso genuen bezala. Aitzitik, oso bestelakoa da hemen bilatzen dugun helburua: alegia, beharrak asetzeko prozedura horietan esku hartzen duten administrazio-eragile guztiei hausnartzeko deia egitea, maila teoriko hutsean arazorik gabe onartzen diren bermabide batzuk aribidean ia ezezagunak direlako.

Horrela, behin-behineko beharrak betetzeko prozedurari dagokionez, bideratu ditugun kexa-espedienteetan argi uzten da herri-administrazio desberdinek baztertuta uzten dituztela hemen aipatzen ari garen bermabide horiek, eta ez horiek bakarrik, baita lanpostuak betetzeko edozein hautaprobetan oinarri-oinarrizkoak izan beharko luketen irizpide eta jarraibideak ere. Horretarako erabiltzen dituzten argudioak honako hauek dira: behar horiek betetzeko premia handia dagoela, eta era honetako prozedurak eraginkortasunez eta bizkor ebatzi behar direla, nahiz eta ez arrazoi batak ez besteak ere ezertan ez aldatu prozedura horiek daukaten arauketa.

Honelako kasuetan, badirudi behar iraunkorrak betetzeko hautaprobetan berez egon ohi diren formazko betebeharrak (deialdia eta haren ondoriozko

ekintza guztiak dagokion aldezkarari ofizialean argitaratzea, eskabideak egiteko epe zabalak ematea, erreklamazioetarako epeak jartzea, etab.) malgutzean, herri-administrazioek uste dutela halako ahalmen berezi bat eman zaiela, eta beren nahiaren arabera -baina bidegabeki- erabaki ditzaketela hautaprobak, oinarrietan aurretiaz jarritako baldintzak eta jardunbidea ere baztertuz, horiek gutxieneko edukiaz hornitzen direnean, eta edozein arrazoi objektiborik gabe.

Orain arte egindako baieztapenak argi eta garbi arrazoituta daudela ikus-teko, bideratu ditugun espedienteetara jo besterik ez dago. Horrela, inoiz ikusi-ko da kasuren batean proposatutako langilegaiek ez dutela betetzen lanpostua betetzeko jarritako baldintzaren bat, edota deialdiaren oinarrietan adierazitako jarraibideren bat sekula ere ez dela betetzen. Harrigarria bada ere, zenbaite-tan, hautaketa egiten duen sailak bere proposamena egin ondoren, adminis-trazio-agintariak ez ditu lehenbailehen proposaturikoak izendatu, izendapen hori sine die luzatuz, eta eragindako pertsoneri erabaki hori hartzeko arrazoiei buruzko ezein argibiderik eman gabe (berez arrazoizkoa izan ez arren). Horri lotu behar zaio, halaber, hautaketa egiten duten sail teknikoek eta administra-zio-agintariak berek batzuetan ez dutela adierazten zergatik hartu duten halako edo holako erabakia, edo gaizki adierazten dutela, eta horren ondoren, erraz-uler daitezkeen arrazoiengatik, isiltasun administratibora jotzen dela, gehiegi-keriaz jo ere.

Lehenago esan dugun bezala, desiragarria eta eskatzeko modukoa izan beharko lukeen egoeratik nahiko urrun gaude.

Horri dagokionez, gaur egun inork ez du zalantzan jartzen berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate irizpide konstituzionalak, hots, enplegu publikora sartzeko aukeraren oinarri izan behar dutenak ezarri behar direla behin-behineko beharrak betetzeko hautaprobetan ere. Horixe frogatzen dute behin-behineko funtzionari-langileak hautatzeko arauak finkatzen dituen 1986ko otsailaren 28ko Aginduko ebazpenek. Horregatik, behin-betiko onar-tu beharko da irizpide horiek eraginkortasunez gauzatu behar direla, eta amai-tu egin behar dutela hemen azaldu ditugun jokamolde okerrak; orobat, onartu behar da Konstituzioarentzat garrantzi handikoak diren eskubide batzuk -hala nola epailaritza-babes eraginkorra- babestea bermatzen duten beste baldintza formal batzuk ere bete behar direla.

Funtzionarientzat bakarrik diren lanpostuak betetzeko bideei dagokienez, are premiazkoagoa da hemen aipatu ditugun bermabideak zabaltzea, azaltzea merezi duen jokamolde bat oso zabalduta dagoelako.

Izan ere, beste noizbait esan dugun bezala, funtzio publikoa antolatze-ko bideen erabileran antzeman ditugun okerrak ez dira mugatzen lanpostu-zerren-detara edo enplegu publikoaren eskaintzara, edota bide horiek baztertuz lan-postu hutsak mantentzera. Akats horiek haruntzago iristen dira, eta funtziona-rientzat bakarrik diren lanpostu hutsak betetzeko prozesuetan ere badute era-ginik; eta ez da ahaztu behar prozesu horiek, normalkuntza lortzeko ahalegin laudagarrian erraztasunak emateaz gainera, gure funtzio publikoaren karrera-sistemaren giltzarri direla.

Ildo horretatik, askotan lanpostu hutsak betetzeko deialdiak edo lanpostuz aldatzeko lehiaketak atzeratzen direnez, edo egin ere egiten ez direnez, edota hutsik dauden lanpostu batzuk betetzeko deialdirik egiten ez denez gero - horiek izan arren lanpostuak betetzeko bide orokorra eta, beraz, ohizkoa-, dexente zabaldu da beste bide batzuen erabilera, nahiz eta horiek berez salbuespenekoak edo aldi baterakoak bakarrik izan. Jakina, irakurlea dagoeneko ohartuko zenez, zerbitzu-manualdi izenaz ezagutzen denaren erabilera okerraz ari gara.

Erakunde honen iritziz, kontutan hartzen bada zerbitzu-manualdia onartzea Administrazioaren nahiaren baitan dagoela, teorikoki behintzat, bidezkoa denean bakarrik ezarri behar da, hots, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 54. artikuluan aipatutako kasuetan.

Indarrean dagoen legeriaren arabera, prozedura hori araupetuta dago eta ageriko bermeak ematen dizkie langileei, baina bere erabilera ezin da borondatearen menpe utzi, funtzionariarentzat bakarrik diren lanpostu hutsak betetzeko deialdiak egiten ez direnean.

Horregatik, oinarritzat hartuz atzerapenak ez duela ondorio txarrik eduki behar funtzionariarentzat, Ararteko honen ustez, ez da ezegokitzat hartu edo gaitzetsi behar -horren kontrako doktrina-iritziak egon arren- zerbitzu-manualdirako deialdi horiek araupetutako prozeduren arabera erabaki daitezen, bestela esanda, lehiaketatza har daitezkeen prozeduren arabera.

Jakina, hemen aipatzen ari garen jokabideak zurrizko argudio bezala nekez onar daitezke lanpostu-aldaketarako lehiaketen deialdietan gertatzen diren atzerapenak. Halako administrazio-egitura batzuk birrantolatu beharra bezalako argudioak atzera utzi dira, horiek noiztik erabiltzen diren ikusita, eta argi dago haien atzean gestio-akatsak ezkatutu nahi direla edota, behintzat, badagoela halako beldur bat, berandu eta konplexutasun handiz erabaki ziren aurreko lehiaketen esperientzian oinarri duena.

Zerbitzu-manualdiaren irudira etorritik, aukera horretara jo beharra dakarten baldintzak gertatuz gero (lanpostua gordetzeko eskubideaz dauden funtzionari-postu hutsak, aldaketa-lehiaketa bidez eskaini eta bete ezin daitezkeenak), izendapena egitea aginte ahaldunaren nahiaren baitan egon arren, horrek ez du esan nahi erabaki hori arrazoitu behar ez denik halako irizpide objetibo batzuez, ez eta arrazoibide horiek dagokienei, interesatuei, ezagutarazi behar ez zaizkienik ere, edota horiek ez dutenik espedientea bere esku edukitzeko esku-biderik.

Hala jokatzuz gero, nahikeria nabarmena litzateke edo, baita ustezko esku-men-desbiderapena ere, bide hori erabiliz aurretiaz erabakitako lehiatzaile baten hautapena ziurtatu nahi izatea.

Behin-behineko beharrak betetzeko hautaprobetan bezalaxe, egia da ekintza hauen oinarri izan behar duten eraginkortasun eta bizkortasun irizpideek nolabait arinago bihurtzen dituztela lehiaketa bezalako jardunbidearen formazko betebeharrak; baina, halere, bakar-bakarrik haien eraentza eta ebazpena errazteko erabili behar dira, inoiz ere ez bermeak murrizteko.

Beste alde batetik, eta kontuan hartuz nolako ondorio txarrak izaten dituzten funtzionari diren herritarrentzat antolabide horietan gertatzen diren atzerapenek, nabarmen adierazi behar da, lanpostu-aldaketarako lehiaketa-deirik ez egiteak ere lanean sartu berritako funtzionarioen artean egoera desegokiak irauten dezaten laguntzen duela, hala nola "destino-itxarokizuna" deritzanak. Egoera horrek kalte nabarmena dakarkio funtzionari horien administrazio-karrerari, zeren eta, beste ondorio batzuen artean, langile bakoitzaren kategoria finkatzeko orduan ezin baita behin-behineko lanpostu batean emandako zerbitzu-denbora kontagarritzat hartu (6/1989 Legearen 45. art.).

Egoera hori kezagarria izaten hasi da funtzio publikoan oro har, baina are kezagarriagoa izatera iritsi da beste arlo berezi batzuetan, irakaskuntzan esate baterako; izan ere, arlo horretan, oso ohizkoa da karrerako funtzionari sartuberriek urte luzeak ematea lehen destino baten zain. Horrekin batera, gainera, derrigorrez lanpostu batetik beste batera igarotzeko arrisku handia dute, lehen destino finkoa lortzen ez duten bitartean.

Hemen aipatu ditugun antolabideen argitan, batere logikarik gabeko zer-baiten aurrean gaude. Izan ere, deialdi publiko bat egiten bada, argi eta garbi esan nahi du horrek aurrekontu bidez hornitutako lanpostu huts batzuk badaudela; orduan, galdetzekoa litzateke zergatik ez diren hutsune horiek iragartzen, dagokion hautabidea amaitu bezain azkar, lanpostu-aldaketarako lehiaketa baten bidez.

Laburbilduz, eta ondorio batzuk ateratzearren, hona hemen orain arte egingandako gogoeten nondik-norakoa:

1. Enplegu publikoaren oinarri izan behar duten berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate irizpideak zabaldu behar dira behin-behineko lanpostuak betetzeko hautaprotetara ere, eta, beraz, irizpide horiek zuzenean edo zeharka kaltetzen dituzten jokabideak baztertu, nolana ere prozesu horiei dagokien arauketa errespetatuz.

2. Era honetako prozesuetara ere zabaldu behar dira epailaritzza-babes eraginkorrerako eskubidea errespetatzeko behar diren formazko edo prozedurazko berme guztiak.

3. Antolakuntzarako eta arrazoibideratzeko tresnak erabili behar dira, funtzionariarentzat bakarrik diren lanpostu hutsak betetzeko prozesuak, adibidez.

4. Zerbitzu-manualdiaren erabilera murriztu behar da; hau da, berez salbuespenekoak izanda, indarrean dagoen legeriaren arabera bide horretatik jotzea egokia den kasuetara bakarrik mugatu.

5. Funtzionari bat zerbitzu-manualdirako izendatzean edukitzen den ahalmen diskrezionala ondo ulertu eta, beraz, tajuz erabili behar da, bidegabeak diren edo eskumen-desbiderapenaren muga igarotzear dauden jokaerak baztertuz.

6. Funtzionarien aldi baterako egoeren iraupena ere murriztu behar da, destino-itxarokizuna deritzanarena adibidez, hirugarren atalean aipatu ditugun antolabideez egoki baliauz.

### 7.3. ATZERRITARRAK HERRIKO BIZTANLEEN ERROLDAN SARTZEA

#### 7.3.1. Helburua

Indarrean dagoen antolamenduaren arabera, atzerriko pertsonak herri ezberdinetako biztanleen erroldetan sartzeko bideak objetibitasunez arautu, eta horrela, udal-administrazioen aldetik politika bateratua ezartzeko aukera eman go duten zentzuzko irizpide batzuk ezartzea da gomendio honen helburua.

#### 7.3.2. Atzerritarrak eta errolda: gaur egungo egoera

##### 7.3.2.1. Ezar daitekeen araudia

Gomendio honi dagokion gaiaren inguruan administrazio izaerako bi araudi multzo daude. Alde batetik, herri-jaurpide mailan indarrean dauden arauak aztertu behar dira lehenik, eta horretarako, udal-biztanlegoaren eta hori erregistratzeko erroldaren araupetzearekin zerikusia duten gaien nondik-norakoa ikusi behar da.

Bestetik, kasu honetan aztertzen den norbanakoaren lege-egoera bertako biztanlegoarentzat normalean indarrean egon ohi denaz bestelakoa denez gero, atzerritarren egoera arautzen duen araudiak garrantzi berezia du. Araudi hori bere osotasunean hartu behar da, asilo eta babes politikoari buruzko gaiak arautzen dituzten xedapenak barne direlarik.

Ildo horretatik, proposamen hau burutzeko aztertu diren araudiak honela banatu daitezke:

##### **A) Udal-jaurpideari buruzko araudia:**

- Toki-Jaurpiderako Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 Legea (TJOAL), 15. artikulutik 18. artikulura bitartekoak.
- Toki-jaurpide gaietarako indarrean dauden legezko xedapenen Testu bateratua onartzen duen 781/1986 Erret Dekretu Arauemailea, 12. artikulutik 17. artikulura bitartekoak.
- Herri-erakundeen Biztanlegoa eta Aginpide-Esparruaren Araudia onartzen duen 1.690/1986 Erret Dekretua, 53. artikulutik 87. artikulura bitartekoak.

##### **B) Atzerritartasunari buruzko araudia:**

- Atzerritarrek Espainian dauzkaten Eskubide eta Askatasunei buruzko 7/1985 Lege Organikoa.
- 7/1985 Lege Organikoa gauzatzeko Araudia onartzen duen 1.119/1986 Erret Dekretua.

- Europako Elkarteko Estatu Kideetako Hiritarrak Espainian Sartzeari eta Egoteari buruzko 766/1992 Erret Dekretua.
- Asilo Eskubidea eta Errefuxiatu Baldintza Arazten dituen 5/1984 Legea.
- 5/1984 Legearen ezarpenerako Araudia onartzen duen 511/1985 Erret Dekretua.

Zerrenda horri, noski, gai honi ezar lekizkiokeen Konstituzioko arauak gehitu behar zaizkio, eta batez ere bertako 13. eta 14. artikulua.

Ikuspegi tekniko-juridikotik azpimarratzekoa da bi arautegiak bere aldetik osatu direla, eta denborak aurrera egin ahala indarrean sartu den arau berriak, alegia, atzerritasunari buruzkoak, ez daukala herri-araudian eroldarekin eta biztanleriarekin eduki beharko lukeen loturarik.

Araudien banaketa horrek arazoak sortzen dizkie Espainian bizi diren atzerritarrei herriko biztanleen eroldan sartzekoan, Espainian bizi diren atzerritarrak oso egoera juridiko ezberdinean aurki daitezkeelako.

Herri-biztanleen eroldari buruzko araudian ez da iragartzen zein lege egoera mota ezberdinetan egon daitezkeen atzerritarrak gure herrialdean, eta arazo horiek konpontzeko xedapen edota lege zein arau izaera baino garrantzi txikiagoko neurriak hartu izan dira; horrek ez dio mesederik egiten kaltetuen segurtasun juridikoari, ez eta udal-administrazio ezberdinek gai horri buruz ezarri beharko luketen baterako jarraibideari ere.

Udal-jaurpideari buruzko xedapenak eta Atzerritartasun Eskubidea arautzen dutenak, estatu mailako organuek emandakoak dira, lehenengo kasuan arauak elkar hartuta eta bigarren kasuan Estatuak berak bakarrik ezartzen dituelako. Horrela, 781/1986 Erret Dekretu Arauemailearen bidezko testu bateratuak herriko biztanleei buruz ezartzen duen araudia oinarritzkoa da, beroren 7. behin-behineko xedapenaren indarrez.

Azkenik, atzerritartasunaren alorra arautzen duen Zuzenbideari dagokionez, esan behar da asilo eta babes politikoari buruz gaur egun dagoen araudia eraberritzeko bidean dagoela; halere, berritze-prozesuan adierazten diren ezaugarriek ez dute funtsean aldatzen alor subjektibo honi buruz gomendio honetan adierazten dena.

### 7.3.2.2. **Administrazioak gaur egun daukan jokaera**

Lehenago esan den bezala, aurreko atalean adierazi diren araudiak ezartzerakoan udalek jarraitzen duten bidea ez da inondik ere bat bera. Izan ere, Espainian bizi diren atzerritarren lege-egoerak hain ezberdinak direnez, atzerritarrak herri bakoitzeko biztanle-eroldan sartzeko udal-administrazioek eskaintza dituzten bideak ezin daitezke eskema garbi batean bildu.

Egoera horrek lege-segurtasun falta handia sortzen du. Administrazioaren beste edozein jarduera-eremutan bezala, antzeko egoeretan konponbide bera eskaintzea derrigorrezko eskakizuna da, ez bakarrik tratu berdintasunerako oinarritzko irizpideari jarraiki, baita, lege-antolamenduaren arau gorenak agintzen duenez, administrazioaren jardueran nagusitu behar duen eraginkortasun-irizpideari begira ere.

## 7.3. ATZERRITARRAK HERRIKO BIZTANLEEN ERROLDAN SARTZEA

### 7.3.1. Helburua

Indarrean dagoen antolamenduaren arabera, atzerriko pertsonak herri ezberdinetako biztanleen erroldetan sartzeko bideak objetibitasunez arautu, eta horrela, udal-administrazioen aldetik politika bateratua ezartzeko aukera eman-goduten zentzuzko irizpide batzuk ezartzea da gomendio honen helburua.

### 7.3.2. Atzerritarrak eta errolda: gaur egungo egoera

#### 7.3.2.1. Ezar daitekeen araudia

Gomendio honi dagokion gaiaren inguruan administrazio izaerako bi araudi multzo daude. Alde batetik, herri-jaurpide mailan indarrean dauden arauak aztertu behar dira lehenik, eta horretarako, udal-biztanlegoaren eta hori erregistratzeko erroldaren araupetzearekin zerikusia duten gaien nondik-norakoa ikusi behar da.

Bestetik, kasu honetan aztertzen den norbanakoaren lege-egoera bertako biztanlegoarentzat normalean indarrean egon ohi denaz bestelakoa denez gero, atzerritarren egoera arautzen duen araudiak garrantzi berezia du. Araudi hori bere osotasunean hartu behar da, asilo eta babes politikoari buruzko gaiak arautzen dituzten xedapenak barne direlarik.

Ildo horretatik, proposamen hau burutzeko aztertu diren araudiak honela banatu daitezke:

#### A) Udal-jaurpideari buruzko araudia:

- Toki-Jaurpiderako Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 Legea (TJOAL), 15. artikulutik 18. artikulura bitartekoak.
- Toki-jaurpide gaietarako indarrean dauden legezko xedapenen Testu bateratua onartzen duen 781/1986 Erret Dekretu Arauemailea, 12. artikulutik 17. artikulura bitartekoak.
- Herri-erakundeen Biztanlegoa eta Aginpide-Esparruaren Araudia onartzen duen 1.690/1986 Erret Dekretua, 53. artikulutik 87. artikulura bitartekoak.

#### B) Atzerritartasunari buruzko araudia:

- Atzerritarrek Espainian dauzkaten Eskubide eta Askatasunei buruzko 7/1985 Lege Organikoa.
- 7/1985 Lege Organikoa gauzatzeko Araudia onartzen duen 1.119/1986 Erret Dekretua.



### 7.3.3. Erroldako eta legezko egoitzarako sarbidea

Puntu honetan hiriko biztanleen erroldan sartzeko araudia eta legezko egoitzak daukan esanahia aztertuko ez ditugun arren, bai ikusiko ditugu, orokorki bada ere, hiriko biztanleen errolda arautzeko gure antolamenduan finkatuta dauden iragarpenak eta biztanleak mailakatzeko dauden sail ezberdinak.

Horrela, lehenago aipatu den legediak lehen bereizketa bat egiten du herri batean modu jarraituan dauden pertsonen artean, egoiliarrak eta ibilkariak bereiziz. Arrazoiren bategatik ohizko egoitza ez duten beste udalherri batean bizi direnak dira ibilkariak.

Legeak, *a priori*, ibilkari kontzeptutik kanpo uzten ditu atzerritarrak eta, ondorioz, egoiliarren bidetik bakarrik sar daitezke erroldan. Lehenengo bidetik kanpo uzte hori ez zaigu bidezkoa iruditzen; izan ere, ibilkari kontzeptua, halako herri bateko legezko biztanle ez izanik erroldan sartzeari aukerakoa duenari ezartzen zaiona, oso baliaagarria izango litzateke gure herrialdean dagoen atzerritar batek aurkituko lituzkeen egoera juridiko batzuetarako. Dena dela, horiek aurrerago aztertuko ditugu.

Nolanahi ere, dauden herriko izatezko biztanlegoaren parte bakarrik dira ibilkariak, eta beraz horien erroldarapena borondatezkoa da.

Herriko legezko egoitzarako eskubidea egoiliarrek daukate, eta egoiliar horiek herrian edo kanpoan egon daitezke, nahiz eta azken horiek izatezko biztanlego kontzeptutik kanpo geratu, eta aldiz, ibilkariak bai sartu multzo horretan.

Azken finean, egoiliar edo egoitzadun izaeraren funtsa ohizko bizilekua edukitzean datza, eta ezaugarri hori eta etxebizitzarena bereizi egin behar dira, bigarrena maila pribatuko harremanak adierazteko egokiagoa delako.

Egoitzaduna izateko, halako pertsona batek udal-erroldan sartu besterik ez dauka. Horretarako, toki-jaurpiderako indarrean dagoen legediak dioenez, erroldartzeko beteharra "udalerrian bizi diren guztiek" daukate testu bateratuaren arabera, edo Toki-Jaurpiderako Oinarriak Arautzen dituen Legearen arabera, "Espainian biziz, herrian bizi ohi den espainiar edo atzerritar orok".

Edonola, aipatutako bi testuen bateratasunik eza nabarmena salatu arren, argi dago legeen arabera biztanle bat egoiliartzat jotzeko orduan erroldaratutako herrian ohiz egotea dela faktorerik eraginkorrena, alegia, herri horretan modu iraunkor eta jarraituan bizitzeko ustezko borondatea azaltzea, une bakoitzean indarrean dauden arauak beteaz eta herri eremu horretan fisikoki eta juridikoki egotearen bidez adieraziz.

Gure legediak egoiliarrari buruz egiten duen hausnarketa horren ondoren, gogora ekarri behar da kontzeptu hori beste bitan banatzen dela, egoiliarraren naziotasunaren eta adinaren arabera. Horrela, eskuarki herri batean bizi eta juridikoki espainiarrak eta adinez nagusi direnak (burujabetza baldintza betetzen dutenei parekatua) dira hiri bateko biztanleak, eta udal-jaurpiderako araudi berean biztanleari aitortzen zaizkion eskubideak daukate.

Aldiz, aipatu bi baldintzetakoren bat (edo ez bata, ez bestea) betetzen ez dutenak "helbideratu" deituraren pean biltzen dira. Lehenago esan denaren

ildotik, helbideratuta egotea da atzerriko pertsonen udal-errolan sartu eta udalaren bidez banatzen diren zerbitzu-egiterapenak jasotzeko bide bakarra.

Modu horretan, atzeritarrei udal-erroldean sartzen uzteko funtsezko datua, egoitza edukitzeko borondate eraginkorra da, denbora igaro ahala sendotua eta erroldaratu nahi den herriko espazioan zehaztua, dauden lege eta arauak jarraiki. Aztergai dugun jende multzoaren kasuan, aurreko baldintzei beste bat ere gehitu behar zaie: beren egoera juridiko berezitua Espainiako lurraldean egoteko administrazio araudiak finkatzen dituen mugei ez kontrajartzea. Bi faktoreak elkar hartuta aterako dugu atzeritarrek herri-erroldean sartzeko dauzkaten aukerei dagokien diagrama.

Legezko egoitza ideari dagokionez, ez da ahaztu behar helbideratutako atzeritarrek baldintza hori lortzen dutela, izaera hori ez zaielako egoitzadun biztanleei bakarrik ezartzen, baizik herrian ohiz bizi diren egoliar guztiei dago kiela, beren adina edo naziotasuna edozein delarik ere. Legezko egoitza, herri-tarrak bera ohiz bizi den herriarekin daukan lotura juridikoa da, eta espainiarrentzat, herri hori kokatuta dagoen komunitate autonomoko partaide politika izaera dakar berekin.

Ildo beretik, erroldaratutako atzeritarrek, hau da, helbideratutakoek herriko biztanleei legez aitortzen zaizkien eskubideetarako sarbidea eskubide politikoen alorrean gauzatzen dute hain zuzen, eta jasan beharko luketen murrizpen bakarra nazionalak ez izatetik eta oinarritzko arauaren 13. artikulua- ren ezarpenetik ondorioztatutakoa da.

#### **7.3.4. Atzeritarren egoera juridikoak eta erroldarako eta legezko egoitzarako sarbidea**

Aipatutako 7/1985 Lege Organikoak 13. artikuluan hau xedatzen du:

“Atzeritarrek, Espainian, ondorengo baldintza hauetakoren batean egon daitezke:

a) *Egonaldia*; laurogeitamar egun baino luzeagoa izango ez dena, baldin eta epe hori amaitu baino lehen egonaldiaren luzapena edo egoiliar baimena lortzen ez badu.

b) *Egoitza*; horretarako baimena lortu behar da, eta egoiliarra izateko azaldu zituen arrazoien antzekoak baditu, bere eskariz luzatu daiteke baimen hori. Baimena eta horien luzapenak gehienez bost urtera irits daitezke, baldin eta sustraitze berezirik ez badago, horretarako baldintzak arauetan jasota daudelarik.”

Artikulu horretan xedatzen denaren indarrez, atzeritarren erroldarapena oso erraz konpontzen da. Egoitza daukaten atzeritarrek helbideratu izaera lortzeko dagokien erroldan sartu behar dute eta, aldiz, egonaldi bat egiten legezko egoeran daudenak aukera horretatik kanpo geratuko dira, atzeritarta-

sun-Zuzenbidean egonaldi irudiak nolana ere daukan behin-behinekotasun asmoa dela medio.

Halere, artikulua ez ditu argitzen hiritar ez nazionalak Espainian bizi ditzaketen egoera juridiko guztiak, baina, bestalde, aipatu bi mailetan *a priori* sartu ezin diren egoera zailak berorietan sartzen saiatuko gara.

Horretarako, bi kontzeptu horien egiazko esanahia azaleratzen ahalegin-duko gara, gure antolamenduan atzerritarrak aurki ditzakeen egoera juridikoak aztertu ondoren, horiek izendaturiko bi mailetako batean sartzeko.

Aurreko puntuan genioen bezala, lan honetan lagunduko diguten bi ezau-garriak hauek dira: alde batetik, gure kasuan beti atzerritarra izango den sujeta Estatuako leku jakin batean erdi epera egoitza fisiko eta juridikoa edukitze-ko daukan borondatea, eta bestetik, Estatuak, pertsona horri denboraldi mugatua edo mugarik gabekoa bere lurlean pasatzen uzteko daukan borondatea.

Horrela bada, ikuspegi juridikotik, atzerritarrak bere egoitza Espainian kokatu nahi duela azaltzen ez duenean, egonaldi baterako etorrita dagoela pentsatuko da, Espainian egotea ahalbideratzen dion agiri batek babesten badu. Bestela, egoera hori legezkanpoko litzateke.

Atzerritarrak Estuari azaldu badio Espainian bizi nahi duela modu iraunkorrean, egoitza egoerarekin pareka daitekeen kasua izango da, atzerritarren egonaldi jarraitua horretarako beharrezko baimenarekin burutzen den kasuan. Arazo larriagoa da, ordea, Estuak atzerritarrari modu iraunkorrean hemen geratzen uzteko borondaterik aitortu ez dionean, edo agintariek hemen geratzeko baimenik eman ez eta ondorengo denboraldian sortzen dena.

Gure ustez, atzerritar batek Estatuaren lurraldean denboraldi bat pasatzeko edo, denborazko zentzuan baino gehiago, zentzu fisiko eta juridikoan egoera iraunkorragoa lortzeko daukan borondatea frogatzeko irizpide erabakiorra, dagokion egoerarako egiten duen baimen eskaria da. Nagusiki, Egoitza Baimenaz ari gara, baina baita egoera ezberdinetan antzeko egitekoa betetzen duten beste agiri batzuetaz ere, hala nola, Europako Elkarteko Estatu kide bateko hiritarrentzako Egoitza Txartelaz, Ikasle Txartelaz edo Asilatu Nortasun Agiriaz.

Horrela, atzerriko hiritarrak agiri horietakoren bat lortzeko eskaria aurkeztu duenean, Espainian bizitzeko daukan borondatea egiaztatua geratzen da. Aldiz, bere borondatez edo daukan legezko egoerarengatik eskari hori aurkeztu ezin duenean, atzerritarrak ez du horrelako eskaririk egiten eta, beraz, Estatu lurraldean jarraitzeko eduki dezakeen nahia finkatzeko orduan ezin da esan egoiliar izaera lortzeko gogorik daukanik.

Estatuaren borondatea egiaztatzeari dagokionez, barne-antolamendu juridikoaren bidetik atzerritarra egoiliartzat onartzea dela eta, horrek aurkeztu dituen eskaerei aldeko ebazpena ematean oinarritu behar dugu. Alde horretatik, egoiliar izaera izango du horretarako emandako agiriak indarrean iraun eta hori baliogabetzen duen gobernuaren edo justiziaren kontrako iritzirik ez dagoen bitartean, atzerritarren kontrako kanporatze-agindurik emango balitz, egoiliar izaera berehala galduko bailuke.

Alabaina, lehenago esan den bezala, atzerritarraren nahia eta Estatuarena agian ez dira batera gertatzen, eta horren ondorioz gertatzen diren egoerak herriko biztanleen eroldan sartzeko ezarrita dauden bi maila baliagarrietakoren batera bideratu behar dira.

Ondorio bezala, gerta daitezkeen egoeren esparru teorikoak, dagoeneko aztertu ditugun hiru kontzeptu hauek hartzen ditu: legezko bizilekua edo egoiliar izaera, egonaldia eta legezkanpo egotea. Laburpen honetan bertan egoerarik gatazkatsuenak mailakatzearren, tresna hutsa izango den kontzeptu-zubi bat hartuko dugu, eta itxaron-aroa deituko diogu. Horrela, "iraunkortasun juridiko" txikienetik handienera bitarteko mailaketan, honelako egoeretan egon daitezke atzerritarrak Espainian:

1) **LEGEZKONTRAKOTASUNA:** atzerritarraren borondatea alde batera utziz, Estatuak bere lurrean egoteko baimenik ematen ez dionean. Legezkontrakotasuna mota hauetakoa izan daiteke:

1.1. **Hasierakoa:** atzerritarra herrialdean legezkontra sartu eta bere egoera arautzeko inolako bide bereziz baliatzen ez denean (Lege Organiko edo asilatu eta errefuxiatuentzako araudi bereziko 12.4. eta 22. artikulak).

1.2. **Ondoren gertatua:** antolamenduaren arabera atzerritarraren egoitza edo egonaldiako aukera galtzen denean. Egoera hori, beste bi arrazoi-rengatik gerta daiteke:

1.2.1. **Atzerritarraren legezko egoeraren epea,** hori luzatzeko bideak erabili gabe agortu delako.

1.2.2. **Estatuak pertsona horri legezko babesa kentzeko borondatea** erakutsi duelako ondoren (nazioaren lurraldetik kanporatua izaten denean).

2) **EGONALDIA:** atzerritarrak, bere ohizko egoitza Espainian finkatu nahi ez badu ere, bertan denboraldi bat igarotzeko borondatea azaldu eta, aldi berean, Estatuak egoera hori onesten duenean (legezko egonaldiako baimena edo egonaldi-luzapena), edo atzerritarrak Espainian bizitzeko nahia agertu arren, Estatuak berariz ezetza eman duenean (Estatuaren lurraldea uzteko epea edo derrigorrez alde egin beharra). Nolanahi ere, egonaldiak, aldezturik finkatutako denbora-epean egotea esan nahi du, eta kasu batzuetan bakarrik luza daiteke hori, luzatzen denean beti epe jakin eta mugatu baterako egiten delarik. Egonaldia bi modutan uler daiteke:

2.1. **Hasierakoa:** Estatuan lege-arauz sartu den atzerritarraren egoera naturaleran gertatzen dena.

2.2. **Ondoren gertatua:** Egoitza-aldi bat amaitu ondoren, Estatuaren lurraldetik derrigorrez atera beharrik gaitik kaltetutako atzerritarrari herria uzteko ematen zaion epea.

3) ITXARON-AROA: atzerritarrak bere egoitza Espainian kokatzeko borondatea azaldu, baina Estatuak eskaera horri legezko babes emango dion borondatea azaldu ez duen bitartean gertatzen dena. Egoiliar izaera egiaztatzeko beharrezko agiriak eskatu eta eskaria ebatzi artean gertatzen den egoerari dagokio. Eskari hori hasierakoa edo berriz egina izan daiteke, alegia, lehenago zeukan egoitza-agiria ez bezalako beste bat eskatzen denean edo dagokion agiria berritzen denean, hurrenez hurren.

Atal honetan aipatzen diren kasuak egonaldi edo egoitza kontzeptuetan jasotzeko, Estatuaren borondatea beharrezkoa izango da, eta hori, aurretik burutu dituen ekintzen ondorioetatik atera beharko da.

4) EGOITZA: Estatuak, atzerritarrak Estatuaren lurraldean modu iraunkorrean bizitzeko daukan nahia egoitza-egoera aitortuz onartzen duenean, eta kasu bakoitzean behar den baimen-eskariaren aldeko ebazpena ematen denean.

Lau maila horiek finkatu ondoren, barne-antolamendu juridikoaren arabera atzerritarrak aurki ditzakeen legezko egoera guztiak aztertuko ditugu jarraian, udal-erroldaratzea eta legezko egoitzarako sarbidea aipatu egoitza kontzeptuan bil daitezkeela ulertuz.

Ildo horretatik, atzerritartasun, asilo eta babes politiko gaitan egungo legediaz azal daitezkeen ustezko kasuak, legezkontrakotasuna alde batera utziz, hauek dira:

1) Pasaporteaz edo bidezko bidai-agiriaz eta, beharrezko kasuetan, dagokion bisatuaz Espainian lege-arauz sartu ondorengo lehen egonaldia. Lehen egonaldi horren iraupena atzerritarraren jatorrizko herrialdearen araberakoa ere bada, baina halere ez da laurogeitamar egun baino luzeagoa izango (Lege Organikoa, 13. art.).

2) Egonaldi luzapena, hasierako laurogeitamar eguneko gehieneko egonaldi epea amaitu baino lehen eskatzen dena. Egonaldi kasu garbia da, Estatuko lurraldean egoiliar gisa bizitzeko nahia azaltzen ez duelako.

Egonaldi luzapenaren eskaria egin eta luzapena ematen den arteko denborak arazoak sor ditzake hasierako egonaldi-epea amaitu den kasuan. Gure ustez, luzapen-eskaria ebazten den bitartean egonaldi egoeran jarraitzen du atzerritarrak. Erantzuna luzapenaren kontrakoa balitz, atzerritarrak Estatuko lurraldea uzteko epe bat emango litzateke, eta epe hori ere, amaitu arte, egonaldiaren barruan sartuko litzateke.

3) Espainian legezkontra sartutako atzerritarren egonaldia edo egonaldi-luzapena. Kasu horietarako, Lege Organikoaren Araudiak 19. artikuluan dioenez, arrazoirik badagoenean, Barne-Ministeritzak bere egonaldia baimendu dezake. 1951ko Genebako Itunak 31. artikuluan xedatzen duenaren arabera, bide hori errefuxiatuei ezarri behar zaie. Nolanahi ere, egonaldi modu berri bat da.

4) Egoitza Baimena, Egoitza eta Lan Baimena, lkasle Txartela edo Europako Elkarteko Estatu kide bateko hiritarrentzako Egoitza Txartela. Ohizko egoitza

kasua da; etorkinak lan egiteko, ikasteko edo besterik gabe bizitzeko finkatu nahi du bere bizitokia, eta Estatuak onetsi egiten dio.

5) 4. puntuan aipatutako edozein agiri lortzeko lehen eskaria. Itxaron-aro mailan biltzen genituen kasuetako bat da hau. Atzerritarraren egoitza-nahia agerikoa bada ere, eta gainera helbide zehatz baten bidez gauzaturik, Estatuak ez dio oraindik eskariari erantzun eta, beraz, atzerritarraren borondatea aintzat hartu beharko da bere egoera egonaldi edo egoitza izaerara hurbiltzeko.

A) Horiek horrela, egoitza-agiria eskatu baino lehen egonaldi-egoeran bazegoen, ezerk ez digu pentsarazten Administrazioak eskatutako egoitza-agiria ematearen aldeko borondatea agertuko duenik. Beraz, eskaria ebazten ez den bitartean, atzerritarraren egoerak egonaldi izaten jarraitzen duela ulertu behar da.

B) Aitzitik, agiria eskatu aurretik egoitza-egoeran bazegoen, horrek agintari publikoak bere garaian atzerritarrari Estatuko lurrian bizitzeko baimena ematearen alde agertu zirela esan nahi du. Ondorioz, pentsa daiteke Estatuak horren aldeko borondatea erakutsiko duela aurrerantzean ere (Lege Organikoa, 1.1.b artikulua), horren aurka ezer adierazten ez den bitartean.

Interpretazio-modu horri jarraituz, atzerritarrak indarrean daukan egoitza-baimena amaitu aurretik beste agiri bat eskatzen duenean, bere egoera juridikoa etengabe mantentzeko baldintzak bete nahi dituela gogorarazi behar dugu, eta eskariaren ebazpena administrazio-ekintza bat baino ez dela. Horregatik, beste eskari bat egin behar badu ere, horrek ez du esan nahi bitarteko epe horretan egoiliar izaten jarraitzen ez duenik. Egoera horrek aribidean garrantzi handia du ondorio bat baino gehiagotarako eta, noski, herritar horrek helbideratu moduan herri eroldan jarraitzeari dagokionean.

6) 4. puntuan izendaturiko edozein egoitza-agiri berritzeko eskaria. Puntu hau 5. B) atalean aipatutakoarekin pareka daiteke. Beraz, han eman diren argudio berdinak hartuz, egoera hori egoitza kontzeptuan barne sartu behar dela uste dugu.

7) 4. puntuan aipatu edozein egoitza-agiriren eskaria ukatzea. Kasu honetan, aurkako bi borondate ditugu buruz-buru eta, beraz, ezin da hitzegin ez egoitzaz, ez itxaron-aroaz ere, egonaldi-egoeratzat hartu behar dugu. Halaxe da, ukatzeak ez dakar berekin zuzen-zuzenean legezkanpo geratzea, baizik eragin-dako atzerritarrak Estatuko lurraldea derrigorrez uzteko epe bat zabaltzea.

Teorikoki, derrigorrezko irteera eta kanporatzea edo itzultzea bereizi egin behar dira. Azkeneko biak, Administrazioak edo, bestela, epailaritza-agintariak ebazten dituen zigorrak dira. Aldiz, derrigorrezko irteera, egonaldi-epe mugatu bat eman izanaren ondorioa da. Epe hori agortzen ez den bitartean, atzerritarrak egonaldi-egoeran jarraitzen du, eta ezin zaio legezkanpo egoteagatik kanporatze-espediterik ireki (Lege Organikoa, 26.1. a) artikulua). Epea igaro eta pertsona hori irteten ez bada, zuzen-zuzenean legezkanpokoko egoeran sartzen da.

8) Asilatu edo errefuxiatu baldintzaren aitortpena. Laugarren puntuari azaltzen zenaren parekoa den kasu honetan, atzerritarrek Espainian egoitza izateko duen nahia babesteko borondatea agertzen du Estatuak. Kasu honetan, seguraski, atzerritarrek Espainian bizitzeko dauzkaten arrazoiak ezberdinak izango dira, baina aldiaren aldiaren arrazoiek ez dute eragiten bere borondatean, beste egoitza-agiri bat eskatzen duenean baino neurri handiagoan. Egoera hori eta egoitza edukitzea lotuta daudela frogatzeko, ikusi besterik ez dago legearen arabera asilatu eta errefuxiatuentzako egoitza-agiriak emateko aukera bada-goela (5/1984 Legearen Araudia, 19. eta 36. artikulua).

9) Asilatu edo errefuxiatu izaera aitortzeko eskaria. Kasu hori, 5. atalean jasotakoaren parean jar daiteke. Baina, eskatzen diren agirien izaerak eskariaren ondorioak baldintzatu egiten ditu, halako moduan baldintzatu ere, non araudi berezi baten bidez arautzen baita.

Argi eta garbi itxaron-aroa deitzen guren mailan sar daitekeen kasu horretan, alde batetik, eta momentuko egoerak jarraitzen duen bitartean, atzerritarrek Estatuan bizitzeko borondate osoa dauka. Bestetik, egoitza lortzeko lehen eskaria den arren, oraindik Administrazioaren borondatea zein izango den iragartzeko osagai gehiago daukagu. Kasu horretan, eskariaren aurkezpena ez da administratua bere aldetik egiten duen gauza soil-soilik, administrazioak biderapena onartzeko prozesu bati ekiten baitio.

Asilatu edo errefuxiatu izaera onartzeko eskaria aurkeztu eta bere biderapena onartzeak gai hori arautzen duen araudi berezian jakinarazten diren ondorioak dauka. Hasteko, asilo-eskaria onartzeak eragindako sujetua kanporatu ezina (5/1984 Legeko 5. art.) eta eskaria ebatzi arte "eskaria egiten duenari Espainian egoteko baimena ematen dion" nortasun-agiria ematea (Araudiko 6. art.) adierazten du, baita zenbait laguntza sozial eta ekonomiko jasotzeko eskubidea ere. Babes politikoko eskaria aurkezten dutenen kasurako ere, antzeko xedapenak finkatzen dira (Araudiko 26. eta 27. artikulua).

Bestalde, araudian bertan esaten da nortzuk diren "errefuxiatu izaeraren aitortpena eska dezaketen pertsonak" (Araudiko 22. art.).

Horregatik guztiagatik pentsatzekoa da, eskari horien biderapena onartzean, Administrazioak gutxienez Espainian itxaron-aroko baterako baimena ematen diela, eta ez egonaldi baterako bakarrik eta, hortaz, aztertzen ari garen kasua egoitza-eskariarenarekin pareka dezakegu. Halaxe da, lehen aldiz egoitza-agiria eskatzen duen atzerritarra lanean, ikasten edo zerbaitetan hasteko Gobernuaren erantzunaren zain dagoelarik ere, asilo edo babes politikoko eskaria onartu dioten pertsona Espainiako lurraldean egiaz bizitzen hasten da, eta areago, administratu-harremanak ere edukitzen Estatuaren zenbait erakunde publikoekin.

Nolanahi ere, kontzeptu aldetik zail gertatzen da egoera hori egonaldi mailara bideratzea. Horrela, behin-behineko egoitza izaera ematea proposatzen dugu, eta, gure ondorioetarako, horrek esan nahi du herri bateko errodan sartzearen baldintzapean, laguntza, eskubide, betebeharrak eta zerbitzuetarako sarbidea daukala.

10) Asilatu edo errefuxiatu izaera aitortzeko eskaria ukatzea. Asilo politiko eskaria onartzen ez den kasuan, araudiaren arabera hiru hilabeteko epea dago atzerritarrek egoiliar izaera edukitzeko eskaria aurkez dezan (Araudiko 20. art.). Errefuxiatuaren kasuan, ez da eskari horretarako eperik jartzen (Araudiko 33. art.).

Kasu horretatik atera behar dugun ondorioa hau da: egoitza-agiriak ukatzen direnean gertatzen den bezalaxe, atzerritarra egonaldi-egoeran geratzen da, eta Espainian egoitza lortzeko beharrezko agiria eskatzeko duen aukerak arintzen du neurri batean egoera hori.

Asilo edo babes politiko eskaria ukatu eta geroago egoitza-agiria lortzen duen atzerritarrantzat bidegabeta izan daiteke eman dugun azalpena. Eta hala da, egoitza-egoeran dagoen epean kaltegarria gerta lekiokie etenaldi hori, bigarren eskariaren ondoren emandako agiria lehenbiziko aldiari eskatu izan balu, etenik gabe egoiliar izaera edukiko zukeelako. Nolanahi ere, Estatuak ez du onartu azaldu bidearen bitartez egoiliar izaera ematea eta, beraz, inondik ere ezin da ulertu egoitza-egoeran dagoenik; horregatik, berori egonaldi kasuaren mailan jarri behar dugu.

Egonaldirako epea gaingitu eta egoitza-agiria lortzeko eskaririk aurkeztu ez denean, zuzen-zuzenean aurrekoaren ondorengo legezkontrakotasun-egoeran geratuko litzateke. Bestalde, egoitza lortzeko eskaria epe barruan egin eta erantzunik gabe dagoen kasuan, egonaldi-epea berez luzatzen dela ulertu beharko litzateke, eta kasu horretan 5. A) atalean azaldutako egoeraren parean jarriko litzateke.

11) Lan eta Egoitza Baimenak lortzeko eskakizuna bete beharrik eza. 7/1985 Lege Organikoko 16. artikulua arabera, bertan aipatzen diren ataletan sar daitezkeen pertsonak ez daukate lanerako baimena lortu beharrik. Kasu hori egoitza daukatenenarekin berdindu behar da, Estatuan bizitzeko beharrezko baimena lortu beharrik eza adierazten duelako, eta horrek esan nahiko luke agiri hori berez emanda daukala.

Eragindako pertsonak Espainian bizi nahi ez duenean bakarrik aurkituko ginateke ustezko egonaldi-egoeran, eta alderantzizko kasuan, berriz, atzerritarren egoera egoiliar izaerarekin parekatzeko baldintzak betetzen direla pentsatu behar da.

12) Espainiako agintariak bidai-agiria ematea. 7/1985 Lege Organikoaren 28. artikulua dioenez, Espainian inolako agiririk gabe egon eta pasaporte propiorik lortu ezin duten atzerritarrei bidai-agiri bat eman ahal izango diete horretarako ahalmena daukaten agintariak. Agiri horrek iraupen mugatua edukiko du.

Beraz, ustezko egonaldi kasu baten aurrean gaude. Bide hori erabiliz, hasierako edo ondoren gertaturiko legezkontrakotasuna egonaldi bihurtzen da. Baina, Estatuak lurraldean utzi gabe agiri hori iraungitzen bada, atzerritarra berriro legezkontrakotasun-egoerara itzultzen da.



13) Agiririk gabeko atzerritarrei Izen-emate Txartela eskuratzea. Lege Organi-koan iragartzen diren egoera berezien barruan, 22. artikulua dio agiririk gabe egon eta inongo lurraldetako agintariek agiririk eman ezin dieten atzerritarren kasuan, salbuespen gisa, Barne-Ministeritzan izena eman dutela egiaztatzen duen agiria lortu ahal izango dutela, "gehienez bost urtez bertan bizitzeko bai-mena jaso dutela" frogatzen duena (Araudiko 27. art.).

Beraz, egoiliarra izateko bidea ematen dion agiria da, nahiz eta salbues-penezkoa izan. Nolanahi ere, Estatuak txartel hori ematen badu, ulertu behar da horrek onesten duela atzerritarrek Espainian bizitzeko eskariaren bidez azaldu duen borondatea, eta kontzeptu hori, beraz, egoitzaren parekoa da.

Espedientea eskatu eta ebazteko epeari dagokionez, 5. A) atalean azaldu dugun egoiliar-egoeraren parekoarekin topo egingo genuke.

### 7.3.5. Ondorioak

Azaldutako guztia aintzat hartuz, ondorio hau atera dugu: atzerritar bati herriko biztanleen erroldarako eta legezko egoitzarako sarbidea emateko, berorrek, dagokion herrian bizitzeko azaltzen duen borondateaz gain, Admin-istrazioaren onespenez zehatza behar du.

Jarraitu den arazoibidearen arabera, ondoren aipatuko diren agirietako-ren bat daukaten atzerritar guztiei aitortu behar zaie erroldaratzeko eskubidea eta betebeharra. Hona hemen agiri horiek:

1. Egoitza-Agiria (hasierakoa, ohizkoa edo berezia).
2. Ikasle Txartela.
3. Europako Elkarteko Estatu kide bateko hiritarrentzako Egoitza Txar-tela.
4. Asilatu izaeraren aitortpena.
5. Errefuxiatu izaeraren aitortpena.
6. Asilatu izaera aitortzeko eskaria.
7. Errefuxiatu izaera aitortzeko eskaria.
8. Egoitza Baimena berritzeko eskaria.
9. Ikasle Txartela berritzeko eskaria.
10. Europako Elkarteko Estatu kide bateko hiritarrentzako Egoitza Txar-tela berritzeko eskaria.
11. Europako Elkarteko Estatu kide bateko hiritarrentzako Egoitza Bai-mena, Ikasle Txartela edo Egoitza Txartelaren eskaria, beste bi atale-tako agiriren bat daukatenean.
12. Agiririk gabeko atzerritarrentzako izen-emate txartela.
13. Lan eta Egoitza Baimena behar ez dituela egiaztatzen duen agiria.

## 7.4. BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN ERAIKUNTZ-AKATSEN ERANTZUKIZUNA

### 7.4.1. Arazoaren azalpena

Urtez urte, Ararteko honi behin eta berriro eskuetarutzen zaio babes ofizialeko etxebizitzetan, sustapen pribatukoetan nahiz sustapen publikokoak edo etxebizitza sozialak deitzen direnetan, egoten diren eraikuntz-akatsen arazoa.

Honelakoan adibide oso egokia iruditzen zaigu ondoan azalduko duguna:

Bikote batek, kontratu pribatu baten bidez, sustapen pribatua duen babes ofizialeko etxebizitza erosten du, oraindik eraikitzen ari dena.

Obrak amaitzean, sustatzaileak behin-betiko zermugapen-txartela eskatzen dio Etxebizitzarako Lurralde-Ordezkaritzari, alegia, etxebizitzan bizitzen jartzeko administrazio-baimena. Orduan, Administrazioak ikuskapen teknikoa egiten du, amaituta dauden obrak aurretik onartutako egitamuaren eta behin-behineko zermugapen-txartelean ezarritako baldintzen arabera burutu diren egiaztatzeko; eraikuntzan akatsik antzematen ez bada, besterik gabe ematen da behin-betiko zermugapen-txartela.

Ondoren, sustatzaileak etxeko giltzak ematen ditu, itxuraz etxea egoerarik onenean dagoela, baina handik denbora gutxira arazoak hasten dira etxean bizi direnentzat; izan ere, eraikuntzak dituen ezkutuko akatsak azaltzen dira, esate baterako, pitzadurak eta hezetasun-arrastoak horma eta sapaletan.

Etxetiarrek kezkatzen hasten dira, pisu horretan beren aurrezki guztiak erabili dituztelako, eta hipotekatu ere egin dutelako, aurrezki-kutxak etxea erosi ahal zezaten emandako maileguaren berme gisa. Apurka-apurka gauzak okertuz doaz, eta ikusten dute, alde batetik, ez dutela konponketak egiteko dirurik eta, bestetik, hipoteka-maileguaren hilerokoak ordaindu beharrak murriztu egiten diela dirua aurrezteko aukera.

Orduan sustatzailearengana jotzen dute, eta hezetasun-arrastoak kentzeko egin beharrekoak egingo dituela agintzen die horrek. Alabaina, egunak joan eta egunak etorri, berriro ikusten hasten dira sustatzaileak akatsak apaintzeko egindako lana itxura hutsa dela, sapaletan eta hormetan pintura esku bat eman besterik ez duela egin, eta den-dena alferrik. Bien bitartean, pitzadurak eta hezetasuna berriz agertu ez ezik, egunetik egunera handiagoak dira.

Azkenik, Etxebizitzarako Lurralde-Ordezkaritzan salaketa egitea erabakitzen dutenean, sail horrek teknikari bat bidaltzen du etxebizitza ikuskatzera eta Administrazioak berak behin-betiko zermugapen-txartela eman zuenean antze-man ez zituen akatsak aztertzerako. Ordezkaritzako aparejadoreak jabeek esandako eraikuntz-akatsak egiaztatu eta, orduan, Lurralde Ordezkaritzak sustatzailearen kontrako espedientea irekitzen du, aparejadorearen txostenean oinarrituz.

Hainbat hilabeteren buruan, espedientea bideratu ondoren, Administrazioak erabaki bat hartzen du: diru-isuna ezartzea sustatzaileari oker larri bategatik, bai eta, gainera, adierazten zaizkion konponketak bi hilabetetan burutu

beharra ere, hori guztia Babes Ofizialeko Etxebizitzetarako Araudiaren 155. artikulua dioenari jarraituz (uztailaren 24ko 2.114/68 ED).

Sustatzaileak zigor-erabaki horren kontrako administrazio-errekurtsua ezartzen du orduan. Bitarte horretan, konponketa-lanak atzeratu egiten dira, etxetiarren kalterako; izan ere, denbora igaro eta igaro, eta ez da konpontzen pitzaduren eta hezetasunaren arazoa.

Bikoteak berriro protesta egiten du Lurralde Ordezkaritzan, eta honek isun behartzaile bat baino gehiago jarri arren, sustatzaileak ez ditu ordaintzen.

Administrazioak ezetsi egiten du administrazio-errekurtsua, eta orduan sustatzaileak administrazio-azibidezko errekurtsua ezartzen du Justizi Epaitegi Gorenean zigor-erabaki horren kontra, hau da, eraikuntzak dituen akatsak konpontzeko lanak egitera behartzen duen erabakiaren kontra.

Babes Ofizialeko Etxebizitzetarako Araudiaren 155. eta 168. artikuluen arabera, bai eta Etxebizitza Politikarako azaroaren 10eko 3.148/78 Erret Dekretuko 58. eta 59. artikuluen arabera ere, Administrazioak sustatzailearen ordeze egin ditzake konponketak, sustatzaileak eskatu izan zaionean egin ez baditu.

Ildo beretik, lehenago Administrazio Jardunbidearen Legearen 104. b) artikulua arabera, eta orain Administrazio Publikoen Lege-Jaurpiderako eta Administrazioaren Jardunbide Arrunterako 30/92 Legearen 98. artikulua arabera, Administrazioak berak eraman behar ditu burura berak emandako erabaki eta ekintzak, eginbeharra guztiz pertsonala denean izan ezik, baldin eta derrigorrez burutzeko beste bideak alferrikakoak gertatu badira.

Hala ere, komunitate autonomo honetan ez ezik, besteetan ere Administrazioak behin eta berriro uko egiten dio ordezeko bidetik edo subsidiarioki konponketak egiteari.

Bere aurrekontuetarako zama handia litzatekeela dio argudio moduan; izan ere, kontutan hartuz asko kostatzen zaiola isunak kobratzea, eta batzuetan kobratzerik ere ez duela lortzen, ordezeko bidez egindako konponketak kobratzea askoz zailagoa izango da, askoz diru-kopuru handiagokoak dira eta. Horregatik, Administrazioak bere gain hartuz gero konponketa lanak, azkenik bera izango litzateke obra horiek ordainduko litzuzkeena, bere aurrekontuen bitartez.

Honi buruz esan behar da askotan alferrekoa dela Administrazioak dirubilketa egiteko duen ahalmena, hau da, akatsak konpontzeko lanen kostua alde aurretik kobratzeko edo ordainarazteko duen aukera. Beste horrenbeste gertatzen da premiabidezko ordainarazpena erabakitzeko duen ahalmenarekin, nahiz eta horrek aukera eman aginduak betetzen ez dituen sustatzailearen ondasunetik kobratzeko.

Argi dago zergatik gertatzen den alferrekoa dirubilketa ekintza hori: sustapen-elkarte asko halako etxebizitza-sustapen jakin baterako bakarrik eratzen dira, eta eraikuntza amaitu eta etxebizitzak edo higiezinak saldu ondoren, elkarteko akziodunek domugabetu egiten dute, baina deuseztatu gabe. Gauzak horrela, entrepresak ez dauka inolako ondasun-baliabiderik bere zorrak kitatzeko edota sustapenaren ondorioz gertatutako erantzukizunei aurre egiteko.

Zoritzarreko bikoteari, orduan, aukera bakarra geratzen zaio, baina askotan horretarako gogorik ez: alegia, lehen auzibidetarako epaitegian auzia ezartzea, Araudi Zibileko 1.519 artikulua babespean, sustatzaileari erai-kuntz-akatsen erantzukizuna eskatzeko. Dena dela, bere aldeko epaia lortuta ere, entpresak ordaintzeko gaitasunik ez duela gertatzen da, lehenago esandako arrazoirengatik; hau da, ez dauka epailearen erabakia betetzeko biderik. Gainera, ez da ahaztu behar epaibidera jotzeak areago atzeratzen duela akatsen konponketa, berez gogaikarria dela, eta gastuak ere eragiten dituela, abokatuaren, prokuradorearen eta auziaren kosteak ere ordaindu beharra dagoelako.

#### 7.4.2. Lege-jaurpidea Konstituzioaren eta eskumenen arabera

Aurreko lerroaldietan azaldu dugun arazoak nolako irtenbideak izan ditzakeen ikusteko, beharrezkoa da indarrean dagoen lege-jaurpidea zein den zehaztea, Konstituzioaren oinarritik hasi eta araubidezko garapeneraino.

Gauzak horrela, ezer baino lehen, Konstituzioaren 47. artikulura jo behar da; horren arabera:

“Espainol guztiek bizitza duin eta egokia izateko eskubidea dute. Agintari publikoek behar diren baldintzak bultzatuko dituzte eta arau erakoak ezarriko eskubide hau egiteratzeko (...).”

Arau horretatik, oso ondorio interesgarriak atera daitezke:

- Eskubide hori “espainol guztiei” aitortzen die; horrek esan nahi du etxebizitza alorreko politikak errenta aukera gutxiago dutenen alde berbanatzen ahalegindu behar duela.

- Etxebizitzak “duin eta egokia” izan behar duela dio; hau da, segurua eta osasungarria izateko baldintza guztiak bete behar ditu, bai eta gutxieneko bizigaitasun-neurriak ere.

- Agintari publikoak etxebizitza alorreko administrazio-ekintzan sartzen ditu, esaldiaren bukaerako aginduak argi dioen bezala: “behar diren baldintzak bultzatuko dituzte eta arau erakoak ezarriko eskubide hau egiteratzeko”.

Konstituzioaren arabera, Administrazio publikoak bere esku hartu behar du etxebizitza alorreko jarduera nagusi eta eraginkorra, alor hori bultzatu behar duelako eta, halaber, behar diren neurriak hartu eta bete behar dituelako etxebizitza duina izateko eskubide hori egiazkoa izan dadin.

Bestalde, beharrezko babes-neurriak ere hartu behar ditu, etxebizitza baten sustatzailearen eta erosle edo erabiltzailearen arteko harremanetan garantia edo bermabide batzuk egon daitezen, etxetiarra erai-kuntz-akatsetatik babesteko.

Etxe-eroslea halako ondasun baten kontsumitzaile edo erabiltzailea denez gero, aipatzekoa da hemen Konstituzioaren 51.1. artikulua ematen duen babes osagarria:

“Agintari publikoek kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsa bermatuko dituzte, era eragile batzuen bidez, seguritate, osasun eta beraiei dagozkien interes ekonomikoak babestuz.”

Etxebizitza alorrean administrazio publikoek izan behar duten jokabide eragile horri dagokionez, kontutan har dezagun hamazazpi komunitate autonomoek, beren estatutuen arabera, beren gain hartu dutela Espainiako Konstituzioko 148.1.3. artikuluan aipatzen den etxebizitza alorreko eskumen eskusibo edo alderazlea.

Euskal Herriko Autonomi Estatutuko 10.31. artikuluarri jarraiki, Elkar-teak bakarrik dauka etxebizitza alorreko eskumena, bai eta lurraldearen eta itsasertzen antolaketa eta hirigintza buruzkoak ere.

Nolanahi ere, begien bistan dago eskumen eskusiboa kontzeptu konstituzionala ez dela hitzez hitz hartu beharrekoa, eta, beraz, Konstituzio Auzitegiaren epaien doktrinaren argitan zehaztu behar dela; ildo horretatik, bereziki aipagarria da uztailaren 20ko 152/88 Epaia. Dena dela, eskuartearen darabilgun gai honetarako, nahikoa da adieraztea komunitate autonomoek oso eskumen zabala dutela, bai arauak egiteko bai betearazteko orduan, etxebizitza alor orokorreko gai desberdinetarako jardunbide bereziak tajutu eta martxan jartzeko ere.

Jakinekua da eskualdaketetarako erret dekretuek ez dutela inolako eskumenik aitortzen ezta inoren gain uzten, baizik eta eskumen horiek autonomi estatutuen arabera jasotzen direla; hortaz, erret dekretuek halako eskumen berezi bati eratzekitako giza eta langai bitartekoak zehaztu eta bideratu besterik ez ditu egiten.

Euskal Autonomi Elkar-teari dagokionez, etxebizitza alorreko zeregin eta zerbitzuak azaroaren 27ko 3.006/81 Erret Dekretuaren bitartez eskualdatu ziren (EBO, 304. zk., abenduaren 21ekoa); eta, bestalde, horren osagarri gisa, eraikuntzaren kalitatea ikuskatzeari buruzko eskumena abenduaren 18ko 2.628/85 Erret Dekretuaren bitartez hartu zuen bere gain (EBO, 16. zk., 1986ko urtarrilaren 18koa).

Esandako 3.006/81 erret dekretu horretako eranskinaren leerroaldi batzuk ekarriko ditugu hona, oso ondo argitzen dutelako noraino iristen den eraikuntzaren araugintza teknikoan eta kalitate-zaintzan Euskal Autonomi Elkar-teak duen eskumena. Hona hemen:

“B) Eraikuntzen segurtasun eta osasungarritasunari dagokionez, Euskal Autonomi Elkar-teak erabiliko dituen irizpideen exijentzi-maila ezingo da izan Estatuko lurralde guztian ezartzekoa den edota Estatuak nazioarteko hitzarmen, itun edo gomendioak betetzearren agintzen duen oinarritzko araudi teknikoak edukinak baino txikiagoa.

C) Estatuko Administrazio Zentralaren eskumena da eraikuntzan erabilitako langai, ekoizpen, tresneria eta sistemen kalitaterako zigilu edo markak ematea, horiek Estatuko lurralde osorako balioa daukatenean; bere esku dago, baita ere, lurralde-esparru horretxen barruan eraikuntzaren kalitatea ikuskatzeko zeregina betetzen duten entrepresa edo erakunde laguntzaileak homologatzea. Euskal Autonomi Elkartearen barne, Estatuko administrazio zibileko zerbitzu ahaldunek beteko dituzte bi eginkizun horiek.

Aurrean esandakoa galerazi gabe, Euskal Autonomi Elkartearen eskumenekoa izango da bere lurraldearen barruan egindako eraikuntzen kalitatea ikuskatzea."

### 7.4.3. Eraikuntzaren kalitatea

Eraikuntza baten akatsek eragindako arazoak itzuri, nahi badira, eraikitze-ko orduan bertan neurriak hartzea da onena. Horretarako, materialen kalitateari begiratu beharko zaio, eraikuntza-lanak hobetu, eta kalitate-ikerketak egin, azken emaitzak egokiak diren ziurtatzeko.

Baina hori ez da dirudien bezain erraza; izan ere, sortan egin daitezkeen beste produktu batzuk ez bezala, eraikuntzak banakako hainbat prozesuren bitartez egiten dira, haietan oso tankera desberdineko langai edo materialak erabiliz, mekanizazioa oso mugatuta dago, eta eragin erabakiorra du eraikuntzan parte hartzen duten langile-mota guztien trebetasunak.

Langaiei dagokienez, gaur egun ahaleginak egiten dira jatorritik bertatik beren kalitatea egiaztatzen duen ziurtagiriren batez irits daitezen lantokira. Horretarako kalitate-zigilu edo marka erabiltzen da nagusiki: hau da, halako sail ofizial batek ziurtatu egiten du ekoizpen horren kalitate estatistikoa arauekin bat datorrela, eta ekoizleak berak bermatzen du ekoizpen-sorta bakoitzaren kalitatea.

Bestalde, langai horiek erabiltzen diren eraikuntza-lanek behar bezalako kalitatea duten ere jakin behar da. Horretarako, halako saio-proba batzuk egin behar izaten dira halako lagin batekin, Administrazioak bereziki ontzat emandako laborategietan.

Obra-egitasmo bakoitzean ongi zehaztu behar da nolako langaiak erabiliko diren, adostasun-zigilu edo markarik eduki behar duten ala ez, eraikuntzaren fase bakoitzean nolako kalitate-ikuskapenak egin behar diren, noraino betetzen diren ezarri beharreko eraikuntzarako oinarrizko arauak eta arau teknologikoak, eta, oro har, eraikuntzaren kalitatean eragina duen edozein arau betetzen den. Hala eta guztiz ere, orain arte ez da inolako biderik egon kalitate-ikuskapen horiek benetan betetzen diren egiaztatu ahal izateko, eta horregatik askotan ez ziren kontutan hartzen edo errespetatzen.

Ondoren, etxebizitza libreei eta babes ofizialekoei ezarri beharreko eraikuntzarako kalitate-arauak azalduko ditugu.

### 7.4.3.1. **Salmenta libreko etxebizitzan**

Eraiki eta gero merkatuan erosten diren etxebizitzaren kalitatea ziurtatzearen, hainbat arau tekniko ezarri dira, batzuk derrigorrez bete beharrekoak eta besteak bideratzekoak; bai batzuek, bai besteek ere jasota egon behar dute eraikuntza-egitasmoetan, eta lanak burutzean bete egin behar dira.

#### **A) Estatu mailako arauak**

- *Eraikuntzaren oinarrizko arauak (EOA):*

Etxebizitza Ministeritzak prestatutakoak dira; ezagutza zientifiko eta teknologikoan oinarrituta, haien bitartez halako erregela batzuk finkatzen dira, eraikuntzen egitasmo teknikoetan eta eraikuntza-lanetan ere ezagutza horiek egoki jasotzen direla bermatzeko.

Derrigorrez bete beharrekoak dira; hau da, eraikinak egiteko lanetan parte hartzen duten egile guztiak errespetatu eta bete behar dituzte.

Eraikuntzarako araudiari buruzko ekainaren 10eko 1.650/77 Erret Dekretuak ezarritako lege-esparrua da oinarrizko araudi hau antolatzen duena (EBO, 163. zk., uztailak 9). Horrekin batera, badago oinarrizko ebazpen tekniko sorta handi bat, dekretu mailakoak gehienak, eraikuntzako osagai, langai eta ekintza guzti-guztien ezaugarriak araupetzen dituen.

- *Eraikuntzaren arau teknologikoak (EAT):*

Arau hauek eraikuntzako kasu praktiko ohizkoetarako jardunbide gomendagarriak zehazten dituzte, eta eraikuntza-lanetan eraginkortasuna, segurtasuna eta kalitatea suspertzeko helburua dute.

Beren sistematikan, sei aldi osagarritan garatzen dituzte eraikuntzako ekintzak, eta aldi horiek teknikari desberdinek egin ditzakete; honako hauek dira:

- Egitasmoa tajutu.
- Instalakuntzak eta egiturak kalkulatu.
- Obra eraiki eta burutu.
- Eraikuntzaren kantitate eta kalitate ikuskapena.
- Egindako lana balioetsi.
- Mantenimendu edo kontserbazioa.

Oinarrizko arauak ez bezala, hauek ez dira derrigorrezkoak, eta horregatik, kalifikazio edo zermugapenean esku hartzen dutenek arau teknologikoetan bildutako irtenbide teknikoak ez ezik, beste batzuk ere hartu ahal izango dituzte. Hori bai, arau teknologikoek ezinbestez bete behar dute oinarrizko arauen finkatutakoa.

Arau teknologikoek duten alde ona zera da: eraikuntzaren sei aldietan parte hartzen dutenek derrigorrez ezagutu behar dituztela, Administrazioak homologatutako irtenbide eta irizpide teknikoak direlako, eta, baita ere, arkitektoak, egitasmoan -bai bere kasa, bai eraikuntzaren sustatzailearen ekimen- erabaki behar duelako arau teknologiko horiek zertzat hartu, alegia, argi-

tasun hutsezko dokumentaziotzat, neurri batean erabili beharreko agiritzat ala zuzenean ezarri beharreko arautzat.

Arau hauen lege-esparrua, Eraikuntzaren Arau Teknologikoen ezarpenari buruzko abenduaren 23ko 3.565/72 Dekretuak (EBO, 13. zk., 1973ko urtarrilak 15) eta 1974ko irailaren 27ko Aginduak (EBO, 234. zk., irailak 28) finkatzen dute. Arau teknikoak Ministeritzaren aginduz onartzen dira, eta gero Estatuko Buletin Ofizialean (EBO) ematen dira argitara, eta haien izendapean 1983ko uztailaren 4ko aginduan finkatutako sailkapen sistematikoari jarraitzen zaio.

### **B) Arau autonomikoak**

Autonomi elkarte askotako administrazioek eraikuntzen kalitatearen zaingoa araupetzea erabaki dute, hainbat arrazoiengatik: alde batetik, alor horren lehiakortasuna hobetzeko; bestetik, erosleek eta kontsumitzaileek eraikuntzaren kalitate duina eskatzeko duten eskubideagatik; eta, batez ere, gauza jakina zelako ordurarte eraikuntzetan egiten ziren kalitate-ikuskapenak oso gutxi eta eskaxak zirela.

Gaur arte onartutako erabakietan, dekretuen maila berarekin, langaien eta obra-unitateen kalitatea zaintzeko era finkatu da, bai eta ikerketa-saioak egiten dituzten laborategien akreditazioa ere.

Interesgarria iruditu zaigu jakitea nolako kalitate-arakabideak erabiltzen diren komunitate autonomoetan, eta hemen bildu ditugu.

### **Euskal Autonomi Elkarte:**

- Abuztuaren 30eko 467/1991 Dekretua, eraikuntzaren kalitatea zaintzeko arauak ematen dituena (irailaren 4ko EHAA, 177. zk., eta azaroaren 12ko oker-zuzenketa).

- Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailburuaren 1991ko irailaren 2ko Agindua, eraikuntzaren kalitatea zaintzeko arauak ematen dituen abuztuaren 30eko 467/1991 Dekretuko alde batzuk garatzen dituena (irailaren 4ko EHAA, 177. zk., eta abenduaren 24ko oker-zuzenketa).

- Hirigintza eta Etxebizitza Sailburuaren 1991ko azaroaren 28ko Agindua, eraikuntzaren kalitatea zaintzeko arauak ematen dituen abuztuaren 30eko 467/1991 Dekretuko alde batzuk garatzen dituen 1991ko irailaren 2ko Agindua aldatzeko dena.

- Abenduaren 9ko 321/1993 Dekretua, eraikinen kalitatea zaintzeko ezohizko prozedura arautzen duena (1994ko urtarrilaren 18ko EHAA, 11. zk.).

### **Andaluzia:**

- Urtarrilaren 27ko 13/1988 Dekretua, eraikuntzaren eta herri-lanen kalitate-ikerketa araupetzen duena (otsailaren 12ko AJAA, 11. zk.).

### **Katalunia:**

- Abenduaren 1eko 375/1988 Dekretua, eraikuntzaren kalitate-zaintzeari buruzkoa (abenduaren 28ko KGAA, 1.086. zk., eta 1989ko otsailaren 24ko oker-zuzenketa).



- Lurralde Politikarako eta Herrilanetarako Sailaren 1989ko urtarrilaren 25eko Agindua, eraikuntzaren kalitate-zaintzari buruzko abenduaren 1eko 375/1988 Dekretua garatzen duena (otsailaren 24ko KGAA, 1.111 zk.).

- Lurralde Politikarako eta Herrilanetarako Sailaren 1989ko irailaren 13ko Agindua, eraikuntzaren kalitate-zaintzari buruzko abenduaren 1eko 375/1988 Dekretua garatzen duena (azaroaren 11ko KGAA, 1.205 zk.).

- Etxebizitzari buruzko 24/1991 Legea, azaroaren 29koa (1992ko urtarrilaren 15eko KGAA, 1.541. zk.).

#### **Valentzia:**

- Valentziako Generalitatearen Kontseiluaren 107/1991 Dekretua, ekainaren 10ekoa, etxebizitzaren eraikuntzaren kalitate-zaintza eta haien dokumentazioa araupetzen dituena (ekainaren 24ko VGAA, 1.571. zk., eta uztailaren 23ko oker-zuzenketa).

- Herrilan, Hirigintza eta Garraio Sailburuaren 1991ko irailaren 30eko Agindua, Eraikuntza eta Etxebizitza Obren kalitateari buruzko liburua onartzen duena (urriaren 8ko VGAA, 1.638. zk., eta faszikuluak).

- Herrilan, Hirigintza eta Garraio Sailburuaren 1991ko azaroaren 28ko Agindua, irailaren 30eko agindua aldatzen duena (azaroaren 9ko VGAA, 1.679. zk., eta 1992ko otsailaren 3koa, 1.715. zk.).

#### **Kanariak:**

- Maiatzaren 8ko 80/1987 Dekretua, eraikuntzaren kalitate-zaintzari buruzkoa (ekainaren 10eko KAA, 74. zk.).

- Etxebizitzari buruzko 11/1989 Legea, uztailaren 13koa (uztailaren 21eko EBO, 99. zk.).

#### **Galiza:**

- Irailaren 30eko 232/1993 Dekretua, Galizako Komunitate Autonomoko eraikuntzen kalitate-zaintza araupetzen duena (urriaren 15eko GAA, 199. zk.).

#### **Nafarroa:**

- Azaroaren 22ko 317/90 Foru Dekretua, sustapenari eta kalitateari buruzkoa (abenduaren 24ko NAA, 155. zk.).

#### **Asturiasko Printzerria:**

- Ekainaren 12ko 64/1990 Dekretua, eraikuntzaren kalitate-araua onartzen duena (APAA, uztailak 24).

#### **Gaztela eta Leon:**

- Apirilaren 22ko 83/91 Dekretua, eraikuntzaren kalitate-zaintzari buruzkoa (apirilaren 26ko GLAA, 79. zk., eta maiatzaren 15eko oker-zuzenketa, 91. zk.).

### **Estremadura:**

- Apirilaren 16ko 46/1991 Dekretua, eraikuntzaren kalitate-zaintzari buruzkoa (apirilaren 25eko EBO, 31. zk.).

### **Kantabria:**

- Etxebizitza eta Arkitekturarako Zuzendaritza Nagusiaren 1991ko ekainaren 3ko erabakia, Herrilan eta Garraio Ministeritzak eta Kantabriako Komunitate Autonomoak eraikuntzaren kalitatea zaintzeko egindako hitzarmena argitara dadin agintzen duena (uztailaren 10eko EBO, 164. zk.).

### **Errioxa:**

- Martxoaren 11ko 14/1993 Dekretua, eraikuntzaren kalitate-zaintzari buruzkoa (martxoaren 16ko EAA, 32. zk.).

### **Aragoa:**

- Hirigintza, Herrilan eta Garraio Sailaren 1986ko urriaren 29ko Agindua, sustapen publikoko eraikuntza-lanen langaien eta instalakuntzen kalitate-zaintza araupetzen duena (azaroaren 19ko AAA, 115. zk.).

Kalitate-zaintzari buruzko araudi honekin amaitzen da zirkulua, kalitatearen zaintzari dagokionez. Lan-egitasmoetan jasotzen dira eraikuntza bakoitzean bete behar diren oinarriko arauak nahiz arau teknologikoak, eta arau horietan zehazten da zeintzuek izan behar duten langaiak teknikoki egokiak direla eta obran zuzen erabiltzen direla bermatzen duten saioak. Kalitate-zaintzari buruzko dekretu horietan ondo finkatzen da eraikuntza-lanetan ikuskapen horiek egingo direla bermatzen duen bidea.

Euskal Autonomi Elkarteari dagokionez, 467/91 Dekretua daukagu, alegia, erakunde ofizialen partaidetzarekin egiten den jardunbide batez, eraikuntzan kalitate-zaintzari buruz indarrean dagoen araudia beteko dela bermatzen duena. Horrekin batera, obran parte hartzen duten fakultatiboen eginkizunak eta, beraz, erantzukizunak ere zehazten ditu.

Dekretuaren arabera, eraikuntza eta hirigintza-lanak egiteko egitasmo baten kontrata-aurrekontua 100 milioitik gorakoa baldin bada, txostenean "Kalitate-zaintza" izeneko atal bat sartu behar da, langaiak eta obra-unitateen ezaugarriak eta baldintzak zehazteko.

Obraren garapenaren zuzendariak berak, aparejadoreak normálean, eta, zuzendaritzan arkitektoa eta aparejadorea egonez gero, azken horrek idatzi behar du "Kalitatea zaintzeko egitaraua", eta bere Bazkunde Ofizialari helarazi behar dio, balioetsi eta ontzat eman dezan. Ondoren, horren ale bat bidali behar du akreditaturiko saio-laboregietako batera, erabili behar den langai bereziaren kalitatea ikertzeko (Arabán, Euroestudios; Bizkaian, Cinsa España, I. Ereño SA, Labein, Saiatek eta Tecnicontrol; eta Gipuzkoan, GIKESA, Inasmet, LICESA, Saiotegi eta Sokoá Geotecnia).

Obraren garapenaren zuzendariak Kalitatea Zaintzeko Liburuan jaso beharko ditu saio bakoitzaren emaitzak, laborategiaren izena, eta langaien jatorrizko ziurtagiri, marka edo ziguiluak, horrelakorik baldin badute.

Obraren azken ziurtagiria luzatzeko eta bizigaitasun-txartela jaso ahal izateko, edota behin-betiko zermugapena edo lehen okupaziorako baimena eskuratu ahal izateko, nahitaezkoa da Kalitatea Zaintzeko Ziurtagiria aurkeztea, hau da, egindako ikerketa bermatzearren obra-zuzendariak egiten duen agiri ofiziala.

### C) Europako Batasunaren arauak

Europako Batasunak industriatzat hartzen du eraikuntza, bere helburuen artean ez baitago obrak zuzenean burutzea. Horregatik, industri-jarduera izanik, III. Zuzendaritza Nagusia sartuta dago ("Barne-merkatua eta industri-gaiak"), 5. Dibisioan zehazki.

Zuzendaritza nagusi horretan egiten diren lan-egitarauak helburu orokor bat daukate: obretako ekoizpenen zehaztapenak, kalitatea zaintzeko iker-bideak eta ekoizpen-araudiak bateratzea.

Horrekin batera, "eurokodeak" deritzenak ere ari dira prestatzen, hau da, Europako Batasunean egiten diren eraikuntza-lan guztiek bete beharko dituzten araudiak; dokumentu hauek zuzendaritza baten bitartez onartu beharko dira.

Dagoeneko badaukagu Europako Komunitateen Kontseiluaren zuzendaritza bat, EEE 89/106 zenbakikoa, 1988ko abenduaren 21ean onartua, eraikuntzaren ekoizpenak araupetzen dituena (1989ko otsailaren 11ko ECAA, L 40/12. zk.). Bertan, eraikuntzaren ekoizpenek bete behar dituzten funtsezko baldintzak zerrendatzen dira, zehazkiago esanda, iraunkortasuna, segurtasuna, osasungarritasuna, ingurugiroa, zarataren kontrako babesa, energi-aurrezteak, eta abarrei buruzkoak.

Gainera, ezargarritzat jotzen ditu bai ENB eta bai CENELEC deritzen arauak, hots, Europako Normalkuntza Batzordeak prestatutakoak, eta honelakorik ez dagoenean bakarrik onartzen du nazio bakoitzeko arauen balioa. Zuzendaritzaren funtsezko irizpidea zera da: onartzen diren arau bateratzaileek ondo zehaztu behar dutela zer lortu behar den, eta ez nola lortu.

Bestalde, ekoizpenetarako EK Marka ere sortu du, hau da, zuzendaritzaren baldintzak betetzen dituela ziurtatzen duena, eta, orobat, ekoizpenaren baliozkotasuna egiaztatzeko bide bat finkatu du.

Zuzendaritza honen irizpideak jaso egin dira Espainiako legerian, eraikuntz-ekoizpenen joan-etorri librerako aginduak ematen dituen abenduaren 29ko 1.630/92 EDren bitartez (1993ko otsailaren 9ko EBO, 84. zk.).

#### 7.4.3.2. Babes ofizialeko etxebizitzan

I. Eraikuntzaren oinarritzko araei, arau teknologikoei eta Eusko Jaurlaritzaren 467/91 Dekretuari dagokienez etxebizitza libreaz esan dugun guztia babes ofizialeko etxebizitzetara ere ezar dakieke, 1976ko azaroaren 24ko eta

1977ko maiatzaren 17ko Ministeritzaren aginduen kontrakoa ez den neurrian.

II. Babes ofizialeko etxebizitzaren kalitatea arautzen duten azken ebazpen horiek eranskin luze-zabal batean jasota dauzkate eraikuntzan erabiltzen diren langaiei eta egiten diren ekintzei ezarri beharreko kalitate-arau teknikoak.

#### 7.4.4. Eraikuntz-akatsen erantzukizuna

1. Ondoan, eraikuntza baten akatsak agertu direnean etxe-erosleak bere eskubideak zaintzeko dituen bideak aztertuko ditugu.

2. Azalpen sistematikoa egin nahi badugu, atal honetan ere bereizi beharko ditugu etxebizitza librea eta babes ofizialekoa, zeren eta azken honetan erantzukizun-jaurpidea aldatzen eta osatzen duen eskuhartze administrati-boa baitago.

##### 7.4.4.1. Salmenta libreko etxebizitzan

Etxe bat saltzen duenak, sustatzailea izan edo norbanakoa izan, egoera onean eman behar du saldutakoa, eta akatsik izanez gero, konpontzera behar-tuta dago.

Lege-jaurpidea desberdina da etxebizitzaren ezaugarrien arabera, baina edonola ere, bi alderdiak ados jartzen ez badira, erosleak auzibidera jo beste aukerarik ez du izaten, berez gogaikarria eta garestia izan arren.

Eraikuntzaren akatsak munta gutxikoak edo azken ukitukoak badira, erosleak sei hilabeteko epea dauka saltzailearen aurkako auzia jartzeko Lehen Auzipidetarako Epaitegian, Araudi Zibilaren 1.484 eta 1.490 artikuluen babesean.

Aldiz, akatsak egiturazkoak edo garrantzi handiagokoak badira, Araudi Zibilaren 1.591 artikulua babesean, erosleak hamar urteko epea dauka eraikuntza amaitu zenetik, obraren sustatzailearen edo zuzendari teknikariaren kontra jotzeko.

Oso garrantzitsua da 1.591 artikulua hori, eta ondoren azpimarratuko dugu, izan ere, auzitegi-epaileek modu zabalagoan ulertzen dutenez, maiz ezartzen den oinarritzko arau bilakatu da.

Hona hemen Araudi Zibilaren 1.591 artikulua dioena:

“Eraikuntz-akatsen ondorioz hondatzen den eraikin baten kontratistak kalte eta hondamenen erantzukizuna dauka, horiek hamar urteko epearen barruan gertatzen badira eraikuntza amaitu zenetik; erantzukizun berbera, eta denbora berberaz edukiko du eraikuntza-lanak zuzendu zituen arkitektoak ere, hondamena lurraren edo zuzendaritza-lanaren akatsagatik gertatu bada.

Bestalde, hondamena kontratistak kontratu-baldintzak ez betetzeagatik gertatu bada, orduan kalteak ordaintzeko beharrak hamabost urtez iraungo du.”

Hortaz, arau horren funtsezko oinarria hauxe da: erosleari etxea ematen zaionean egiten den azterketa ez dela nahikoa etxebizitzak eduki ditzakeen eraikuntz-akats guztiak antzemateko. Aitzitik, beharrezkoa da halako denbora tarte bat igarotzea, proba moduan, eraikina amaitu zenetik hasita hamar urtekoa legearen arabera, akats horiek azal daitezten. Ondoren, sustatzaile edo kontratistari eta arkitektoari, aparejadoreari edo obra-zuzendariari egozten die *ex lege* erantzukizuna.

Artikulu horretan jasotzen den hondamen kontzeptuaren esanahia zabaldu egiten da jurisprudentzia-ulerkera horren bidez; izan ere, ohizko edo munta gutxiko akatsak baino garrantzitsuagoak izanik, salerosketa-kontratuaren haustura dakarten eraikuntz-akats guztiak ere hartzen ditu bere barne.

Gainera, auzitara jotzeko ekintza pertsonala hamabost urteko epearen barruan egin daiteke, eta etxearen ondorengo beste erosleei ere iristen zaie.

Ezinezkoa bada ondo zehaztea zein den eragile bakoitzaren erantzukizuna, edota faktoreetako bakoitzak zein neurritako eragina izan duen, orduan erantzukizuna baterakoa dela ulertzen da.

Esan gabe doa, oso interesgarria eta argigarria izango litzateke Araudi Zibilaren 1.591 artikulu horren idazkera aldatzea, bai behintzat jurisprudentzia-ulerkera horren arabera moldatzeko, hitzez hitzeko adierazpenak hobeto jaso dezan bere egiazko edukia.

Hasieran adierazi dugun bezala, oso ohizkoa da enpresen jardunean sustatzaileek zenbait merkatal-elkarte sortzea halako etxebizitza batzuk sustatzeko; horrela, eraikuntza amaitu eta higiezinak saldu ondoren, merkatal-elkartea domugabetu egiten da, eta ondoren beste merkatal-elkarte bat eratzen da, beste nonbait etxegintza-lan bat sustatzeko.

Elkarte horiek ez dira deuseztatzen, eta horregatik, domugabetu ondoren ere agertzen dira Merkatal Erroldan.

Entrepresa hori elkarte bati eraikuntz-akatsengatik erantzun beharra ezartzen dion epaiaren aurretik domugabetzen bada, epai hori bete ezina gerta daiteke, eraikina konpontzeko gastuei aurre egiteko domurik ez dagoelako.

Abenduaren 22ko 1.564/1989 Erret Lege-Dekretuaren bidez onartutako Elkarte Anonimoen Legeak (EAL), kasu batzuetan, aukera ematen du elkartearen arduradunen ondasunen kontra jotzeko, zabarkeria gertatu bada; hau da, entrepresa batek bere beharrei aurre egin ezin dienean Legeak jarrita dituen bideetara jo ez bada, eta elkartearen betebeharririk funtsezkoenak ere bazter batean utzi izan badira.

Horrela, izandako galerengatik elkartearen hartzekoan domuaren 2/3etik behera geratzen bada eta hori berreskuratu gabe igarotzen bada urtealdia, EALko 163. artikulua domua murriztera behartzen du. Eta, bestalde, galeren eraginez hartzeko elkartearen domuaren erdiaren azpitik geratzen bada, orduan EALko 160.4. artikulua elkarte anonimoa legez haustera behartzen du.

Legeak ez ditu arrakasta izatera behartzen arduradunak, baina bai eskatzen die merkatarri arruntaren jardunbidearen arabera jokatzeari; hartara, enpresan halako egoera okerren bat gertatuz gero, arduradunek derrigorrezko

zeregin hauek bete beharko dituzte, kasuan kasuan: domua murriztu (EALko 163. art.), elkartea legez hautsi eta deuseztu (EALko 260. art.), edo ordainke-  
ta-etena edo porrota adierazi.

EALko 262.5. artikulua arabera, elkartea legez hausteko erabakia hartu behar duen akziodun-batzar orokorra bi hilabeteko epean biltzeko zere-  
gina betetzen ez duten arduradunek batean erantzun beharko diete elkarteren  
betebeharrei. Orobat, beste horrenbeste gertatuko da, arduradunek ez badute  
epaibidez elkartea deusezteko eskaria egiten bi hilabeteren epean, batzarra  
biltzekoa zen egunetik hasita (berori osatu ez denean), edota batzarrak deusez-  
tearen kontrako erabakia hartzen duen egunetik hasita.

Esandakoari jarraituz, elkarre anonimoak dirubiderik eta, beraz, ordain-  
tzeko gaitasunik ez duenean, haren arduradunek hartu ez badituzte EALren  
arabera hartu behar zituzten neurriak -eta hori oso sarritan gertatzen da-,  
arduradunei konponketa gastu guztiak ordain ditzaten eska lekieke (eta gainera  
batean erantzun beharko lukete), haien ordez Administrazioak konpontzen  
dituenean enpresa sustatzaileari egozteko moduko eraikuntz-akatsak.

#### 7.4.4.2. Babes ofizialeko etxebizitzan

Babes ofizialeko etxebizitzaren erantzukizun jaurpidearen ezaugarri nagu-  
sia Administrazioaren partaidetza da; izan ere, Administrazioak eskumena  
dauka sustatzailea edo kontratista eraikuntz-akatsen konponketa-lanak egitera  
behartzeko.

Babes Ofizialeko Etxebizitzetarako Araudiko 153. c) 6. artikulua ara-  
bera, obra baten sustatzaileak, eraikitzaileak edo fakultatiboak oso lege-hauste  
larria burutzen dute, eraikuntzari behin-betiko zermugapena ematen zaionetik  
hasita bost urteko epearen barruan haien zabarkeriarengatik akatsak edo hon-  
damenak gertatzen badira; horretaz gainera, bere 155. artikuluari jarraituz,  
edozein zigorren osagarri gisa, eraikin hondatua onartutako egitasmoaren  
arau teknikoan eta eraikuntz-arauen arabera moldatzeko obrak egitera behar-  
tzen du lege-hauslea.

Konponketak egitera behartzen duen irizpide hori bera erabil daiteke  
beste kasu batean ere: alegia, inolako lege-hausketarik egon ez arren, konpon-  
keta premia duten eraikuntz-akatsak agertzen badira bost urteko epearen  
barruan. Kasu horretan, Araudiko 111. artikulua arabera, "sustatzailea lan  
horiek egitera edota ordaintzera behartu ahal izango dute".

Bere etxebizitza berrian era honetako eraikuntz-akatsak aurkitzen dituen  
hiritarrak duen azken bermea Administrazioak konponketak egitera behartze-  
ko duen ahalmena da. Eta berme hori egiazkoa izan dadin, Administrazioak  
ahalmena eduki behar du arduraduna lan horiek egitera behartzeko eta, hala-  
ber, berak lan horiek haren ordez egiteko.

Babes Ofizialeko Etxebizitzetarako Araudiak badu arazo hori konpontze-  
ko bide bat, izan ere, bere 168. artikulua 2. lerroaldian finkatzen duenez,  
isun baten osagarri bezala konponketa-lanak egitea agintzen bada, Administra-  
zioak berak egin ditzake lan horiek ordezkatzeko bidez, baina sustatzailearen  
kontura, Administrazio-Jardunbidearen Legearen 104. b) artikulua arabera.

Azken artikulu horrek araupetzen du ekintza administratiboak derrigorrez burutzeko aukera, eta, hari jarraituz, derrigor-tuta dagoenak ezer egiten ez badu, orduan haren ordezkarioak berak har dezake bere gain zeregin hori. Hortaz, araudiak lanak ordezkatzeko bidez egitea iragarri ez badu ere, ekintza administratiboak derrigorrez burutzeko aukerari buruzko teoria orokorra erabiliz jo daiteke bide horretatik.

Eraikin batean akatsak daudenean inolako isunik ez badago, 111. artikulua argi eta garbi adierazten du "lanak egitea behartu daitekeela sustatzailea eta bere kontura egin".

Horretaz gain, Etxebizitza Politikari buruzko azaroaren 10eko 3.148/78 Erret Dekretuko 58. artikuluari jarraituz, "zereginen bat ordezkatzeko bidez egitea jo daiteke, ezarritako eginbeharrak berez horretarako aukera ematen badu", bai behintzat zigor-espedituetan jasotako ebazpenen kasuetan.

Jarraian, 59. artikulua dioenez, obrak amaitu gabe egonez gero, sustatzailearen kontura egingo dira lanak, ordezkatzeko bidez egiten badira.

Orain arte esandakoari begiraturik, babes ofizialeko etxebizitzetarako lege-jaurpidea berez baliatzen da Administrazioak ordezkapenez lanak egiteko bidez, beharrezkoa denean, etxebizitza sozialak ongi eta zuzen eraikiko direla bermatu asmoz.

Horregatik, Administrazioaren jarduna eta bere arauak ez datoz bat, eta askotan ikusten da oso salbuespenezko kasuetan jotzen duela Administrazioak ordezkatzeko bidera. Urte urte, administrazio-geldokeria hori agertzen da Estatuko Herri Defendatzailearen eta komunitate autonomoetako defendatzaileen txostenetan, horren ondorioz babesik gabe geratzen baitira eraikuntz-akatsak dituen babes ofizialeko etxebizitza erosten duten hiritarrak.

Etxebizitzaren alorrean Administrazioaren jardunbideak eraginkorra eta egilea izan behar duela uste badugu; onartzen badugu Babes Ofizialeko Etxebizitzaren Araudiaren eta 3.148/78 EDren arabera derrigorrezkoa dela eraikuntz-akatsak konpontzea, eta, orobat, Administrazioak baduela ordezkatzeko bidez jotzeko ahalmena; eta, gainera, kontutan hartzen baditugu Administrazioaren ekintzak jarraitu behar dituen legez-kotasun eta eraginkortasun irizpideak, Konstituzioaren 103.1. artikulua arabera, orduan ez da zentzuzkoa Administrazioak erabaki bat hartzea eta gero ez erabiltzea Zuzenbideak eskura jarritzen dizkion bidez guztiak (eta horien artean dago bidez ordezkatzeko bidera jotzea sustatzailearen kontura) erabaki hori egiteko gauza dadin, babesik gabe uzten baititu eraikuntz-akatsak kaltetutako hiritarrak.

#### **7.4.5. Eraikuntz-akatsen ondorioz gertatzen diren kalteen kontrako aseguruak**

Etxe-eroslea eraikuntz-akatsetatik babesteko modu bat bermea sortzea da, adibidez, kreditu-erakunde baten gaudimen edo aseguru-poliza, sustatzaileak kalteagatik duen erantzukizuna betetzen ez badu, erosleak horietara jotzeko aukera izan dezan.

Proposamen hori arau bidez jasota geratu zen Babes Ofizialeko Etxebizitzetarako 1968ko Araudiko 111. artikuluan; izan ere, horren arabera, sustatzailea ofiziala ez zenean, Instituto Nacional de la Vivienda (INV) delakoak aseguru bat egitera behar zezakeen, gehienez ere bost urteko eperako; hala eta guztiz ere, Administrazioaren jardunean, ordea, INVk ez zien aseguru hori eskatzen sustatzaileei.

Gaur egun, Etxebizitza Politikari buruzko azaroaren 10eko 3.148/78 EDren ondorioz indargabetua dago aurreko leerroaldian aipatu dugun araua. Dekretuko 17. artikulua aditza ematen du zeintzuk diren babes ofizialeko etxebizitza baten behin-betiko zermugapenarekin batera aurkeztu behar diren agiriak, eta haien artean ez dago aseguru-poliza eratu dela egiaztatzea; beraz, kontrako adieraren bidez azalduz, ez da derrigorrezkoa asegurua eratzea. Ulerkera hori bukaerako lehen xedapenean ere oinarritzen da, haren arabera indargabetuta geratzen baitira 3.148/78 EDk finkatutakoaren kontrako beste ebazpen guztiak.

Legeria autonomikoak apenas heldu dion eraikuntz-akatsak eragindako kalteen aurkako berme edo aseguruaren bide honi. Bai, ordea, Kataluniako Etxebizitzari buruzko 24/91 Legeak; izan ere, haren 15. artikulua arabera, sustatzaileek behar adinako bermea emango diete erosleei, eraikuntz-akatsak eta haiek eragindako kalteak konpontzeko lanak aseguratzeko. Gainera, sustatzailearen izaera juridikoa deuseztu arren, erantzukizun horrek bere hartan jarraituko duela dio, bai eta notariak eta jabetza-erroldatzaileek, beren zereginak betetzean, berme hori betetzen dela egiaztatzea eskatuko dutela. Alabaina, ebazpen horren ezarpena atzeratu egin da, harik eta aseguru motak, epeak, zenbatekoak, asegurubideak etab., finkatu behariko dituen araudia onartu arte.

Beste alde batetik, Herrilan eta Garraio Ministeritza prestatzen ari den Etxebizitza Antolatzeko Lege-egitasmoaren zirriborroetan proposatzen denari jarraiki, sustatzaileari derrigorrezko asegurua ezarriko zaio berme-epeak dirauen bitartean eraikuntz-akatsak eta kalteak estaltzeko, eta baita auzibidezko ekintzena ere.

Berme moduan, aurregitasmoak ezartzen ditu bermatzeko aseguru-kontratua, erantzukizun zibilarena, bai banku-gaudimena ere, horrela, aseguruarria ordaindu ez dela esanez, erantzukizunetik iare gera ez dadin aseguratzailerak. Obra egiteak balio duen diru-kopurua da aseguratzen den domua, lurra sartu gabe. Bestalde, asegurua egiteko betebeharra betetzen ez bada, aurregitasmoaren arabera enpresariak berak edo enpresaren arduradun eta eskudunek denek batera erantzun behar dute, bai une horretakoek, bai aurre-aurreko lau urteetan kargu horietan jardundakoek.

Lege-ahalegin horiek argi asko erakusten digute beharrezkoa dela erosleari berme handiagoa ematea eta, era berean, sustatzaileari erantzukizun handiagoa eskatzea gerta daitezkeen kalteak aseguratuz.

Alabaina, aipatzekoa da inoiz ez direla erabili era honetako neurriak, eta, beraz, ez dakigula nolako zeharkako ondorioak eduki ditzaketen. Esate batera-



ko, neurri bermatzaile hauek nahiko garestiak direnez gero, pentsatzekoa da horrek garestitu egingo diola erosleari etxebizitzaren bukaerako salneurria.

Banku-gaudimeneke finantz-kostu finkoa dute, eta aseguru-kontratu batekin berekin ekarriko luke aseguru-konpainiak bere teknikariak izendatu beharra aseguratutako obra bide onetik doala ziurtatzeko, eta horren ondorioz, kostua areagotu eta, hortaz, aseguru-sariaren zenbatekoa gehitu egin beharko litzateke.

Oso kontutan eduki behar da legeria eta sustapenerako neurri desberdinen bidez, Administrazioak ekimen pribatua bereganatu nahi izan duela beti etxebizitzak eraikitzeko, eroste-ahalmen gutxiko hiritarren eskari handia nolabait ase ahal izateko.

Sustatzaile pribatuek dexente doitu behar izaten dituzte beren salneurriak babes ofizialeko etxebizitzak sustatzen dituztenean. Legearen arabera erabili behar den moduluaren arabera etxebizitzaren salneurria finkoa denez gero, eraikuntzari beste kostu bat gehitzen bazaio, orduan etekinak murriztu egiten dira, eta horrek atzerazi egingo litzuzke sustatzaileak.

Horregatik, erantzukizunak aseguratzeko neurriak hartzen badira, zuhurtasun eta tentu handiz jokatu behar da, gertatzen diren zeharkako ondorio txarregatik, neurri horiek alferrekoak izan ez daitezten.

#### 7.4.6. Ondorioak

**1.** Espainiako Konstituzioak bere 47. artikuluan etxebizitza egoki eta duina, hau da, gutxienezko osasungarritasun eta bizigarritasun baldintzak betetzen dituena, edukitzeko eskubidea aitortzen die espainiar guztiei.

Gainera, agintari publiko guztiak hartzen ditu barne, inolako salbuespenik gabe, eta administrazio-ekintza egokia aurrera eramatera behartzen ditu, esku-bide sozial hori eraginkorragoa izan dadin.

**2.** Euskal Autonomi Estatutuaren 10.31. artikulua arabera, Euskal Autonomi Elkarreke eskumen alderazle edo eskusiboa dauka etxebizitza alorrean. Eskumen hori eskualdaketarako 3.006/81 Erret Dekretuaren bitartez gauzatzen da, 2.628/85 EDk osatzen duen delarik, eraikuntzaren kalitate-zaintzari dagokionez.

**3.** Eraikuntzen prozesua ikuskatzearen, etxebizitza erosten duen hiritarri bermeak emateko neurriak har ditzake Euskal Autonomi Elkarreke, gerta daitezkeen eraikuntz-akatsen kalteen aurrean babestua egon dadin.

**4.** Arreta bereziz ziurtatu behar da eraikuntza guztietan egoki betetzen direla ezarri beharreko oinarriko arauak eta arau teknologikoak, eta horretarako bidezko kalitate-ikerketak eta saiok egin beharko dira. Beraz, obra-zuzendariak, aparejadoreek eta arkitektoek, erantzukizun hori beren gain hartuz, zorrozki bete behar dute Eusko Jaurlaritzaren 467/91 Dekretuak kalitate-zaintzari buruz finkatzen duen guztia.

**5.** Eraikuntza-lanetan diharduten profesional guztiak beren arduraz jabe daitezten ahaleginak egin behar dira, erantzukizun hori sustatuz eta kalitateko

etxebizitzak lortzeko beren ekarpena guztiz garrantzitsua dela ikusaraziz. Ondasun iraunkorra izanik, eraikuntza batean gertatzen den edozein akatsek ondorio txar eta luzarokoak izaten ditu, etxetiarren bizimoduan eragin nabarmena dutenak.

**6.** Etxebizitza sozial eta babes ofizialekoetan, eroste-ahalmen gutxiko biztanleentzat izan ohi direnez, arkitektura eta diseinu mailan erabilitako bitartekoez, etxeek luzaro eta mantenu-kostu urriaz iraun dezaten saiatu behar dute; izan ere, frogatuta dago horrelako etxeetan bizi direnek oso diru gutxi xahutzen dutela eraikuntza iraunarazten.

Orobat, interesgarria litzateke Eraikinaren Liburuaren antzeko zerbait eratzea, Katalunian bezalaxe, eta liburu horrek eraikuntza-lanetan esku hartzen duten egile guztiak zehaztu eta higiezina bere material eta instalazioez deskribatzeaz gain, eraikinaren jabeek burutu behar dituzten lanei buruzko teknika-arauak jasoko litzuzke, eraikina hobeto mantendu eta irauneraztearren; horrela, eraikina arin-arin hondatzea eragotziko litzateke.

**7.** Gaur egungo legeriak (hau da, Babes Ofizialeko Etxebizitzetarako Araudiko 153. eta 168. artikuluek, eta 3.148/78 Erret Dekretuko 58. eta 59. artikuluek) argi eta garbi dio Administrazioak ordezkatzeko bidez egin beharko dituela eraikuntz-akatsak konpontzeko lanak, sustatzaileak berak egiten ez baditu betebeharra ezartzen zaionean.

Duela oso gutxirarte, Sailen lurralde-ordezkaritzek jarduera ezegokiak izaten zituzten zigor-espedienteen biderapenean, eta administrazio-ekintza soil-soilik sustatzailearen kontra zuzentzen zuten, eraikuntza-prozesuan parte hartzen zuten gainerakoak, hots, eraikitzailea eta fakultatiboak ahaztuz; gainera, obrak burutzea agintzen zuten behin-betiko administrazio-erabakiak nahitaez betearazten ziren behartzezko isunen ezartze hutsaren bitartez, horrela Administrazio Jardunbideari buruzko Legearen 104. b) artikuluan ohartematen den ordezkoko betetazpen-sistema guztiz bazter uzten zelarik.

Gorabidezko errekurtsioen ebartzeko aginduek, azken urtean emandakoek, zuzendu egin dituzte jarduera oker horiek, eta, hortaz, erantzukizunak eraikuntzan interesa dutenen guztien artean ebazten dira, egiaztaturiko eraikuntz-akatsengatik ardura solidarioa eskatuz, akats horien erantzule bakarra ez dagoenean.

Gainera, ordezkoko betetazpenei ekin zaie, behartzezko isunak ezarri arren, ebazpenak betetzea lortu ez denean.

Horregatik, gure iritziz, komenigarria izan liteke honen moduko gastuei aurre egiteko beharrezko aurrekontu-atalak izendatu eta ezartzea.

**8.** 149.1.8. artikulua dioenez, legegintza zibila Estatuaren bete-beteko aginpidea bada ere, gure iritziz, komenigarria da, jardunbidezko arrazoi batenagatik, gai honetan beharrezkotzat jotzen diren eta agian burutu daitezkeen arau-aldaketei buruzko zenbait zehazpen egitea.

Horregatik, oso premiazkoa da eraikuntz-akatsen erantzukizunari buruz indarrean dagoen jaurpidea berrikustea, batez ere Araudi Zibileko 1.591 artikulua zaharkituak batez ere osatzen duena, eta jurisprudentzia-doktrina landu eta zabalaren arabera berrinterpretatzea.

**9.** Akatsen erantzukizuna eskatzeko ezarritako epea (hamar urte eraikuntza amaitu zenetik hasita) eta auzibidera jotzeko epea ere (ekintza pertsonala izanik, hamabost urte akatsak agertzen diren unetik hasita) berrikusi beharko lirateke.

Epe luzeegi horiek lege-segurtasunik eza sortzen dute, 25 urteko epea uzten baitu auzibidera jotzeko, baina erosleen bermeak funtsean gehitu gabe. Babes ofizialeko etxebizitzan alorra araupetzen duen legeriak berak jarria du epe laburragoa, bost urtekoa, eraikuntz-akatsak konpontzera behartzeko.

Ararteko erakunde hau sustatzailearen erantzunkizun-epea murriztu edo, gutxienez, eraikuntzaren osagai desberdinen arabera mailakatzearren aldekoa da.

**10.** Eraikuntzan parte hartzen duten eragile guztien erantzukizuna sustatu eta ondo mugatu behar da, bakoitzak dagokion ardura bereganatuz dezan eraikuntzan egindako lanarengatik, baina eroslearen aurrean baterako erantzukizunaren irizpidea bere hartan utziz.

**11.** Bide eraginkorrak bilatu behar dira etxe-eroslea eraikuntz-akatsetatik babesteko, higiezinaren joan-etorri juridikoan parte hartzen duten alderdi guztien arteko oreka bilatuz. Ez da ahaztu behar etxea erostea bizitzako diru-inbertsiorik handiena izaten dela hiritarrentzat.

Illo horretatik, zuhurtasunez eta neurritz jokaturik, sustatzaileei banku-gaudimena edo aseguru-poliza egin dezaten eskatzea komeni den aztertu beharko litzateke, beren erantzukizun zibila estaltzearen eta gertatzen diren eraikuntz-akatsen konponketa bermatzearen.

VIII. ATALA  
**AZKEN ONDORIOAK**

Ararteko Erakundea sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legeak bere 32.2. artikuluan dioenez, eskubideekiko babesaren Euskal Autonomi Elkartearen oro har zein egoeratan dagoen aztertu behar da Legebiltzarrari urtero aurkezten zaion txostenean.

Erakunde honen ohizko bostgarren txostena amaitzen duen atal honetan, beraz, urtealdi honetan herri-agintariek euskal hiritarren eskubideekiko nolako jarduera izan duten balioztatuko dugu.

Ararteko Erakundearen lehen agintaldia bukatzeaz dagoenez, ikuspegi zabalxeagoaz ekin diezaiokegu lan horri, bai eta baieztatu ere euskal hiritarren eskubideen egoera aztertzean antzeko arazoak topatu izan ditugula Erakundeak jardunean emandako lehen bost urteotan.

Legeak ezinbestean eskatzen digun balioespen hori egitearren, Ararteko Erakundeak zuzenean aztertuko du zein egoeratan dauden giza eskubideak Euskal Autonomi Elkartearen, bai hiritarrek berek aurkeztutako kexen bitartez, bai Arartekoaren beraren berarizko ekintzen bitartez.

Hortaz, ezin aztertuko ditugu Arartekoaren eskumenekoak ez diren administrazioen jokoerak.

Arartekoaren agintaldiko bost urteotan azaldu dugun bezala, berriro ere adierazi beharko dugu oso gutxi izan direla Espainiako Konstituzioaren I. idazpuruaren bigarren kapituluko lehen zatian aipatzen diren eskubide batzuei buruzko kexak.

Haietako gehienek berdintasun-irizpidearen ustez hautsi zela agertzen zuten, edota funtzio publikora berdintasun mailan sartzeko eskubidea, Espainiako Konstituzioaren 23.2. artikuluan jasotzen dena, ustez urratzen zuten egoerak salatzen zituzten.

Aurkeztu dizkiguten beste kexa batzuk epailaritzaren babes eraginkorrerako eskubidea ustez betetzen ez dela salatzen dutenen artean sar genitzaake.

Aurreko urtealdietan bezalaxe, 1993an ere ez da funtsezko eskubideen edo askatasun publikoen inguruko kexarik bideratu, lehenago aipatutako horiek izan ezik.

Hortaz, Arartekoak ez du jaso elkartzeko, parte hartzeko eta biltzeko eskubideei buruzko erreklamaziorik, ez eta askatasun ideologiko edo erlijiosoari buruzkorik ere.

Bizitzeko edo pertsonen gorputz osotasunerako eskubideen ustezko urratzei buruzko kexarik ere ez zaigu iritsi azken urtealdi honetan, Arartekoaren kontrolpeko administrazioen autonomikoaren eta tokikoen ekintzei dagokienez.

Funtsezko askatasun eta eskubide horietakoren bat ustez hautsi izanagatik Estatu Administrazioaren ekintzen aurka aurkeztutako kexak, berriz, horretarako eskumena daukan erakundeari bidali zaizkio azter ditzan, alegia, Estatu Herri Defendatzaileari.

Eskubide horien artean ez dugu heziketakoa sartzen, nahiz eta I. idazpuruaren 2. kapituluko 1. zatian sartuta egon; izan ere, eskubide sozial klasikotzat har genezake, berez Konstituzioko 53.1. eta 2. artikuluen babes berezia eduki lezakeen arren.

Heziketakoko eskubidearen ustezko hausteak salatzen dituzten kexei dagokienez, aipa dezagun 1993 urtealdi honetan bi gertakari garrantzitsu izan direla, agintari publikoek funtsezko eskubide hori bete eta gauzatzekoan nagusituko diren irizpide eta jarraibide juridikoak argitzeko balioko dutenak: hots, eskola-ituna eta bere arauketa.

Izan ere, aipagarria da heziketaren alorreko indar politikoa eta sozialen artean lortutako eskola-itunaren garrantzi handia.

Gainera, horren ondorioz, eskubide horri mamia emango dioten bi arau ere onartu dira, bata bestea bezain garrantzitsua: Euskal Eskola Publikoaren Legea eta Irakaslegoaren Legea.

Heziketakoko eskubideari dagokionez, hizkuntz arazoak izan dira iritsi zaizkigun kexa gehienen gai nagusia.

Hala ere, urtealdi honetan ere aurkitzen dugu azken bost urteotan behin eta berriro azaldu zaigun zerbait; alegia, kexa gehienak Espainiako Konstituzioko 103.1. artikulua hausteagatik edo gizarte-eskubideak deritzenak ez betetzeagatik aurkezten direla.

Izan ere, aipatu dugun xedapen horren arabera, herri-agintaritzak alderdikeriarik gabe guztien interesen alde jokatu beharra dauka eta bere jardura Legeari eta Zuzenbideari atxiki.

Beraz, kexarik gehien eragiten dituzten arazoak hiritarren eskubideak kaltezen dituzten legeria arruntaren lege-hausteak izaten dira.

Era berean, Konstituzioko lehen idazpuruaren II. kapituluan, "Politika sozial eta ekonomikoaren gida-oinarriez" izeneko zatian zehazki sartuta dau den eskubideak dira, oro har, ombudsman deritzenen berezko ekintza-esparrua, eta horietan lortzen dute beren proiektiorik handiena era horretako erakundeek.

Aurten ere, joan den urtean bezala, Funtzio Publikoa eta Administrazioaren Antolakuntza atala izan da kexarik gehien eragin dituen.

Hori Administrazioaren eta funtzionarioen arteko gatazkengatik eta batez ere langabezia handiko egoeragatik gertatu da, gaur egun lanpostu publikoak berdintasunez eskuratu ahal izateko aukera, bereziki babestu beharreko balioztat jotzen dutelako hiritarrek; horregatik, honelako lanpostuak betetzeko hautaprobek argiak eta Zuzenbidearen arabekoak izan behar dute.

Begibistakoa da, gainera, administrazio-antolakuntza deitzen dugun horrek oso neurri handian Administrazioaren eta administratuen arteko harremanekin duela zerikusia, eta harreman horietan hiritarrek gero eta hobeto

dakite zeintzuk diren beren eskubideak eta, beraz, baita herri-agintarien bete-beharrak ere.

Isiltasun administratiboaren erabilera okerrak, informaziorik ezak, eta akatsez egindako administrazio-jakinazpenak edo jakinarazpenik ez egiteak, babesgabezia eragin dezaketen neurrian, kexa ugari eragiten dituzte eta askotan Ararteko erakunde honen eskuhartzea eskatu dute.

Zoritxarrez, jarduera onartezin horietako batzuk oso hain sustraituak daude administrazio publikoetan, ezen horiek zuzentzeko ez baita nahikoa arau mailako irtenbideak jartzea; jarrerak aldatzea ere eskatzen dute, hiritarren eskubideei behar bezalako begirunea erakutsiz, eta Zuzenbidezko Estatu bateko zerbitzu publikoan alderdikeria erauzi behar dela dioen irizpidean oinarrituz.

Konstituzioak bere 53.3. artikuluan dioenez, "III. atalean aitorturiko irizpideak onartu, errespetatu eta babestean oinarrituko dira legeztapen positiboak, epailaritza-bidea eta agintari publikoen jarduna".

Esan daiteke agintari publikoek gizarte-eskubideak bete ditzaten eskatuz jarraitzen dutela Euskal hiritarrek, batez ere beren bizieran eragin handiena dutenak; alegia, osasunerako eskubidea, etxebizitza duina edukitzekoa eta ingurugiro egokia edukitzekoa; izan ere, eskubide horiei buruzkoak dira hainbat eta hainbat kexa eta, orobat, Ararteko honen gomendio anitz ere.

Ondorio hauek azaltzean, ezin aipatu gabe utzi Euskal Autonomi Elkar-tean zaharrentzako egoitzetan eta haientzako bestelako laguntza-zerbitzuetan dagoen hutsune handia. Egoera horixe aurkitu dugu berariz hasitako ikerketa batean, eta horregatik behin eta berriz adierazi behar dugu zeinen premiazkoa den agintari publikoek ardura handiagoa har dezaten bere gain gizartearen arazo garrantzitsu honi aurre egiteko.

INFORME DEL ARARTEKO  
AL PARLAMENTO VASCO  
AÑO 1993



© ARARTEKO

Fotocomposición e impresión: Estudios Gráficos ZURE, S.A.

Papel reciclado.

I.S.B.N.: 84-87122-54-X Obra completa.

D.L.: BI-736-94



INFORME  
AL PARLAMENTO VASCO  
1993

# INDICE

<b>CAPITULO I. PRESENTACION DEL ARARTEKO .....</b>	<b>13</b>
<b>CAPITULO II. PRINCIPALES ACTUACIONES DEL ARARTEKO .....</b>	<b>19</b>
2.1. RELACION CRONOLOGICA DE ACTIVIDADES DE LA INS- TITUCION.....	22
2.2. CONVOCATORIA DE DOS BECAS DE COLABORACION PARA 1993/1994.....	29
2.3. PUESTA EN MARCHA DE LA COLECCION SOBRE DERE- CHOS HUMANOS "PADRE FRANCISCO DE VITORIA" Y OTRAS PUBLICACIONES .....	30
2.4. ACTUACIONES DE OFICIO.....	31
2.5. III CONFERENCIA EUROPEA DEL OMBUDSMAN .....	38
2.6. ASAMBLEA ANUAL DEL INSTITUTO EUROPEO DEL OMBUDSMAN .....	42
2.7. VIII JORNADAS DE COORDINACION ENTRE DEFENSORES DEL PUEBLO.....	43
<b>CAPITULO III. RESUMEN DE LAS QUEJAS POR AREAS.....</b>	<b>51</b>
3.1. AGRICULTURA, INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO.....	53
A) Introducci3n .....	53
B) Selecci3n de quejas .....	54
3.2. CULTURA Y BILINGÜISMO .....	57
A) Introducci3n.....	57
B) Selecci3n de quejas.....	58
3.3. EDUCACION.....	62
A) Introducci3n.....	62
B) Selecci3n de quejas.....	63
3.4. FUNCION PUBLICA Y ORGANIZACION ADMINISTRATIVA	78
A) Introducci3n.....	78
B) Selecci3n de quejas.....	79

3.5. HACIENDA .....	97
A) Introducción.....	97
B) Selección de quejas.....	98
3.6. INTERIOR .....	106
A) Introducción.....	106
B) Selección de quejas.....	107
3.7. JUSTICIA .....	111
A) Introducción.....	111
B) Selección de quejas.....	112
3.8. MEDIO AMBIENTE .....	114
A) Introducción.....	114
B) Selección de quejas.....	115
3.9. OBRAS PUBLICAS Y SERVICIOS.....	123
A) Introducción.....	123
B) Selección de quejas.....	124
3.10. SANIDAD Y BIENESTAR SOCIAL.....	127
A) Introducción.....	127
B) Selección de quejas.....	128
3.11. TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL.....	138
A) Introducción.....	138
B) Selección de quejas.....	139
3.12. URBANISMO Y VIVIENDA .....	141
A) Introducción.....	141
B) Selección de quejas.....	142
3.13. GESTIONES DIVERSAS.....	151
A) Introducción.....	151
B) Selección de quejas.....	152
<b>CAPITULO IV. ESTADISTICA.....</b>	<b>155</b>
4.1. OBSERVACIONES GENERALES.....	157
4.2. ESTADISTICA POR AREAS .....	160
4.3. ESTADISTICA POR ADMINISTRACIONES AFECTADAS.....	163
4.4. ESTADISTICA TERRITORIAL .....	169
4.5. ESTADISTICA PROCEDIMENTAL .....	171

4.6. ESTADISTICA SOCIOLOGICA.....	174
4.7. SERVICIO DE INFORMACION AL CIUDADANO .....	175
4.8. DIAGRAMAS.....	182

**CAPITULO V. RESISTENCIA DE DETERMINADOS ORGANISMOS ADMINISTRATIVOS AL DEBER DE INFORMAR EN EL PLAZO .....** 215

5.1. RELACION DE ORGANISMOS QUE HAN EXIGIDO SER REQUERIDOS PARA ENVIAR LA INFORMACION SOLICITADA POR EL ARARTEKO .....	218
A) Gobierno Vasco .....	218
B) Diputaciones Forales.....	219
C) Ayuntamientos.....	220
D) Administraciones Corporativas .....	222
5.2. RELACION DE ORGANISMOS ADMINISTRATIVOS QUE HAN EXIGIDO SER REQUERIDOS MAS DE DOS VECES PARA ENVIAR LA INFORMACION SOLICITADA POR EL ARARTEKO .....	223
A) Gobierno Vasco .....	223
B) Ayuntamientos .....	224
5.3. RELACION DE ORGANISMOS ADMINISTRATIVOS QUE HAN EXIGIDO SER REQUERIDOS PARA CONOCER SU RESPUESTA ANTE UNA RESOLUCION DEL ARARTEKO ...	225
A) Gobierno Vasco .....	225
B) Diputaciones Forales.....	225
C) Ayuntamientos.....	225

**CAPITULO VI. CUMPLIMIENTO DE LAS RESOLUCIONES DICTADAS POR EL ARARTEKO .....** 227

A) Gobierno Vasco .....	229
B) Diputaciones Forales.....	233
C) Ayuntamientos.....	235

**CAPITULO VII. SUGERENCIAS Y RECOMENDACIONES DE CARACTER GENERAL.....** 243

7.1. LA INCLUSION DEL COSTO DE LA MAQUINARIA EN LA BASE IMPONIBLE DEL IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS.....	245
---	-----

7.2. LAS GARANTIAS PROCEDIMENTALES QUE HAN DE INFORMAR LOS MECANISMOS SELECTIVOS Y PROVISORIOS DEL PERSONAL AL SERVICIO DE LAS ADMINISTRACIONES PUBLICAS, Y LA FALTA DE APLICACION DE DETERMINADOS INSTRUMENTOS DE ORDENACION DE LA FUNCION PUBLICA.....	250
7.3. EL ACCESO DE LOS EXTRANJEROS A LOS PADRONES MUNICIPALES .....	255
7.4. LA RESPONSABILIDAD POR DEFECTOS DE CONSTRUCCION EN LAS VIVIENDAS DE PROTECCION OFICIAL .....	269
<b>CAPITULO VIII. CONCLUSIONES FINALES .....</b>	<b>289</b>

CAPITULO I  
**PRESENTACION DEL ARARTEKO**



*Iuramentuak ongi, zuzentki eta behar den bidean egina izaiteko, behar ditu hirur gauza, hirur lagun eta sostengu: egia, premia eta zuzena.*

(El juramento, para que sea bien hecho, en justicia y como se debe, requiere tres cosas, tres acompañantes y apoyos: la verdad, la necesidad y la justicia).

Axular, Gero (1643), XIX, pág. 254

El presente informe de 1993 tiene la peculiaridad de que se trata del análisis del último año de ejercicio en el primer periodo de funcionamiento de la Institución del Ararteko.

Esta circunstancia ha motivado que el informe que se entrega este año esté complementado por una segunda parte que recoge una visión global de esta primera etapa. Por lo que respecta al primero de ellos, siguiendo la tradición de años anteriores trata de dar cumplimiento al mandato legal que prevé la entrega de un informe anual donde se dé cuenta de las actividades de la Institución.

La segunda parte no responde al concepto de informe ordinario propiamente dicho, sino que, bien al contrario, trata de efectuar un análisis de los cinco primeros años de funcionamiento de una institución como la del Ararteko, ajena a nuestra tradición jurídico-política, y que se imbrica en el entramado institucional como una institución estatutaria con una finalidad garantista de los derechos de los ciudadanos vascos.

En el informe correspondiente al año 1992 hacíamos referencia a que aquel año de tantas reminiscencias conmemorativas y de expectativas de nuevos horizontes europeos, no debía hacernos olvidar la realidad cotidiana de los ciudadanos vascos y sus problemas en las relaciones con los poderes públicos.

Transcurrido un año, en el ejercicio de 1993 se nos muestra con toda claridad la persistencia de las situaciones que se han ido produciendo a lo largo de este quinquenio de funcionamiento.

Se confirma la tendencia del año anterior, en el que por primera vez el área de Función Pública y Organización Administrativa fue la que más quejas motivó.

El ciudadano exige con mayor firmeza que nunca, si cabe, que las normas de acceso a la función pública sean objetivas y transparentes, y que eviten actuaciones arbitrarias o no ajustadas a la normativa vigente.

Asimismo, esperan de los poderes públicos unas relaciones basadas en la clara consideración de los administrados como auténticos detentadores de derechos.

Es por ello por lo que el Ararteko ha orientado sus actuaciones a conseguir que la Administración asuma realmente el concepto de servicio público, en el sentido más pleno del término.

A lo largo del informe se desgranarán sistematizados los distintos supuestos, agrupados por áreas, que han motivado la actuación del Ararteko, así como la respuesta de la Administración a las cuestiones planteadas.

